Baloratu nahi da ea ikasleak gai diren argindar hornidurako, berokuntzako, airea girotzeko, komunikazioetako, ur hornidurako eta saneamenduko instalazioen sinbologia interpretatu eta erabiltzeko. Horretarako agerian jarri behar dira elementuei eta oinarrizko araudiari buruzko ezagutzak eta instalazio xumeak muntatu eta egiaztatzeko trebetasunak. Ikasleek gai izan behar dute, halaber, hornidura zerbitzuen fakturretako datuak aztertu eta ezagutzeko eta energia-aurrezpenerako egungo teknikak aplikatzeko.

- 2. Zirkuitu elektronikoaren funtzionamendua eta funtsezko osagaiak deskribatzea eta zirkuitu elektroniko arruntak muntatzea, sinbologia egokia erabiliz diseinatu eta gero.**

Ebaluatu nahi da ea ikasleak gai diren zirkuitu elektroniko analogiko sinpleen funtzionamendua ulertzeko eta zirkuitu horietan aldaketak egiteko. Horretarako, zirkuituen oinarrizko osa-

gaien (erresistorea, kondentsadorea, diodoa eta transistorea) ezaugarriak eta eginkizunak jakin behar dira, zirkuituen azterketatik, simulaziotik eta muntaketatik abiatuta.

3. Booleren aljebra erabiliz eragiketa logikoak egitea, planteamendu logikoak prozesu teknikoekin lotzea eta ate logikoen bidez problema teknologiko errazak ebaztea.

Irizpide honen bidez ebaluatu nahi da ea ikasleak gai diren ate logikoak erabiliz zirkuituak diseinatu eta problema logiko erraz bat ebazteko. Booleren aljebra jo behar dute problema ebartziko duen funtzio logiko sinplifikatua lortzeko. Ate logikoen sinbologiari eta funtzionamenduari buruzko ezagutzea baloratuko da, baita fabrikatzaileak emandako informazioaren interpretazioa ere.

4. Hari bidezko eta haririk gabeko komunikazio sistema eta elementuak eta horien funtzionamendua arautzen duten oinarrizko printzipioak aztertu eta deskribatzea.

Baloratu nahi da ea ikasleek ulertzen duten komunikazio sistemen funtzionamenduaren oinarria, hainbat gailuren bidez lortzen dena. Horretarako ondokoak ezagutu behar dituzte: informazioa igortzeko bideak eta horien ezaugarriak, eta informazioa igorri, eraldatu eta babesteko seinale, elementu eta prozesuen motak.

5. Sistema automatikoak aztertzea, haien osagaiak deskribatzea eta automatismo errazak muntatzea.

Irizpide honen bidez baloratu nahi da ea ikasleak gai diren ohiko tresna teknikoetan automatismoen funtzionamendua aztertzeko, begizta irekiko eta itxiko kontrol sistemak bereiziz. Jakin nahi da, halaber, ea ikasleak gai diren zirkuitu sinpleak irudikatu eta muntatzeko, osagai mota hau erabiliz sistema elektriko, hidrauliko, pneumatiko eta mekanikoetan.

6. Sistema automatiko edo robot bat eta haren funtzionamendua kontrolatzeko programa garatzea, ingurunetik jasotzen duen berrelikaduraren arabera.

Baloratu nahi da ea ikasleak gai diren, programazio-lengoaia sinpleen bidez, programa bat garatzeko, beraiek diseinatu eta egin duten gailu tekniko batean jarraibideak bete ditzan.

7. Teknologia hidraulikoaren eta pneumatikoaren aplikazio nagusiak ezagutzea eta sistema mota horren ezaugarriak eta funtzionamendua deskribatzea. Energia hidraulikoaren edo pneumatikoaren bidez eguneroko arazoren bat konponduko duen mekanismoa diseinatu eta egitea, zirkuituak irudikatze behar diren sinbologia eta nomenklatura trebetasunez erabilia.

Sistema hidrauliko edo pneumatiko xumeak diseinatu eta eraikitze gaitasuna ebaluatu behar da. Horretarako ikasleek gai izan behar dute energia hidraulikoaren eta pneumatikoaren ohiko aplikazioak aztertzeko, sistema horiek osatzen dituzten elementuak, horien sinboloak eta funtzioa ezagutu behar dituzte, eta eskemak egin behar dituzte sinbologia eta nomenklatura egokiak erabiliz eta funtzionamenduaren printzipio fisikoak ulertuta.

8. Historian zeharko garapen teknologikoa ezagutzea. Objektu teknikoak eta ingurunearekin duten erlazioa aztertzea eta bizi kalitatean dituzten ondorioak baloratzea.

Irizpide honen bidez jakin nahi da ea ikasleak gai diren asmakizunak eta aurkikuntzak zer nolako ingurunetan gertatu diren azaltzeko: beren garaiko garapen teknologiko, ekonomiko eta soziala, eta ingurunean nahiz erabiltzaileen bizimoduan izan duten eragina. Halaber, objektu teknikoen azterketatik abiatuta, garapen teknologikoari buruzko balio-judizioak eragin nahi dira, eta nola egiten diren baloratu.

Erljioen Historia eta Kultura

Erljioa gizon eta emakume askoren dimentsio pertsonaletako bat da, eta hala izan da. Aldi berean, giza taldeen eta gizartearen egituraren osagai nagusietakoa da gaurko garaian eta munduan. Fededunentzat bederen erljioak sineste, agindu eta errituen multzoak dira, baina badute kultur alderdi bat ere, pentsamenduaren eta artearen munduan eragina dutelako, gaurko gizarteko egitura, ohitura eta usadio askoren jatorrian daudelako eta gizabanakoen nahiz taldeen portaerakodeetan ere eragina dutelako, erljio bakoitzak gizakiaz eta munduaz duen ikuskeraren bitartez.

Ikuspegi horretatik, gizarteek denboran zehar izan duten bilakaera eta iraganeko gizarteek egungo kulturari utzi dioten ondarea ezagutzeko orduan erljioak leku nabarmena hartzen du. Alabaina, gaur egungo munduko aniztasuna beste garai batzuetakoa baino handiagoa da eta horrek badu eragina sinesteetan ere. Gizartea gero eta gehiago sekularizatzen ari da eta aldi berean erljio aniztasuna areagotzen ari da. Horrela, gaurko errealitatean ikusten dugu hainbat eta hainbat sinesmen daudela, erlijiosoak eta bestelakoak, eta erljio aniztasuna ere oso handia dela. Aniztasun horrek, gainera, erljio bakoitzaren zeregina eta garrantzia aldarazten ditu.

Erljioen Historia eta Kultura aukerako irakasgaia da. Sinesmen erlijiosoen eta, zehazkiago, erljio antolatuen azterketa, irakasgai honetan zibilizazioaren elementutzat hartzen da. Ikasleek erljio nagusien eta haien agerpenen nondik norakoak ikasiko dituzte, beste errealitate sozial eta kultural batzuekin lotuta, eta erljioek garai eta leku desberdinetako pentsamolde, kultura eta gizarteetan izan duten eragina ulertuko dute.

Erljio handien ezaugarri nagusien ezagutza horrek bere errealitate historiko zehatzean kokatzen du erljio adierazpena. Ikasleek ikusiko dute erljioek ondorio positiboak eta negatiboak izaten dituztela bai sorleku dituzten gizarteetan bai herrien arteko harremanetan. Erljioaren agerpenak eratzten dituzten kultur gakoak eta zibilizazio bakoitzeko gertaera politiko, sozial eta kulturalen eragina izan duten erljio baldintzak ere aztertzen dira.

Irakasgaiaren erljioak aztertzeke hartzen den ikuspegia ez da konfesionala, eta ez du zerikusirik erljio bizipenekin ez inongo erljioen apologiarekin. Ez da jarrera agnostiko edo ateoaren defen-

tsarik ere egiten. Ikasleei egungo munduko ideologia eta erlijioen aniztasuna erakutsi nahi zaie. Erlijio nagusien ezaugarri nabarmenenak ezagutu behar dituzte, eta erakutsi behar zaie nola dirauten erlijioek gaurko garaian eta gizarteetan. Bestalde, garrantzia eman behar zaio kontzientzia askatasunari eta erlijio askatasunari, bizikidetza sistemaren funtsezko elementuak baitira. Halaber, sinestun nahiz sinesgabeenganako tolerantziatzko jarrerak garatu nahi dira, eta ikasleei Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean eta Espainiako Konstituzioan onartutako eskubideak errespetatzen irakatsi nahi zaie. Hitz batez, inguruko munduko errealitatearen ezagutza hobe eskaini nahi da eta bizikidetza erraztu nahi da gaurko gizarte pluralean.

Etapako lehenbiziko hiru kurtsoetan abiapuntutzat hartzen dira erlijioaren aurreko erantzunen askotarikotasuna eta gaurko munduko erlijioen banaketaren marko espazial eta kuantitatiboa; funtsezko muinean, berriz, erlijio nagusien ezaugarriak eta erlijio horiek arte adierazpenetan eta bizimoduan duten isla aztertzen dira. Erlijio historiko jakin batzuek gure kulturaren eraketan eta egungo munduaren ezaugarrietan duten eragina kontuan harturik, sakonago aztertu behar dira erlijio monoteista handiak eta, bereziki, mendebaldeko munduko arte eta kultur adierazpen gehien atzean daudenak.

Laugarren kurtsoan erlijioak aztertzerakoan egiten den analisia lagungarria da ikasleek ondoko alderdiak uler ditzaten: erlijioek gizarte bizitzan izan duten eta duten eragina, ideia erlijiosoen eta pentsamendu zientifikoaren arteko erlazioa, gizarteaz ezarritako ordena bidezkotu edo gaitzesteko orduan erlijioek hartu izan dituzten jarrerak eta historian zeharko eta egungo botereekin izandako harremanak. Estatuaren izaera bereiziko da estatu bakoitzak bere lurraldeko erlijio nagusiarekin edo nagusiekin duen loturaren arabera, eta beste arrazoi batzuen artean erlijio arazoengatik sortu diren tirabira edo gatazkaren batzuk aztertuko dira.

Halaber, erlijioek giza eskubideekin eta Espainiako Konstituzioarekin duten erlazioari buruzko gogoeta proposatuko da, balio horiek erreferentzia komunak direlako fededunentzat eta erlijio sinesmenik gabeko pertsonentzat.

Helburuak

Etapan honetan Erlijioen Historia eta Kultura irakasgaiaren bidez hurrengo gaitasunak garatu nahi dira:

1. Erlijioaren agerpen desberdinak ezagutzea eta erlijio handien oinarritzko ezaugarriak identifikatzea, gaur egungo gizarteko erlijio aniztasuna hobeki identifikatu eta ulertu ahal izateko.
2. Pentsamendu, kontzientzia eta erlijio askatasunerako eskubidea onartzea, pertsonen sinesmenak edo sinesmen eza errespetatu eta onartzea, eta bidegabekeria, fanatismoa eta sinesteetan oinarritutako edozein bereizkeria arbuizatzea.
3. Erlijioen sorrera eta garapena ulertzea, erlijioak sortu ziren ingurune politiko, sozial eta kulturean kokaturik, eta erlijioak herrien ibilbidearekin lotzea, haien errealitate historikoaren alderdi desberdinei erreparatuta.

4. Erljioari lotutako kultur eta arte adierazpenak eta tradizio erlijiosoak aintzat hartzea herrien kultur ondarearen osagai diren aldetik, haiek zaintzeaz arduratzea eta aberastasun pertsonalerako baliabide gisa estimatzea.
5. Erljioak gizartean eta kulturaren utzi dituen aztarnei buruzko iritzi arrazoitua osatzea.
6. Pentsamolde kritikoa garatzea, argudio dokumentatu eta arrazoituen bidez norberaren ikuspegiak defendatzeko irizpide propioa eta trebetasunak garatzea, eta besteen arrazoiak eta argudioak baloratzea.

Lehenbiziko, bigarren eta hirugarren kurtsoak

Edukiak

- Sinesteen aniztasuna: erljioak gaurko munduan.
- Erljioaren lehen agerpenak. Pentsamendu animista eta haren iraupena. Mitoak, errealitatearen azalpen gisa. Politeismoa. Heriotzaren ondoko bizitza.
- Erljio monoteistak:
 - Judaismoa. Israelgo herria eta judu erljioa. Biblia eta beste liburu sakratu batzuk. Errituak juduen bizitzan. Egutegia eta jaiak. Erljio eremuak eta ikurrak. Judaismoaren egungo egoera.
 - Kristautasuna. Jesusen irudia. Dogmak eta sinesmenak. Testamentu Berria eta Zaharra. Kristau elizaren antolaketa. Errituak kristauen bizitzan. Eremu sakratuak eta erljio ikurrak. Egutegia eta jaiak. Bilakaera denboran: ortodoxoak, katolikoak eta protestanteak. Kristautasuna gaur egun.
 - Islama. Mahomaren irudia. Islamaren bost zutabeak. Korana eta Lege islamikoa. Egutegia eta jaiak. Eremu sakratuak. Islamaren hedapena eta bilakaera. Islama gaurko munduan.
- Ekialdeko erljioak: hinduismoa eta budismoa.
- Erljioaren aurreko erantzunen aniztasuna: pertsona erlijiosoak, pertsona ateoak, pertsona agnostikoak.
- Erljioak arte adierazpenetan eta eguneroko bizitzan duen eragina.

Ebaluazio irizpideak

1. Munduko pluraltasun erlijiosoa azaltzea eta gaur egungo erljio handien banaketaren oinarritzko ezaugarriak identifikatzea.

Irizpide honen bidez egiaztatu nahi da ikasleak munduko erljioen aniztasunaz jabetzen ote diren, fededun gehien dituzten erljioak identifikatzen dituzten, baita horien banaketa espazialaren ezaugarri nagusiak ere, baina aldi berean eremu horien barneko erljio aniztasunaz ere ohartzen diren.

2. Erlijio desberdinetako zenbait mito esanguratsu deskribatzea, elkarrekin alderatzea eta gure kultur tradizioan eraginik ba ote duten zehaztea.

Ebaluatu nahi da ea ikasleek ezagutzen dituzten erlijio desberdinetako mitoetako batzuk, adibidez, munduaren eta gizakiaren sorkuntza, ongiaren eta gaizkiaren jatorria etab.; ea horien arteko antzekotasunak eta aldeak identifikatzen dituzten eta mitoek tradizio, ipuin edo literatura lanetan iraun dutela erakusteko adibideren bat eman dezaketen.

3. Judaismoaren, kristautasunaren eta Islamaren arteko erlazioak azaltzea eta haien tradizio komuna eta bakoitzaren berezitasunak nabarmentzea.

Irizpide honen bidez ebaluatu nahi da ea ikasleek erlijio monoteista handien eta horiei lotutako tradizio erlijiosoen elementu komunak identifikatzen dituzten, ea ezagutzen dituzten doktrina horien funtsezko ezaugarriak, aginduak eta kultua, eta haien arteko aldeak azaltzeko gauza diren.

4. Erlijio desberdinetako zenbait erritutan pertsonaren bizitzaren alderdi esanguratsuei buruzko ikusmoldea antzematea, hala nola jaiotzari, ezkontzari edo heriotzari buruzkoak, eta sinesmen horiek herrien tradizio kulturean nola iraun duten ohartzea.

Egiaztatu behar da ikasleek ezagutzen dituzten erlijio desberdinetan agertzen diren zenbait erritu, horien arteko diferentziak identifikatzen dituzten, baita diferentzien arrazoiak ere, eta gaurko gizarteko ohitura eta jokabideetan zenbait ikusmolde erlijiosoren iraupena antzematen duten.

5. Erlijio desberdinetako eraikin sakratuen ezaugarriak, funtzioa eta elementu aipagarriak deskribatzea, eta arte ondarearen osagai direla ohartzea.

Irizpide honen bidez egiaztatu nahi da ikasleek identifikatzen ote dituzten erlijio desberdinetako gune sakratuak (elizak, sinagogak, meskitak, pagodak, etab.), eta badakiten zer funtzio duten erlijio bakoitzean eta zein diren haien osagai aipagarrienak. Bestalde, irizpide honen bidez egiaztatzen ahal da ikasleek gune horien balioa aintzat hartzen duten herrien kultur ondarearen osagai diren aldetik.

6. Garai desberdinetako azalpenen adibideak (idatzizkoak, plastikoak edo musikalak) jartztea, sinesmenekin, ospakizunekin, errituekin edo bestelako adierazpen erlijiosoenekin lotuak; horien balio estetikoak hautematea eta kultur ondareari egiten dioten ekarpena balaratzea.

Irizpide honen bidez ebaluatu nahi da ea ikasleek erlijioari lotutako artelanak bereizten dituzten, ikonografian, irudietan, idatzizko iturrietan edo musika lanetan zenbait sinesmenen isla antzemanen, bereziki kristau erlijioarena. Halaber, irizpide honen bidez egiaztatzen ahal da ikasleek adierazpen horietan beren garaiko balio estetikoak antzematen dituzten eta zaindu behar den arte ondarearen osagaitzat hartzen dituzten.

Laugarren kurtsoa

Edukiak

- Erljioak eta gizartea: erljioak gizarte antolaketan, ohituretan eta gizarte errituetan duen eragina.
- Erljioak eta botere politikoa. Estatu teokratikoak eta laikoak. Erljioarengatiko tirabirak eta gatazkak.
- Erljioak eta pentsamendu zientifiko eta filosofikoa. Bi esparruen arteko loturak. Adostasunak eta desadostasunak mundua interpretatzerakoan.
- Erljio aniztasuna, gaurko gizarteetako pluraltasun faktorea: erljioak, erljio mugimendu berriak eta sinesmen sasierljiosoak. Bizikidetzeta plurala, tolerantzia eta iritzi kritikoa.
- Erljioa eta giza eskubideak. Erljio sinesmenak Espainiako Konstituzioaren esparruan.

Ebaluazio irizpideak

1. Historiako edo gaur egungo gertaeren azterketatik abiatuta, pertsonen sinesmen erljiosoengatiko edo sinesmen ezarengatiko intolerantzia edo bereizkeriak identifikatu eta arbuia-tzea.

Irizpide honen bidez egiaztatu nahi da ikasleak gai diren, oraingo edo iraganeko egiazko egoera baten aurrean, zenbait pertsonak erljioarengatik jasan duten edo jasaten duten bereizkeriaz ohartzeko, eta horren aurkako jarrera erakusten duten.

2. Erljioaren eragina identifikatzea denboran zeharko gizarte antolaketaren alderdi zehatzen batean.

Baloratu nahi da ea ikasleak gai diren, elementu zehatz batzuk aztertuta, erljioa bizitzaren ikusmolde jakin baten oinarrian zein egoeratan egon den bereizteko (estamentuak, kastak etab.), edo ezarritako gizarte ordenaren aurkako jarrerak zein egoeratan hartu diren antzemateko (esklabotzaren edo Amerikako indiarren egoeraren aurkako zenbait jarrera, adibidez).

3. Erljioarekin duten harremanaren arabera, Estatu motak karakterizatzea, tipologia horren zenbait adibide ematea eta Espainiako egoera azaltzea Konstituzioaren esparruan.

Irizpide honen bidez ebaluatu nahi da ea ikasleek erljioaren eta botere politikoaren arteko harremanetan kokatzen ote dituzten historian zeharko eta gaur egungo egoerak (adibidez, boterea Jainkoarengandik datorrela onartu duten gizarteak edo garaiak eta Elizaren eta Estatuaren arteko banaketa onartu dutenak identifikatuz, eta herrialde konfesional, akonfesional eta laikoen adibideak emanez) eta ea ezagutzen duten gure herrialdearen egoera, konstituzio antolamenduan definitutakoa.

- 4. Egungo edo historiako egoeraren bat deskribatzea, non gertaera beraren aurrean planteamendu edo jarrera erlijiosoaren eta zientifikoaren arteko aldeak agertzen diren, eta bataren zein bestearen aldeko argudioak azaltzea.**

Irizpide honen bidez ebaluatu nahi da ea ikasleak jabetu diren gertaera jakin bati buruzko iritzia ikuspegiaren arabera izan daitekeela, eta defendatzen diren balioek zenbait errealitate onartzera edo gaitzestera eraman dezaketela. Beste alde batetik, baloratu nahi da ea ikasleak gai diren, horrelako egoera bat aztertzean, jarrera bakoitzaren aldeko arrazoiak identifikatzeko.

- 5. Lan bat egitea, bakarka edo taldean, gaurko edo iraganeko gatazkaren bati buruz, non erlijioaren ziozko tirabirak ageri diren; kausak ikertzea eta gatazkak izan dezakeen amaiera iragartzea, informazio iturri egokiak erabiliz.**

Irizpide honen bidez ebaluatu nahi da ea ikasleak gai diren, irakasleak aholkaturik, erlijio tirabirak, erlijio gerrak, komunitateen arteko gatazkak, erlijioarengatik egozteak, genozidioak edo intolerantzia eta horrelakoak aztertzeko, egoera horien arrazoiak bilatuz eta gatazkako alderdiek har ditzaketen jarrerak identifikatuz. Halaber, egiaztatu behar da ikasleek baduten ekimena lana planifikatzeko, informazio iturri desberdinak nolabaiteko autonomiaz erabiltzeko, informazioa aztertzeko eta ondorioak modu argi eta egokian aurkezteko.

Curriculum.

Derrigorrezko Bigarren hezkuntza

(2. liburukia)

Hizkuntzen tratamendu integratua:

Gaztelania eta Literatura (L1)

Euskara eta Literatura. D eredia (L1)

Euskara. A eredia (L2)

Ingelesa (L2)

Bigarren Atzerriko Hizkuntza: Frantsesa (L3)

Bigarren Atzerriko Hizkuntza: Alemana (L3)



Izenburua: Curriculum. Derrigorrezko Bigarren hezkuntza (2. liburukia)
Hizkuntzen tratamendu integratua: Gaztelania eta Literatura (L1),
Euskara eta Literatura. D eredua (L1), Euskara. A eredua (L2), Ingelesa (L2),
Bigarren Atzerriko Hizkuntza: Frantsesa (L3) eta Bigarren Atzerriko Hizkuntza: Alemana (L3)

© NAFARROAKO GOBERNUA. Hezkuntza Departamentua

1. edizioa, 1. inprimaketa (2007)

Azala: Asís Bastida

Aurreinprimaketa: PRETEXTO. Estafeta, 60 -31001 Iruña

Inprimaketa: Gráficas Lizarra

ISBN, obra osoa: 978-84-235 2994-0

ISBN (2. liburukia): 978-84-235 2996-4

L.G.: NA-2354/2007

Bultzatzailea eta banatzailea: Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Fondoa
Navas de Tolosa kalea, 21
31002 IRUÑA
Telefonoa: 848 427 121
Faxa: 848 427 123
fondo.publicaciones@cfnavarra.es
www.cfnavarra.es/publicaciones

Aurkibidea

Sarrera	7
Arloak oinarritzko gaitasunak garatzeko egiten duen ekarpena	10
Hizkuntzen tratamendu integratua	11
Erreferentziako Esparru Europar Bateratua (EEEE) eta Hizkuntzen Portfolio Europarra (HPE)	13
Eduki multzoak	13
Gaztelania eta literatura (L1)	17
Helburuak	19
Edukiak:	
1. multzoa. Entzutea eta ulertzea, hitz egitea eta hizketan aritzea	20
2. multzoa. Irakurtzea eta idaztea	24
3. multzoa. Literatur hezkuntza	30
4. multzoa. Hizkuntzaren ezaguera	34
5. multzoa. Hizkuntzaren ikaskuntzari buruzko gogoeta	38
Ebaluazio irizpideak:	
1. multzoa. Entzutea eta ulertzea hitz egitea eta hizketan aritzea	40
2. multzoa. Irakurtzea eta idaztea	42
3. multzoa. Literatur hezkuntza	46
4. multzoa. Hizkuntzaren ezaguera	48
5. multzoa. Hizkuntzaren ikaskuntzari buruzko gogoeta	50
Euskara eta Literatura. D eredua (L1)	51
Helburuak	53
Edukiak:	
1. multzoa. Entzutea eta ulertzea, hitz egitea eta hizketan aritzea	54
2. multzoa. Irakurtzea eta idaztea	58
3. multzoa. Literatur hezkuntza	64
4. multzoa. Hizkuntzaren ezaguera	68
5. multzoa. Hizkuntzaren ikaskuntzari buruzko gogoeta	72
Ebaluazio irizpideak:	
1. eta 2. multzoak. Entzutea eta ulertzea, hitz egitea eta hizketan aritzea. Irakurtzea eta idaztea	74
3. multzoa. Literatur hezkuntza	78
4. multzoa. Hizkuntzaren ezaguera	80
5. multzoa. Hizkuntzaren ikaskuntzari buruzko gogoeta	84
Euskara. A eredua (L2)	87
Helburuak	89
Edukiak:	
1. multzoa. Entzutea eta ulertzea, hitz egitea eta hizketan aritzea	90
2. multzoa. Irakurtzea eta idaztea	96
3. multzoa. Alderdi soziokulturalak eta kulturarteko kontzientzia	100
4. multzoa. Hizkuntzaren ezaguera	102
5. multzoa. Hizkuntzaren ikaskuntzari buruzko gogoeta	106

Ebaluazio irizpideak:	1. eta 2. multzoa. Entzutea eta ulertzea hitz egitea eta hizketan aritzea, irakurtzea eta idaztea	108
	3. multzoa. Alderdi soziokulturalak eta kulturarteko kontzientzia	112
	4. multzoa. Hizkuntzaren ezaguera	112
	5. multzoa. Hizkuntzaren ikaskuntzari buruzko gogoeta	114
Ingelesa (L2)		117
<hr/>		
Helburuak		119
Edukiak:	1. multzoa. Komunikazio trebetasunak. Entzutea eta ulertzea, hitz egitea eta hizketan aritzea	120
	2. multzoa. Irakurtzea eta ulertzea. Idaztea	126
	3. multzoa. Alderdi soziokulturalak eta kulturarteko kontzientzia	132
	4. multzoa. Hizkuntzaren ezaguera	134
	5. multzoa. Ikaskuntzari buruzko gogoeta	140
Ebaluazio irizpideak:	1. multzoa. Entzutea eta ulertzea	142
	2. multzoa: Hitz egitea eta hizketan aritzea	142
	2. multzoa. Irakurtzea eta ulertzea	144
	2. multzoa. Idaztea	144
	3. multzoa. Alderdi soziokulturalak eta kulturarteko kontzientzia	146
	4. multzoa. Hizkuntzaren gaineko gogoeta	146
	5. multzoa. Ikaskuntzari buruzko gogoeta	148
Bigarren atzerriko hizkuntza: Frantsesa (L3)		151
<hr/>		
Helburuak		153
Edukiak:	1. multzoa. Komunikazio trebetasunak. Entzutea eta ulertzea, hitz egitea eta hizketan aritzea	154
	2. multzoa. Irakurtzea eta Idaztea	158
	3. multzoa. Alderdi soziokulturalak eta kulturarteko kontzientzia	162
	4. multzoa. Hizkuntzaren gaineko gogoeta	164
	5. multzoa. Hizkuntzaren Ikaskuntzari buruzko gogoeta	170
Ebaluazio irizpideak:	1. multzoa. Entzutea eta ulertzea. Hitz egitea eta hizketan aritzea	172
	2. multzoa. Irakurtzea eta idaztea	174
	3. multzoa. Alderdi soziokulturalak eta kulturarteko kontzientzia	176
	4. multzoa. Hizkuntzaren ezaguera	176
	5. multzoa. Hizkuntzaren ikaskuntzari buruzko gogoeta	178
Bigarren atzerriko hizkuntza: Alemana (L3)		181
<hr/>		
Helburuak		183
Edukiak:	1. multzoa. Komunikazio trebetasunak. Entzutea eta ulertzea, hitz egitea eta hizketan aritzea	184
	2. multzoa. Irakurtzea eta Idaztea	188
	3. multzoa. Alderdi soziokulturalak eta kulturarteko kontzientzia	192
	4. multzoa. Hizkuntzaren ezaguera	194
	5. multzoa. Hizkuntzaren Ikaskuntzari buruzko gogoeta	200
Ebaluazio irizpideak:	1. multzoa. Entzutea eta ulertzea. Hitz egitea eta hizketan aritzea	202
	2. multzoa. Irakurtzea eta idaztea	204
	3. multzoa. Alderdi soziokulturalak eta kulturarteko kontzientzia	206
	4. multzoa. Hizkuntzaren ezaguera	206
	5. multzoa. Hizkuntzaren ikaskuntzari buruzko gogoeta	208

Sarrera

Derrigorrezko hezkuntzaren xedea da pertsonaren garapen integral eta harmoniatsua, alderdi intelektual, afektibo eta sozialetan. Garapen horren funtsezko osagaia hezkuntza linguistiko eta literarioa da: hezkuntza linguistikoa hizkuntza gizarteko jardueraren arlo desberdinetan erabiltzeko gaitasuna izanen da; hezkuntza literarioa, berriz, gure kultur esparruko testu literario garrantzitsuak gaitasunez irakurtzeko behar diren trebetasun eta abilezien multzoa izanen da.

Irakasgai honen xedea da komunikatzeko gaitasuna garatzea. Komunikatzeko gaitasuna da gizarteko esparru desberdinetan modu egokian elkar eragiteko hizkuntzari buruz eduki behar diren ezagutzen eta erabilera-prozeduren multzoa. Jakintza horiek guztiak elkartrukeen lehenbiziko lekuan ageri diren printzipio eta arau sozialei dagozkie, edo testuek gure kulturean dituzten forma konbentzionalei, edo multzo kohesionatu batean testuaren zatiak artikulatzen dituzten prozedurei, edo esanahia duten eta gramatikalki onargarriak diren esakuneak eraikitzeko bidea ematen duten arau lexiko-sintaktikoei, edo arau ortografikoei.

Hezkuntza literarioak alde aurreko ikaskuntza multzo bat behar du, baina berariazko gaitasunak inplikatzeko, komunikazio literarioak berezko dituen ezaugarri batzuei zor zaizkienak, halaber hizkuntzaren erabilera literarioaren konbentzio propioei zor zaizkienak eta, azkenik, testu literarioak testuinguru kulturalarekin dituen erlazioei ere zor zaizkienak.

Komunikatzeko gaitasuna pentsamenduak, sentimenduak eta egitateak, ahoz zein idatziz, adierazteko eta interpretatzeko trebetasuna da, testuinguru sozial eta kulturalen sorta zabal batean - eskola, lana, etxea eta aisia. Lehen hizkuntzan (L1) ondoko ezagutzak, trebetasun edo abileziak eta jarrerak behar dira:

Ezagutzak	<ul style="list-style-type: none"> • Oinarrizko hiztegia, gramatika funtzionala eta estiloa eta hizkuntzaren funtzioak sendo ezagutzea. • Ahozko elkarreragin mota desberdinen (hizketaldiak, elkarrizketak, eztabaidak eta abar) eta ahozko hizkuntzaren estilo eta erregistro desberdinen oinarrizko ezaugarrien kontzientzia. • Komunikazioaren ezaugarri paralinguistikoak ulertzea (ahotsaren ezaugarriak, aurpegierak, keinu eta jarreraren sistemak). • Testu literario mota desberdinen kontzientzia (maitagarrien ipuinak, mitoak, elezaharrak, olerkiak, poesia lirikoa, antzerkia, ipuin laburrak, eleberrak) eta haien ezaugarri nagusien kontzientzia; halaber, testu-ez literarioen motak (curriculum vitae, formularioak, txostenak, editorialak, saioak, hitzaldiak eta abar) eta haien ezaugarri nagusiak. • Idatzizko hizkuntzaren (formala, ez-formala, zientifikoa, kazetaritzakoa, lagunartekoa eta abar) bereizgarriak ulertzea. • Hizkuntzak eta komunikazio moduek denboran zehar eta esparru geografiko, sozial eta komunikatibo desberdinetan duten aldagarratasunaren kontzientzia.
Trebetasunak edo abileziak	<ul style="list-style-type: none"> • Ahoz zein idatziz komunikatzeko trebetasuna, eta mezuak egoera ugaritan eta xede desberdinekin ulertzeko edo ulertarazteko trebetasuna. • Komunikazioak bere baitan hartzen du ahozko mezuak entzuteko eta ulertzeko trebetasuna, komunikazio egoera desberdinetan, eta argi eta zehatz hitz egiteko trebetasuna. Halaber, bere baitan hartzen du zerbait ulertarazteko gauza izan garen kontrolatzeko trebetasuna, bai eta komunikazio ingurune desberdinetan hizketaldi bat hasteko, hizketaldian aritzeko eta hizketaldiari amaiera emateko trebetasuna ere. • Era askotako testuak irakurtzeko eta ulertzeko trebetasuna, estrategia egokiak hartuz irakurketaren helburuaren arabera (informatzeko xedez irakurtzea, ikasteagatik edo plazer hutsarengatik irakurtzea) eta testu motaren arabera. • Era askotako testuak, xede desberdinekin, idazteko trebetasuna, idazteko prozesua kontrolatuz (zirriborrotik hasi eta zuzenketaraino). • Idatzizko informazioa, datuak eta kontzeptuak bilatu, jaso eta prozesatzeko trebetasuna, haiek ikasketetan erabiltzeko eta ezagutzak modu sistematikoan antolatzeko. Entzutean, hitz egitean, irakurtzean eta idaztean, informazio garrantzitsua eta garrantzirik gabekoa bereizteko trebetasuna. • Norberaren argudioak formulatzeko trebetasuna, ahoz nahiz idatziz, konbentzitzeko moduan, kontuan hartuz beste ikuspuntu batzuk, ahoz nahiz idatziz adierazitakoak. • Behar diren abileziak testu konplexuak idatziz nahiz ahoz (hitzaldiak, hizketaldiak, jarraibideak, elkarrizketak, eztabaidak) sortu, aurkeztu edo ulertzeko baliabideak (esate baterako, oharak, eskemak, mapak) erabiltzeko.
Jarretrak	<ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntzarekiko jarrera positiboa garatzea, hura norbera eta kultura bera aberasteko balizko iturri bat dela aitortuz. • Beste batzuen iritzia eta argudioak jasotzeko jarrera, aurreiritzirik gabe, eta elkarrizketa kritiko eta eraikitzaileak edukitzeko jarrera. • Jendaurrean hitz egiteko konfiantza. • Adierazpenetan nolakotasun estetiko bat lortzearen ahaleginak egiteko jarrera, hitzen/esaldien zuzenketa tekniko hutsa gaudituz. • Literatura baloratzea. • Kulturen arteko komunikazioaren aldeko jarrera positiboa garatzea.

Azaldutakoaren antzera, bigarren hizkuntzen esparruan (L2), **komunikatzeko gaitasuna** da pentsamenduak, sentimenduak eta egitateak ulertzeko, adierazteko eta interpretatzeko gaitasuna, ahoz nahiz idatziz, testuinguru sozialen sorta egoki batean –lana, etxea, aisia, hezkuntza eta prestakuntza– hizkuntza desberdinetan, betiere norberaren desioen eta beharren arabera. Lehen hizkuntzaren (L1) oinarrizko elementu batzuk hartzen ditu, baina hizkuntzen gaitasun mailaren arabera aplikatuko dira:

Ezagutzak	<ul style="list-style-type: none"> • Hiztegiari eta gramatika funtzionalari, intonazioari eta ebakerari dagozkien ezagutzak. • Ahozko elkarreragin mota desberdinen kontzientzia izatea (esate baterako aurrez aurrekoa, telefono bidezko hizketaldiak, elkarrizketak eta abar). • Testu literarioen eta ez-literarioen sorta egokia ezagutzea (esate baterako, ipuin laburrak, olerkiak, egunkari eta aldizkarietako artikulak, web orriak, jarraibideak, gutunak, txosten laburrak eta abar). • Estilo eta erregistro desberdinen ezaugarri nagusiak ulertzea ahozko eta idatzizko hizkuntzan (formala, ez-formala, kazetaritzakoa, lagunartekoa eta abar). • Gizartearen konbentzioen, alderdi kulturalen eta esparru geografiko, sozial eta komunikatibo ezberdinetan hizkuntzak daukan aldagarritasunaren kontzientzia.
Trebetasunak	<ul style="list-style-type: none"> • Komunikazio egoeren sorta egoki bateko ahozko mezuak (gai ezagunak, interes pertsonalekoak edo eguneroko bizitzari buruzkoak) entzuteko eta ulertzeko trebetasuna. • Gai ezagunei, interes pertsonaleko gaietako edo eguneroko bizitzari buruzko gaietako buruzko elkarrizketak hasteko, mantentzeko eta bukatzeko trebetasuna. • Era askotako gaietako buruzko idatzizko testu ez-espezializatuak irakurtzeko eta ulertzeko trebetasuna; batzuetan, ezagutzen den arlo bateko testu espezializatuak irakurtzeko eta ulertzeko trebetasuna. Xede ezberdineko eta egoera askotako testu mota desberdinak idazteko trebetasuna. • Baliabideak egoki erabiltzea (esate baterako, apunteak, diagramak, mapak) ahozko edo idatzizko testuak ulertzeko edo sortzeko (esate baterako, hizketaldiak, jarraibideak, elkarrizketak, hitzaldiak). • Hizkuntza bat ikasteko jarduera autonomoen aukera egoki batzuk abian jarri eta mantentzeko trebetasuna.
Jarrerak	<ul style="list-style-type: none"> • Desberdintasun kulturekiko sentiberatasuna eta estereotipoen aurkako erresistentzia. • Oro har, hizkuntzekiko (horien barne direla inguruko hizkuntzak, erregioetako hizkuntzak, gutxiengoaren hizkuntzak eta hizkuntza zaharrak, zeinuen hizkuntza eta abar) eta kulturen arteko komunikazioarekiko interesa eta jakin-mina.

Horrenbestez, gaitasun batek gauzatze efektibo eta zehatz batean artikulatzen diren ezagutzen, trebetasunen (egiten jakitea, egiteko trebetasunak ...) eta jarreraren konbinazio bat da. Osagai horien ikuspegi zatikako eta berezituaren aurka, hemen eta orain azpimarratu nahi da aplikazio praktikoetan haiek izan behar duten elkarreragin egokiaren garrantzia.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologien bilakaera, garapen eta zabalkunde azkarrak berearekin ekarri du sekula ez bezalako areagotzea nazioarteko harremanetan. Gure gizartea, gainera, guztiz sarturik eta konprometiturik dago Europa eraikitzekeko prozesuan, eta hartan, hizkuntza propioak eta hizkuntza komunitarioak ezagutzea gakoa da pertsonen zirkulazio askea eta es-tatu kideen arteko lankidetzak kultural, ekonomiko, tekniko eta zientifikoa bideratzeko. Ikasleak prestatu egin behar ditugu, bada, gero eta nazioartekoagoa eta kulturaren eta hizkuntzaren ar-loan era askotakoa den mundu batean bizitzeko. Beste hizkuntza batzuk ikasteak komunikazioaren eta beste kulturak aintzat hartzearen mugak zabaltzen ditu. Hizkuntza berriak lehendik ezagutzen diren beste hizkuntzak kontrastatzeko eta haien guztien osagaiak eta ezaugarriak hobeki ulertzeko balioko du, bai eta arlo desberdinetan komunikatzeko gaitasuna garatzeko ere. Ezinbestekoa da hizkuntzak balioestea eta aintzat hartzea.

Irakasgai honek oinarritzko gaitasunak barneratzeko egiten duen ekarpena

Irakasgai honetako curriculumak, helmuga gisa duenez hizkuntzaren bitartez giza jardueraren eremu desberdinetan elkarreragiteko gaitasuna garatzea, modu erabakigarrian laguntzen du ikasleek hizkuntza-komunikazioaren gaitasuna osatzen duten alderdi guztiak gara ditzaten. Gainera, hizkuntza jakin bat erabiltzeko trebetasunak eta estrategiak eta hizkuntza behaketaren xedetzat hartzeko gaitasuna, hizkuntza baten bitartez barneratzen diren arren, transferitu egiten dira eta beste hizkuntza batzuen ikasketan aplikatzen dira. Ikaskuntza hau lagungarria da, halaber, hizkuntza erabiltzeko gaitasuna, oro har, handitzeko.

Hitz egiten eta entzuten ikasten da, eta irakurtzen eta idazten, komunikazioko elkarreragine-rako, baina baita ere ezagutza berriak barneratzeko ere: hizkuntza, komunikaziorako tresna bat izateaz gainera, mundua irudikatzen bitarteko bat ere bada, eta pentsamenduaren eta ezagutzaren oinarrian dago. Jakintzak eskuratzeak eta ezagutzak hizkuntzaren bidez eraikitzeak zuzeneko lotura du ikasten ikastea oinarritzko gaitasunarekin. Halaber, hizkuntzari buruz gogoeta egiteko edukiek jakintza kontzeptualen (metahizkuntza gramatikala) eta prozedurazko jakintzen (esakuneak analizatzeko, kontrastatzeko, zabaltzeko eta txikitzeko gaitasuna, mekanismo gramatikal batzuen erabilera kontzientearen bitartez, esakunearen elementu batzuk kendu eta gramatikalki baliokideak diren beste batzuk jartzea, ideia bera adierazteko eskema sintaktiko desberdinak erabiltzea, akatsen diagnosa egin eta haiei konponbidea ematea eta abar) multzo bat bil-tzen dute, eta eduki horiek guztiak barneratzen dira testuak ulertzeko eta sortzeko jardueren bitartez, testu horiek berrerabiltzen baitira ikaskuntza linguistikoa optimizatzeko, hau da, hizkuntza ikasten ikasteko.

Bestalde, hizkuntza erabiltzen ikastea da, halaber, arazoak analizatzen eta ebatzen ikastea, planak egitea eta erabakitze prozesuei ekitea, zeren eta hizkuntzaren funtzioetako bat geure jarduera erregulatu eta orientatzea baita. Hori dela eta, hizkuntza gaitasunak barneratzea lagungarri suertatzen da ekimen pertsonalean aurrera egiteko eta jardueraren beraren erregulazioan, autonomia gero eta gehiagorekin.

Irakasgaiak laguntzen du Informazioaren tratamendua eta gaitasun digitala gaitasunerako ere, zeren eta haren helburuetako bat izaten baita behar desberdinen arabera informazio muntaduna aurkitu eta hautatzeko ezagutzak eta trebetasunak ematea, bai eta haiek berrerabiltzeko norberaren ahazko eta idatzizko testuak sortzerakoan. Informazio horietako asko bilatzeak eta hautatzeak eskatuko du, adibidez, liburutegiak egoki erabiltzea edo Internet erabiltzea, eta bilaketa horiek gidaritzarekin egitea gaitasun digitala garatzeko bitarteko bat izanen da. Horretan laguntzen du, halaber, testuak osatzeari begira euskarri elektronikoak erabiltzeko aukera curriculumean sarturik egoteak, hartara eraginkortasun handiagoarekin heltzen ahal baitzaie idazteko prozesuan eragina duten eragiketa batzuei (plangintza, testua idaztea, berrikustea ...); izan ere, eragiketa horiek arlo honetako oinarritzko edukietan sartzen dira. Halaber, gaitasun hori garatzeko lagungarria izan daiteke irakasgai horretan komunikabide digital berriak erabiltzea, zeren eta idazketaren eta ezagutzen lankidetzazko erabilera inplikatzeko baitute.

Hizkuntzaren ikaskuntzak, komunikazio-gaitasunaren garapen gisa harturik, modu erabakigarrian laguntzen du gaitasun soziala eta herritartasuna garatzen, ulerturik gaitasun hori bizikidetasunerako, errespeturako eta pertsonen elkar ulertzeko gaitasunen eta trebetasunen multzoa dela. Izan ere, hizkuntza ikastea gainerakoekin komunikatzen, haiek transmititzen dutena ulertzen eta beste errealitate batzuetara hurbiltzen ikastea da. Bestalde, hezkuntza linguistikoak gaitasun horrekin estu lotutako osagai bat dauka: hizkuntzaren erabileren aniztasunaren eta hizkuntzen aniztasunaren konstatazioa, eta baloratzea hizkuntza guztiek balio bera dutela komunikazio eta irudikapen funtzioak betetzeko. Irakasgai honen bidez gaitasun honetan ere laguntzen da, hizkuntzak munduaren aurreiritzi eta irudi estereotipatuak nola transmititzen eta zehatzen dituen analizatzen den neurrian, hizkuntzaren erabilera baztertzailak errotik kentzen laguntzeko xedez.

Irakasgai honen barruan, obra literarioen irakurketak, interpretazioak eta baloratzeak modu nabarmenean laguntzen dute gaitasun artistikoa eta kulturala garatzen, ulerturik gaitasun hori hurbilketa bat dela ondare literarioa eta gizakiaren funtsezko kezken adierazpide diren gai batzuetara. Ekarpen hori garrantzitsuagoa izanen da agerpen literarioak aintzat hartze hori beste agerkari artistiko batzuekin –musika, pintura edo zinema, esate baterako– erlazionatzen den neurrian. Gaitasun honetan laguntzen da, halaber, ahaleginak eginez literaturaren mundu sozialak (egileak, kritikariak, liburuetarako sarbidea, liburu dendak, katalogoak edo gai literarioek prentsan duten presentzia) ikaslearendako zentzua eduki dezan.

Hizkuntzen tratamendu integratua

Trebetasun linguistikoek ez dute isolaturik funtzionatzen, elkar integratzen baitute eta elkarrekiko lotura baitute; desberdinak dira, baina batera dihardute komunikazioa lortzeko. Hori dela eta, gaitasun horien irakaskuntzak ere integratua izan behar du. Ulertzeko eta adierazteko gaitasunen garapenak ere orekatua izan behar du. Kontuan izan behar da komunikatzeko gaitasuna oinarrizko trebetasun linguistikoaren batuketa dela, eta ez soilik trebetasun horien menperatze isolatua. Trebetasunen integrazioa ezinbestekoa da; batetik, hizkuntzen tratamenduaren aurretikoa da, eta, bestetik, tratamenduak irauten duen bitartean gauzatzen da.

Hizkuntza irudikatze eta komunikatzeko, sozializatzeko eta ikasteko bitarteko nagusia da; hori dela eta, ikaslearen prestakuntza integralaren gakoa da. Curriculumeko arlo guztiek hitzezko gaitasunen garapenean hartzen dute parte, eta guztiek eragina dute oinarrizko gaitasun linguistikoaren hobekuntzan. Horren guztiaren osagarri gisa eta horrekin bat etorritik, irakasgai linguistikoek ikasleak laguntzen eta prestatzen dituzte lanerako eta ikasketarako teknikak garatzeko (oharrak hartu, eskemak, mapa semantikoak, laburpenak, azalpenak, argudiatu eta abar), eta teknika horiek ezinbestekoak dira arlo guztietan. Gainera, hizkuntzaren ikaskuntzak are esanahi handiagoa hartzen du arlo desberdinetako curriculum edukiak ikasteko bide bihurtzen baldin bada.

Nafarroako curriculumean hizkuntza desberdinak egoteak beharrezkoago egiten du haien arteko lan koordinatua eta integratua egitea, zeren eta hizkuntzak ez baitira era independentean garatzen gizabanakoan. Gaitasun linguistikoak aukera ematen du hizkuntzen arteko konparazioa eta alderaketa egiteko eta haien arteko eragina gerta dadin. Hizkuntza baten ezaguera hobetzeak hobekuntzak dakarzkie besteei; hizkuntza bakoitzean ikasten denak kontzientzia metalinguis-

tikoa handitzen du, eta ikaslearen garapen kognitiboa susta dezake. Ikasketa batzuk (ezagutzak, prozedurak, estrategiak) hizkuntza batean ikasi eta besteetara aldatzen ahal dira. Transferentzia horrek curriculum esparru bat eta hura sustatuko duen irakaslan bat behar ditu.

Gainera, kontuan hartu behar da hizkuntzek curriculumean hartzen duten papera desberdina dela hizkuntza ereduaren arabera (G, A edo D eredu), eta aintzat hartu behar da zein den ikasleak horietako bakoitzean duen hasierako gaitasuna eta gaitasun erreala. Bestalde, hizkuntzen erabilera akademikoari dagokionez, lehen eta bigarren hizkuntzei buruz hitz egin daiteke (eta gerta daiteke Europar Batasuneko beste hizkuntza batzuk sartzea lehen hezkuntzako azken zikloan edo bigarren hezkuntzako aukerako irakasgai gisa; horiek, ikuspuntu akademikotik, hirugarren hizkuntza gisa hartu beharko lirateke). Lehen hizkuntzak xede du helburu konplexuagoak lortzea, metalinguistikoak horien barne direla -hizkuntzari buruzko gogoetari, lan komunikatiboei eta abarri buruzkoak- eta eskola ordu gehiago dauzka. Beste hizkuntzek ikuspegi berriak gehitzen dizkiete lehen hizkuntzei, baina haietan lan errazagoak egiten dira, eta lehen hizkuntzan erakutsitako oinarrizko prozesu eta estrategien praktikak zabaltzeko aukera ematen dute. Bestalde, ikasleen gaitasun linguistikoari dagokionez, ikasteko egoera ugari gerta daitezke (ama hizkuntzaz beste batean eskolatzen diren ikasleak, murgiltze eruedetan daudenak, hezkuntza premia bereziak dituztenak ...), eta haietarako berariazko proposamen didaktikoak beharko dira.

Hizkuntzen tratamendu integratuak metodologia bateratua eskatzen du. Koordinazioa are beharrezkoago egiten da ikastetxeen errealitate eleanitza ikusita, eta errealitate hori gero eta nabarmenagoa da beste hizkuntza batzuk dituzten ikasleen etorrerarekin eta Europar Batasuneko hizkuntzak gero eta lehenago sartzearekin. Horretarako, ezinbestekoa da hizkuntzetako irakasleen koordinazioa.

Izan ere, curriculum integratuak honakoak bideratuko ditu: ikaskuntzen elkarren osagarritasuna, hizkuntza bakoitzaren berariazko alderdi linguistikoei buruzko kontraste lana eta hizkuntza batean ikasitakoa besteetara transferitzeko eta haietan aplikatzeko eta orokortzeko lana. Horrenbestez, eduki asko (ezagutzak, prozedurak, estrategiak, jarrerak) eta ikuspegi metodologikoa berdinak dira curriculumeko hizkuntza guztietan.

Ikastetxeak eskolako hizkuntza guztiekiko –hizkuntza akademikoak nahiz girokoak izan– jarrera positiboa sustatu behar du, eta sustatu behar du, halaber, hizkuntzak hezkuntza lanaren berezko esparruetan erabil daitezzen, bai ikasgela barruan (hizkuntzak irakasteko gelak, ikasle taldeak, hizkuntzen erregistroen aniztasuna ...), bai ikastetxean (hizkuntzen presentzia eskolako paisaian, patioko jardueretan, jarduera osagarrietan eta eskolaz kanpokoetan, familiekiko elkarreragina ...). Ingurunean ikasitakoa orokortzea eta erabiltzea bultzatu behar da, bai eta etapa eta ikastetxe desberdinen arteko koordinazioa ere.

Integrazioak bidea emanen du kontraesanak eta beharrik gabeko errepikapenak saihesteko, bai eta oharkabeko hutsuneak betetzeko ere. Bestelako onurak ere baditu: hizkuntza batean ikasitakoak besteetan duen oihartzuna; ezagutzen, prozesuen eta estrategien transferentzia edo indartzea; lan oinarrizkoenak eta beharrezkoenak gehiago praktikatzeko; aukera ematen du beste hizkuntza batzuetan eta beste hizkuntza batzuetatik abiatuta prozesu bat gauzatzeko moduari buruzko ikuspegi kontrastatua izateko, eta hizkuntza bakoitzak nola funtzionatzen duen ikusteko.

Erreferentziako Esparru Europar Bateratua (EEEB) eta Hizkuntzen Portfolio Europarra (HPE)

Azken hamarkadetan, Europako Kontseiluak ikerketa bat egin du berrogeita bat estatu kideetako linguistika aplikatuko eta pedagogiako adituekin. Lan horri esker, orain hizkuntzen irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren helburuak eta metodologia, programen lanketa eta hizkuntza desberdinen ebaluazio irizpideak definitzen dituen oinarri bateratu bat dago.

EEEBak eta HPEak hizkuntzak ikasteko eta hiztunaren gaitasuna baloratzeko jarraibideak ezartzen ditu. Esparruak hizkuntza jakin bateko gaitasun komunikatiboaren garapenaren mailak definitzen ditu, esparru jakin bateko komunikazio helburu zehatz bat lortzeko egin beharrekoak gauzatzeko ikasleak behar duen gaitasunaren arabera. Agiri hori hizkuntza curriculumetarako gako-erreferentzia da.

Hizkuntzen Portfolio Europarra (HPE) irakaskuntza-ikaskuntza prozesurako laguntza-tresna bat da. Agiri pertsonal bat da, norberaren ikaskuntza, aurrerabidea eta ebaluazioa analizatzen laguntzen duena.

Eduki multzoak

Edukiak multzotan banatzeak ez du nahitaez adierazi nahi haien ordenatze sekuentzial edo hierarkikoa; izan ere, hizkuntzak ikasteari begira orokorrean onartzen den banaketa bat da, komunikatzeko trebetasunekin lotura zuzena duena. Eskuratu beharreko gaitasunaren konplexutasuna ere erakusten du.

Hizkuntzaren erabilerak lehenetsun bat izan behar du edukiak ikasi eta barneratzeko. Ikasgelako jarduerak komunikazio irizpideekin eta irizpide didaktikoekin hautatu eta gauzatu behar dira. Testuen produkzio gidatua –ahozko nahiz idatzizko testuak izan–, ereduak aurkeztuz edo analizatuz eta haien sormenezko imitazioa eginez edo haiek eraldatuz egindakoa, horrela xede eta egoera ezberdinei egokitzeko, baliabide eraginkorra izanen da trebetasunak (ahozko eta idatzizko adierazpena eta ulermena) integratzeko eta hizkuntzen tratamendu integratua lortzeko.

Testu mota desberdinak landuko dira, ahoz nahiz idatziz, etapa osoan zehar. Helburua izanen da ikasleek ikastetxean eta gizartean topatzen dituzten askotariko testu eta lanak hartzea. Curriculumeko beste hizkuntza batzuetan ikasitako testu-generoak berreskuratuko dira, eta lehendik landutako alderdiak sakonduko dira, bereziki gogoetari, komunikatzeko asmoari, diskurtsoaren elementuei eta gogoeta gramatikalaren alderdiei dagokienez.

Testuen tipologiari eta hizkuntza garatzen den testuinguruari dagokienez, ontzat ematen da ikasgelako komunikazio truke arruntak behin eta berriz agertuko direla hezkuntzaren etapa guztietan zehar: hizketaldiak, simulazioak, jarraibideak, galde-erantzunak, iruzkinak, gertakariei buruzko kontaerak. Lehen hizkuntzetan ematen den testu-tipologia, bigarrenetan ere aplikatuko da, baina irismen eta maila oinarrizkoago batez.

Edukien multzo bakoitzean, **trebetasunen eta estrategien** atala sartu da, eta hartan aurretik agertzen diren edukien hautapena garatuko da. Atal horrek ikasgelako jardueren plangintza erraztu eta zehaztu nahi du. Estrategiak irakatsi eta ikasi egiten direnez, lehentasuna eman behar zaio ikasleek hizkuntza desberdinetan egoera askotariko eta desberdinetara transferitu ditzaketen prozedura orokorrak garatu eta erabiltzeari. Estrategiak ez daude antolatuz ez kronologikoki, ez garrantziaren arabera hurrenkeran ere.

Edukiak bost multzotan banatu dira:

1. multzoa. Entzutea eta ulertzea, hitz egitea eta hizketan aritzea.
2. multzoa. Irakurtzea eta idaztea.
3. multzoa. Hezkuntza literarioa (L1) Alderdi soziokulturalak eta kulturarteko kontzientzia (L2)
4. multzoa. Hizkuntzaren ezaguera.
5. multzoa. Hizkuntzaren ikaskuntzari buruzko gogoeta.

Trebetasun linguistikoei dagozkien eduki multzoak –ulertzea eta hitz egitea eta irakurtzea eta idaztea– bereizirik ageri dira curriculumean diskurtso mota bakoitzaren oinarriko alderdiak berriaz landu ahal izateko. Hala eta guztiz ere, ahozko erabilerak eta idatzizko erabilerak alderdi asko dituzte batera (aldez aurretik ezarritako gaia, edukiaren plangintza, sintaxia eta hiztegia, arau estandar bati lotuta egotea ...), eta komunikazio egoera ugarian erabilera bat baino gehiago konbinatzen dira, bi ikaskuntzak lotzeko eta bie elkar sendotzeko aukera emanez.

Ahozko erabilera ez-formalak –harreman ohikoa eta familiarra duten hizlarien arteko erabilera espontaneoak– bidea ematen du ondokoekin ohitzeko: elkartrukea gidatzen duten arau sozio-komunitarioekin, erregistro desberdinekin eta tokiko hizkerekin, hiltunen behar bezalako komunikazioa lortzeko eta estereotipoak eta aurreiritziak ezagutu eta kritikatzeko jokoan jartzen dituzten estrategiekin.

Trebetasun linguistiko horien ikaskuntza hizkuntzaren erabileraren esparru batzuetan garatzen da: esparru akademikoan, pertsonen arteko eta erakundeekiko harremanen esparruan eta komunikabideen eta informazioaren teknologien eremuan. Hizkuntza erabiltzeko egoera desberdinetan trebetasun linguistiko jakin batzuetara jotzen da, zeren eta testuen –ahozkoak eta idatzizkoak– ulermenak eta osaketak berriazko trebetasun eta estrategiak behar baitituzte, komunikatzeko elkartruke motaren, elkartruke hori gertatzen den testuinguru sozialaren eta erabiltzen den testu motaren arabera.

Multzo horiek derrigorrezko hezkuntzan zehar ikasteko, maila batzuk ezarri dira, diskurtso-praktikek ikasleen esperientzia linguistiko eta kulturalarekiko duten hurbiltasunaren arabera, testuen barneko antolamenduak duen konplexutasunaren arabera eta esleitutako lanen zaitasunaren arabera.

Testu literarioak irakurtzeko eta interpretatzeko –3. multzoa– berriazko ikaskuntza batzuk behar dira; horiek lehen hezkuntzan hasiko dira lantzen, errezitatzeekin, joko erretorikoekin,

ahozko literaturako testuak entzutearekin edo dramatizazioekin. Horrela, lehen hurbilketa bat eginen da oinarriko konbentzio literarioetara eta obren eta haien testuinguru historikoaren arteko erlazioetara. Horrekin guztiarekin batera, irakurketaren plazerezko esperientziak eta testu literarioak birsortzea bideratuko dira. Hezkuntza literarioaren orientazio horrek jarraipena izanen du derrigorrezko bigarren hezkuntzan; orduan irakurtzeko azturak finkatuko dira, irakurketaren eta testu-birsorkuntzaren esparruetan izandako esperientziak ugalduko dira, eta konbentzio literarioei buruzko behaketa eta obren eta horien testuinguru historikoen arteko erlazioa sistematizatuko dira.

Bigarren hizkuntzetan, 3. multzoa *–Alderdi soziokulturalak eta kulturarteko kontzientzia–* lagungarri gertatzen da ikasleek ezagutu ditzaten kasuko hizkuntza hitz egiten den gizartearen ohiturak, harreman sozial motak eta berezitasunak; azken batean, beraienaz bestelako bizimoduak. Ezagutza horrek tolerantzia eta elkarren onartzea sustatzen du, beste errealitate sozial eta kultural batzuk ezagutzeko interesa areagotzen du eta kulturen arteko komunikazioa errazten du.

Bigarren hizkuntzetan, trebetasun linguistikoen multzoetan ageri da hezkuntza literarioa, hain zuzen ere testuen, trebetasun nahiz estrategien eta eduki kulturalen bitartez.

4. multzoak *–hizkuntzaren ezaguera–* eduki linguistikoak eta kontzeptu eta terminologia gramatikal batzuen barneratzea integratzen ditu. Multzo hau egotearen arrazoa da trebetasun linguistikoak eta komunikatzekoak barneratzeak berarekin dakarrela hizkuntzaren alderdi desberdinen gogoetazko erabilera: arau gramatikal eta ortografikoak; testuari kohesioa ematen laguntzen duten osagai morfosintaktikoak; eduki bera adierazteko erabil daitezkeen aukera sintaktiko desberdinak; hitzak osatzeko tresnak; dialektoak, erregistroak eta erabilera sozialak determinatzen dituzten faktoreak, eta abar.

Eduki linguistikoen irakaskuntza testuingurua emanez gauzatu behar da, hau da, modu praktikoa, zeren eta horrekin ikasleen trebetasunak eta produkzioak hobetu nahi baitira.

5. multzoan *–Hizkuntzaren ikaskuntzari buruzko gogoeta–* bilatzen da ikasleak ikasteko eta lan egiteko estilo pertsonal eta eraginkorra garatzea, estrategiak etengabe hobetzen joateko. Kontua da ikasleek gero eta hobeki jakitea nola eta noiz ikasten eta lan egiten duten gehiago. Halaber, lan egiteko eta ikasteko moduari buruzko gogoeta testuinguru batekin garatu behar da, gainerako eduki multzoetan aipaturiko lan eta jarduerekin lotura estua gordez.

OHAR gehigarria, hirugarren hizkuntzak (L3): atzerriko bigarren hizkuntza sartzen deenean, lehen hezkuntzan nahiz derrigorrezko bigarren hezkuntzan, hizkuntza horren edukiak kasuan kasuko etapako lehen mailetan bigarren hizkuntzarako ezarritakoak izanen dira, ikasleen ezaugarrien eta gaitasun linguistiko orokorraren arabera egin beharreko egokitzapenekin.

Gaztelania eta Literatura (L1)

Helburuak

1. Gai zehatzei nahiz abstraktuei buruzko ahozko eta idatzizko diskurtso luzeak eta nahiko konplexuak ulertzea, jarduera sozial eta kulturaleko testuinguru desberdinetan.
2. Ahoz eta idatziz modu argi, zehatz, koherente eta egokian adierazten jakitea, jarduera sozial eta kulturaren testuinguru desberdinetan.
3. Espainiaren eta Nafarroaren hizkuntza aniztasunaren errealitatea eta aldaera linguistikoak ezagutzea. Aniztasun hori kultur aberastasun gisa baloratzea.
4. Ahozko hizkuntza jarduera sozial eta kulturalean modu argi eta zehatzean erabiltzea, nolabaiteko arintasunez, modu espontaneoan eta kasuko egoerarako eta funtziorako modu egokian, errespetuzko eta lankidetzazko jarrera hartuz.
5. Erakunde publiko eta pribatuekin eta lan mundukoekin komunikazioa sortzeko idazki mota ezberdinak erabiltzea.
6. Modu erangikorrean hizkuntza erabiltzea, eskola jardueran, informazioa bilatu, hautatu eta prozesatzeko eta esparru akademikoko testuak idazteko.
7. Hizkuntza eskola-jardueran eraginkortasunez erabiltzea, bai informazioa bilatu, hautatu eta prozesatzeko, bai esparru akademikoak berezkoak dituen testuak idazteko.
8. Komunikabideak eta informazioaren teknologiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea informazio eta iritzi desberdinak lortu, interpretatu, hautatu, prestatu eta baloratzeko.
9. Irakurketa, esparru desberdinetan (literarioan, zientifikoan, sozialean ...), gozamenerako eta norberaren aberastasunerako iturri izan dadila lortzea, bai eta mundua ezagutzeko eta irakurtzeko azturak finkatzeko iturri ere.
10. Literatur testuak ulertu eta sortzea, genero bakoitzeko konbentzioei buruzko ezagupenak, tradizio literarioaren gaiak eta motiboak eta baliabide estilistikoak erabiliz.
11. Ondare literarioaren ezagutzara hurbiltzea, eta hura testuinguru historiko eta kultural desberdinetan banakako eta taldeko esperientzia sinbolizatzeke modu bat dela baloratzea.
12. Hizkuntzen erabilera sozial desberdinak analizatzea, balio-juzkuak eta aurreiritzi klasistak, arrazistak edo sexistak dakartzaten estereotipo linguistikoak saihesteko. Ikasteko prozesuei buruz gogoeta egitea eta komunikaziorako ezagutzak eta estrategiak beste hizkuntza batzuetara transferitzea.

Edukiak

1. multzoa. Entzutea eta ulertzea, hitz egitea eta hizketan aritzea.

Ziklo bakoitzerako proposatzen den testu tipologiak eskatzen du alde aurretik dedikazio sakonagoa eta jarraituagoa –baina ez esklusiboa– izatea aipatu testu motak lantzeko.

DBH1	DBH2
<ul style="list-style-type: none"> Ikus-entzunezko komunikabideetatik heldu diren eta ikasleen intereseetatik hurbil dauden gaurkotasuneko albisteak ulertzea. Esparru akademikoan erabilitako ahozko testuak ulertzea, kontuan hartuz, bereziki, lanen aurkezpena eta horiek egiteko jarraibideak, ahozko azalpen laburrak eta komunikabideetatik hartutako dokumentalen informazioak lortzea. Hizkuntza erabiltzea norberaren ezagupenen, ideien eta sentimenduen kontzientzia hartzeko eta norberaren jokabidea erregulatzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> Ikus-entzunezko komunikabideetatik heldu diren gaurkotasuneko informazioak ulertzea. Esparru akademikoan erabilitako ahozko testuak ulertzea, kontuan hartuz, bereziki, lanen aurkezpena eta horiek egiteko jarraibideak, ahozko azalpen laburrak eta komunikabideetako albistegi eta dokumentaletatik informazioak lortzea. Testu desberdinetatik bildutako informazioa alde aurretik ezarritako xedeetarako erabiltzea (laburpenak egin, eskemak osatu, entzundakoa komentatu edo kritikatu). Hizkuntza erabiltzea norberaren ezagupenen, ideien eta sentimenduen kontzientzia hartzeko eta norberaren jokabidea erregulatzeko.
<ul style="list-style-type: none"> Esparru akademikoak berezkoak dituen komunikazio egoeretan aktiboki parte hartzea, bereziki jarraibideak direla-eta argibideak eskatzean, lanak antolatze moduari buruzko proposamenetan, egindako jardueren sekuentzia errazak deskribatzean, iritzi trukaketan eta ondorioen azalpenean. Komunikabideetatik hartutako gaurkotasuneko informazioak azaltzea. Ahoz narratzea, alde aurretik prestaturiko gidoi batetik abiatuta, esperientziarekin loturiko egitateak, betiere esperientzia hori sekuentzian eta argitasunez aurkeztuz, deskribapen errazak txertatuz eta azaldutakoaren inguruko ideiak eta balorazioak ere sartuz; horretarako, ikus-entzunezkoen eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien laguntza izanen du ikasleak. Laguntza eta errespetu jarrerak ikaskuntza konpartituko egoeretan 	<ul style="list-style-type: none"> Esparru akademikoak berezkoak dituen komunikazio egoeretan aktiboki parte hartzea, bereziki jarduera antolatze moduari buruzko proposamenetan, baterako lanerako informazio erabilgarrien ekarpenetan eta egindako lanei buruzko txosten laburren azalpenean. Komunikabideetatik hartutako informazioak azaltzea, komunikabide desberdinetan egitateak aurkezteko modu desberdinetan azpimarra jarri, informazioa argitasunez eta modu antolatuan aurkeztuz eta informazio garrantzitsua hautatuz. Ikasleen intereseko gai buruzko informazioak modu antolatu eta argian aurkeztea –haiek alde aurretik prestatu ondoren–, ikus-entzunezko bitartekoak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiliz (azalpenak laburrak izanen dira, baina haietan erakutsiko da informazio garrantzitsua hautatu dela). Laguntza eta errespetu jarrerak ikaskuntza konpartituko egoeretan.
<p>Testuak</p> <ul style="list-style-type: none"> Leku eta gauzen deskribapenak; erretratu fisikoa eta izaeraren erretratua; deskribapen literario eta teknikoak. Narrazio testuak: egituraren elementu nagusiei erreparatuz: esparrua, korapiloa, pasarteak, pertsonaiak, narraziailea ... Elkarrizketak: elkarrizketa eta komikia. 	<p>Testuak</p> <ul style="list-style-type: none"> Publizitate testuak (deiak, iragarkiak). Argudiozko testuak (iritzi-gutuna). Narrazio testuak (albistea, kronika, narrazioa, txostenak).

DBH3	DBH4
<ul style="list-style-type: none"> Ikus-entzunezko komunikabideetatik heldu diren testuak ulertzea, arreta berezia jarri irriatiak eta telebistak emandako erreportaje eta elkarrizketetan. Esparru akademikoan erabilitako ahozko testuak ulertzea, kontuan hartuz, bereziki, lanen aurkezpena eta horiek egiteko jarraibideak, ahozko azalpen laburrak eta komunikabideetako albistegi eta dokumental, erreportaje edo elkarrizketetatik informazioak lortzea. Hizkuntza erabiltzea norberaren ezagupenen, ideien eta sentimenduen kontzientzia hartzeko eta norberaren jokabidea erregulatzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> Ikus-entzunezko komunikabideetatik heldu diren testuak ulertzea, arreta berezia jarri irriatiak edo telebistak emandako elkarrizketetan eta entzuleen iritzietan. Ikasleen ezagutza arloekin lotura duten eta esparru akademikoan egiten diren aurkezpen, azalpen edo hitzaldiak ulertzea. Hizkuntza erabiltzea norberaren ezagupenen, ideien eta sentimenduen kontzientzia hartzeko eta norberaren jokabidea erregulatzeko.
<ul style="list-style-type: none"> Esparru akademikoak berezkoak dituen komunikazio egoeretan aktiboki parte hartzea, bereziki jarduera antolatzeko moduari buruzko proposamenetan, baterako lanerako informazio erabilgarrien ekarpenetan eta egindako lanei buruzko txostenen azalpenean. Gaurkotasuneko gai bati buruz komunikabide batetik hartutako informazioa azaltzea, ahozko elkarreraginen gainera dauden arauak errespetatuz. Aldez aurretik prestaturiko ahozko azalpen errazak egitea, modu antolatua eta argian, ikasleen interesekoak diren gaurkotasun sozial, politiko edo kulturalako egitatei buruz, ikus-entzunezko bitartekoen eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien laguntzarekin. Laguntza eta errespetu jarrerak ikaskuntza konpartituko egoeretan. 	<ul style="list-style-type: none"> Aktiboki esku hartzea esparru akademikoak berezkoak dituen komunikazio egoeretan, bereziki jardueren plangintza egiteko proposamenetan eta lanen jarraipenari eta ebaluazioari buruzko txostenen aurkezpenetan. Gaurkotasuneko gai bati buruz komunikabide batzuetatik hartutako informazioa azaltzea eta ikuspuntu desberdinak eta komunikabide horietan adierazitako iritzia kontrastatzea, betiere ahozko elkarreraginen gainera dauden arauak errespetatuz. Ahozko aurkezpen argiak eta ongi egituratuak egitea jarduera akademikoarekin edo gaurkotasun sozial, politiko edo kulturalarekin zertikusia duten eta ikuspuntu eta jarrera desberdinak sorrazten dituzten gaiei buruz, ikus-entzunezko bitartekoen eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien laguntzarekin. Laguntza eta errespetu jarrerak ikaskuntza konpartituko egoeretan.
<p>Testuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> Narrazio testuak: kazetaritzakoak (erreportajea, elkarrizketak, albistegi buruzko artikulua, txostenak). Azalpen testuak (definizioa, azalpena, laburpena). 	<p>Testuak</p> <ul style="list-style-type: none"> Argudiozko testuak (iruzkinak, kontra-argudioak, argudio zientifikoak), testu formalak eta administratiboak (erreklamazioa, erredua). Azalpen testuak (akta, interpretazioa). Jarraibideak emateko testuak (jarraibideak, arauak).

DBH1	DBH2
<p>Trebetasunak eta estrategiak</p> <p>Ahozkoaren ulermena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Aldez aurretik informazioa biltzea eta entzunen dena iragartzea. • Aktiboki entzutea, gainerako pertsonak eta haien iritziak errespetatuz. • Entzundakoari buruzko oharrak hartu, laburpenak, eskemak eta mapa kontzeptualak egin eta informazioa nola dagoen antolatuta analizatzea. • Testuaren gai orokorra, ideiak eta egitate edo datu nagusiak zehaztu eta adieraztea. • Igorlearen asmoa hartzea; mintzakideak eta haien ikuspuntuak identifikatzea. • Norberaren ulermena baloratzea. 	<p>Trebetasunak eta estrategiak:</p> <p>Ahozkoaren ulermena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Aldez aurretik informazioa biltzea eta entzunen dena iragartzea. • Aktiboki entzutea, gainerako pertsonak eta haien iritziak errespetatuz. • Entzundakoari buruzko oharrak hartu, laburpenak, eskemak eta mapa kontzeptualak egin eta informazioa nola dagoen antolatuta analizatzea. • Informazioa eta iritzia bereiztea. • Edukia baloratzea ondoko irizpideen arabera: soiltasuna - konplexutasuna, luze-laburra, eduki berrien aberastasuna eta aniztasuna eta abar. • Norberaren ulermena baloratzea.
<p>Ahozko adierazpena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Eskola esparruan ikaskideen aurrean emateko ahozko azalpen bat prestatzea, eta elkarrizketa baterako esku-hartzea prestatzea, alderdi guztiei errepertuz: helburua, mintzakideak, erregistroa, diskurtsoaren estiloa. • Informazioa bildu eta antolatzea helburuaren eta entzuleen arabera, gidoi bati jarraituz. • Ideiak ordena koherente baten arabera antolatzea eta haiek sekuentzian eta argitasunez aurkeztea. • Azalpenaren entsegua egitea. • Argitasunez hitz egitea, ildoak galdu gabe, gidaira behin eta berriz jo gabe, ikus-entzunezko bitartekoen eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien laguntzarekin. • Elkarrizketan gertatzen diren aldaketei egokitzea. • Taldeko jardueretan rol desberdinak hartzea: moderatzailea, eleuduna, idazkaria. • Bizikidetasun arauak eta hitz egiteko txandak errespetatzea. • Norberaren eta besteen azalpenak objektiboki baloratzea. Irakaslearen laguntzarekin testuaren forma eta edukia hobetzeko moduak aurkitzea. 	<p>Ahozko adierazpena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Eskola esparruan ikaskideen aurrean emateko ahozko azalpen bat prestatzea, eta elkarrizketa baterako esku-hartzea prestatzea, alderdi guztiei errepertuz: helburua, mintzakideak, erregistroa, diskurtsoaren estiloa. • Informazioa bildu eta antolatzea helburuaren eta entzuleen arabera, gidoi bati jarraituz. • Baliabideak, hizkuntza eta funtzio linguistiko egokiak behar bezala erabiltzea. • Azalpenaren entsegua egitea. • Argitasunez hitz egitea, ildoak galdu gabe, gidaira behin eta berriz jo gabe, ikus-entzunezko bitartekoen eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien laguntzarekin. • Esaten dena eta hura adierazteko bitartekoak unearen eta entzuleen arabera egokitzea, entzuleen arretari eusten saiatuz (enfasia, bolu-mena, tonua, entzuleen igurikapenak piztea: galderak, datu interesgarriak, umorea, ikusizko laguntzak ...) esan nahi dena birformulatuz eta abar. • Taldeko jardueretan rol desberdinak hartzea: moderatzailea, eleuduna, idazkaria. • Bizikidetasun arauak eta hitz egiteko txandak errespetatzea. • Norberaren eta besteen azalpenak objektiboki baloratzea. Irakaslearen laguntzarekin testuaren forma eta edukia hobetzeko moduak aurkitzea.

DBH3	DBH4
<p>Trebetasunak eta estrategiak:</p> <p>Ahozkoaren ulermena:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Aldez aurretik informazioa biltzea eta entzuten dena iragartzea. • Aktiboki entzutea, gainerako pertsonak eta haien iritziak errespetatuz. • Entzundakoari buruzko oharra hartu, laburpenak, eskemak eta mapa kontzeptualak egin eta informazioa nola dagoen antolatuta analizatzea. • Identifikatzea zer, nola, nori (adina, jarrera, jatorri sozio-kulturala, xedeak inferitzea edo deduzitzea) eta zertarako entzuten den. • Ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereiztea; diskurtsoan garrantzitsua dena ezagutzea. • Informazioa eta iritzia bereiztea. • Analizatzea informazioa nola dagoen antolatuz (egitura, antolaketa, erregistro mota, ahotsa, hitzezkoak ez diren elementuak eta abar). • Mezuaren edukia eta forma baloratzea (egitura, hizkuntza mota, ezaugarri akustikoak, luzera eta aberastasuna eta abar). • Norberaren ulermena baloratzea. 	<p>Trebetasunak eta estrategiak</p> <p>Ahozkoaren ulermena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Aldez aurretik informazioa biltzea eta entzuten dena iragartzea. • Aktiboki entzutea, gainerako pertsonak eta haien iritziak errespetatuz. • Diskurtsoaren elementuak gordetzea, oharra hartuz, eskemak eta krokisak erabiliz eta abar. • Identifikatzea: elementu implizituak, aurreiritziak, gainulertuak, zentzu bikoitzak, anbiguotasunak, elipsiak, igorlearen jarrera (intonazioa, bolumena), diskurtsoaren tonua (oldarkortasuna, ironia, umorea, iseka eta abar), hitzez besteko elementuak ... • Informazioa eta iritzia bereiztea, eta ongi justifikaturiko argudioak eta gaizki justifikaturikoak. • Gai berri bat jadanik ezagutzen den beste batekin lotzea. • Azalpenak grabazioen bidez, oharra hartuz edo beste bide batzuetatik analizatzea eta norberaren ulermena baloratzea. • Norberaren ulermena baloratzea.
<p>Ahozko adierazpena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Eskola esparruan egiteko eta ikaskideen aurrean emateko ahozko azalpen bat prestatzea, eta elkarrizketa baterako esku-hartzea prestatzea, alderdi guztiei erreparatuz: helburua, mintzakideak, erregistroa, diskurtsoaren estiloa. • Informazioa bildu eta antolatzea helburuaren eta entzuleen arabera, gidoi bat prestatuz. • Azalpenaren entsegua egitea. • Argitasunez hitz egitea, ildoak gabe, gidoia behin eta berriz jo gabe, ikus-entzunezko bitartekoen eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien laguntzarekin. • Taldeko jardueretan rol desberdinak hartzea: moderatzailea, eleduna, idazkaria. • Bizikidetasun arauak eta hitz egiteko txandak errespetatzea. • Norberaren eta besteen azalpenak objektiboki baloratzea. Irakaslearen laguntzarekin testuaren forma eta edukia hobetzeko moduak aurkitzea. 	<p>Ahozko adierazpena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikuspuntu eta jarrera desberdinak onartzen dituen ahozko azalpen bat prestatzea. • Informazioa bildu eta antolatzea helburuaren eta entzuleen arabera, gidoi bat prestatuz. • Azalpenaren entsegua egitea. • Argitasunez hitz egitea, ildoak gabe, gidoia behin eta berriz jo gabe, ikus-entzunezko bitartekoen eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien laguntzarekin. • Hitz egiteko txandak eta kortesiazko formulak eraginkortasunez erabiltzea. Esku hartzeko une egokia hautatu eta ongi aprobetxatzea. Diskurtsoa zaintzea: erritmoa, abiadura, etenak, intonazioa eta abar. Hitzez besteko elementuak: begirada, keinuak, mugimenduak eta abar. • Entzuleen arreta erakartzea eta hari eustea estrategia desberdinen bitartez (bolumena, tonua aldatzea, umorea, adibideak jartzea). • Behar ez diren errepikapenak saihestea; informazio akastunak eta egokiak ez diren ideiak eta informazioak identifikatzea. • Taldeko jardueretan rol desberdinak hartzea: moderatzailea, eleduna, idazkaria. • Bizikidetasun arauak eta hitz egiteko txandak errespetatzea. • Norberaren eta besteen azalpenak objektiboki baloratzea. Irakaslearen laguntzarekin testuaren forma eta edukia hobetzeko moduak aurkitzea.

2. multzoa. Irakurtzea eta idaztea

Ziklo bakoitzerako proposatzen den testu tipologiak eskatzen du aldez aurretik dedikazio sakonagoa eta jarraituagoa-baina ez eskusiboa- izatea aipatu testu motak lantzeko.

DBH1	DBH2
<p>Idatzizko testuak ulertzea</p> <ul style="list-style-type: none"> Eguneroko bizitzako kontuei buruzko eta ikasleen esperientziatik hurbil dauden esparruetako giza harremani buruzko testuak ulertzea; esate baterako, gauzak erabiltzeko jarraibideak, arauak eta deiak. Komunikabideetako testuak ulertzea, egunkariaren egiturari (atalak eta generoak) eta elementu paratestualei erreparatuz, eta arreta berezia jarriz eguneroko bizitzarekin loturiko albisteetan eta egitatei buruzko informazioetan. Esparru akademikoko testuak ulertzea, arreta berezia jarriz azalpen testuetan eta testu argitzaileetan, lanak egiteko jarraibideetan, kontsultetan; euskarri desberdinak erabiliko dira horretarako: hiztegiak, glosarioak eta bestelako informazio iturriak (entziklopediak eta hezkuntzaren arloko web orriak, esate baterako). Ikastetxeko liburutegiaren erabilera gidatua eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiena, informazioa lortzeko eta idatzizko lanak egiteko ereduak aurkitzeko. Gogoetazko jarrera eta jarrera kritikoa edozein motatako diskriminazioa dakarten mezuak direla-eta dagoen informazioarekiko. 	<p>Idatzizko testuak ulertzea</p> <ul style="list-style-type: none"> Eguneroko bizitzako kontuei buruzko eta ikasleen esperientziatik hurbil dauden esparruetako giza harremani buruzko testuak ulertzea; esate baterako, arauak, deiak eta komunikazioak. Komunikabideetako testuak ulertzea, bereziki egitatei buruzko informazioa, albisteak eta kronikak, egunkari digitalaren egiturari (atalak eta generoak) eta elementu paratestualei erreparatuz. Esparru akademikoko testuak ulertzea, arreta berezia jarriz azalpen testuetan eta testu argitzaileetan, lanak egiteko jarraibideetan, kontsultetan; euskarri desberdinak erabiliko dira horretarako: hiztegiak, glosarioak eta bestelako informazio iturriak (entziklopediak eta hezkuntzaren arloko web orriak, esate baterako). Ikastetxeko liburutegiaren erabilera gero eta autonomoagoa eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiena, informazioa lortzeko eta idatzizko lanak egiteko ereduak aurkitzeko. Gogoetazko jarrera eta jarrera kritikoa edozein motatako diskriminazioa dakarten mezuak direla-eta dagoen informazioarekiko.
<p>Idatzizko testuak sortzea</p> <ul style="list-style-type: none"> Eguneroko bizitzako kontuei buruzko eta ikasleen esperientziatik hurbil dauden esparruetako giza harremani buruzko testuak sortzea; esate baterako, gutun pertsonala, oharrak eta deiak. Ikastetxeko liburutegiaren erabilera gidatua eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiena, informazioa lortzeko eta idatzizko lanak egiteko ereduak aurkitzeko. Komunikabideetako testuak sortzea, bereziki albisteak, euskarri inprimatu edo digitalerako. Paperean edo euskarri digitalean, esparru akademikoko testuak sortzea, bereziki laburpenak, azalpen errazak, glosarioak eta egindako lan eta ikasketei buruzko ondorioak. Idatzizko testugintzarekiko interesa, informazio eta ikaskuntza iturri gisa, eta norberaren esperientziak eta ezagutzak komunikatzeko modu gisa, eta jokabidea erregulatzeko bitarteko gisa. Testu idatzien aurkezpen txukunak egiteko interesa, paperean nahiz euskarri digitalean, arau ortografikoak eta tipografikoak errespetatuz. 	<p>Idatzizko testuak sortzea</p> <ul style="list-style-type: none"> Eguneroko bizitzako kontuei buruzko eta ikasleen esperientziatik hurbil dauden esparruetako giza harremani buruzko testuak sortzea; arreta berezia jarriko zaie foroetan parte hartzeari eta eskabide-gutunei. Ikastetxeko liburutegiaren erabilera gero eta autonomoagoa, eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiena, informazioa lortzeko eta idatzizko lanak egiteko ereduak aurkitzeko. Komunikabideetako testuak sortzea, bereziki kronikak, euskarri inprimatu edo digitalerako, audiorako nahiz bideoarako. Publizitate testuak sortzea. Argudiozko testuak sortzea. Iritzi-gutuna. Nola sortu, paperean nahiz euskarri digitalean (forma desberdinetan: sekuentzia, deskribapena, konparaketa, arazoa/konponbidea eta kausa/ondorioa), esparru akademikoko testuak, bereziki laburpenak, aurkezpenak eta azalpen errazak, glosarioak eta egindako lan eta ikasketei buruzko ondorioak, paperean nahiz euskarri digitalean aurkeztuak. Idatzizko testugintzarekiko interesa, informazio eta ikaskuntza iturri gisa, eta norberaren esperientziak eta ezagutzak komunikatzeko modu gisa, eta bizikidetasuna erregulatzeko bitarteko gisa. Aintzat hartzea testu idatzien aurkezpen txukunak egin beharra, paperean nahiz euskarri digitalean, arau ortografikoak eta tipografikoak errespetatuz.

DBH3	DBH4
<p>Idatzizko testuak ulertzea</p> <ul style="list-style-type: none"> Eguneroko bizitzako eta giza harremanetako gaiei buruzko testu propioak ulertzea; esate baterako, deialdiak eta eguneko gai zerrendak, bileretako aktak eta erregelamenduak. Komunikabideetako testuak ulertzea, kroniketan, erreportajeetan eta elkarrizketetan informazioa eta iritzia bereiziz. Esparru akademikoko testuak ulertzea, arreta berezia jarritzegien, glosarioen eta bestelako informazio iturrien kontsultan, euskarri desberdinetan. Liburutegiak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu autonomoan erabiltzea, informazioa aurkitu, hautatu eta antolatzeko. Gogoetazko jarrera eta jarrera kritikoa edozein motatako diskriminazioa dakarten mezuak direla-eta dagoen informazioarekiko. 	<p>Idatzizko testuak ulertzea</p> <ul style="list-style-type: none"> Eguneroko bizitzako eta giza harremanetako gaiei buruzko testuak ulertzea; esate baterako, lege-xedapenak, kontratuak, liburuxkak eta erakundeetako eta merkataritza arloko gutunak. Komunikabideetako testuak ulertzea, arreta berezia eskainiz iritzigeroei; esate baterako editorialak edo zutabeak. Esparru akademikoko testuak ulertzea, arreta berezia jarritzegien, glosarioen eta bestelako informazio iturrien kontsultan, euskarri desberdinetan; saiakeren zatiak horren barnean sartuko dira. Liburutegiak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu autonomoan erabiltzea, informazioa aurkitu, hautatu eta antolatzeko. Gogoetazko jarrera eta jarrera kritikoa edozein motatako diskriminazioa dakarten mezuak direla-eta dagoen informazioarekiko.
<p>Idatzizko testuak sortzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> Eguneroko bizitzako eta giza harremanetako gaiei buruzko testuak osatzea, arreta berezia eskainiz foroetan parte hartzeari, eguneroko pertsonalak egiteari (paperean nahiz euskarri digitalean), erregelamenduei, zirkularrei eta bileretako aktei. Liburutegiak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu autonomoan erabiltzea, informazioa aurkitu, hautatu eta antolatzeko. Komunikabideetako testuak sortzea, bereziki erreportajeak edo elkarrizketak, euskarri idatzi edo digitalerako, audiorako nahiz bideo-rako. <p>Paperean edo euskarri digitalean esparru akademikoko testuak sortzea, aurkezpen testuak eta azalpen testuak, lortutako eta eskemen, mapa kontzeptualen eta laburpenen bidez antolatutako informazioa erabiliz sortutakoak; lan eta ikasketei buruzko proiektuak eta txostenak egitea.</p> <ul style="list-style-type: none"> Idatzizko testugintzarekiko interesa, informazio eta ikaskuntza iturri gisa, eta norberaren esperientziak eta ezagutzak komunikatzeko modu gisa, eta bizikidetasuna erregulatze bitarteko gisa. Aintzat hartzea testu idatzien aurkezpen txukunak egin beharra, paperean nahiz euskarri digitalean, arau ortografikoak eta tipografikoak errespetatuz. 	<p>Idatzizko testuak sortzea</p> <ul style="list-style-type: none"> Eguneroko bizitzako eta giza harremanetako gaiei buruzko testu argiak eta xehetasunak dituztenak sortzea, arreta berezia eskainiz foroari, eskari eta eskabideei, erreklamazioei, curriculum vitaeari eta liburuxkei. Komunikabideetako testu argiak eta xehetasunak dituztenak sortzea, bereziki zuzendariarentzako gutunak eta iritzi-artikuluak -esate baterako, editorialak eta zutabeak-, euskarri idatzirako nahiz digitalerako, adierazpenerako eta pertsuasiorako baliabideak eraginkortasunez erabiliz. Paperean edo euskarri digitalean esparru akademikoko testu argiak eta xehetasunak dituztenak sortzea, bereziki aurkezpen testuak, azalpen testuak eta argudiozko testuak, iturri desberdinetatik lortu eta eskemen, mapa kontzeptualen eta laburpenen bidez antolatutako informazioa erabiliz sortutakoak; halaber, lan eta ikasketei buruzko proiektuak eta txostenak egitea. Idatzizko testugintzarekiko interesa, informazio eta ikaskuntza iturri gisa, eta norberaren esperientziak eta ezagutzak komunikatzeko modu gisa, eta bizikidetasuna erregulatze bitarteko gisa. Aintzat hartzea testu idatzien aurkezpen txukunak egin beharra, paperean nahiz euskarri digitalean, arau ortografikoak eta tipografikoak errespetatuz.

DBH1	DBH2
<p>Testuak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Deskribapenak: leku eta gauzen deskribapenak; erretratu fisikoa eta izaeraren erretratuak; deskribapen literario eta teknikoak ... • Narrazio testuak: egituraren elementu nagusiei erreparatuz: esparrua, korapiloa, pasarteak, pertsonaiak, narratzailea, elkarriketak (zuzeneko eta zeharkako estiloak) eta abar. • Elkarriketak: elkarriketa eta komikia. 	<p>Testuak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Publizitate testuak. • Argudiozko testuak (iritzi-gutuna). • Narrazio testuak (albistea, kronika, erreportajea eta artikulua).
<p>Trebetasunak eta estrategiak</p> <p>Idatziaren ulermena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Irakurtzeko prozesuan estrategiak aplikatzea: irakurri aurretik, aurre-irakurketa (aldez aurreko ezagutzak aktibatzea, gauzak iragartzea), irakurketa, irakurri ondoren. • Irakurketarako estrategia egokiak aplikatzea: analisia (irakurtzea, azpimarratzea, oharrak hartzea) eta sintesia (eskemak, laburpenak eta mapa kontzeptualak). • Testu baten informazio zehatzak ateratzea eta gai orokorra identifikatzea, gai hori esplizituki agertzen deneko esakuneak ezagutuz. Testuaren atalak eta antolaketa identifikatzea. • Irakurketa adierazkorra, tonua identifikatuz, puntuazio-markak intonazioaren arabera interpretatuz, baliabide prosodikoak eta keinuak erabiliz. • Ezagutza morfosintaktikoak (deixia, aditzaren denbora eta aspektua) eta lexikoak (sinonimia, hiperonimia, hitz-elkarketa eta hitz-eratorpena). • Testuetako denborazko markagailuak eta lokailuak ezagutzea. • Deskribapen baten ezaugarriak identifikatzea. • Narrazio testu baten egiturazko elementu nagusiak identifikatzea: esparrua, korapiloa, pasarteak, pertsonaiak, narratzailea, elkarriketak (zuzeneko eta zeharkako estiloak) eta abar. • Komikiaren ezaugarriak identifikatzea. • Iritzia osatzea testuaren formari eta hizkuntzari buruz eta edukari eta antolaketari buruz. • Baloratzea informazioa behar bestekoa den, argia den, ongi antolatuta dagoen, eta harekin proposaturiko lanak bete ahal izanen diren. 	<p>Trebetasunak eta estrategiak</p> <p>Idatziaren ulermena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Irakurtzeko prozesuan estrategiak aplikatzea: irakurri aurretik, aurre-irakurketa (aldez aurreko ezagutzak aktibatzea, gauzak iragartzea), irakurketa, irakurri ondoren. • Irakurketarako estrategia egokiak aplikatzea: analisia (irakurtzea, azpimarratzea, oharrak hartzea) eta sintesia (eskemak, laburpenak eta mapa kontzeptualak). • Testu baten gai orokorra eta bigarren mailako gaiak identifikatzea, esplizituki agertzen deneko esakuneak ezagutuz. • Irakurketa adierazkorra, tonua identifikatuz, puntuazio-markak intonazioaren arabera interpretatuz, baliabide prosodikoak eta keinuak erabiliz. • Ezagutza morfosintaktikoak (deixia, aditzaren denbora eta aspektua) eta lexikoak (sinonimia, hiperonimia, hitz-elkarketa eta hitz-eratorpena). • Testuetako denborazko markagailuak eta lokailuak ezagutzea. • Narrazio testuen ezaugarriak eta denborazko garapen lineala eta ez-lineala duten egitateen sekuentzia identifikatzea. • Publizitatearen arloko testuak sistematikoki analizatu eta elementu azpimarragarrienak identifikatzea: gehien erabiltzen diren elementuak eta baliabideak, ezaugarriak, gizartean duten eragina eta abar. • Argudiozko testuaren argudio eta ezaugarriak identifikatzea (igorlea, tesia, argudioak, ikuspuntuak eta abar). Informazio objektiboak eta iritziak bereiztea. • Iritzia osatzea testuaren formari eta hizkuntzari buruz eta edukari eta antolaketari buruz. • Testuen edukia eta forma konparatzea. • Baloratzea informazioa behar bestekoa den, argia den, ongi antolatuta dagoen, eta harekin proposaturiko lanak bete ahal izanen diren.

DBH3	DBH4
<p>Testuak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Kazetaritzakoak (erreportajea, elkarrizketa ...). • Azalpen testuak 	<p>Testuak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Testu formal eta administratiboak: curriculum vitae, eskabidea, erregua, posta elektronikoa, erreklamazioa eta abar. • Argudiozko testuak (ikuspuntua eta kontra-argudiatzea).
<p>Trebetasunak eta estrategiak</p> <p>Idatziaren ulermena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Irakurtzeko prozesuan estrategiak aplikatzea: irakurri aurretik, aurre-irakurketa (aldez aurreko ezagutzak aktibatzea, gauzak iragartzea), irakurketa, irakurri ondoren. • Irakurketarako estrategia egokiak aplikatzea: analisia (irakurtzea, azpimarratzea, oharrak hartzea) eta sintesia (eskemak, laburpenak eta mapa kontzeptualak). • Irakurketa adierazkorra, tonua identifikatuz, puntuazio-markak intonazioaren arabera interpretatuz, baliabide prosodikoak eta keinuak erabiliz. • Ezagutza morfosintaktikoak (deixia, aditzaren denbora eta aspektua) eta lexikoak (sinonimia, hiperonimia, hitz-elkarketa eta hitz-eratorpena). • Testuetako denborazko markagailuak eta lokailuak ezagutzea. • Testu baten informazio garrantzitsua lortzea; gaiari buruzko ezagutzekin erlazionatzea; gai orokorra eta bigarren mailako gaiak inferitzea; testuaren atalak elkarrekin erlazionatzea. • Testuen oinarriko ezaugarriak eta antolaketa identifikatzea. • Iritzia osatzea testuaren formari eta hizkuntzari buruz eta edukiari eta antolaketari buruz. • Baloratzea informazioa behar bestekoa den, argia den, ongi antolatuta dagoen, eta harekin proposaturiko lanak bete ahal izanen diren. 	<p>Trebetasunak eta estrategiak</p> <p>Idatziaren ulermena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Irakurtzeko prozesuan estrategiak aplikatzea: irakurri aurretik, aurre-irakurketa (aldez aurreko ezagutzak aktibatzea, gauzak iragartzea), irakurketa, irakurri ondoren. • Irakurketarako estrategia egokiak aplikatzea: analisia (irakurtzea, azpimarratzea, oharrak hartzea) eta sintesia (eskemak, laburpenak eta mapa kontzeptualak). • Testuan errepikatzen diren informazioetatik eta norberaren ezagutzetatik abiatuta, gai nagusia eta bigarren mailako gaiak inferitzea. Inferitzea edo deduzitzea elementu implizituak, auresuposamen- duak, gainulertuak, zentzu bikoitzak, anbigutasunak, elipsiak, umorea ironia eta abar. • Irakurketa adierazkorra, tonua identifikatuz, puntuazio-markak intonazioaren arabera interpretatuz, baliabide prosodikoak eta keinuak erabiliz. • Ezagutza morfosintaktikoak (deixia, aditzaren denbora eta aspektua) eta lexikoak (sinonimia, hiperonimia, hitz-elkarketa eta hitz-eratorpena). • Testuetako denborazko markagailuak eta lokailuak ezagutzea. • Testu batean erabilitako erregistroa identifikatzea: formula/ez-formala. • Testu formalak identifikatzea (curriculum vitae, aurkezpen gutuna, eskabidea, erreklamazioa eta abar). • Argudiozko testuetako komunikazio egoera aztertzea: igorlearen asmoa, asmoa markatzen duten hitzak eta esaldiak identifikatzea, modalizatzea eta abar. • Azalpenak eta argudioak bereiztea. • Iritzia osatzea testuaren formari eta hizkuntzari buruz eta edukiari eta antolaketari buruz. • Testuen edukia eta forma konparatzea. • Baloratzea informazioa behar bestekoa den, argia den, ongi antolatuta dagoen, eta harekin proposaturiko lanak bete ahal izanen diren. • Informazioa baloratzea eta epaitzea, norberaren iritzia osatzeko.

DBH1	DBH2
<p>Idatzizko adierazpena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Testuen osaketarako plangintza egitea: proiektua, eskema, zirriborroa, idazketa, berrikuspena, edizioa. • Narrazio testuaren plangintza egitea: hasierako egoera definitzea (pertsonaiak, lekua, denbora, narratzailea eta abar), korapiloa, amaiera. • Elkarrizketaren plangintza egitea: gaia hautatzea, galderak prestatzea, horiek elkarrizketatu behar den pertsonari egokitzea, elkarrizketa bat egiteko teknikak aplikatzea eta abar. • Komikiaren plangintza egitea: kontuan hartuz komiki mota desberdinak (historikoak, didaktikoak, propaganda egitekoak, joko erakoak), onomatopeiak, gehiegikeriak eta abar. • Testuak dioena eta hura adierazteko bideak testu motaren eta hartzailearen arabera egokitzea. Letra argi eta irakurgarria, aurkezpen txukuna. • Norberaren baliabideak edo kontsultako baliabideak (hiztegiak, gramatikak, testu prozesadoreak) erabiltzea norberaren akatsak zuzentzeko. • Testu mota bat beste batera bihurtzea (komikia edo olerki bat narrazio eta deskribapen testu bihurtzea; istorio bat zinemarako gidoi bihurtzea; ipuin bateko zati bat albiste bihurtzea ...). • Norberaren eta besteen produkzioa objektiboki baloratzea. Irakaslearen laguntzarekin testuaren forma eta edukia hobetzeko moduak aurkitzea. 	<p>Idatzizko adierazpena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Testuen osaketarako plangintza egitea: proiektua, eskema, zirriborroa, idazketa, berrikuspena, edizioa. • Azalpen testuen, pertsuasio testuen eta kazetaritzako testuen plangintza egiteko teknikak aplikatzea, iturriak hautatuz, ideiak argitasunez antolatuz eta esakuneak sekuentzia lineal kohesionatuetan kateatuz. • Testu argiak idaztea, xehetasunekin, eta kohesio handiagorekin, informazioa eta argudioak iturri desberdinetatik hartuz. • Argudiozko testuaren plangintza egitea: argudio bat garatzea, ikuspuntu jakin baten alde edo aurka arrazoiak ematea, eta aukera desberdinen alde onak eta txarrak azaltzea. • Testuak dioena eta hura adierazteko bideak testu motaren eta hartzailearen arabera egokitzea. Letra argi eta irakurgarria, aurkezpen txukuna. • Norberaren baliabideak edo kontsultako baliabideak (hiztegiak, gramatikak, testu prozesadoreak) erabiltzea norberaren akatsak zuzentzeko. • Testu mota bat beste batera bihurtzea (komikia edo olerki bat narrazio eta deskribapen testu bihurtzea; istorio bat zinemarako gidoi bihurtzea; ipuin bateko zati bat albiste bihurtzea ...). • Norberaren eta besteen produkzioa objektiboki baloratzea. Irakaslearen laguntzarekin testuaren forma eta edukia hobetzeko moduak aurkitzea.

DBH3	DBH4
<p>Idatzizko adierazpena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Testuen osaketarako plangintza egitea: proiektua, eskema, zirriborroa, idazketa, berrikuspena, edizioa. • Informazioa iturri desberdinetan bilatzea (bibliografikoak, ikus-entzunezkoak, digitalak) eta ezinbestekoa den informazioa hautatzea. • Azalpen testuaren plangintza egitea: ideiak antolatzea, esakuneak sekuentzia lineal kohesionatueta kateatzea, testua egituratzea (sarrera, garapena -zerrendatzea, konparaketa, kausa eta ondorioa, deskribapena, narrazioa ...- eta ondorioa). • Testuak dioena eta hura adierazteko bideak testu motaren eta har-tzailearen arabera egokitzea. Letra argi eta irakurgarria, aurkezpen txukuna. • Norberaren baliabideak edo kontsultako baliabideak (hiztegiak, gramatikak, testu prozesadoreak) erabiltzea norberaren akatsak zuzentzeko. • Testu mota bat beste batera bihurtzea (komikia edo olerki bat narrazio eta deskribapen testu bihurtzea; istorio bat zinemarako gidoi bihurtzea; ipuin bateko zati bat albiste bihurtzea ...). • Norberaren eta besteen produkzioa objektiboki baloratzea. Irakaslearen laguntzarekin testuaren forma eta edukia hobetzeko moduak aurkitzea. 	<p>Idatzizko adierazpena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Testuen osaketarako plangintza egitea: proiektua, eskema, zirriborroa, idazketa, berrikuspena, edizioa. • Argudio testuaren plangintza egitea (komunikazio egoera eta tesia definitzea, argudioak eta kontra-argudioak hautatu eta azaltzea, testua antolatzea, landutako elementu linguistikoak aplikatzea eta abar). • Eguneroko bizitzako eta giza harremanetako gaiei buruzko testuen plangintza egitea: curriculum vitae, eskabidea eta abar, eredu erreal-letan oinarrituz. • Ideiak antolatzea, esakuneak sekuentzia lineal kohesionatueta kateatzea, testua egituratzea. • Testuak dioena eta hura adierazteko bideak testu motaren eta har-tzailearen arabera egokitzea. Letra argi eta irakurgarria, aurkezpen txukuna. • Norberaren baliabideak edo kontsultako baliabideak (hiztegiak, gramatikak, testu prozesadoreak) erabiltzea norberaren akatsak zuzentzeko. • Testu mota bat beste batera bihurtzea (komikia edo olerki bat narrazio eta deskribapen testu bihurtzea; istorio bat zinemarako gidoi bihurtzea; ipuin bateko zati bat albiste bihurtzea ...). • Norberaren eta besteen produkzioa objektiboki baloratzea. Irakaslearen laguntzarekin testuaren forma eta edukia hobetzeko moduak aurkitzea.

3. multzoa. Hezkuntza literarioa

DBH1	DBH2
<ul style="list-style-type: none"> • Adinerako egokiak diren obra batzuk (literatur genero desberdinetakoak) irakurtzea. • Olerkien irakurketa komentatua eta errezitatzea, oinarritzko alderdi batzuk bereiziz: erritmoa, bertsogintza eta figura erretoriko garrantzitsuenak. • Kontakizun laburren irakurketa komentatua, kultura desberdinetako mitoak eta kondairak barne, kontakizun literarioaren elementuak eta haien funtzionaltasuna ezagutzuz. • Antzezlan laburren irakurketa komentatua eta dramatizatua edo antzezlan zatiena, antzerkirako testuen alderdi formalak eta funtzionaltasuna ezagutzuz. • Genero literarioak eta azpigenero batzuk bereiztea irakurketa komentatuen bitartez. • Testu literarioak osatzea irakurketa komentatuetan barneraturiko ikasketa batzuk erabiliz (testu literarioak imitatu, berregin eta sortzea). • Ikastetxeko liburutegiaren eta liburutegi birtualen erabilera gidatua (literaturako edukiekin zerikusia duten ikerketa eta sormeneko lan errazak egitea). • Irakurtzeko autonomia garatzea eta literatura aintzat hartzea gozamen iturri gisa eta mundua ezagutzeko iturri gisa (borondatezko irakurketak, adierazpen eta ikerketako lehiaketak, irakurketa sustatzeko fitxak, idazle eta ilustratzaileekin egotea, liburuaren inguruko data garrantzitsuak ospatzea). 	<ul style="list-style-type: none"> • Adinerako egokiak diren obra batzuk (literatur genero desberdinetakoak) irakurtzea. • Olerkien irakurketa komentatua eta errezitatzea, arreta eskainiz olerkiaren hizkuntzak daukan balio sinbolikoari, baliabide erretoriko garrantzitsuenen esanahia, olerkigintzaren prozedurak ezagutzuz eta elementu horiek guztiek olerkian duten funtzioa baloratuz. • Kontakizunen irakurketa komentatua, istorioaren gaiak eta elementuak, hasiera moduak, garapen kronologikoa, amaierak eta egilearen ikuspuntua konparatu eta kontrastatzea. • Antzezlan zatien irakurketa komentatua eta dramatizatua, azpigenero batzuk (tragedia, komedia, drama) ezagutzuz eta arreta eskainiz antzerkirako testuaren egiturari eta osagaiei, bai eta funtzionaltasunari ere. • Azpigenero literario nagusiak bereiztea irakurketa komentatuetatik abiatuta. • Testu literarioak osatzea irakurketa komentatuetan barneraturiko ikasketa batzuk erabiliz (testu literarioak imitatu, berregin eta sortzea). • Ikastetxeko liburutegia eta liburutegi birtualak modu gidatuan erabiltzea (informazio iturri desberdinak erabiltzea eta ikasketarako dauken baliabide desberdinak; literaturako edukiekin zerikusia duten ikerketa lanak egitea). • Irakurtzeko autonomia garatzea eta literatura aintzat hartzea gozamen iturri gisa eta mundua ezagutzeko iturri gisa (borondatezko irakurketak, adierazpen eta ikerketako lehiaketak, irakurketa taldeak, liburuaren eta zinemako bertsioren azterketa konparatzaileak, idazle eta ilustratzaileekin egotea, liburuaren inguruko data garrantzitsuak ospatzea).

DBH3	DBH4
<ul style="list-style-type: none"> • Adinerako egokiak diren eta ikasitako garaiekin lotura duten obrak irakurtzea. Konbinatzen ahal da jatorrizko obren, klasikoen egokitzapenen eta ikasten ari diren aroetan girotutako egungo obren zatien irakurketa. • Olerkien irakurketa komentatua egitea eta errezitatzea, behin eta berriz agertzen diren gai batzuen (amodioa, gerra, heriotza, askatasuna, eromena...) tratamendua konparatuz garai literario desberdinetan, eta olerkiak baloratuz erabilitako elementu sinbolikoen eta baliabide erretorikoen arabera (konparazioa, metafora, antitesia, anafora, paralelismoa, pertsonifikazioa, hiperbatona, epitetoa, hiperbolea ...) eta metrikoen arabera (silaben kontaketa, bertso motak, arte nagusia eta txikia, azentu-erritmoa, errima asonante eta kontsonantea, sinalefa, sineresia eta dieresia, estrofa erabilienak, hala nola erromantzea, biko errimatua, lauko nagusia, sonetoa ...). • Kontakizunaren irakurketa komentatua, narratibak izan duen eraldaketaz ohartuz: bertsotan eginiko erdi aroko epikaren garaitik prosazko narrazio modernora bitarte, eta heroitik eleberrietako pertsonaietara bitarte (<i>Poema de Mío Cid</i>, <i>Lazarillo de Tormes</i>, <i>don Quijote de la Mancha</i>). • Espainiako antzerki klasikoko antzezlan laburren eta zatien irakurketa komentatua eta dramatizatua, gaien eta formaren ezaugarri batzuk bereiziz. • Erdi Arotik hasi eta XVIII. mendera arteko literaturaren historiako garai handien ezaugarri nagusiak ezagutzea eta egile garrantzitsu batzuen lanetara hurbiltzea, obra aipagarrien zati batzuen bitartez. <ul style="list-style-type: none"> – Erdi Aroko literatura: ezaugarri orokorrak; epika (<i>Poema de Mío Cid</i>, Erromantze bilduma zaharra); herri lirika eta lirika kultura (Erromantze bilduma, Jorge Manrique, gorteko lirika); narratiba didaktikoa (Gonzalo de Berceo eta Juan Ruiz) eta prosa didaktikoa (don Juan Manuel); <i>La Celestina</i>. – Urrezko Mendeetako literatura: ezaugarri orokorrak. Errenazimentuko eta Barrokoko poesia lirikoa (ezaugarri formal eta tematikoak); egile batzuk, esate baterako Garcilaso de la Vega, Fray Luis de León, San Juan de la Cruz, Góngora, Quevedo, Sor Juana Inés de la Cruz. – Errenazimentuko eta Barrokoko prosa: ezaugarri formal eta tematikoak, narrazio generoak. <i>Lazarillo de Tormes</i> eta <i>don Quijote de la Mancha</i> obren zatiak. – Barrokoko antzerkia: ezaugarri formal eta tematikoak, corral de comedias deitzen dena. Egileak (eta beren obren zatiak): Lope de Vega, Tirso de Molina, Calderón de la Barca. 	<ul style="list-style-type: none"> • XIX., XX. eta XXI. mendeetako eleberri eta kontraerak irakurtzea (estudiatutako garai guztietako testuak eta/edo programazioko garaia islatzen duten egungo testuak). • Olerki garaikideen irakurketa komentatua egitea eta errezitatzea, arreta bereizia eskainiz sinbolismoak eta abangoardiek hizkuntza poetikoari egindako ekarpenei (gregueria-k, idazketa automatikoa, kaligramak, ikusizko poesia ...), olerkiak baloratuz erabilitako elementu sinbolikoen eta baliabide erretorikoen arabera (sinestesia, erreduplikazioa, metafora, antitesia, anafora, paralelismoa, pertsonifikazioa, hiperbatona, hiperbolea, sinestesia ...) eta metrikoen arabera (bertso askea, erromantzeak, ikusizko poemak, kaligramak ...). • Narraziorako egitura eta ahots desberdinak eskaintzen dituzten kontraera garaikideen irakurketa komentatua (narrazioa 2. pertsonan, barne monologoa, zehar estilo librea, denboran jauziak, egitura zirkularra, "in medias res", pertsonaia kolektiboa, kaleidoskopikoa ...). • Antzezlan garaikide laburren irakurketa komentatua eta dramatizatua, edo modu desberdinetako zatiena (drama erromantikoa, esperpentoa, Lorcaen drama, antzerki errealista, absurduren antzerkia, antzerki independentea, esperimentazio antzerkia) gaietan eta formetan eginiko berrikuntzak baloratuz (pertsonaia sinbolikoak, prosaren eta bertsoaren arteko nahasketa, groteskoa ...). • Gaztelaniazko literaturaren historiaren garai nagusien ezaugarri nagusiak ezagutzea XIX., XX. eta XXI. mendeetan, eta horrekin batera egile aipagarrienak: <ul style="list-style-type: none"> – XIX. mendeko literatura: ezaugarri orokorrak eta Erromantizismoaren, Errealismo eta Naturalismoaren, Modernismoaren eta XIX. mende bukaerako literaturaren adibide batzuk. Idazleen obrak edo obren zatiak: José de Espronceda, Gustavo Adolfo Bécquer, Rosalía de Castro, Duque de Rivas, José Zorrilla, Larra, Benito Pérez Galdós, Leopoldo Alas "Clarín", Emilia Pardo Bazán, Rubén Darío, Antonio Machado, Juan Ramón Jiménez, Pío Baroja, José Martínez Ruiz "Azorín", Miguel de Unamuno ... – Gerra zibilera arteko literatura: ezaugarri orokorrak eta novecentismo-aren adibide batzuk (Ortega y Gasset, Juan Ramón Jiménez); abangoardiak (Vicente Huidobro, Ramón Gómez de la Serna), Ramón M.^a del Valle-Inclán ... – 27ko belaunaldia: ezaugarriak eta zenbait egileren obrak edo obren zatiak, hala nola Rafael Alberti, Federico García Lorca, Vicente Aleixandre, Luis Cernuda, Pedro Salinas eta Jorge Guillén.

DBH3	DBH4
<p>– XVIII. mendeko literatura: Ilustrazioaren ezaugarri orokorrak. Saiakera ilustratua: Cadalso. XVIII. mendeko antzerkia: Leandro Fernández de Moratín.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Testu literarioak osatzea eta lan kritiko errazak lantzea. • Ikastetxeko liburutegia, inguruko liburutegiak, liburutegi birtualak eta irakurketa sustatzeko eta hari buruzko orientabideak emateko web orriak gero eta modu autonomoagoan erabiltzea. Zenbait informazio iturri kontsultatzea eskatzen duten lanak egitea. • Irakurtzeko autonomia garatzea eta literatura aintzat hartzea gozamen iturri gisa eta beste mundu, garai eta kultura batzuk ezagutzeko iturri gisa. 	<p>– Gerra zibilaren ondorengo literatura: ezaugarri orokorrak. Lirika garaikidea: adibidez, poesia konprometitua (Miguel Hernández), poesia errotua (Luis Rosales) eta deserrotua (Dámaso Alonso), poesia soziala (Blas de Otero, José Hierro), 60ko poesia (Gil de Biedma, Angel González), novisimoak (Pere Gimferrer, Ana M.^a Moix), esperientziaren poesia (Luis García Montero, Jon Juaristi), oraingo gazteen poesia.</p> <p>Narratiba garaikidea: adibidez, Camilo José Cela, Carmen Laforet, Rafael Sánchez Ferlosio, Miguel Delibes, Luis Martín Santos, Carmen Martín Gaité, Gonzalo Torrente Ballester, Antonio Muñoz Molina, Luis Landero, Eduardo Mendoza, Manuel Vázquez Montalbán ...</p> <p>Antzerki garaikidea: adibidez, Enrique Jardiel Poncela, Miguel Mihura, Antonio Buero Vallejo, Francisco Nieva, Fernando Arrabal, José Luis Alonso de Santos, antzerkiko joera berriak.</p> <p>– Literatura hispanoamerikarra: ezaugarri orokorrak. Egile eta obra batzuk, hala nola:</p> <ul style="list-style-type: none"> o Poesia: Vicente Huidobro, Octavio Paz, Pablo Neruda, Nicolás Guillén ... o Narratiba: Jorge Luis Borges, Juan Rulfo, Julio Cortázar, Gabriel García Márquez, Mario Vargas Llosa ... <ul style="list-style-type: none"> • XIX., XX. eta XXI. mendeetako literatura hispaniko eta europarretako egile nagusietako batzuen lanetara hurbiltzea: <ul style="list-style-type: none"> – Espainiako beste hizkuntza batzuetako egileak, esate baterako: Rosalía de Castro, Alvaro Cunqueiro, Suso de Toro, Manuel Rivas, Joan Maragall, Salvador Espriu, Joan Brossa, Mercè Rodoreda, Gabriel Aresti, Bernardo Atxaga ... – Egile europarrak, esate baterako: Dickens, Flaubert, Oscar Wilde, T. S. Eliot, B. Brecht, Umberto Eco, Darío Fo, H. J. Ibsen, Thomas Mann ... • Testu literarioak osatzea eta lan kritikoak lantzea (kontakizun bildumak eta antologia poetikoak osatzea, antzerki lan laburrak egitea; obren azterketa konparatzailea, ikerketa lanak egitea ...) • Ikastetxeko liburutegia, inguruko liburutegiak, liburutegi birtualak eta irakurketa sustatzeko eta hari buruzko orientabideak emateko web orriak nolabaiteko autonomiaz erabiltzea (zenbait informazio iturri kontsultatzea). • Irakurtzeko autonomia garatzea eta literatura aintzat hartzea gozamen iturri gisa eta beste mundu, garai eta kultura batzuk ezagutzeko iturri gisa.

Trebetasunak eta estrategiak

Ulermena:

- Xedea definitzea.
- Aldez aurreko ezagutzak aktibatzea, iragartzea (titulutik, garaitik, egiletik, generotik eta abarretatik abiatuta ...).
- Norberaren ulermena kontrolatzea.
- Interpretazioa, inferentzia.
- Testuak konparatzea eta bereiztea generoaren, garai historikoaren edo mugimendu literarioaren arabera.

Irakurketa adierazkorra:

- Irakurketa adierazkorra, tonua identifikatuz, puntuazio-markak intonazioaren arabera interpretatuz, baliabide prosodikoak eta keinuak erabiliz.

Balorazioa:

- Egitate literarioari buruzko esperientzien gaineko elkarrizketa eta kontrastea: irudiak, oroitzapenak, ustekabeak, aurkikuntzak, go-goetak, esperientziarekin edo bizitzarekin eginiko konparaketak, kulturen artekoak ... testuak iradokiko zituenak.
- Testuan inplizituak edo agerikoak diren baloreen analisia.
- Balorazio kritikoa: norberaren iritziei buruzko arrazoi egokiak ematea, haiek beste ikuspuntu batzuekin kontrastatuz.
- Liburu baten irakurketatik abiatuta, testu pertsonalak idaztea: kritikak, pertsonaiantzako gutunak, iritzia ...
- Literatur lehiaketetan parte hartzea bultzatzea.

Literatur testuak sortzea:

- Literatur testuak sortzea, erreferente literarioak imitatuz eta eraldatuz.
- Literatur testu berriak sortzea, norberaren produkzioaren plangintza eginez eta testuak sortuz eta berrikusiz; egitura, kontzeptuak, mekanismo narratiboak eta estilokoak behatuz eta analizatuz; ereduak erabiliz.

Testuen iruzkin literarioa:

- Gaia
- Barne eta kanpo egitura.
- Literatur generoaren eta azpigeneroaren ezaugarriak.
- Baliabide erretorikoak.

Kritika lana:

- Iturri desbedinetan informazioa bilatzea (liburutegia, liburutegi birtuala, Internet...).
- Informazioa hautatzea.
- Edukiak antolatzea.
- Zirriborro bat egitea.
- Berrikuspena.
- Behin betiko itxura ematea.

4. multzoa. Hizkuntzaren ezaguera

DBH1	DBH2
<p>Soziolinguistika</p> <ul style="list-style-type: none"> Ahozko komunikazioaren eta idatzizko komunikazioaren arteko erabilera arrunten eta formalen arteko desberdintasun garrantzitsuak, testuinguruak eta formalak -bereziki eskola esparrukoak-behatzea. Espainiako hizkuntzen aniztasuna eta banaketa geografikoa oro har ezagutzea, eta hori aberastasun pertsonalerako eta kolektiborako iturri gisa baloratzea. 	<p>Soziolinguistika</p> <ul style="list-style-type: none"> Ahozko eta idatzizko komunikazioaren arteko testuinguruko desberdintasunak eta desberdintasun formalak ezagutzea, eta besteen diskurtsoetan eta norberarenak lantzerakoan erabilera arrunten eta formalen artean desberdintzea.
<p>Morfosintaxia</p> <ul style="list-style-type: none"> Perpauaren modalitateak eta aditzaren moduak ezagutzea, hiztunen asmoak adierazteko modu gisa. Deixi pertsonalaren forma linguistikoak (izenordain pertsonalak, edutezko izenordainak eta aditzen bukaerak) identifikatu eta erabiltzea ahozko nahiz idatzizko testuetan eta gutun eta arauetan. Testu-lokailu batzuk identifikatzea eta modu gogoetatsuan erabiltzea; arreta berezia eskainiko zaie denborazko lokailuei, azalpenezkoei eta hurrenkera adierazten dutenei, kausazkoei eta barne erreferentziako mekanismo batzuei, gramatikalak (izenordain pertsonalak, edutezkoak eta erakusleak) nahiz lexikoak (errepikapenak, sinonimoak eta elipsia). Testuetan aditzaren formak ezagutu eta modu koherentean erabiltzea, narrazioetan arreta berezia eskainiz lehenaldiari. Maiz erabiltzen diren aditzen funtzionamendu sintaktikoa ezagutzea, haien esanahitik abiatuz, subjektua eta aditzaren osagarriak identifikatuz, behar diren edo argudioak diren osagarrien existentzia berretsiz, behar ez diren eta zirkunstantziazkoak diren aurrean, sintaxiaren inguruko oinarritzko terminologia ulertzea: perpausa; subjektua eta predikatua; izenaren predikatua eta aditzaren predikatua; subjektua, aditza eta osagarriak. Esakuneak estilo kohesionatuarekin osatzeko prozedurak erabiltzea, bereziki perpausan sartzea azalpen-balioa dutenak; besteak beste, aposizioa, adjektiboa eta erlatibozko perpausa. Hitz flexiboak eta ez-flexiboak bereitzea, eta gramatikaren kategoria desberdinak eta hitzak osatzeko mekanismoak ezagutzea (elkarketa eta eratorpena). 	<p>Morfosintaxia</p> <ul style="list-style-type: none"> Perpauaren modalitateak testuinguruaren arabera har ditzaketen esanahiak ezagutzea. Deixi pertsonaleko formak eta denboraren eta lekuaren deixi formak identifikatu eta erabiltzea (erakusleak, denborazko eta lekuzko adberbioak) ahozko eta idatzizko testuetan. Testu-lokailu batzuk identifikatzea eta modu gogoetatsuan erabiltzea; arreta berezia eskainiko zaie hurrenkera adierazten duten lokailuei, azalpenezkoei eta kontrastea adierazten dutenei, kausazkoei eta barne erreferentziako mekanismo batzuei, gramatikalak (izenordain pertsonalak) nahiz lexikoak, bereziki elipsia eta esanahi jakina duten hiperonimoen erabilera. Testuetan aditzaren formak ezagutu eta modu koherentean erabiltzea, arreta berezia eskainiz indikatiboko orainaldiak dauzkan balio desberdinei. Aditzaren funtzionamendu sintaktikoa ezagutzea haren esanahitik abiatuta; subjektua eta aditzaren osagarriak identifikatuz, behar diren edo argudiozkoak eta behar ez diren edo zirkunstantziazkoak bereiziz; perpausak eraldatuz subjektuaren paper semantiko desberdinak behatzeko (egilea, kausa, jasailea); sintaxiaren inguruko oinarritzko terminologia erabiltzea: perpausa; subjektua, aditza eta osagarriak; subjektua eta predikatua; izenaren predikatua eta aditzaren predikatua; egilea, kausa eta jasailea. Esakuneak estilo kohesionatuarekin osatzeko prozedurak erabiltzea, bereziki azalpenezko adierazpideak sartzea eta partzipioan eta gerundioan oinarrituriko egiturak erabiltzea.

DBH3	DBH4
<p>Soziolinguistika</p> <ul style="list-style-type: none"> Hizkuntzaren ahozko erabilera ez-formalen eta formalen arteko diferentziak ezagutzea eta haiek egokiak diren komunikazio egoeren kontzientzia izatea. Perpauaren modalitateek eta modua adierazten duten aditz-perifrasiek izan ditzaketen testuinguruko esanahiak ezagutu eta erabiltzea. Forma deiktikoen egoerarekiko hartzen dituzten aldaerak (konfiantzazko eta kortesiazko formulak) identifikatu eta erabiltzea. 	<p>Soziolinguistika</p> <ul style="list-style-type: none"> Hizkuntzaren erabilera, gizarteko esparru desberdinetan, eragina duten erregistro eta faktore desberdinak ezagutzea, eta komunikazio egoeraren inguruabarren arabera erregistro egokia erabiltzearen garrantzia aintzat hartzea. Espainiako hizkuntza aniztasuna (hizkuntzak eta dialektoak) eta gaztelaniak gaur egun munduan duen egoera ezagutzea.
<p>Morfosintaxia</p> <ul style="list-style-type: none"> Testu-lokailu batzuk identifikatzea eta modu gogoetatsuan erabiltzea; arreta berezia eskainiko zaie banatzaileei, hurrenkera adierazten duten lokailuei, kontrastea, azalpena eta kausa adierazten dutenei, eta barne erreferentziako mekanismo batzuei, gramatikalak nahiz lexikoak, bereziki nominalizazioak eta esanahi abstraktua (fenomenoa, elementua edo ezaugarria) duten hiperonimoen erabilerari. Testuetan aditzaren formak ezagutu eta modu koherentean erabiltzea, arreta berezia eskainiz aditz-parifrasien aspektuzko balioei. Aditz batek bere adiera batzuetan dauzkan jokabide sintaktiko desberdinak alderatzea, subjektua eta aditzaren osagarriak identifikatzea, funtzio horien artean sartuz perpauaren forma dutenak (mendeko substantibozkoak, erlatibozkoak eta adberbiozkoak), eta jardueretan behar den sintaxiaren inguruko terminologia erabiltzea: esakunea, esaldia eta perpausa; subjektua, aditza eta osagarria; subjektua eta predikatua; izen-predikatua eta aditz-predikatua; egilea, kausa eta jasailea; perpaus aktiboa eta perpaus pasiboa; perpaus iragankorra eta iragangaitza; osagarri zuzena, zeharkako osagarria, erregimenekoa, zirkunstantziala, egilea eta atributua; mendeko perpaus substantibozkoa, erlatibozkoak eta adberbiozkoak. Esakuneko estilo kohesionatu batez osatzeko prozedurak erabiltzea, bereziki perpaus independenteak, koordinatuak edo alboratuak, mendeko adberbiozko edo erlazio logikoak adierazten dituzten bestelako mendeko perpaus bihurtzea: kausazkoak, ondoriozkoak, baldintzazkoak eta kontzesiboak. Hitz moten funtzio sintaktiko bereizgarriak ezagutzea eta haien formaren analisia (flexioa, hizkiak ...), bereziki araudiarekin loturiko alderdiei dagokienez. 	<p>Morfosintaxia:</p> <ul style="list-style-type: none"> Testuak lotzeko prozedurak -arreta berezia eskainiz kausazko, ondoriozko, baldintzazko eta alegiazko lokailuei- eta barne erreferentziako mekanismo gramatikal eta lexikoak identifikatu eta modu gogoetatsuan erabiltzea, norberaren testuak berrikusteko autonomia areagotuz. Azalpen eta argudiozko testuetan subjektibotasuna adierazteko modu batzuk ezagutu eta erabiltzea; forma deiktikoen komunikazio egoeren arabera hartzen dituzten aldaerak identifikatu eta erabiltzea. Perpauak koordinatzean eta mendeko perpauak sortzean eta konstatutako diskurtsoan (zuzeneko estilotik zeharkako estilora pasatzea), denborazko korrelazioa ezagutu eta modu koherentean erabiltzea. Perpauaren eskema semantikoa eta sintaktikoa ezagutzea; esakuneko sortu eta eraldatzea eskema horien arabera eta jardueretan behar den terminologia sintaktikoa erabiltzea: esakunea, esaldia eta perpausa; subjektua, aditza eta osagarria; subjektua eta predikatua; izen-predikatua eta aditz-predikatua; egilea, kausa eta jasailea; perpaus inpersonala; perpaus aktiboa eta perpaus pasiboa; perpaus iragankorra eta iragangaitza; osagarri zuzena, zeharkako osagarria, erregimenekoa, zirkunstantziala, egilea eta atributua; mendeko perpaus substantibozkoak, erlatibozkoak eta adberbiozkoak. Esakuneko estilo kohesionatuaz osatzeko prozedurak erabiltzea, eta ondoko terminoen baliatzea: aposizioa, adjektiboa eta erlatibozko esaldi azaltzaileak, partizipiozkoak eta gerundioa nola egin; perpaus koordinatua (emendiozkoa, disjuntiboa, adbertsatiboa eta ondoriozkoa); mendeko perpaus kausazkoa, ondoriozkoa, baldintzazkoa, kontzesiboa eta helburuzkoa. Hitzen forma (kategoria gramatikala) eta funtzioa bereiztea, eta kategoriaz aldatzeko prozedura lexikoak (hizkiak) eta sintaktikoak ezagutzea.

DBH1	DBH2
<p>Hiztegia-lexikoa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Eskolako hiztegiek ematen dituzten informazio linguistikoak interpretatzea; bereziki hitz motei buruzkoak, lexikoaren erlazio semantikoei buruzkoak (sinonimia, antonimia ...) eta araudia. • Testu prozesadoreetako hiztegiak eta zuzentzaile ortografikoak erabiltzen hastea. 	<p>Hiztegia-lexikoa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Eskolako hiztegiek ematen dituzten informazio linguistikoak interpretatzea; bereziki hitz motei buruzkoak, lexikoaren erlazio semantikoei buruzkoak (sinonimia, antonimia ...) eta araudiari buruzkoak. • Testu prozesadoreetako hiztegiak eta zuzentzaile ortografikoak ezagutzen hastea.
<p>Ortografia</p> <ul style="list-style-type: none"> • Arau ortografikoak ezagutzea eta gogoeta eginez erabiltzea, gizar-tean duten balioa eta idazkietan arauak betetzeko betebeharra aintzat hartuz. 	<p>Ortografia</p> <ul style="list-style-type: none"> • Arau ortografikoak ezagutzea eta gogoeta eginez erabiltzea, gizar-tean duten balioa eta idazkietan arauak betetzeko betebeharra aintzat hartuz.

DBH3	DBH4
<p>Hiztegia-lexikoa</p> <ul style="list-style-type: none"> Eskolako hiztegiek ematen dituzten informazio linguistikoak interpretatzea; bereziki aditzen jokaera sintaktikoari buruzkoak (iragankorrak eta iragangaitzak) eta erregistroarekin eta araudiarekin loturikoak. Testu prozesadoreetako hiztegiak eta zuzentzaile ortografikoak gero eta autonomia gehiagorekin erabiltzea. 	<p>Hiztegia-Lexikoa</p> <ul style="list-style-type: none"> Hizkuntzari buruzko hiztegiek ematen dituzten informazio linguistikoak interpretatzea (gramatikalak, semantikoak, erregistroari buruzkoak eta araei buruzkoak). Testu prozesadoreetako hiztegiak eta zuzentzaile ortografikoak nolabaiteko autonomiaz erabiltzea.
<p>Ortografia</p> <ul style="list-style-type: none"> Arau ortografikoak ezagutzea eta gogoeta eginez erabiltzea, gizartean duten balioa eta idazkietan arauak betetzeko betebeharra aintzat hartuz. 	<p>Ortografia</p> <p>Arau ortografikoak ezagutzea eta gogoeta eginez erabiltzea, erabilerari buruzko azalpenetan termino egokiak erabiliz (silaba tonikoa, azentu-marka diakritikoa eta abar) eta gizartean duten balioa eta idazkietan arauak betetzeko betebeharra aintzat hartuz.</p>

Trebetasunak eta estrategiak (lau kurtsoentzat berdinak)

- Ulertzeko eta adierazteko trebetasunak praktikan jartzerakoan, unitate linguistikoei eta funtzionamendu araei buruzko ezagutza teorikoak aplikatzea.
 - Ikasleari oraindik ere menperatzen ez dituen egiturak aurkeztea. Haien funtzionamendua aztertzea eta haietaz baliatzea; lehenbizi ulertzeko trebetasunak eta gero sortzeko trebetasunak.
 - Ikasleek jada erabiltzen dituzten forma eta egitura gramatikalak aztertzea eta linguistikoki lantzea; hau da, izena ematea, haien erabilera fintzea eta etekina ateratzea.
 - Ikaslea prestatzea forma linguistikoaren eta fenomeno sintaktikoaren manipulazio praktikoa egin dezan. Ikasleak jakin behar du esaldiko hitzak konbinatzen, sailkatzen, ordeztzen, aldatzen, modalizatzen, ordenatzen, errepikatzen eta abar.
- Testuetan adibideak aurkitzea. Ikastekoak diren elementuak identifikatzea. Identifikatutako elementuak konparatzea eta erlazionatzea.
- Eskolako hiztegiek ematen dituzten informazio linguistikoak interpretatzea; bereziki hitz motei buruzkoak, lexikoaren erlazio semantikoei buruzkoak (sinonimia, antonimia ...) eta araudiari buruzkoak.
- Norberaren ezagutzak (printzipio edo arau linguistikoak sartzeko) edo kontsulta iturriak (hiztegiak, gramatikak, erabilerak ...) erabiltzea arazoak ebazteko edo eskatutako lana egiteko: osatzea, eraldatzea, laburtzea, zuzentzea, inferitzea, interpretatzea eta abar.

5. multzoa. Hizkuntzaren ikaskuntzari buruzko gogoeta

DBH1	DBH2
<ul style="list-style-type: none"> • Lexikoa antolatu, barneratu, gogoratu eta erabiltzeko oinarritzko estrategiak aplikatzea. • Ikasteko baliabideak progresiboki erabiltzea; esate baterako, hiztegiak, kontsulta liburuak, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak. • Komunikazio helburu desberdinen arabera egokiak diren forma gramatikalen erabilerari eta esanahiari buruzko gogoeta gidatua. • Ahozko eta idatzizko produkzioak autoebaluatzeko eta autozuzentzeko estrategiak ikasten hastea. • Akatsa ikasteko prozesuaren zati baten gisara onartzea eta hura gainditzeko jarrera positiboa izatea. • Norberaren lana antolatzea (ikaskuntzari buruzko egunerokoa, agenda, dossierra, kontroleko erregistroa) ikaskuntzan aurrera egiteko estrategia gisa; helburuak ezarri eta haiek lortzeko bitartekoak identifikatuko dira. • Ikasteko estilo pertsonala garatzea. • Gelako testuinguruan eta gelatik kanpo sorturiko ikasketa aukerez baliatzeko interesa. • Taldeko jarduera eta lanetan aktiboki parte hartzea. • Gauzak jendaurrean eta idatziz adierazteko konfiantza eta ekimena. 	<ul style="list-style-type: none"> • Lexikoa antolatu, barneratu, gogoratu eta erabiltzeko estrategiak aplikatzea; esate baterako, testuingurutik esanahiak inferitzea, hitzak formaren eta esanahiaren arabera erlazionatzea, hitzak eta kontzeptuak definitzea. • Ikasteko baliabideak erabiltzea: hiztegiak, kontsulta liburuak, liburutegiak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak. • Komunikazio helburu desberdinen arabera egokiak diren forma gramatikalen erabilerari eta esanahiari buruzko gogoeta. • Ebaluazio partekatuko jardueretan eta norberaren ikaskuntzaren ebaluazioan parte hartzea, eta ahozko eta idatzizko produkzioen autozuzentzeko estrategiak erabiltzea. • Norberaren lana antolatzea (ikaskuntzari buruzko egunerokoa, agenda, dossierra, kontroleko erregistroa) ikaskuntzan aurrera egiteko estrategia gisa; helburuak ezarri eta haiek lortzeko bitartekoak identifikatuko dira. • Ikasteko estilo pertsonala garatzea. • Gelako testuinguruan eta gelatik kanpo sorturiko ikasketa aukerez baliatzeko interesa. • Taldeko jarduera eta lanetan aktiboki parte hartzea. • Gauzak jendaurrean eta idatziz adierazteko konfiantza eta ekimena. • Norberaren hizkuntzaren erabilera hobetzeko gaitasunean konfiantza izatea. • Baloratzea norberaren hizkuntza ikasteko, antolatzeko eta ezagutzak transmititzeko tresna bat dela.

DBH3	DBH4
<ul style="list-style-type: none"> • Lexikoa antolatu, barneratu, gogoratu eta erabiltzeko estrategiak aplikatzea; esate baterako, testuingurutik esanahiak inferitzea, hitzak formaren eta esanahiaren arabera erlazionatzea, hitzak eta kontzeptuak definitzea. • Ikasteko baliabideak antolatzea eta gero eta autonomia gehiagorekin erabiltzea; esate baterako, hiztegiak, kontsulta liburuak, liburutegiak edo informazioaren eta komunikazioaren teknologiak. • Forma gramatikalen erabilera eta esanahiari buruzko analisisa eta gogoeta, ezagutzen diren hizkuntzekin konparaketa eta kontrastea eginez. • Norberaren ikaskuntzaren ebaluazioan parte hartzea eta autozuzenketako estrategiak erabiltzea. • Norberaren lana antolatzea (ikaskuntzari buruzko egunerokoa, agenda, dossiera, kontroleko erregistroa) ikaskuntzan aurrera egiteko estrategia gisa; helburuak ezarri eta haiek lortzeko bitartekoak identifikatuko dira. • Ikasteko estilo pertsonala garatzea. • Gelako testuinguruan eta gelatik kanpo sorturiko ikasketa aukerez baliatzeko interesa. • Taldeko jarduera eta lanetan aktiboki parte hartzea. • Gauzak jendaurrean eta idatziz adierazteko konfiantza eta ekimena. • Norberaren hizkuntzaren erabilera hobetzeko gaitasunean konfiantza izatea. • Baloratzea norberaren hizkuntza ikasteko, antolatzeko eta ezagutzak transmititzeko tresna bat dela. 	<ul style="list-style-type: none"> • Lexikoa antolatu, barneratu, gogoratu eta erabiltzeko estrategiak aplikatzea; esate baterako, testuingurutik esanahiak inferitzea, hitzak formaren eta esanahiaren arabera erlazionatzea, hitzak eta kontzeptuak definitzea. • Ikasteko baliabideak antolatzea eta gero eta autonomia gehiagorekin erabiltzea; esate baterako, hiztegiak, kontsulta liburuak, liburutegiak edo baliabide digital eta informatiboak. • Forma gramatikalen erabilera eta esanahiari buruzko analisisa eta gogoeta, ezagutzen diren hizkuntzekin konparaketa eta kontrastea eginez. • Norberaren ikaskuntzaren ebaluazioan parte hartzea eta autozuzenketako estrategiak erabiltzea. • Norberaren lana antolatzea (ikaskuntzari buruzko egunerokoa, agenda, dossiera, kontroleko erregistroa) ikaskuntzan aurrera egiteko estrategia gisa; helburuak ezarri eta haiek lortzeko bitartekoak identifikatuko dira. • Ikasteko estilo pertsonala garatzea. • Gelako testuinguruan eta gelatik kanpo sorturiko ikasketa aukerez baliatzeko interesa. • Taldeko jarduera eta lanetan aktiboki parte hartzea. • Gauzak jendaurrean eta idatziz adierazteko konfiantza eta ekimena. • Norberaren hizkuntzaren erabilera hobetzeko gaitasunean konfiantza izatea. • Baloratzea norberaren hizkuntza ikasteko, antolatzeko eta ezagutzak transmititzeko tresna bat dela.

Ebaluazio irizpideak

1. Multzoa. Entzutea eta ulertzea, hitz egitea eta hizketan aritzea

DBH1	DBH2
<p>1. Ikaslearen esperientziatik hurbil dauden giza esparruetako eta esparru akademikoko ahozko testuen helburua eta ideia nagusia ezagutzea; irratian eta telebistan entzundako informazioen ideia orokorra hartzea eta ikaskuntza lanak egiteko jarraibide ez oso konplexuak jarraitzea.</p> <p>Irizpide honekin egiaztatu nahi da ikasleak gai diren deklarazio publikoen edo jatorri anitzeko informazioen -esate baterako, deiak, arauak, jarraibide errazak edo albisteak- gai orokorra ahoz edo idatziz parafraseatzeko edo adierazteko, beti gai akademikoen alorrean; argitasunez egituratuko dituzte, zabalkundeko testuen erregistroarekin. Egiaztatu nahi da, halaber, ikasleek gehienez ere hiru jarduerako sekuentzia bateko lanak betetzeko ahozko jarraibideak jarraitzen dituzten.</p>	<p>1. Ikaslearen esperientziatik hurbil dauden giza esparruetako eta esparru akademikoko ahozko testuen helburua eta ideia nagusia ez ezik, ideia, egitate edo datu garrantzitsuak ere ezagutzea; irratian eta telebistan entzundako informazioen ideia orokorra eta garrantziaz jabetzea eta ikaskuntza lanak egiteko jarraibideak jarraitzea.</p> <p>Irizpide honekin egiaztatu nahi da ikasleak deklarazio publikoen edo jatorri anitzeko informazioen -esate baterako, deiak, arauak, jarraibide errazak edo albisteak- gai orokorra ahoz edo idatziz parafraseatzeko edo adierazteko gai izateaz gainera, gai diren, halaber, ideia, egitate edo datu garrantzitsuak gogoratzeko, eta gai diren ahoz edo idatziz aurkezpen laburrak -gai akademikoei buruzkoak- laburbiltzeko, argitasunez eta zabalkundeko erregistroa erabiliz; azkenik, egiaztatu nahi da ikasleek hiru jarduera baino gehiagoko sekuentzia bateko lanak betetzeko ahozko jarraibideak jarraitzen dituzten.</p>
<p>2. Ahozko narrazio argiak eta ongi egituratuak egitea bizitako esperientziei buruz, ikus-entzunezko bitartekoen eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien laguntzarekin.</p> <p>Irizpide honekin egiaztatu nahi da ikasleak gai diren narratzeko, alde zuzeneko prestaturiko gidoi bati jarraituz, zuzenean bizi dituzten egitate batzuk, modu sekuentzian eta argitasunez aurkeztuz, deskribapen errazak txertatuz eta azaldutakoari buruzko sentimenduak eta balorazioak sartuz. Bereziki baloratuko da ea narratzerakoan entzulea kontuan hartzen den, halako moduan non entzule horrek egitateen eta narratzaileak horien aurrean duen jarreraren ezaguera orokorra izan duen. Halaber, kontuan hartu beharko da ea egitateen azalpenean ikasleak gai diren ikus-entzunezkoen eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiek eskaintzen dituzten laguntzak erabiltzeko.</p>	<p>2. Ahozko aurkezpen errazak egitea inguruneak diren eta ikaslearen intereseak diren gaien buruz, ikus-entzunezko bitartekoen eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien laguntzarekin.</p> <p>Irizpide honekin bilatu nahi da ea ikasleak gai diren beren bizipenetatik hurbil dagoen eta beren interesea den gai bati buruz alde zuzeneko prestaturiko informazioak modu ordenatuan eta argian aurkezteko, halako moduan non informazio horiek garrantzitsuak gertatuko zaizkien entzuleei, azaltzen zaien gaiari buruzko oinarritzko ezagutzak barnera ditzaten. Aurkezpenaren laburtasun erlatiboak ikusita, bereziki baloratuko da garrantzitsuena hautatzeko gaitasuna eta informazioa ordenatuz eta argitasunez aurkeztea. Halaber, kontuan hartu beharko da ea egitateen ahozko aurkezpenetan ikasleak gai diren ikus-entzunezkoen eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiek eskaintzen dituzten laguntzak erabiltzeko.</p>

Oharrak

DBH3	DBH4
<p>1. Ahoz emandako jarraibideak eta arauak ulertzea; erreportaje eta elkarrizketetatik ideia nagusiak eta informazio berariazkoak ateratzea, gai akademikoei buruzko aurkezpen laburren garapenarekin jarraitzea eta hura eskema eta laburpen moduan islatzea.</p> <p>Irizpide honekin, egiaztatuko da ea ikasleak gai diren ahoz jasotako arau eta jarraibideak, edo gutxienez ere haien funtsezko puntuak, berri emateko; gai diren irratiz nahiz telebistaz emandako erreportaje baten gai orokorra eta garrantzizko alderdiak azaltzeko, edo elkarrizketatuaren iritzi aipagarrienak edo elkarrizketa-egileak hari buruz ematen duen profila; azkenik, gai diren eskema eta laburpen moduan emateko ahozko aurkezpen ez oso luze eta egitura argiko baten gai orokorra eta atalak, betiere eskolako jakintza arloekin loturiko gaiekin ari direla.</p>	<p>1. Nolabaiteko luzera duten aurkezpenen edo hitzaldi ez oso luzeen ideia nagusiak eta datu garrantzitsuak ateratzea, eta komunikabideetako edo eskola esparruko deklarazio edo eztabaida publikoetako helburuak, tesiak eta argudioak identifikatzea.</p> <p>Irizpide honekin jakin nahi da ikasleak gai diren ahozko aurkezpenen eskema eta laburpenak egiteko, pertsuasio erako deklarazio publikoetako edo eztabaida publikoetako nahiz eskola esparruko eztabaidetako helburuak, tesiak eta argudioak jasoz.</p>
<p>2. Ahozko aurkezpen errazak egitea gaurkotasun sozial, politiko edo kulturalakoak izan eta ikaslearen interesekoak diren gaiei buruz, ikus-entzunezko bitartekoaren eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien laguntzarekin.</p> <p>Irizpide honekin neurtu nahi da ikasleak gai diren fenomeno natural bati buruzko azalpenak emateko, edo egitate historiko, gatazka sozial eta abarrei buruzkoak, betiere beren interesekoak. Kontua da entzuleek egitatearen deskribapen argia eta haiek azaltzeko arrazoiaren ulermen nahikoa lortu ahal izatea. Bereziki baloratuko da ikus-entzunezkoaren eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiaz baliatzea ahozko azalpenak laguntzeko.</p>	<p>2. Ahozko aurkezpen argiak eta ongi egituratuak egitea jarduera akademikoarekin edo gaurkotasun sozial, politiko edo kulturalarekin zertikusia duten eta ikuspuntu eta jarrera desberdinak sorrarazten dituzten gaiei buruz, ikus-entzunezko bitartekoaren eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien laguntzarekin.</p> <p>Irizpide honekin behatu nahi da ea ikasleak gai diren gai bati buruzko aurkezpen bat egiteko, idatzizko oharren laguntzarekin eta, agian, beste baliabide batzuen laguntzarekin –horma-irudiak edo diapositibak–, haren aurrean ikuspuntu desberdinak seinatuz eta aldeko eta aurkako arrazoiak emanez, halako moduan non entzuleei datu garrantzitsuak eta irizpideak emanen zaizkien jarrera propio bat izan dezaten. Bereziki baloratuko da ikus-entzunezkoaren eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiaz baliatzea ahozko aurkezpenak laguntzeko.</p>

Oharrak

2. Multzoa. Irakurtzea eta idaztea

DBH1	DBH2
<p>3. Ikaslearen esperientziatik hurbil dauden esparru sozialetako testu idatzietan informazio zehatzak atera eta helburua identifikatzea; jarraibide errazak jarraitzea; esakuneetan gai orokorra esplizituki agertzen bada, hura identifikatzea, eta testuaren atalak bereiztea.</p> <p>Irizpide honen helburua da ebaluatzea ikasleek testuko perpaus batean edo batzuetan dauden informazio zehatzak (egunkarietan, kontsulta lanetan, arauetan ...) ateratzen dituzten; hitz egiteko ekintza (protesta, ohartarazpena, gonbita ...) edo komunikazio helburua zehaztuta duten adierazpideak identifikatzen dituzten; esparru pertsonaleko jardueretan eta ikaskuntza lanekin lotutakoetan jarraibide errazak jarraitzen dituzten (esate baterako, erabiltzeko jarraibideak); testu bateko gaia identifikatzen duten gai hori esplizituki agertzen deneko esakuneak ezagutuz; informazioa antolatzeke modua bereizten duten (berezik, deskribapen errazen eta egitateen sekuentziaren elementuak identifikatzea denborazko garapen nagusiki lineala duten narrazioetan) eta ideiak antolatzeke teknikak aplikatzen dituzten (esate baterako, eskema hierarkikoak edo mapa kontzeptualak).</p>	<p>3. Ikaslearen esperientziatik hurbil dauden esparru sozialetako testu idatzietan informazio zehatzak atera eta helburua identifikatzea; prozesu ez oso konplexuetan jarraibide erraz nahiko luzeak jarraitzea; esakuneetan gai orokorra esplizituki agertzen bada, hura eta bigarren mailako gaiak identifikatzea, eta testuaren informazioa antolatzeke modua bereiztea.</p> <p>Irizpide honen helburua da ebaluatzea ikasleek testuko paragrafo batzuetan dauden informazio zehatzak ateratzen dituzten; hitz egiteko ekintza (protesta, ohartarazpena, gonbita ...) edo komunikazio helburua identifikatzen dituzten, haiek esplizituak agertzen direneko adierazpideak ez agertu arren; esparru pertsonaleko jardueretan eta ikaskuntza lanekin lotutakoetan prozesu luze samar baina ez oso konplexuen jarraibideak jarraitzen dituzten; testu bateko gai orokorra eta bigarren mailako gaiak identifikatzen dituzten horiek esplizituki agertzen direneko esakuneak ezagutuz; deskribapen teknikoetako elementuak identifikatzen dituzten; prozesu ez oso konplexuen faseen eta denborazko garapen lineala eta ez-lineala duten narrazioetako egitateen sekuentziaren elementuak bereizten dituzten, eta ideiak antolatzeke teknikak aplikatzen dituzten (esate baterako, eskema hierarkikoak edo mapa kontzeptualak).</p>
<p>4. Adinerako egokia den obra oso bateko irakurketa pertsonalari buruzko iritzia ematea; generoa eta egitura orokorra ezagutzea eta hizkuntzaren erabilera modu orokorrean baloratzea; obraren hitzez hitzeko edukia eta esanahia bereiztea eta haren edukia eta norberaren esperientzia elkarrekin lotzea.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da literatur esparruan ikasleak irakurtzeko duen gaitasuna, obra osoen irakurketa pertsonalaren bitartez; horren xedea da egiaztatzea ikasleek nola garatzen duten irakurtzeko interesa, norberaren gozamenerako eta aberastasun iturri gisa. Testua modu kritikoan hartuko dute; generoa ezagutuko dute; edukia, egitura eta hizkuntzaren erabilera ebaluatuko dute. Hori guztia modu orokorrean. Obraren gehien eta gutxien gustatu zaizkien alderdiei buruzko eta edukiaren eta haien bizipenen arteko erlazioari buruzko iritzia pertsonala eman beharko dute.</p>	<p>4. Adinerako egokia den obra oso bateko irakurketa pertsonalari buruzko iritzia ematea; obraren egitura eta generoaren elementuak ezagutzea; hizkuntzaren erabilera eta egilearen ikuspuntua baloratzea; obraren hitzez hitzeko edukia eta esanahia bereiztea, eta obraren edukia eta norberaren esperientzia elkarrekin lotzea.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da literatur esparruan ikasleak irakurtzeko duen gaitasuna, obra osoen irakurketa pertsonalaren bitartez; horren xedea da egiaztatzea ikasleek nola garatzen duten irakurtzeko interesa, norberaren gozamenerako eta aberastasun iturri gisa. Testua modu kritikoan hartuko dute; edukia, egitura, generoaren elementu bereizgarriak, hizkuntzaren erabilera eta egilearen ikuspuntua ebaluatuko dituzte. Obraren gehien eta gutxien gustatu zaizkien alderdiei buruzko eta edukiaren eta haien bizipenen arteko erlazioari buruzko iritzia pertsonala eman beharko dute.</p>

Oharrak

DBH3	DBH4
<p>3. Informazio zehatzak ateratzea eta alderatzea eta helburua identifikatzea gizarteko kide gisa jarduteko gehien erabiltzen diren testu idatzietan; jarraibideak jarraitzea esparru publikoetan eta nolabaiteko konplexutasuna duten ikaste prozesuetan; gai orokorra eta bigarren mailako gaiak inferitzea; informazioa antolatzeke modua bereitzea.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatzen da ikasleek gai diren galdera jakin batzuetan erabilitako hitzez bestelakoekin adierazita ager daitezkeen informazio zehatzak ateratzeko eta gai diren iturri desberdinetatik heldutako informazioak alderatzeko; hitz egiteko ekintza (protesta, ohartarazpena, gonbita ...) eta komunikazio helburua identifikatzen dituzten, haiek esplizituak agertzen direneko adierazpideak ez agertu arren; beren giza esperientziatik hurbil dauden esparru publikoetan eta ikasteko egoeretan, nolabaiteko konplexutasuna duten prozesuak badaude, jarduerak egiteko jarraibideak betetzen dituzten; testu bateko gai orokorra eta bigarren mailako gaiak identifikatzen dituzten, haiek esplizitu agertzen direneko esakuneak ezagutuz ez ezik, testuan errepikatzen diren informazioetatik haiek inferituz ere; aurkezpen eta azalpen baten elementuen arteko erlazioa ezartzen duten, eta ideiak antolatzeke teknikak aplikatzen dituzten.</p>	<p>3. Helburua identifikatu eta kontrastatzea esparru publikoko eta komunikabideetako idazkietan; gizarteko bizitza eta ikasketa prozesu konplexuak erregulatzen dituzten jarraibideak ulertzea; gai nagusia eta bigarren mailako gaiak inferitzea; informazioa nola antolatzen den bereitzea; azalpenak eta argudioak alderatzea, eta erabilitako hizkuntza prozeduren eraginkortasuna epaitzea.</p> <p>Irizpide honek balio du ebaluatzeke ikasleek gizarteko kide gisa eta komunikabideetan jarduteko gehien erabiltzen diren testuetan (zuzendariarentzako gutuna, iritzi-zutabeak, publizitatea) hitz egiteko ekintza (protesta, ohartarazpena, gonbita ...) eta komunikazio helburua identifikatzen dituzten; beren giza esperientziatik hurbil dauden esparru publikoetan eta ikasteko egoeretan, nolabaiteko konplexutasuna duten prozesuak badaude, jarduerak egiteko jarraibideak betetzen dituzten; testu bateko gai nagusia eta bigarren mailako gaiak inferitzen dituzten testuan errepikatzen diren informazioetatik eta beren ezagutzetatik; azalpen baten eta argudiozko testu baten atalen arteko erlazioa ezartzen duten, ideiak antolatzeke teknikak aplikatuz; egitate baten azalpenen arteko eta aurkako argudioen arteko desberdintasunak identifikatzen dituzten, eta gai ote diren hizkuntza prozedura batzuek (erregistroa, testuaren antolaketa, figura erretorikoak) testu baten eraginkortasunean (argitasuna, zehaztasuna, pertsuasio ahalmena) duten eragina epaitzeke.</p>
<p>4. Adinerako egokia den eta ikasitako literatur garaiekin lotuta dagoen obra oso bateko irakurketa pertsonalari buruzko iritzia ematea; obraren egitura eta generoaren elementuak ebaluatzea; hizkuntzaren erabilera eta egilearen ikuspuntua ebaluatzea; obraren esanahia funtsean kokatzea haren edukiaren eta norberaren esperientziaren araber.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da literatur esparruan ikasleak irakurtzeko duen gaitasuna, ikasitako literatur garaiekin lotutako obra osoen irakurketa pertsonala eginez (horien barnean egokitzen eta birsortze lan modernoak). Testua modu kritikoan hartuko dute; edukia ebaluatuko dute, kontuan hartuz haren testuinguru historikoa, egitura orokorra, generoaren elementu bereizgarriak, hizkuntzaren erabilera (erregistroa eta estiloa) eta egilearen ikuspuntua eta ofizioa. Obraren gehien eta gutxien gustatu zaizkien alderdiei buruzko eta edukiaren eta haien bizipenen arteko erlazioari buruzko iritzia pertsonala eman beharko dute.</p>	<p>4. XIX. eta XX. mendeetako kontara luze samarren eta eleberrien irakurketa pertsonala egin eta hari buruzko iritzi ongi argudiatua ematea; obraren egitura eta generoaren elementuak ebaluatzea; hizkuntzaren erabilera eta egilearen ikuspuntua eta ofizioa ebaluatzea; obraren esanahia kokatzea haren edukiaren eta norberaren esperientziaren araber.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da literatur esparruan ikasleak irakurtzeko duen gaitasuna, ikasitako literatur garaietako (XIX. eta XX. mendeak) obra osoen irakurketa pertsonala eginez. Ikasleek testua modu kritikoan hartuko dute; haren edukia, egitura orokorra, generoaren bereizgarrien erabilera ebaluatuko dituzte, arreta berezia eskainiz hurrenkeran kronologikoari eta narratzailearen ahotsari edo ahotsei, hizkuntzaren erabilera (erregistroa eta estiloa), eta egilearen ikuspuntuari eta ofizioari. Obraren gehien eta gutxien gustatu zaizkien alderdiei buruzko eta edukiaren eta haien bizipenen arteko erlazioari buruzko iritzia pertsonal ongi argudiatua eman beharko dute.</p>

Oharrak

DBH1	DBH2
<p>5. Narratzea, aurkeztea eta laburtzea, paperean nahiz euskarri digitalean, erregistro egokia erabiliz, ideiak argitasunez antolatuz, esakuneak sekuentzia lineal kohesionatuetan lotuz, arau gramatikal eta ortografikoak errespetatuz eta testua planifikatzearen eta berrikustearen garrantzia baloratuz.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek testuak antolaketa argi batekin idazten dituzten eta perpausak sekuentzia lineal kohesionatu batean kateatzen dituzten; interesa duten testuak planifikatzeko eta berrikusteko, ondoz ondoko bertsiok eginez formatuagatik eta erregistroagatik egokia izanen den behin betiko testu bat osatu arte. Maila honetan ebaluatuko da ikasleek ba ote dakiten argitasunez narrazten eta komentatzen beren ingurune sozial eta kulturaletik hurbil dauden esperientziak eta egitateak, esparru pertsonaleko testuetan; esate baterako gutun pertsonalak; ba ote dakiten esparru publikoko testuak sortzen, bereziki arauak eta jarraibideak eta deiak, genero horietako konbentzioei jarraituz; ba ote dakiten albisteak idazten, informazioa modu hierarkikoan antolatuz; narrazioak eta aurkezpen errazak laburtzen, jatorrizko testuko oinarritzko elementuak berreraikiz; badakiten esparru akademikoko aurkezpen testuak osatzen (esate baterako, egindako lanei eta ikasitakoei buruzko aurkezpen errazak, glosarioak eta ondorioak). Halaber, baloratuko da testu idatzien aurkezpen txukunak egitea, paperean nahiz euskarri digitalean, arau ortografikoak eta tipografikoak errespetatuz.</p>	<p>5. Narratzea, aurkeztea, azaltzea, laburtzea eta komentatzea paperean nahiz euskarri digitalean, erregistro egokia erabiliz, ideiak argitasunez antolatuz, esakuneak sekuentzia lineal kohesionatuetan lotuz, arau gramatikal eta ortografikoak errespetatuz eta testua planifikatzearen eta berrikustearen garrantzia baloratuz.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek testuak antolaketa argi batekin idazten dituzten eta perpausak sekuentzia lineal kohesionatu batean kateatzen dituzten; interesa duten testuak planifikatzeko eta berrikusteko, ondoz ondoko bertsiok eginez formatuagatik eta erregistroagatik egokia izanen den behin betiko testu bat osatu arte. Maila honetan ebaluatuko da ikasleek ba ote dakiten argitasunez narrazten eta komentatzen beren ingurune sozial eta kulturaletik hurbil dauden esperientziak eta egitateak, esparru pertsonaleko testuetan (esate baterako foroetan parte hartzea); ba ote dakiten esparru publikoko testuak sortzen (bereziki eskabide-gutunak), genero horietako konbentzioei jarraituz; ba ote dakiten kazetaritza kronika laburrak idazten, informazioa modu hierarkikoan antolatuz; narrazioak eta aurkezpen errazak laburtzen, jatorrizko testuko oinarritzko elementuak berreraikiz; badakiten esparru akademikoko azalpen eta aurkezpen errazak osatzen (esate baterako, egindako lanei buruzko glosarioak eta txostenak). Halaber, baloratuko da testu idatzien aurkezpen txukunak egitea, paperean nahiz euskarri digitalean, arau ortografikoak eta tipografikoak errespetatuz.</p>

Oharrak

DBH3	DBH4
<p>5. Narratzea, aurkeztea, azaltzea, laburtzea eta komentatzea paperean nahiz euskarri digitalean, erregistro egokia erabiliz, ideiak argitasunez antolatuz, esakuneak sekuentzia lineal kohesionatueta lotuz, arau gramatikal eta ortografikoak errespetatuz eta testua planifikatzearen eta berrikustearen garrantzia baloratuz.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek testuak antolaketa argi batekin idazten dituzten eta perpausak sekuentzia lineal kohesionatu batean kateatzen dituzten; interesa duten testuak planifikatzeko eta berrikusteko, ondoz ondoko bertsoak eginez formatuagatik eta erregistroagatik egokia izanen den behin betiko testu bat osatu arte. Maila honetan ebaluatuko da ikasleek ba ote dakiten egitateak eta esperientziak argitasunez narratzen eta komentatzen foroetan eta eguneroko pertsonaletan, euskarri inprimatuan nahiz digitalean; ba ote dakiten esparru publikoko testuak osatzen, bereziki erregelamenduak, zirkularrak, deialdiak eta bileretako aktak, genero horietako konbentzioei jarraituz; ba ote dakiten erreportaje eta elkarrizketak idazten, informazioa hierarkikoki antolatuz; ba ote dakiten narrazioak eta aurkezpen errazak laburtzen, jatorrizko testuko oinarritzko elementuak berreraikiz; badakiten iturriak kontsultatzea eskatzen duten gaiei buruzko aurkezpen eta azalpenak egiten, irakurleei irakurgai arin bat eskainiz eta informazio garrantzitsuak emanez; ba ote dakiten lan proiektuak azaltzen eta haien ondorioen berri ematen. Halaber, baloratuko da testu idatzien aurkezpen txukunak egitea, paperean nahiz euskarri digitalean, arau ortografikoak eta tipografikoak errespetatuz.</p>	<p>5. Aurkeztea, azaltzea, argudiatzea, laburtzea eta komentatzea paperean nahiz euskarri digitalean, erregistro egokia erabiliz, ideiak argitasunez antolatuz, esakuneak sekuentzia lineal kohesionatueta lotuz, arau gramatikal eta ortografikoak errespetatuz eta testua planifikatzearen eta berrikustearen garrantzia baloratuz.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek testuak antolaketa argi batekin idazten dituzten eta perpausak sekuentzia lineal kohesionatu batean kateatzen dituzten; interesa duten testuak planifikatzeko eta berrikusteko, ondoz ondoko bertsoak eginez formatuagatik eta erregistroagatik egokia izanen den behin betiko testu bat osatu arte. Ikasturte honetan ebaluatuko da ikasleek esparru publikoko testuak osatzen ba ote dakiten, arreta berezia eskainiz foroari, eskariei eta eskabideei, erreklamazioei, curriculum vitaeari eta informazio eta publizitate liburuxkei, genero horien konbentzioen arabera; iritzia emateko kazetaritza testuak idaztea, adierazpen eta pertsuasio baliabideak eraginkortasunez erabiliz; aurkezpenak, azalpenak eta argudioak laburtzea, jatorrizko testuaren oinarritzko elementuak birsortuz; aurkezpenak, azalpenak eta argudioak osatzea iturri desberdinak erabiliz eta irakurketa arina bermatuz; lanerako proiektuak azaltzea eta ondorioen berri ematea. Halaber, baloratuko da testu idatzien aurkezpen txukunak egitea, paperean nahiz euskarri digitalean, arau ortografikoak eta tipografikoak errespetatuz.</p>

Oharrak

3. Multzoa. Hezkuntza literarioa

DBH1	DBH2
<p>6. Literaturaren ezagutzak erabiltzea testu laburrak edo testu zatiak ulertzeko eta baloratzeko, erreparatuz tradizioaren gai eta motiboei, generoaren oinarritzko ezaugarriei, erritmoaren oinarritzko elementuei eta hizkuntzaren erabilerari; arreta berezia eskainiko zaie figura erretoriko orokorrenei.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da literaturaren inguruko ezagutzak no-raino barneratu diren, gelan komentaturiko liburuak irakurriz, baloratuz eta haiekin gozatuz; edukia, antolaketa, hizkuntzaren erabilera eta egilearen ofizioa ebaluatze aldera testutik aldentzeko gaitasuna begiratu da. Literatur testuaren alderdi orokorrei begiratu da, gaia edo motibo zentrala ulertzeari, generoaren ezaugarri nagusiei, bertsoan erritmoa lortzeko moduei eta figura semantiko orokorrenei.</p>	<p>6. Literaturaren ezagutzak erabiltzea testu laburrak edo testu zatiak ulertzeko eta baloratzeko, erreparatuz tradizioaren gai eta motiboei, azpi-genero literarioen ezaugarriei, bertsogintzari, hizkuntzaren erabilerari eta testuko baliabide erretorikoen funtzionaltasunari.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da literaturaren inguruko ezagutzak no-raino barneratu diren, gelan komentaturiko liburuak irakurriz, baloratuz eta haiekin gozatuz; edukia, antolaketa, hizkuntzaren erabilera eta egilearen ofizioa ebaluatze aldera testutik aldentzeko gaitasuna begiratu da. Ebaluatuko da ikasleek gaiak eta motiboak ulertzea, generoen ezaugarriak (istorioaren elementuak eta narrazioaren garapen kronologikoa, antzerkirako testuen osagaiak, bertsogintzaren egiturak eta haiek erritmoan duten eragina) eta azpi-genero ohikoenen ezaugarriak ezagutzea, eta, azkenik, baliabide erretoriko ohikoenak ezagutzea, arreta berezia eskainiz hizkuntza poetikoak duen balio sinbolikoari.</p>
<p>7. Testuak osatzea, paperean nahiz euskarri digitalean, eredu gisa hartuz gelan irakurri eta komentatutako testu literarioen bat, edo testu horien eraldaketa errazen bat egitea.</p> <p>Irizpide honekin egiaztatu nahi da ikasleak gai diren beren idazkietan, paperean nahiz euskarri digitalean aurkeztutakoetan, barneratuta dituzten ezagutzak erabiltzeko, testu literarioak eginez (esate baterako, kontakizun labur bat, erritmoaren edo erretorikaren aldetik bereizgarria den olerki bat), gelan erabilitako ereduak erabiliz edo xede jakin batekin eraldaketa errazen bat eginez. Kontua ez da sortutako testuen kalitate literarioa ebaluatzea, baizik eta barneratutako ezagutzak erabiltzea eta xede edo lan jakin baterako testuak sortzea.</p>	<p>7. Testuak osatzea, paperean nahiz euskarri digitalean, eredu gisa hartuz gelan irakurri eta komentatutako testu literarioak, edo testu horien eraldaketa batzuk egitea.</p> <p>Irizpide honekin egiaztatu nahi da ikasleak gai diren beren idazkietan, paperean nahiz euskarri digitalean aurkeztutakoetan, barneratuta dituzten ezagutzak erabiltzeko, testu literarioak eginez (esate baterako, kontakizun labur bat, erritmoaren edo erretorikaren aldetik bereizgarria den olerki bat), gelan erabilitako ereduak erabiliz edo xede jakin batekin eraldaketaren bat eginez. Irizpide honetan, kontua ez da sortutako testuen kalitate literarioa ebaluatzea, baizik eta barneratutako ezagutzak erabiltzea eta xede edo lan jakin baterako testuak sortzea.</p>

Oharrak

DBH3	DBH4
<p>6. Literaturaren ezagutzak erabiltzea testu laburrak edo testu-zatiak ulertzeko eta baloratzeko, eta erreparatuko zaio errepikatzen diren gaiak agertzeari, hizkuntza poetikoaren balio simbolikoari eta generoen, forma literarioen eta estiloen bilakaerari.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da literaturaren inguruko ezagutzak no-raino barneratu diren, gelan komentaturiko liburuak irakurriz, baloratuz eta haiekin gozatuz; edukia, antolaketa, hizkuntzaren erabilera eta egilearen ofizioa ebaluatze aldera testu literariotik aldentzeko gaitasuna begiratu da. Kontuan hartuko da gai eta motiboak ulertzea, gai jakin batzuen errepikapenaz ohartzea (maitasuna, denbora, bizitza, heriotza), generoak eta haien bilakaera, oro har, ezagutzea (bertsotan idatzitako epikatik eleberrira, bertsogintza tradizionaletik Errenazimenduaren garaikora) eta elementu simbolikoen eta baliabide erretorikoen eta haiek testuan duten funtzionaltasunaren balorazioa egitea.</p>	<p>6. Ezagutza literarioak erabiltzea testu laburrak edo testu-zatiak ulertu eta baloratzeko, arreta berezia eskainiz literatura garaikidean generoetan eta formatan eginiko berrikuntzei (bertsogintzan eta hizkuntzan).</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da literaturaren inguruko ezagutzak no-raino barneratu diren, gelan komentaturiko liburuak irakurriz, baloratuz eta haiekin gozatuz; edukia, antolaketa, hizkuntzaren erabilera eta egilearen ofizioa ebaluatze aldera testu literariotik aldentzeko gaitasuna begiratu da. Kontuan hartuko da gaiak eta motiboak ulertzen diren eta ikasleak konturatzen diren gai batzuk behin eta berriz agertzen direla, eta gai berriak ere agertzen direla; literatura garaikideko generoak eta haien ezaugarri eta berritasunak ezagutzen dituzten, oro har (kontaera edo drama errealista, fantasiakoa, poetikoa; poesia erromantikoa, abangoardiakoa, soziala); halaber, simbolismoak eta abangoardiak hizkuntza poetikorako egin dituzten ekarpenak ezagutzen dituzten.</p>
<p>7. Irakurritako eta komentatutako obren, haiek agertzen diren testuinguruaren eta literaturaren historiako egile garrantzitsuenen arteko erlazioak ezagutzen direla erakustea, informazio eta sintesi edo imitazio eta birsortze lan bat eginez, paperean nahiz euskarri digitalean.</p> <p>Irizpide honekin egiaztatu nahi da ea ulertzen duten literaturaren fenomeno testuinguru historiko jakin batean izaten den jarduera komunikatibo eta estetiko bat dela; horretarako lan pertsonal bat eginen da, paperean nahiz euskarri digitalean, non laburbilduko baita egile, obra edo garai bati buruz lortutako informazioa; halaber, proposa daiteke testu bat osatzea eta hartan gelan erabilitako ereduak bat imitatzea edo birsortzea. Horrela egiaztatu daiteke ea ikasleek literaturaren historiako garai handiei buruzko ezagutzak barneratzen dituzten, hasi Erdi Arotik eta XVIII. mendera arte, eta literatura hispaniarraren eta europarraren obra eta egile nagusiak ezagutzen dituzten.</p>	<p>7. Irakurritako eta komentatutako obren, haiek agertzen diren testuinguru historiko eta literarioaren eta XIX. eta XX. mendeetako egile garrantzitsuenen arteko erlazioak azaltzea, informazio eta sintesi lan bat eginez, balorazio pertsonala eginez edo imitazio eta birsortze lan bat eginez, paperean nahiz euskarri digitalean.</p> <p>Irizpide honekin egiaztatu nahi da ea ulertzen duten literaturaren fenomeno testuinguru historiko jakin batean izaten den jarduera komunikatibo eta estetiko bat dela; horretarako lan pertsonal bat eginen da, paperean nahiz euskarri digitalean, non laburbilduko baita XIX. eta XX. mendeetako egile, obra edo mugimendu bati buruz lortutako informazioa; halaber, proposa daiteke testu bat osatzea eta hartan gelan erabilitako ereduak bat imitatzea edo birsortzea. Horrela egiaztatu daiteke ea ikasleek XIX. eta XX. mendeetako garai eta mugimendu literarioei buruzko ezagutzak barneratu dituzten, eta literatura hispaniarraren eta europarraren mende horietako obra eta egile nagusiak ezagutzen dituzten.</p>

Oharrak

4. Multzoa. Hizkuntzaren ezaguera

DBH1	DBH2
<p>8. Hizkuntzari eta erabilera linguistikoaren araei buruzko ezagutzak aplikatzea ahozko eta idatzizko testuen ulermen arazoak konpontzeko eta maila honetako testuen osatze eta berrikuspen lan gidatuak egiteko.</p> <p>Irizpide honekin egiaztatu nahi da hizkuntzari eta erabilera araei buruzko ezagutza batzuk erabiltzen diren, mailan lantzen diren testuen ulertze, osatze eta berrikusteari dagokienez. Arreta berezia eskainiko zaie eskuneeen markei (perpauaren modalitateak eta 1. eta 2. pertsonen izenordain deiktikoak); denbora, hurrenkera eta azalpena adierazteko testu-lokailuei; barne erreferenziako mekanismo pronominal eta lexikoei; narratzeko eta agindua eta desioa adierazteko aditz formei, azalpen balioko adierazpenak txertatzeari eta perpauak zuzen osatzeari, aditzen esanahiaren arabera. Arau ortografikoetan azentuazioaren arau orokorrei begiratuko zaie, eta hiztegi ohikoaren ortografiari, komaren funtsezko erabilerei (zerrendatzeak, bokatioak, tartekiak), perpauak bereizteko puntua erabiltzeari eta elkarrizketaren markei.</p>	<p>8. Hizkuntzari eta erabilera linguistikoaren araei buruzko ezagutzak aplikatzea ahozko eta idatzizko testuen ulermen arazoak konpontzeko eta maila honetako testuen osatze eta berrikuspen lanak progresiboki egiteko.</p> <p>Irizpide honekin egiaztatu nahi da hizkuntzari eta erabilera araei buruzko ezagutza batzuk barneratzen eta erabiltzen diren, testuen ulertze, osatze eta berrikusteari dagokienez. Honakoei begiratuko zaie bereziki: perpauaren modalitateek testuinguruetan dituzten esanahiei eta deixi pertsonalaren eta denbora eta lekua adierazteko deixiaren formei; hurrenkera, azalpena eta kontrastea adierazteko testu-lokailuak; barne erreferenziako mekanismoak, gramatikalak nahiz lexikoak (elipsiari eta esanahi jakin bateko hiperonimoei erreparatuz); indikatiboaren eta subjuntiboaren orainaldiak dauzkan baliok; eduki bera eskema sintaktiko desberdinen bitartez azaltzea, eta partizipioaz eta gerundioaz osatutako formei. Arau ortografikoetan, honakoak zainduko dira: hiatoen eta diptongoen azentuak, azentu-marka diakritikoaren erabilera ohikoena, aditz irregularrekin loturiko arazo ortografikoak, elkarrizketetan puntuazio-markak erabiltzeko modu desberdinak eta puntuaren eta komaren erabilerak.</p>
<p>9. Oinarrizko terminologia linguistikoa ezagutzen hastea, eta haien erabileraz gogoeta egiteko jarduerak baliatzea horretarako.</p> <p>Irizpide honekin egiaztatu nahi da jarduera gramatikaletan azalpenak eta jarraibideak jarraitzeko behar den oinarrizko terminologia ulertzen den. Maila honetan egiaztatuko da honakoei buruzko terminologia ezagutzen dela: perpauaren modalitateak, hitz flexiboak eta ez-flexiboak, hitzak sortzeko prozedurak, sinonimia eta antonimia, kategoria gramatikalak (prototipo kasuetan), aditzaren denbora eta modua, eta subjektua eta predikatua (perpau errazetan). Eskolako hiztegiatan eta bestelako kontsulta lanetan informazio gramatikal orokorra lortzen den ebaluatuko da.</p>	<p>9. Oinarrizko terminologia linguistikoa ezagutzea, eta haien erabileraz gogoeta egiteko jarduerak baliatzea horretarako.</p> <p>Irizpide honekin egiaztatu nahi da jarduera gramatikaletan azalpenak eta jarraibideak jarraitzeko behar den oinarrizko terminologia ezagutzen den. Maila honetan, aurreko mailan erabilitako terminologia erabiltzeaz gainera, egiaztatuko da honakoen terminologia ere ezagutzen den: subjektua, predikatua eta osagarriak; elipsia, subjektuaren zereginak (egilea, jasailea, kausa, jasailea); hitz mota desberdinen funtzio sintaktiko bereizgarriak (nukleoa, osagarria, determinatzailea, lokailua). Eskolako hiztegiatan informazio gramatikal orokorra lortzeko autonomia gero eta handiagoa izatea baloratuko da.</p>

Oharrak

DBH3	DBH4
<p>8. Hizkuntzari eta erabilera linguistikoaren araei buruzko ezagutzak aplikatzea ahozko eta idatzizko testuen ulermen arazoak konpontzeko eta maila honetako testuen osatze eta berrikuspen lanak gero eta autonomia handiagoarekin egiteko.</p> <p>Irizpide honekin jakin nahi da ikasleek hizkuntzari eta erabilera araei buruzko ezagutza batzuk barneratzen eta erabiltzen dituzten, testuen ulertze, osatze eta berrikusteari dagokionez. Honakoei erreparatuko zaie bereziki: deixiaren aldaera sozialak (konfiantzazko eta kortesiazko formulak), lokailu banatzaileak, hurrenkera, kontrastea, azalpena eta kausa adierazteko lokailuak; barne erreferentziako mekanismoak, gramatikalak nahiz lexikoak, bereziki nominalizazioak eta hiperonimo abstraktuak; subjuntiboaren eta maiz erabiltzen diren aditz perfrasien baliok; aditz baten aldaera desberdinek dauzkaten jokabide sintaktiko desberdinak, eta eduki bera eskema sintaktiko desberdinen bidez adieraztea; mendeko substantibo, erlatibo eta adberbiozkoak txertatzea. Egiaztatuko da arau ortografikoen ezagutza praktikoa finkatu den, eta ohikoenak diren aurrizki eta atzizkien ortografia ere ikasiko da; azentu-marka diakritikoa galderetan eta haridura perpausetan; koma perpaus konposatuaren eta diskurtsoaren markagailuen arabera; komatxoak zitak emateko modu gisa.</p>	<p>8. Hizkuntzari eta erabilera linguistikoaren araei buruzko ezagutzak aplikatzea ahozko eta idatzizko testuen ulermen arazoak konpontzeko eta testuen osatze eta berrikuspen lanak modu autonomoan egiteko.</p> <p>Irizpide honekin jakin nahi da ikasleek hizkuntzari eta erabilera araei buruzko ezagutza batzuk barneratzen eta erabiltzen dituzten, testuen ulertze, osatze eta berrikusteari dagokionez, eta testuak berrikustearakoan autonomiaz erabiltzen diren. Egokitasunaren eta kohesioaren alderdi guztiak baloratuko dira, eta bereziki honakoak: subjektibotasunaren adierazpena (iritzia, balorazioa, ziurtasuna, zitak sartzea) eta deixiaren aldaera espresiboak (konfiantzazko eta kortesiazko formulak); perpaus bakun eta konplexuak erabiltzea eskema semantiko eta sintaktiko desberdinekin; lotura prozedurak eta, zehazki, kausa, ondorioa, baldintza eta hipotesia adierazteko lokailuak; barne erreferentziako mekanismoak; estilo kohesionatuko esakuneak osatzeko prozedura desberdinak (perpaus-eraiketen eta izen-eraiketen arteko alternatiba; justaposizioaren, koordinazioaren eta mendeko perpausen artekoa).</p> <p>Aurreko mailetan ebaluatu diren araeuz gainera, honakoak hartuko dira aintzat: jatorri grekolatindarreko elementuen ortografia; puntuazioak perpausaren eta testuaren antolaketa kohesionaturako egiten duen ekarpena; marrazkoaren eta parentesiaren erabilera tartekietan, eta komatxoaren erabilera adierazkorrak.</p>
<p>9. Erabilerari buruzko gogoeta egiteko behar den terminologia linguistikoa ezagutzea.</p> <p>Irizpide honekin egiaztatu nahi da jarduera gramatikaletan azalpenak eta jarraibideak jarraitzeko eta emateko behar den oinarritzko terminologia ezagutzen den eta erabiltzen hasten den. Maila honetan, aurreko mailetan ebaluatutako terminologiaz gainera, egiaztatuko da ondokoei buruzkoa ere ezagutzen dela: predikatua (izen-predikatua eta aditz-predikatua) eta perpausak (aktiboa, pasiboa) eta aditzaren osagarriak; kategoria aldaketak (nominalizazioak) eta perpausak batzeko formen identifikazioa (justaposizioa, koordinazioa eta subordinazioa). Eskolako hiztegietan informazio gramatikal orokorra lortzeko autonomia gero eta handiagoa izatea baloratuko da.</p>	<p>9. Terminologia linguistiko egokia ezagutu eta erabiltzea, eta haien erabileraz gogoeta egiteko jarduerak baliatzea horretarako.</p> <p>Irizpide honekin egiaztatu nahi da gelako ezagutza gramatikalak eta jarduerak aipatzeko behar den terminologia egokia ezagutu eta erabiltzen den. Egiaztatuko da aurreko mailetan ebaluatutako terminologia eta maila honetako "hizkuntzaren ezaguera" epigrafean jasotakoa ezagutzen diren. Egiaztatuko da, halaber, hitzen forma eta funtzioa bereizten diren, eta kategoriaz aldatzeko prozedura lexikoak (hizkiak) eta sintaktikoak ezagutzen diren. Hiztegietan mota guztietako informazio linguistikoak lortzeko autonomia gero eta handiagoa izatea baloratuko da.</p>

Oharrak

5. Multzoa. Hizkuntzaren ikasketari buruzko gogoeta. Estrategiak

Lau kurtsoentzat berdinak

10. Ikaskuntzan aurrera egiteko erabilitako estrategia batzuk identifikatu eta haien adibideak jartzea.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek ikaskuntza prozesua errazten duten oinarriko estrategiak erabiltzen dituzten; esate baterako, aurrerapenak baloratzen joateko gaitasuna, gehiago eta hobeki ikasteko moduari buruzko gogoeta, ikasteko estilo pertsonalak kontuan hartuta (ikusizkoa, entzutezkoa ...), akatsa barneratu eta onartzea ikasteko prozesuaren atal gisa; lexikoa bildu, buruz ikasi eta berrikusteko moduak erabiltzea; hiztegia zuzen erabiltzea testuinguruaren arabera adiera egokia identifikatzeko; baliabide bibliografikoak, informatikoak eta digitalak erabiltzea informazioa biltzeko, gelan landutako alderdiak zabaldu edo berrikusteko eta abarretarako.

11. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu gidatuan erabiltzea mezuak ereduetatik abiatuz sortzeko eta harreman pertsonalak ezartzeko; teknologia horien erabilera dela-eta interesa erakustea.

Irizpide honekin ebaluatuko da informazioaren eta komunikazioaren teknologiak komunikaziorako eta ikasketarako tresna gisa erabiltzeko gaitasuna, betiere gelako ohiko jardueretan eta harreman pertsonalak ezartzeko. Ezartzen diren komunikazioak alde zuzenetik landutako lan ezagunei buruzkoak izan behar dira, eta ereduak egiten dira. Kontuan hartuko da, halaber, ikasleek aniztasun linguistikoa baloratzen ote duten elementu aberasgarri gisa, eta hizkuntzari buruz duten jarrera eta erabiltzeko egiten dituzten ahaleginak.

12. Hizkuntzaren kodearen alderdi formal batzuen ezagutza erabiltzea (morfologia, sintaxia eta fonologia) komunikazioaren testuinguru desberdinetan, autoikaskuntzarako eta autozuzenketarako tresna gisa norberaren produkzioetan, eta gainerakoen produkzioak hobeki ulertzeko.

Irizpide honekin ebaluatuko da ikasleak gai diren sistema linguistikoari buruz dauzkaten ezagutzak aplikatzeko, hizkuntzaren soinu, erritmo, intonazio eta antolaketa alderdiak erabiliz jarduera desberdinetan, eta gogoeta egiteko beren produkzioak eta gainerakoen produkzioak ulertzea bideratzen duen zuzentasun formalaren beharraz.

Oharrak

Euskara eta Literatura-D eredua (L1)

Helburuak

Eta honetan, Euskara eta Literatura irakasgaiaren irakaskuntzak honako gaitasunak garatzea izanen du helburu:

1. Gai zehatzei nahiz abstraktuei buruzko ahozko eta idatzizko diskurtso luzeak eta nahiko konplexuak ulertzea, jarduera sozial eta kultureko testuinguru desberdinetan, eta haien argudioen hariari jarraitzea.
2. Hizkuntza erabiltzea jarduera sozial eta kultureko testuinguru desberdinetan modu argi, xehe, koherente eta egokian gauzak adierazteko, ikuspuntu desberdinak azalduz, norberaren sentimenduen eta ideien kontzientzia hartzeko eta norberaren jokamoldea kontrolatzeko.
3. Ahozkoaren eta idatziaren ulermena eta adierazpena nola erabili ikastea, ikaskuntzan aurrera egiteko mekanismo gisa.
4. Nafarroako eleaniztasunaren errealitatea eta euskararen aldaera linguistikoak ezagutzea, eta aniztasun hori aberastasun kultural gisara baloratzea.
5. Ahozko hizkuntza jarduera sozial eta kulturean modu argi eta zehatzean erabiltzea, nolabaiteko arintasunez, modu espontaneoan eta kasuko egoerarako eta funtziorako modu egokian, errespetuzko eta lankidetzazko jarrera hartuz.
6. Erakunde publiko eta pribatuekin eta lan mundukoekin komunikazioa sortzeko idazki mota ezberdinak erabiltzea.
7. Hizkuntza eskola-jardueran eraginkortasunez erabiltzea, bai informazioa hautatu eta prozesatzeko, bai esparru akademikoak berezkoak dituen testuak idazteko, bai eta ezagutza iturri izateko.
8. Komunikabideak eta informazioaren teknologiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea informazio eta iritzi desberdinak lortu, interpretatu, hautatu, prestatu eta baloratzeko.
9. Irakurketa, arlo ezberdinetan (literarioan, zientifikoan, sozialean ...) gozamenerako eta norberaren aberastasunerako iturri izan dadila lortzea, bai eta mundua ezagutzeko eta irakurtzeko azturak finkatzeko iturri ere.
10. Literatur testuak ulertu eta sortzea, genero bakoitzeko konbentzioei buruzko oinarriko ezagutzak, tradizio literarioaren gaiak eta motiboak eta baliabide estilistikoak erabiliz.
11. Ondare literarioaren lagin adierazgarrien ezagutzara hurbiltzea, eta baloratzea hura dela testuinguru historiko eta kultural desberdinetan banakako eta taldeko esperientzia sinbolizatzeke modu bat.
12. Hizkuntzari eta erabilera linguistikoaren araei buruzko ezagutzak nolabaiteko autonomiaz aplikatzea, ahozko eta idatzizko testuak ulertzeko eta modu egokian (hizkuntzaren erregistro desberdinak erabiltzea) koherentean, kohesionatuan eta zuzenean idatzi eta hitz egiteko.
13. Hizkuntzen erabilera sozial desberdinak analizatzea, balio-juzkuak eta aurreiritzi klasistak, arrazistak edo sexistak dakartzaten estereotipo linguistikoak saihesteko.
14. Ikasteko prozesuei buruz gogoeta egitea eta komunikaziorako ezagutzak beste hizkuntza batzuetara transferitzea.

Edukiak

1. multzoa. Entzutea eta ulertzea, hitz egitea eta hizketan aritzea

DBH1	DBH2
<ul style="list-style-type: none"> • Ikus-entzunezko komunikabideetatik heldu diren eta ikasleen interesetatik hurbil dauden gaurkotasuneko albisteak ulertzea. • Esparru akademikoan erabilitako ahozko testuak ulertzea, bereziki erreparatuz lanen aurkezpenari eta horiek egiteko jarraibide errazei, ahozko azalpen laburrei eta komunikabideetatik hartutako dokumentalen informazioak lortzeari. • Esparru akademikoak berezkoak dituen komunikazio egoeretan aktiboki parte hartzea, bereziki jarraibideak direla-eta argibideak eskatzean, lanak antolatze moduari buruzko proposamenetan, egindako jardueren sekuentzia errazak deskribatzean, iritzi trukaketan eta ondorioen azalpenean. • Testuingururako egokiak diren hizkuntza eta funtzio linguistikoak erabiltzea (erregistro desberdinak, kortesiazko elementuak), bai eta komunikazio egoerara egokitzeko baliabideak ere. • Komunikabideetatik hartutako gaurkotasuneko informazioak azaltzea. • Ahoz narratzea, aldez aurretik prestatuturiko gidoi batetik abiatuta, izandako bizipenekin loturiko egitateak, betiere esperientzia hori sekuentzian eta argitasunez aurkeztuz, deskribapen errazak txertatuz eta azaldutakoaren inguruko ideiak eta balorazioak ere sartuz, elementu narratiboan bitartez (egitura, formula narratiboak); horretarako, ikus-entzunezkoen eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien laguntza izanen du ikasleak. • Laguntza eta errespetu jarrerak ikaskuntza konpartituko egoeretan. • Hizkuntza erabiltzea norberaren ezagupenen, ideien eta sentimenduen kontzientzia hartzeko eta norberaren jokabidea erregulatzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> • Ikus-entzunezko komunikabideetatik heldu diren informazioak ulertzea. • Esparru akademikoan erabilitako ahozko testuak ulertzea, bereziki erreparatuz lanen aurkezpenari eta horiek egiteko jarraibideei, ahozko azalpen laburrei eta komunikabideetako albistegi eta dokumentaletatik informazioak lortzeari. • Testu desberdinetatik bildutako informazioa aldez aurretik ezarritako xedeetarako erabiltzea (laburpenak egin, eskemak osatu, entzundakoa komentatu edo kritikatu). • Esparru akademikoak berezkoak dituen komunikazio egoeretan aktiboki parte hartzea, bereziki jardura antolatze moduari buruzko proposamenetan, baterako lanerako informazio erabilgarrien ekarpenetan eta egindako lanei buruzko txosten laburren azalpenean. • Komunikabideetatik hartutako informazioak azaltzea, komunikabide desberdinetan egitateak aurkezteko modu desberdinetan azpimarra jarri, informazioa argitasunez eta modu antolatuan aurkeztuz eta informazio garrantzitsuen hautatuz. • Ikasleen intereseko gaiak buruzko informazioak modu argi eta antolatuan aurkezteko -haiek aldez aurretik prestatu ondoren-, ikus-entzunezko bitartekoak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiliz; azalpenak laburrak izanen dira, baina haietan erakutsiko da informazio garrantzitsuen hautatu dela, eta transmisioa ordenaz eta argitasunez gauzatuko da. • Lankidetzeta eta errespetuzko jarrera ikaskuntza partekatuko egoeretan; horretarako, mekanismo linguistikoak erabiliko dira. • Hizkuntza erabiltzea norberaren ezagupenen, ideien eta sentimenduen kontzientzia hartzeko eta norberaren jokabidea erregulatzeko.
<p>Testuak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Deskribapenak: lekuak, gauzak, pertsonak (erretratu fisikoa eta izaeraren erretratuak) eta abar. • Narrazio testuak. • Elkarrizketak: elkarrizketa egitea. • Azalpen testuak: azalpena, laburpena, glosarioak, ondorioak eta abar. 	<p>Testuak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Argudiozko testuak: eztabaida, diskurtsoa eta publizitatea (deiak, iragarkiak). • Narrazio testuak (albistea, kronika, narrazioa, txostenak). • Azalpen testuak: definizioa, azalpena eta laburpena.

DBH3	DBH4
<ul style="list-style-type: none"> • Ikus-entzunezko komunikabideetatik heldu diren testu konplexu samarrak ulertzea; esate baterako, irriatiak eta telebistak emandako erreportaje eta elkarrizketak. • Esparru akademikoan erabilitako ahozko testu konplexu samarrak ulertzea, bereziki erreparatuz lanen aurkezpenari eta horiek egiteko jarraibideei, ahozko azalpen laburrei eta komunikabideetako albigestegi eta dokumental, erreportaje edo elkarrizketetatik informazioak lortzeari. • Entzundako testuetatik jasotako informazioa erabiltzea eta norberaren ezagutzekin alderatzea. • Esparru akademikoak berezkoak dituen komunikazio egoeretan aktiboki parte hartzea, bereziki jarduera antolatze moduari buruzko proposamenetan, baterako lanerako informazio erabilgarrien ekarpenetan eta egindako lanei buruzko txosten azalpenetan. • Gaurkotasuneko gai bati buruz komunikabide batetik hartutako informazioa azaltzea, ahozko elkarreraginen gainera dauden arauak errespetatuz. • Aldez aurretik prestatutako ahozko azalpen errazak egitea, modu antolatua eta argian, ikasleen interesekoak diren gaurkotasun sozial, politikoa edo kulturaleko egitatei buruz, ikus-entzunezko bitartekoen eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien laguntzarekin. • Laguntza eta errespetu jarrerak ikaskuntza konpartituko egoeretan. • Hizkuntza erabiltzea norberaren ezagupenen, ideien eta sentimenduen kontzientzia hartzeko eta norberaren jokabidea erregulatzeke. 	<ul style="list-style-type: none"> • Ikus-entzunezko komunikabideetatik heldu diren testuak, arreta berezia jarriz irriatiak edo telebistak emandako eztabaidetan eta entzuleen iritzietan. • Irakasgaien edukiekin lotura duten eta esparru akademikoan egiten diren aurkezpen, azalpen edo hitzaldiak ulertzea. • Aktiboki parte hartzea esparru akademikoak berezkoak dituen komunikazio egoeretan, bereziki jardueren plangintza egiteko proposamenetan eta lanen jarraipenari eta ebaluazioari buruzko txostenen aurkezpenetan. • Gaurkotasuneko gai bati buruz komunikabide batzuetatik hartutako informazioa azaltzea eta ikuspuntu desberdinak eta komunikabide horietan adierazitako iritziak kontrastatzea, betiere ahozko elkarreraginen gainera dauden arauak errespetatuz. • Ahozko aurkezpen ongi egituratuak egitea jarduera akademikoekin edo gaurkotasuneko kontuekin zerkusia duten eta ikuspuntu desberdinak sorrazten dituzten gaiei buruz, ikus-entzunezko bitartekoen eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien laguntzarekin. • Laguntza eta errespetu jarrerak ikaskuntza konpartituko egoeretan. • Hizkuntza erabiltzea norberaren ezagupenen, ideien eta sentimenduen kontzientzia hartzeko eta norberaren jokabidea erregulatzeke.
<p>Testuak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Narrazio testuak: kazetaritzakoak (erreportajea, elkarrizketak, albistei buruzko artikulua, txostenak). • Azalpen testuak. 	<p>Testuak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Argudiozko testuak: iruzkinak, kontra-argudioak, argudio zientifikoak eta testu administratiboak (erreklamazioa, eskaria). • Azalpen testuak: hitzaldia.

DBH1	DBH2
<p>Trebetasunak eta estrategiak</p> <p>Ahozkoaren ulermena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Aldez aurretik informazioa biltzea eta entzunen dena iragartzea. • Aktiboki entzutea, gainerako pertsonak eta haien iritziak errespetatuz. • Entzundakoari buruzko oharrak hartu, laburpenak, eskemak eta mapa kontzeptualak egin eta informazioa nola dagoen antolatuta analizatzea. • Testuaren gai orokorra, ideiak eta egitate edo datu nagusiak zehaztu eta adieraztea. • Igorlearen asmoa hartzea; mintzakideak eta haien ikuspuntuak identifikatzea. • Norberaren ulermena baloratzea. 	<p>Trebetasunak eta estrategiak</p> <p>Ahozkoaren ulermena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Aldez aurretik informazioa biltzea eta entzunen dena iragartzea. • Aktiboki entzutea, gainerako pertsonak eta haien iritziak errespetatuz. • Entzundakoari buruzko oharrak hartu, laburpenak, eskemak eta mapa kontzeptualak egin eta informazioa nola dagoen antolatuta analizatzea. • Informazioa eta iritzia bereiztea. • Edukia baloratzea ondoko irizpideen arabera: soiltasuna - konplexutasuna, luze-laburra, eduki berrien aberastasuna eta aniztasuna eta abar. • Norberaren ulermena baloratzea.
<p>Ahozko adierazpena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Eskola esparruan ikaskideen aurrean emateko ahozko azalpen bat prestatzea, eta elkarrizketa baterako esku-hartzea prestatzea, alderdi guztiei erreparatuz: helburua, mintzakideak, erregistroa, diskurtsoaren estiloa. • Informazioa bildu eta antolatzea helburuaren eta entzuleen arabera, gidoi bati jarraituz. • Ideiak ordena koherente baten arabera antolatzea eta haiek sekuentzian eta argitasunez aurkeztea. • Azalpenaren entsegua egitea. • Argitasunez hitz egitea, ildoak galdu gabe, gidaira behin eta berriz jo gabe, ikus-entzunezko bitartekoen eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien laguntzarekin. • Elkarrizketan gertatzen diren aldaketei egokitzea. • Taldeko jardueretan rol desberdinak hartzea: moderatzailea, eleduna, idazkaria. • Bizikidetasun arauak eta besteen iritziak errespetatzea. • Norberaren eta besteen azalpenak objektiboki baloratzea. Irakaslearen laguntzarekin testuaren forma eta edukia hobetzeko moduak aurkitzea. 	<p>Ahozko adierazpena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Eskola esparruan ikaskideen aurrean emateko ahozko azalpen bat prestatzea, eta elkarrizketa baterako esku-hartzea prestatzea, alderdi guztiei erreparatuz: helburua, mintzakideak, erregistroa, diskurtsoaren estiloa. • Informazioa bildu eta antolatzea helburuaren eta entzuleen arabera, gidoi bati jarraituz. • Baliabideak, hizkuntza eta funtzio linguistiko egokiak behar bezala erabiltzea. • Azalpenaren entsegua egitea. • Argitasunez hitz egitea, ildoak galdu gabe, gidaira behin eta berriz jo gabe, ikus-entzunezko bitartekoen eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien laguntzarekin. • Esaten dena eta hura adierazteko bitartekoak unearen eta entzuleen arabera egokitzea, entzuleen arretari eusten saiatuz (enfasia, bolumena, tonua, entzuleen igurikapenak piztea: galderak, datu interesgarriak, umorea, ikusizko laguntzak ...) esan nahi dena birformulatuz eta abar. • Taldeko jardueretan rol desberdinak hartzea: moderatzailea, eleduna, idazkaria. • Bizikidetasun arauak eta besteen iritziak errespetatzea. • Norberaren eta besteen azalpenak objektiboki baloratzea. Irakaslearen laguntzarekin testuaren forma eta edukia hobetzeko moduak aurkitzea.

DBH3	DBH4
<p>Trebetasunak eta estrategiak</p> <p>Ahozkoaren ulermena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Aldez aurretik informazioa biltzea eta entzunen dena iragartzea. • Aktiboki entzutea, gainerako pertsonak eta haien iritziak errespetatuz. • Entzundakoari buruzko oharrak hartu, laburpenak, eskemak eta mapa kontzeptualak egin eta informazioa nola dagoen antolatuta analizatzea. • Identifikatzea zer, nola, nori (adina, jarrera, jatorri sozio-kulturala, xedeak inferitzea edo deduzitzea) eta zertarako entzuten den. • Ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereiztea; diskurtsoan garrantzitsua dena ezagutzea. • Informazioa eta iritzia bereiztea. • Analizatzea informazioa nola dagoen antolatuz (egitura, antolaketak, erregistro mota, deklamazioa, hitzezkoak ez diren elementuak eta abar). • Mezuaren edukia eta forma baloratzea (egitura, hizkuntza mota, ezaugarri akustikoak, luzera eta aberastasuna eta abar). • Norberaren ulermena baloratzea. 	<p>Trebetasunak eta estrategiak</p> <p>Ahozkoaren ulermena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Aldez aurretik informazioa biltzea eta entzunen dena iragartzea. • Aktiboki entzutea, gainerako pertsonak eta haien iritziak errespetatuz. • Diskurtsoaren elementuak gordetzea, oharrak hartuz, eskemak eta krokisak erabiliz eta abar. • Identifikatzea: elementu implizituak, aurreiritziak, gainulertuak, zentzu bikoitzak, anbiguotasunak, elipsiak, igorlearen jarrera (intonazioa, bolumena), diskurtsoaren tonua (oldarkortasuna, ironia, umorea, iseka eta abar), hitzez besteko elementuak ... • Informazioa eta iritzia bereiztea, eta ongi justifikaturiko argudioak eta gaizki justifikaturikoak. • Gai berri bat jadanik ezagutzen den beste batekin lotzea. • Azalpenak grabazioen bidez, oharrak hartuz edo beste bide batzuetatik analizatzea eta norberaren ulermena baloratzea. • Norberaren ulermena baloratzea.
<p>Ahozko adierazpena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Eskola esparruan ikaskideen aurrean emateko ahozko azalpen bat prestatzea, eta elkarrizketa baterako esku-hartzea prestatzea, alderdi guztiei erreparatuz: helburua, mintzakideak, erregistroaren estiloa. • Informazioa bildu eta antolatzea helburuaren eta entzuleen arabera, gidoi bat prestatuz. • Azalpenaren entsegua egitea. • Argitasunez hitz egitea, ildoak galdu gabe, gidaira behin eta berriz jo gabe, ikus-entzunezko bitartekoen eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien laguntzarekin. • Taldeko jardueretan rol desberdinak hartzea: moderatzailea, eleiduna, idazkaria. • Bizikidetasun arauak eta besteen iritziak errespetatzea. • Norberaren eta besteen azalpenak objektiboki baloratzea. Irakaslearen laguntzarekin testuaren forma eta edukia hobetzeko moduak aurkitzea. 	<p>Ahozko adierazpena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikuspuntu eta jarrera desberdinak onartzen dituen ahozko azalpen bat prestatzea. • Informazioa bildu eta antolatzea helburuaren eta entzuleen arabera, gidoi bat prestatuz. • Azalpenaren entsegua egitea. • Argitasunez hitz egitea, ildoak galdu gabe, gidaira behin eta berriz jo gabe, ikus-entzunezko bitartekoen eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien laguntzarekin. • Hitz egiteko txandak eta kortesiazko formulak eraginkortasunez erabiltzea. Esku hartzeko une egokia hautatu eta ongi aprobetxatzea. Diskurtsoa zaintzea: erritmoa, abiadura, etenak, intonazioa eta abar. Hitzez besteko elementuak: begirada, keinuak, mugimenduak eta abar. • Entzuleen arreta erakartzea eta hari eustea estrategia desberdinen bitartez (bolumena, tonua aldatzea, umorea, adibideak jartzea). • Behar ez diren errepikapenak saihestea; informazio akastunak eta egokiak ez diren ideiak eta informazioak identifikatzea. • Taldeko jardueretan rol desberdinak hartzea: moderatzailea, eleiduna, idazkaria. • Bizikidetasun arauak eta besteen iritziak errespetatzea. • Norberaren eta besteen azalpenak objektiboki baloratzea. Irakaslearen laguntzarekin testuaren forma eta edukia hobetzeko moduak aurkitzea.

2. multzoa. Irakurtzea eta idaztea

DBH1	DBH2
<p>Idatzizko testuak ulertzea</p> <ul style="list-style-type: none"> Eguneroko bizitzako kontuei buruzko eta ikasleen esperientziatik hurbil dauden esparruetako giza harremani buruzko testuak ulertzea; esate baterako, gauzak erabiltzeko jarraibideak, arauak eta deiak. Komunikabideetako testuak ulertzea, egunkariaren egiturari (atalak eta generoak) eta elementu paratestualei erreparatuz, eta arreta berezia jarriz eguneroko bizitzarekin loturiko albisteetan eta egitatei buruzko informazioetan. Esparru akademikoko testuak ulertzea, arreta berezia jarriz azalpen testuetan eta testu argitzaileetan, lanak egiteko jarraibideetan, kontsultetan; euskarri desberdinak erabiliko dira horretarako: hiztegiak, glosarioak eta bestelako informazio iturriak (entziklopediak eta hezkuntzaren arloko web orriak, esate barerako) erabiltzea. Ozenki irakurtzea, arintasunez, erritmo, eten eta intonazio egokiak erabiliz. Ikastetxeko liburutegiaren erabilera gidatua eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiena, informazioa lortzeko eta idatzizko lanak egiteko ereduak aurkitzeko. Gogoetazko jarrera eta jarrera kritikoa edozein motatako diskriminazioa dakarten mezuak direla-eta dagoen informazioarekiko. 	<p>Idatzizko testuak ulertzea</p> <ul style="list-style-type: none"> Eguneroko bizitzako kontuei buruzko eta ikasleen esperientziatik hurbil dauden esparruetako giza harremani buruzko testuak ulertzea; esate baterako, arauak, deiak eta komunikazioak. Komunikabideetako testuak ulertzea, bereziki egitatei buruzko informazioa, albisteak eta kronikak, egunkari digitalaren egiturari (atalak eta generoak) eta elementu paratestualei erreparatuz. Esparru akademikoko testuak ulertzea, arreta berezia jarriz azalpen testuetan eta testu argitzaileetan, lanak egiteko jarraibideetan, kontsultetan; euskarri desberdinak erabiliko dira horretarako: hiztegi espezializatuak (sinonimoenak, zalantzak argitzeak eta abar), glosarioak eta bestelako informazio iturriak (entziklopediak eta hezkuntzaren arloko web orriak, esate baterako). Ikastetxeko liburutegiaren erabilera gero eta autonomoagoa eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiena, informazioa lortzeko eta idatzizko lanak egiteko ereduak aurkitzeko. Ozenki irakurtzea, arintasunez, erritmo, eten eta intonazio egokiak erabiliz eta entzuleak kontuan hartuz. Gogoetazko jarrera eta jarrera kritikoa edozein motatako diskriminazioa dakarten mezuak direla-eta dagoen informazioarekiko. Komunikabideetatik heldu diren mezuei buruzko balorazio kritikoa egitea. Besteen iritziekiko errespetuzko jarrera izatea.
<p>Idatzizko testuak sortzea</p> <ul style="list-style-type: none"> Testuak osatzea antolaketa argiarekin eta perpausak sekuentzia lineal koheionatu batean kateatuz. Eguneroko bizitzako kontuei buruzko eta ikasleen esperientziatik hurbil dauden esparruetako giza harremani buruzko testu argiak idaztea; esate baterako, gutunak, oharra eta deiak. Komunikabideetako testuak sortzea, bereziki albisteak, euskarri inprimatu edo digitalerako. Paperean edo euskarri digitalean, esparru akademikoko testuak sortzea, bereziki laburpenak, azalpen errazak, glosarioak eta egindako lan eta ikasketei buruzko ondorioak. Narrazioak, deskribapenak eta elkarriketak idaztea. Idatzizko testugintzarekiko interesa, informazio eta ikaskuntza iturri gisa, eta norberaren esperientziak, ideiak, iritziak eta ezagutzak komunikatzeko modu gisa, eta jokabidea erregulatzeko bitarteko gisa. Testu idatzien aurkezpen txukunak egiteko interesa, paperean nahiz euskarri digitalean, arau gramatikalak, ortografikoak eta tipografikoak errespetatuz. 	<p>Idatzizko testuak sortzea</p> <ul style="list-style-type: none"> Eguneroko bizitzako kontuei buruzko eta ikasleen esperientziatik hurbil dauden esparruetako giza harremani buruzko testuak sortzea; esate baterako, foroetan parte hartzea eta eskari-gutunak. Komunikabideetako testuak sortzea, bereziki kronikak, iritzi-gutunak eta publizitate testuak, euskarri inprimatu edo digitalerako, audio-rako nahiz bideorako. Paperean edo euskarri digitalean, esparru akademikoko testuak sortzea, bereziki laburpenak, aurkezpenak (era desberdinetakoak: sekuentzia, deskribapena, konparaketa, arazoa/konponbidea eta kausa/ondorioa) eta azalpen errazak, glosarioak eta egindako lan eta ikasketei buruzko txostenak. Ikastetxeko liburutegiaren erabilera gero eta autonomoagoa, eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiena, informazioa lortzeko eta idatzizko lanak egiteko ereduak aurkitzeko. Idatzizko testugintzarekiko interesa, informazio eta ikaskuntza iturri gisa, eta norberaren esperientziak eta ezagutzak komunikatzeko modu gisa, eta jokabidea erregulatzeko bitarteko gisa. Testu idatzien aurkezpen txukunak egiteko interesa, paperean nahiz euskarri digitalean, arau gramatikalak, ortografikoak eta tipografikoak errespetatuz. Testuaren plangintza eta berrikuspena egitearen garrantzia baloratzea.

DBH3	DBH4
<p>Idatzizko testuak ulertzea</p> <ul style="list-style-type: none"> Eguneroko bizitzako eta giza harremanetako gaiei buruzko testu propioak, konplexu samarrak, ulertzea; esate baterako, deialdiak eta eguneko gai zerrendak, bileretako aktak eta erregelamenduak. Komunikabideetako testuak ulertzea, kroniketan, erreportajeetan eta elkarrizketetan informazioa eta iritzia bereiziz. Esparru akademikoko testu konplexu samarrak ulertzea, arreta berezia jarritzaz hitz egitea, glosarioen eta bestelako informazio iturrien kontsultan, euskarri desberdinetan. Liburutegiak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu autonomoan erabiltzea, informazioa aurkitu, hautatu eta antolatzea. Jarrera harbera eta kritikoa izatea komunikabideetatik heldu diren mezuak direla eta. Gogoetazko jarrera eta jarrera kritikoa edozein motatako diskriminazioa dakarten mezuak direla-eta dagoen informazioarekiko. 	<p>Idatzizko testuak ulertzea</p> <ul style="list-style-type: none"> Eguneroko bizitzako eta giza harremanetako gaiei buruzko testu konplexu samarrak ulertzea; esate baterako, lege-xedapenak, kontratuak, liburuxkak eta erakundeetako eta merkataritza arloko gutunak. Komunikabideetako testu konplexu samarrak ulertzea, arreta berezia eskainiz iritzi-generoei; esate baterako editorialak edo zutabeak. Esparru akademikoko testu konplexu samarrak ulertzea, arreta berezia jarritzaz hitz egitea, glosarioen eta bestelako informazio iturrien kontsultan, euskarri desberdinetan; saiakeren zatiak horren barnean sartuko dira. Liburutegiak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu autonomoan erabiltzea, informazioa aurkitu, hautatu eta antolatzea. Besteen iritziekiko interesa eta errespetua izatea. Gogoetazko jarrera eta jarrera kritikoa edozein motatako diskriminazioa dakarten mezuak direla-eta dagoen informazioarekiko.
<p>Idatzizko testuak sortzea</p> <ul style="list-style-type: none"> Eguneroko bizitzako eta giza harremanetako gaiei buruzko testuak osatzea; esate baterako, foroetan parte hartzea, eguneroko pertsonalak, erregelamenduak edo zirkularrak. Komunikabideetako testuak sortzea; esate baterako erreportajeak edo elkarrizketak, euskarri idatzi edo digitalerako, audiorako nahiz bideoerako. Komunikazio egoeraren arabera egokituko dira eta informazioa hierarkikoki antolatuko da. Paperean edo euskarri digitalean esparru akademikoko testuak sortzea, aurkezpen testuak eta azalpen testuak, komunikazio egoeraren arabera egokitua; lehendik lortu eta eskemen, mapa kontzeptualen eta laburpenen bidez antolatutako informazioa erabiliz sortutakoak izan dira. Lan eta ikasketei buruzko proiektuak eta txostenak egitea. Idatzizko testugintzarekiko interesa, informazio eta ikaskuntza iturri gisa, eta norberaren esperientziak, iritziak eta ezagutzak komunikatzeko modu gisa, eta jokabidea erregulatzeko bitarteko gisa. Testu idatzien aurkezpen txukunak egiteko interesa, paperean nahiz euskarri digitalean, arau gramatikalak, ortografikoak eta tipografikoak errespetatuz. 	<p>Idatzizko testuak sortzea</p> <ul style="list-style-type: none"> Eguneroko bizitzako eta giza harremanetako gaiei buruzko testu argiak eta xehetasunak dituztenak sortzea, esate baterako, foroak, eskari eta eskabideak, erreklamazioak, curriculum vitae eta liburuxkak. Komunikabideetako testu argiak eta xehetasunak dituztenak sortzea; esate baterako, zuzendariarentzako gutunak eta iritzi-artikuluak (editorialak eta zutabeak), euskarri idatzirako nahiz digitalerako direnak, adierazpenerako eta pertsuasiorako baliabideak eraginkortasunez erabiliz. Paperean edo euskarri digitalean esparru akademikoko testu argiak eta xehetasunak dituztenak sortzea, bereziki aurkezpen testuak, azalpen testuak eta argudiozko testuak, iturri desberdinetatik lortu eta eskemen, mapa kontzeptualen eta laburpenen bidez antolatutako informazioa erabiliz sortutakoak; halaber, lan eta ikasketei buruzko proiektuak eta txostenak egitea. Idatzizko testugintzarekiko interesa, informazio eta ikaskuntza iturri gisa, eta norberaren esperientziak eta ezagutzak komunikatzeko modu gisa, eta jokabidea erregulatzeko bitarteko gisa. Testu idatzien aurkezpen txukunak egiteko interesa, paperean nahiz euskarri digitalean, arau gramatikalak, ortografikoak eta tipografikoak errespetatuz.

DBH1	DBH2
<p>Testuak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Deskribapenak: lekuak, gauzak, pertsonak (erretratu fisikoa eta izaeraren erretratua) eta abar. • Narrazio testuak. • Elkarrizketak: elkarrizketa eta komikia. • Azalpen testuak: azalpena, laburpena, glosarioak, ondorioak eta abar. 	<p>Testuak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Argudiozko testuak publizitate testuak eta iritzi-gutuna. • Narrazio testuak: kazetaritzako artikulua. • Azalpen testuak: definizioa, azalpena eta laburpena.
<p>Trebetasunak eta estrategiak</p> <p>Idatziaren ulermena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Irakurtzeko prozesuan estrategiak aplikatzea: irakurri aurretik, aurre-irakurketa (aldez aurreko ezagutzak aktibatzea, gauzak iragartzea), irakurketa, irakurri ondoren. • Irakurketarako estrategia egokiak aplikatzea: analisia (irakurtzea, azpimarratzea, oharrak hartzea) eta sintesia (eskemak, laburpenak eta mapa kontzeptualak). • Testu baten informazio zehatzak ateratzea eta gai orokorra identifikatzea, gai hori esplizituki agertzen deneko esakuneak ezagutzuz. Testuaren atalak eta antolaketa identifikatzea. • Irakurketa adierazkorra, tonua identifikatuz, puntuazio-markak intonazioaren arabera interpretatuz, baliabide prosodikoak eta keinuak erabiliz. • Ezagutza morfosintaktikoak (deixia, aditzaren denbora eta aspektua) eta lexikoak (sinonimia, hiperonimia, hitz-elkarketa eta hitz-eratorpena) aplikatzea. • Testuetako denborazko markagailuak eta lokailuak ezagutzea. • Deskribapen baten ezaugarriak identifikatzea. • Narrazio testu baten egiturazko elementu nagusiak identifikatzea: esparrua, korapiloa, pasarteak, pertsonaiak, narratzailea, elkarrizketak (zuzeneko eta zeharkako estiloak) eta abar. • Komikiaren ezaugarriak identifikatzea. • Iritzia osatzea testuaren formari eta hizkuntzari buruz eta edukari eta antolaketari buruz. • Baloratzea informazioa behar bestekoa den, argia den, ongi antolatuta dagoen, eta harekin proposaturiko lanak bete ahal izanen diren. 	<p>Trebetasunak eta estrategiak</p> <p>Idatziaren ulermena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Irakurtzeko prozesuan estrategiak aplikatzea: irakurri aurretik, aurre-irakurketa (aldez aurreko ezagutzak aktibatzea, gauzak iragartzea), irakurketa, irakurri ondoren. • Irakurketarako estrategia egokiak aplikatzea: analisia (irakurtzea, azpimarratzea, oharrak hartzea) eta sintesia (eskemak, laburpenak eta mapa kontzeptualak). • Testu baten gai orokorra eta bigarren mailako gaiak identifikatzea, esplizituki agertzen deneko esakuneak ezagutzuz. • Irakurketa adierazkorra, tonua identifikatuz, puntuazio-markak intonazioaren arabera interpretatuz, baliabide prosodikoak eta keinuak erabiliz. • Ezagutza morfosintaktikoak (deixia, aditzaren denbora eta aspektua) eta lexikoak (sinonimia, hiperonimia, hitz-elkarketa eta hitz-eratorpena) aplikatzea. • Testuetako denborazko markagailuak eta lokailuak ezagutzea. • Narrazio testuen ezaugarriak eta denborazko garapen lineala eta ez-lineala duten egitateen sekuentzia identifikatzea. • Publizitatearen arloko testuak sistematikoki analizatu eta elementu azpimarragarrienak identifikatzea: gehien erabiltzen diren elementuak eta baliabideak, gizartean duten eragina eta abar. • Argudiozko testuaren argudio eta ezaugarriak identifikatzea (igorlea, tesia, argudioak, ikuspuntuak eta abar). Informazio objektiboak eta iritziak bereiztea. • Iritzia osatzea testuaren formari eta hizkuntzari buruz eta edukari eta antolaketari buruz. • Testuen edukia eta forma konparatzea. • Baloratzea informazioa behar bestekoa den, argia den, ongi antolatuta dagoen, eta harekin proposaturiko lanak bete ahal izanen diren.

DBH3	DBH4
<p>Testuak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Azalpen testuak: erreportajea, elkarrizketa eta abar. 	<p>Testuak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Eguneroko bizitzako eta giza harremanetako gaietarako buruzko era askotako testuak: curriculum vitae, eskabidea, eskaria, posta elektronikoa, erreklamazioa eta abar. • Argudiozko testuak, ikuspuntua eta kontraargudiatzea.
<p>Trebetasunak eta estrategiak</p> <p>Idatziaren ulermena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Irakurtzeko prozesuan estrategiak aplikatzea: irakurri aurretik, aurre-irakurketa (aldez aurreko ezagutzak aktibatzea, gauzak iragartzea), irakurketa, irakurri ondoren. • Irakurketarako estrategia egokiak aplikatzea: analisia (irakurtzea, azpimarratzea, oharrak hartzea) eta sintesia (eskemak, laburpenak eta mapa kontzeptualak). • Irakurketa adierazkorra, tonua identifikatuz, puntuazio-markak intonazioaren arabera interpretatuz, baliabide prosodikoak eta keinuak erabiliz. • Ezagutza morfosintaktikoak (deixia, aditzaren denbora eta aspektua) eta lexikoak (sinonimia, hiperonimia, hitz-elkarketa eta hitz-eratorpena). • Testuetako denborazko markagailuak eta lokailuak ezagutzea. • Testu baten informazio garrantzitsua lortzea; gaiari buruzko ezagutzekin erlazionatzea; gai orokorra eta bigarren mailako gaiak inferitzea; testuaren atalak elkarrekin erlazionatzea. • Testuen oinarriko ezaugarriak eta antolaketa identifikatzea. • Iritzia osatzea testuaren formari eta hizkuntzari buruz eta edukari eta antolaketari buruz. • Baloratzea informazioa behar bestekoa den, argia den, ongi antolatuta dagoen, eta harekin proposaturiko lanak bete ahal izanen diren. 	<p>Trebetasunak eta estrategiak</p> <p>Idatziaren ulermena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Irakurtzeko prozesuan estrategiak aplikatzea: irakurri aurretik, aurre-irakurketa (aldez aurreko ezagutzak aktibatzea, gauzak iragartzea), irakurketa, irakurri eta ondorengoa. • Irakurketarako estrategia egokiak aplikatzea: analisia (irakurtzea, azpimarratzea, oharrak hartzea) eta sintesia (eskemak, laburpenak eta mapa kontzeptualak). • Irakurketa adierazkorra, tonua identifikatuz, puntuazio-markak intonazioaren arabera interpretatuz, baliabide prosodikoak eta keinuak erabiliz. • Ezagutza morfosintaktikoak (deixia, aditzaren denbora eta aspektua) eta lexikoak (sinonimia, hiperonimia, hitz-elkarketa eta hitz-eratorpena). • Testuetako denborazko markagailuak eta lokailuak ezagutzea. • Testu baten informazio garrantzitsua lortzea; gaiari buruzko ezagutzekin erlazionatzea; gai orokorra eta bigarren mailako gaiak inferitzea; testuaren atalak elkarrekin erlazionatzea. • Testuen oinarriko ezaugarriak eta antolaketa identifikatzea. • Iritzia osatzea testuaren formari eta hizkuntzari buruz eta edukari eta antolaketari buruz. • Baloratzea informazioa behar bestekoa den, argia den, ongi antolatuta dagoen, eta harekin proposaturiko lanak bete ahal izanen diren.

DBH1	DBH2
<p>Idatzizko adierazpena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Testuen osaketarako plangintza egitea: proiektua, eskema, zirriborroa, idazketa, berrikuspina, edizioa. • Azalpen testuaren plangintza egitea. • Narrazio testuaren plangintza egitea: hasierako egoera definitzea (pertsonaiak, lekua, denbora, narratzailea eta abar), korapiloa, amaiera. • Elkarrizketaren plangintza egitea: gaia hautatzea, galderak prestatzea, elkarrizketatu behar den pertsonari egokitzea, elkarrizketa bat egiteko teknikak aplikatzea eta abar. • Komikiaren plangintza egitea: kontuan hartuz komiki mota desberdinak (historikoak, didaktikoak, propaganda egitekoak, joko erakoak), onomatopeiak, gehiegikeriak eta abar. • Testuak dioena eta hura adierazteko bideak testu motaren eta har-tzailearen arabera egokitzea. Letra argi eta irakurgarria, aurkezpen txukuna. • Norberaren baliabideak edo kontsultako baliabideak (hiztegiak, gramatikak, testu prozesadoreak) erabiltzea norberaren akatsak zuzentzeko. • Testu mota bat beste batera bihurtzea (komikia edo olerki bat narrazio eta deskribapen testu bihurtzea; istorio bat zinemarako gidoi bihurtzea; ipuin bateko zati bat albiste bihurtzea ...). • Norberaren eta besteen produkzioa objektiboki baloratzea. Irakaslearen laguntzarekin testuaren forma eta edukia hobetzeko moduak aurkitzea. 	<p>Idatzizko adierazpena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Testuen osaketarako plangintza egitea: proiektua, eskema, zirriborroa, idazketa, berrikuspina, edizioa. • Azalpen testuen, pertsuasio testuen eta kazetaritzako testuen plangintza egiteko teknikak aplikatzea, iturriak hautatuz, ideiak argitasunez antolatuz eta esakuneak sekuentzia lineal kohesionatuetan kateatuz. • Testu argiak idaztea, xehetasunekin, eta kohesio handiagoarekin, informazioa eta argudioak iturri desberdinetatik hartuz. • Argudiozko testuaren plangintza egitea: argudio bat garatzea, ikuspuntu jakin baten alde edo aurka arrazoiak ematea, eta aukera desberdinen alde onak eta txarrak azaltzea. • Testuak dioena eta hura adierazteko bideak testu motaren eta har-tzailearen arabera egokitzea. Letra argi eta irakurgarria, aurkezpen txukuna. • Norberaren baliabideak edo kontsultako baliabideak (hiztegiak, gramatikak, testu prozesadoreak) erabiltzea norberaren akatsak zuzentzeko. • Testu mota bat beste batera bihurtzea (komikia edo olerki bat narrazio eta deskribapen testu bihurtzea; istorio bat zinemarako gidoi bihurtzea; ipuin bateko zati bat albiste bihurtzea ...). • Norberaren eta besteen produkzioa objektiboki baloratzea. Irakaslearen laguntzarekin testuaren forma eta edukia hobetzeko moduak aurkitzea.

DBH3	DBH4
<p>4. Narratzea, aurkeztea eta laburtzea, paperean nahiz euskarri digitalean, erregistro egokia erabiliz, ideiak argitasunez antolatuz, esakuneak sekuentzia lineal kohesionatuetan lotuz, arau gramatikal eta ortografikoak errespetatuz eta testua planifikatzeko eta errebisatzeko garrantzia baloratuz.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek testuak antolaketa argi batekin idazten dituzten eta perpausak sekuentzia lineal kohesionatu batean kateatzen dituzten; interesa duten testuak planifikatzeko eta berrikusteko, ondoko ondoko bertsoak eginez formatuagatik eta erregistroagatik egokia izanen den behin betiko testu bat osatu arte. Maila honetan ebaluatuko da ikasleek ba ote dakiten argitasunez narrazten eta komentatzen beren ingurune sozial eta kulturaletik hurbil dauden esperientziak eta egitateak, esparru pertsonaleko testuetan; esate baterako gutun pertsonalak; ba ote dakiten esparru publikoko testuak sortzen, bereziki arauak eta jarraibideak eta deiak, genero horietako konbentzioei jarraituz; ba ote dakiten albisteak idazten, informazioa modu hierarkikoan antolatuz; narrazioak eta aurkezpen errazak laburtzen, jatorrizko testuko oinarriko elementuak berre-raikiz; badakiten esparru akademikoko aurkezpen testuak osatzen (esate baterako, egindako lanei eta ikasitakoei buruzko aurkezpen errazak, glosarioak eta ondorioak). Halaber, baloratuko da testu idatzien aurkezpen txukunak egitea, paperean nahiz euskarri digitalean, arau ortografikoak eta tipografikoak errespetatuz.</p>	<p>4. Ahozko aurkezpen errazak egitea inguruneak diren eta ikaslearen intereseak diren gaiei buruz, ikus-entzunezko bitartekoak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien laguntzarekin.</p> <p>Irizpide honekin bilatu nahi da ea ikasleak gai diren beren bizipenetatik hurbil dagoen eta beren interesekoa den gai bati buruz alde aurretik prestatutako informazioak modu ordenatuan eta argian aurkezteko, halako moduan non informazio horiek garrantzitsuak gertatuko zaizkien entzuleei, azaltzen zaien gaiari buruzko oinarriko ezagutzak barnera ditzaten. Aurkezpenaren laburtasun erlatiboa ikusita, bereziki baloratuko da garrantzitsuena hautatzeko gaitasuna eta informazioa ordenaz eta argitasunez aurkeztea. Halaber, kontuan hartu beharko da ikasleak gai diren ahozko aurkezpenetan ikus-entzunezkoak eta informazioaren teknologiek eskaintzen dizkieten laguntzak erabiltzeko.</p>

Oharrak

DBH3	DBH4
<p>3. Narratzea, aurkeztea, azaltzea, laburtzea eta komentatzea paperean nahiz euskarri digitalean, erregistro egokia erabiliz, ideiak argitasunez antolatuz, esakuneak sekuentzia lineal kohesionatuetan lotuz, arau gramatikal eta ortografikoak errespetatuz eta testua planifikatzeko eta errebisatzeko garrantzia baloratuz.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek testuak antolaketa argi batekin idazten dituzten eta perpausak sekuentzia lineal kohesionatu batean kateatzen dituzten; interesa duten testuak planifikatzeko eta berrikusteko, ondoz ondoko bertsoak eginez formatuagatik eta erregistroagatik egokia izanen den behin betiko testu bat osatu arte. Maila honetan ebaluatuko da ikasleek ba ote dakiten egitateak eta esperientziak argitasunez narratzen eta komentatzen foroetan eta eguneroko pertsonaletan, euskarri inprimatuan nahiz digitalean; ba ote dakiten esparru publikoko testuak osatzen, bereziki erregelamenduak, zirkularrak, deialdiak eta bileretako aktak, genero horietako konbentzioei jarraituz; ba ote dakiten erreportaje eta elkarrizketak idazten, informazioa hierarkikoki antolatuz; ba ote dakiten narrazioak eta aurkezpen errazak laburtzen, jatorrizko testuko oinarriko elementuak berreraikiz; badakiten iturriak kontsultatzea eskatzen duten gaien buruzko aurkezpen eta azalpenak egiten, irakurleei irakurgai arin bat eskainiz eta informazio garrantzitsuak emanez; ba ote dakiten lan proiektuak azaltzen eta haien ondorioen berri ematen. Halaber, baloratuko da testu idatzien aurkezpen txukunak egitea, paperean nahiz euskarri digitalean, arau ortografikoak eta tipografikoak errespetatuz.</p>	<p>3. Aurkeztea, azaltzea, argudiatzea, laburtzea eta komentatzea paperean nahiz euskarri digitalean, erregistro egokia erabiliz, ideiak argitasunez antolatuz, esakuneak sekuentzia lineal kohesionatuetan lotuz, arau gramatikal eta ortografikoak errespetatuz eta testua planifikatzeko eta errebisatzeko garrantzia baloratuz.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek testuak antolaketa argi batekin idazten dituzten eta perpausak sekuentzia lineal kohesionatu batean kateatzen dituzten; interesa duten testuak planifikatzeko eta berrikusteko, ondoz ondoko bertsoak eginez formatuagatik eta erregistroagatik egokia izanen den behin betiko testu bat osatu arte. Ikasturte honetan ebaluatuko da ikasleek esparru publikoko testuak osatzen ba ote dakiten -esate baterako, foroak, eskariak eta eskabideak, erreklamazioak, curriculum vitae eta informazio eta publizitate liburuxkak genero horien konbentzioen arabera; iritzia emateko kazetaritza testuak idaztea, adierazpen eta pertsuasio baliabideak eraginkortasunez erabiliz; aurkezpenak, azalpenak eta argudioak laburtzea, jatorrizko testuaren oinarriko elementuak birsortuz; aurkezpenak, azalpenak eta argudioak osatzea iturri desberdinak erabiliz eta irakurketa arina bermatuz; lanerako proiektuak azaltzea eta ondorioen berri ematea. Halaber, baloratuko da testu idatzien aurkezpen txukunak egitea, paperean nahiz euskarri digitalean, arau ortografikoak eta tipografikoak errespetatuz.</p>
<p>4. Ahozko aurkezpen errazak egitea gaurkotasun sozial, politiko edo kulturalarekin izan eta ikaslearen interesekoak diren gaien buruz, ikus-entzunezko bitartekoen eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien laguntzarekin.</p> <p>Irizpide honekin neurtu nahi da ikasleak gai diren fenomeno natural bati buruzko azalpenak emateko, edo egitate historiko, gatazka sozial eta abarrei buruzkoak, betiere beren interesekoak. Kontua da entzuleek egitatearen deskribapen argia eta haiek azaltzeko arrazoiaren ulermen nahikoa lortu ahal izatea. Bereizki baloratuko da ikus-entzunezkoak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiez baliatzea ahozko azalpenak laguntzeko.</p>	<p>4. Ahozko aurkezpen argiak eta ongi egituratuak egitea jarduera akademikoarekin edo gaurkotasun sozial, politiko edo kulturalarekin zerikusia duten eta ikuspuntu eta jarrera desberdinak sorrarazten dituzten gaien buruz, ikus-entzunezko bitartekoen eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien laguntzarekin.</p> <p>Irizpide honekin behatu nahi da ea ikasleak gai diren gai bati buruzko aurkezpen bat egiteko, idatzizko oharren laguntzarekin eta, agian, beste baliabide batzuen laguntzarekin –horma-irudiak edo diapositibak–, haren aurrean ikuspuntu desberdinak seinatuz eta aldeko eta aurkako arrazoiak emanez, halako moduan non entzuleei datu garrantzitsuak eta irizpideak emanen zaizkien jarrera propio bat izan dezaten. Bereizki baloratuko da ikus-entzunezkoak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiez baliatzea ahozko aurkezpenak laguntzeko.</p>

Oharrak

3. multzoa. Literatur hezkuntza

DBH1	DBH2
<p>5. Adinerako egokia den obra bateko irakurketa pertsonalari buruzko iritzia ematea; generoa eta egitura orokorra ezagutzea eta hizkuntzaren erabilera modu orokorrean baloratzea; obraren hitzez hitzeko edukia eta esanahia bereiztea eta haren edukia eta norberaren esperientzia elkarrekin lotzea.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da literatur esparruan ikasleak irakurtzeko duen gaitasuna, obra osoen irakurketa pertsonalaren bitartez; horren xedea da egiaztatzea ikasleek nola garatzen duten irakurtzeko interesa, norberaren gozamenerako eta aberastasun iturri gisa. Testua modu kritikoa hartuko dute; generoa ezagutuko dute; edukia, egitura eta hizkuntzaren erabilera ebaluatuko dute. Hori guztia modu orokorrean. Obraren gehien eta gutxien gustatu zaizkien alderdiei buruzko eta edukiaren eta haien bizipenen arteko erlazioari buruzko iritzia pertsonala eman beharko dute.</p>	<p>5. Adinerako egokia den obra oso bateko irakurketa pertsonalari buruzko iritzia ematea; obraren egitura eta generoaren elementuak ezagutzea; hizkuntzaren erabilera eta egilearen ikuspuntua baloratzea; obraren hitzez hitzeko edukia eta esanahia bereiztea, eta obraren edukia eta norberaren esperientzia elkarrekin lotzea.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da literatur esparruan ikasleak irakurtzeko duen gaitasuna, obra osoen irakurketa pertsonalaren bitartez; horren xedea da egiaztatzea ikasleek nola garatzen duten irakurtzeko interesa, norberaren gozamenerako eta aberastasun iturri gisa. Testua modu kritikoa hartuko dute; edukia, egitura, generoaren elementu bereizgarriak, hizkuntzaren erabilera eta egilearen ikuspuntua ebaluatuko dituzte. Obraren gehien eta gutxien gustatu zaizkien alderdiei buruzko eta edukiaren eta haien bizipenen arteko erlazioari buruzko iritzia pertsonala eman beharko dute.</p>
<p>6. Literaturaren ezagutzak erabiltzea testu laburrak edo testu zatiak ulertzeko eta baloratzeko, erreparatuz tradizioaren gai eta motiboei, generoaren oinarriko ezaugarriei, erritmoaren oinarriko elementuei eta hizkuntzaren erabilerrari; arreta berezia eskainiko zaie figura erretoriko orokorrenei.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da literaturaren inguruko ezagutzak noraino barneratu diren, gelan komentaturiko liburuak irakurriz, baloratuz eta haiekin gozatuz; edukia, antolaketa, hizkuntzaren erabilera eta egilearen ofizioa ebaluatze aldera testutik aldentzeko gaitasuna begiratuko da. Literatur testuaren alderdi orokorrei begiratuko zaie, gaiaren edo motibo zentrala ulertzeari, generoaren ezaugarri nagusiei, bertsoan erritmoa lortzeko moduei eta figura semantiko orokorrenei.</p>	<p>6. Literaturaren ezagutzak erabiltzea testu laburrak edo testu zatiak ulertzeko eta baloratzeko, erreparatuz tradizioaren gai eta motiboei, azpi-genero literarioen ezaugarriei, bertsogintzari, hizkuntzaren erabilera eta testuko baliabide erretorikoaren funtzionaltasunari.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da literaturaren inguruko ezagutzak noraino barneratu diren, gelan komentaturiko liburuak irakurriz, baloratuz eta haiekin gozatuz; edukia, antolaketa, hizkuntzaren erabilera eta egilearen ofizioa ebaluatze aldera testutik aldentzeko gaitasuna begiratuko da. Ebaluatuko da ikasleek gaiak eta motiboak ulertzea, generoaren ezaugarriak (istorioaren elementuak eta narrazioaren garapen kronologikoa, antzerkirako testuen osagaiak, bertsogintzaren egiturak eta haiek erritmoan duten eragina) eta azpi-genero ohikoenen ezaugarriak ezagutzea, eta, azkenik, baliabide erretoriko ohikoenak ezagutzea, arreta berezia eskainiz hizkuntza poetikoak duen balio sinbolikoari.</p>
<p>7. Testuak osatzea, paperean nahiz euskarri digitalean, eredu gisa hartuz gelan irakurri eta komentatutako testu literarioen bat, edo testu horien eraldaketa errazen bat egitea.</p> <p>Irizpide honekin egiaztatu nahi da ikasleak gai diren beren idazkietan, paperean nahiz euskarri digitalean aurkeztutakoetan, barneratuta dituden ezagutzak erabiltzeko, eta gai diren helburu literarioko testuak egiteko (esate baterako, kontakizun labur bat, erritmoaren edo erretorikaren aldetik bereizgarria den olerki bat), gelan erabilitako ereduak erabiliz edo xede jakin batekin eraldaketa errazen bat eginez. Kontua ez da sortutako testuen kalitate literarioa ebaluatzea, baizik eta barneratutako ezagutzak erabiltzea eta xede edo lan jakin baterako testuak sortzea.</p>	<p>7. Testuak osatzea, paperean nahiz euskarri digitalean, eredu gisa hartuz gelan irakurri eta komentatutako testu literarioak, edo testu horien eraldaketa batzuk egitea.</p> <p>Irizpide honekin egiaztatu nahi da ikasleak gai diren beren idazkietan, paperean nahiz euskarri digitalean aurkeztutakoetan, barneratuta dituden ezagutzak erabiltzeko, eta gai diren helburu literarioko testuak egiteko (esate baterako, kontakizun labur bat, erritmoaren edo erretorikaren aldetik bereizgarria den olerki bat), gelan erabilitako ereduak erabiliz edo xede jakin batekin eraldaketaren bat eginez. Irizpide honetan, kontua ez da sortutako testuen kalitate literarioa ebaluatzea, baizik eta barneratutako ezagutzak erabiltzea eta xede edo lan jakin baterako testuak sortzea.</p>

DBH3	DBH4
<p>5. Adinerako egokia den eta ikasitako literatur garaiekin lotuta da- goen obra oso bateko irakurketa pertsonalari buruzko iritzia ematea; obraren egitura eta generoaren elementuak ebaluatzea; hizkuntzaren erabilera eta egilearen ikuspuntua ebaluatzea; obraren esanahia fun- tsean kokatzea haren edukiaren eta norberaren esperientziaren araba- ra.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da literatur esparruan ikasleak irakur- tzeko duen gaitasuna, ikasitako literatur garaiekin lotutako obra osoen irakurketa pertsonala eginez (horien barnean egokitzapen eta birsortze lan modernoak). Testua modu kritikoan hartuko dute; edukia ebalua- tuko dute, kontuan hartuz haren testuinguru historikoa, egitura oroko- rra, generoaren elementu bereizgarriak, hizkuntzaren erabilera (erre- gistroa eta estiloa) eta egilearen ikuspuntua eta ofizioa. Obraren gehien eta gutxien gustatu zaizkien alderdiei buruzko eta edukiaren eta haien bizipenen arteko erlazioari buruzko iritzia pertsonala eman beharko du- te.</p>	<p>5. Euskal idazleen kontaera luze samarren eta eleberrien irakurketa pertsonala egin eta hari buruzko iritzia ongi argudiatua ematea; obra- ren egitura eta generoaren elementuak ebaluatzea; hizkuntzaren era- bilera eta egilearen ikuspuntua eta ofizioa ebaluatzea; obraren esana- hia kokatzea haren edukiaren eta norberaren esperientziaren arabera.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da literatur esparruan ikasleak irakur- tzeko duen gaitasuna, euskal idazleen lanak irakurriz. Ikasleek testua modu kritikoan hartuko dute; haren edukia, egitura orokorra, gene- roaren bereizgarrien erabilera ebaluatuko dituzte, arreta berezia eskai- niz hurrenkera kronologikoari eta narratzailearen ahotsari edo ahotsei, hizkuntzaren erabilerari (erregistroa eta estiloa), eta egilearen ikuspun- tuari eta ofizioari. Obraren gehien eta gutxien gustatu zaizkien alderdiei buruzko eta edukiaren eta haien bizipenen arteko erlazioari buruzko iritzia pertsonala ongi argudiatua eman beharko dute.</p>
<p>6. Literaturaren ezagutzak erabiltzea testu laburrak edo testu-zatiak ulertzeko eta baloratzeko, eta erreparatuko zaio errepikatzen diren gaiak agertzeari, hizkuntza poetikoaren balio sinbolikoari eta gene- roen, forma literarioen eta estiloen bilakaerari.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da literaturaren inguruko ezagutzak no- raino barneratu diren, gelan komentaturiko liburuak irakurriz, balora- tuz eta haiekin gozatuz; edukia, antolaketa, hizkuntzaren erabilera eta egilearen ofizioa ebaluatze aldera testu literariotik aldentzeko gaita- suna begiratuko da. Kontuan hartuko da gai eta motiboak ulertzea, gai jakin batzuen errepikapenaz ohartzea (maitasuna, denbora, bizitza, heriotza), generoak eta haien bilakaera, oro har, ezagutzea eta elemen- tu sinbolikoen eta baliabide erretorikoen eta haiek testuan duten fun- zionaltasunaren balorazioa egitea.</p>	<p>6. Ezagutza literarioak erabiltzea testu laburrak edo testu-zatiak uler- tu eta baloratzeko, arreta berezia eskainiz literatura garaikidean ge- neroetan eta formetan eginiko berrikuntzei (bertsogintzan eta hizkun- tzan).</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da literaturaren inguruko ezagutzak no- raino barneratu diren, gelan komentaturiko liburuak irakurriz, balo- ratuz eta haiekin gozatuz; edukia, antolaketa, hizkuntzaren erabilera eta egilearen ofizioa ebaluatze aldera testu literariotik aldentzeko gai- tasuna begiratuko da. Kontuan hartuko da gaiak eta motiboak uler- tzen diren eta ikasleak konturatzen diren gai batzuk behin eta berriz agertzen direla, eta gai berriak ere agertzen direla; literatura garaikide- ko generoak eta haien ezaugarri eta berritasunak ezagutzen dituzten, oro har; halaber, sinbolismoak eta abangoardiek hizkuntza poetikorako egin dituzten ekarpenak ezagutzen dituzten.</p>
<p>7. Irakurritako eta komentatutako obren, haiek agertzen diren testuin- guruaren eta literaturaren historiako egile garrantzitsuenen arteko er- lazioak ezagutzen direla erakustea, informazio eta sintesi edo imitazio eta birsortze lan bat eginez, paperean nahiz euskarri digitalean.</p> <p>Irizpide honekin egiaztatu nahi da ea ulertzen duten literaturaren fe- nomenoa testuinguru historiko jakin batean izaten den jarduera komu- nikatibo eta estetiko bat dela; horretarako lan pertsonala eginen dute, paperean nahiz euskarri digitalean, non laburbilduko baita egile, obra edo garai bati buruz lortutako informazioa; halaber, proposa daiteke testu bat osatzea eta hartan gelan erabilitako ereduetakoa bat imitatzea edo birsortzea. Horrela egiaztatzen ahalko da XX. mendeko olerkariak eta XIX. eta XX. mendeetako narrazio-egileak eta narrazio-egile garai- kideak eta haien lanak ezagutzen direla.</p>	<p>7. Irakurritako eta komentatutako obren, haiek agertzen diren testuin- guru historiko eta literarioaren eta lehenengo euskal idazle garrantzi- tsuenen eta olerkari garaikideen arteko erlazioak azaltzea, informazio eta sintesi lan bat eginez, balorazio pertsonala eginez edo imitazio eta birsortze lan bat eginez, paperean nahiz euskarri digitalean.</p> <p>Irizpide honekin egiaztatu nahi da ulertzen duten literaturaren fe- nomenoa testuinguru historiko jakin batean izaten den jarduera komu- nikatibo eta estetiko bat dela; horretarako lan pertsonala eginen du- te, paperean nahiz euskarri digitalean, non laburbilduko baita egile edo obra bati buruz lortutako informazioa; halaber, proposa daiteke tes- tu bat osatzea eta hartan gelan erabilitako ereduetakoa bat imitatzea edo birsortzea. Horrela, egiaztatzen ahalko da ikasleek lehenengo eus- kal idazleen, olerkari garaikideen eta haien lanen ezagutza barnera- tu dutela.</p>

4. multzoa. Hizkuntzaren ezaguera

DBH1	DBH2
<p>8. Hizkuntzari eta erabilera linguistikoaren araei buruzko ezagutzak aplikatzea ahozko eta idatzizko testuen ulermen arazoak konpontzeko eta maila honetako berezko testuen osatze eta berrikuspen lan gidatuak egiteko.</p> <p>Irizpide honekin egiaztatu nahi da hizkuntzari eta erabilera araei buruzko ezagutza batzuk erabiltzen diren, mailan lantzen diren testuen ulertze, osatze eta berrikusteari dagokionez. Arreta berezia eskainiko zaie esakuneen markei (perpauaren modalitateak eta 1. eta 2. pertsonen izenordain deiktikoak); banaketa, denbora, hurrenkera, kontrastea, kausa eta azalpena adierazteko testu-lokailuei; barne erreferentziako mekanismo pronominal eta lexikoei; narratzeko eta agindua eta desioa adierazteko aditz formei, azalpen balioko adierazpenak txertatzeari eta perpauak zuzen osatzeari, aditzen esanahiaren arabera; izenen eta adjektiboen deklinabide kasu guztiak, singularrean eta pluralen, ezagutzeari, eta bereziki absolutiboaren eta ergatiboaren erabilerrari; indikatiboko aditz laguntzaileari, aginteraren forma ohikoenei, eta aditza trinkoen forma ohikoenei: ibili, egon, joan, etorri; aspektu burutua eta geroaldiko aspektua bereizteari. Halaber, ebaluatuko da Euskaltzaindiaren arauak ezagutzea eta kalko okerrak zuzentzea. Arau ortografikoetan: maizen erabiltzen den hiztegiaren ortografia; komaren funtsezko erabilerak (zerrendatzea, bokatiboak, tartekiak), puntua perpauak bereizteko erabiltzea eta elkarrizketarako puntuazio-markak.</p>	<p>8. Literaturaren historiako autore eta lan garrantzitsuenak ezagutzen direla erakustea, informazio eta sintesiko lan pertsonal bat eginez.</p> <p>Irizpide honekin egiaztatu nahi da ea ikasleek ulertzen duten fenomeno literarioa komunikazio jarduera estetiko bat dela, testuinguru historiko jakin batean ematen dena, egile, lan edo garai bati buruz lortutako informazioa islatzen duen lan pertsonal baten bitartez. Horrela egiazta daiteke ikasleak literaturaren historiako garai nagusien ezagutza barneratzen doazela: XIX. mendeko bertsolari erromantikoak eta gazteentzako narratibaren arloko egile garaikideak.</p>

Oharrak

DBH3	DBH4
<p>8. Hizkuntzari eta erabilera linguistikoaren araei buruzko ezagutzak aplikatzea ahozko eta idatzizko testuen ulermen arazoak konpontzeko eta maila honetako berezko testuen osatze eta berrikuspen lanak gero eta autonomia handiagoarekin egiteko.</p> <p>Irizpide honekin jakin nahi da ikasleek hizkuntzari eta erabilera araei buruzko ezagutza batzuk barneratzen eta erabiltzen dituzten, testuen ulertze, osatze eta berrikusteari dagokionez. Honakoei erreparatuko zaie bereziki: deixiaren aldaera sozialak (konfiantzazko eta kortesia-zko formulak), lokailu banatzaileak, hurrenkera, kontrastea, azalpena eta kausa adierazteko lokailuak; barne erreferentziako mekanismoak, gramatikalak nahiz lexikoak, bereziki nominalizazioak eta hiperonimo abstraktuak; ahalezkoaren eta aditz trinkoen balioak; aditz baten aldaera desberdinek dauzkaten jokabide sintaktiko desberdinak, eta eduki bera eskema sintaktiko desberdinen bidez adieraztea; perpaus koordinatuak; kausazko, ondoriozko eta baldintzazko esaldiak eta esaldi kontzesiboak zuzen erabiltzea. Egiaztatuko da ondoko ezagutzak finkatu diren: arau ortografikoen ezagutza praktikoa; komaren erabilera perpaus elkartuetan eta markatzaile diskurtsiboekiko loturan; komatxoak zitak egiteko modu gisa; kalko oker batzuk zuzentzea, eta Euskaltzaindiaren arau batzuk ezagutzea.</p>	<p>8. Hizkuntzari eta erabilera linguistikoaren araei buruzko ezagutzak aplikatzea ahozko eta idatzizko testuen ulermen arazoak konpontzeko eta testuen osatze eta berrikuspen lanak modu autonomoan egiteko.</p> <p>Irizpide honekin jakin nahi da ikasleek hizkuntzari eta erabilera araei buruzko ezagutzak erabiltzen dituzten testuak ulertu eta osatzeari dagokionez, eta testuak berrikusterakoan autonomiaz erabiltzen diren. Egokitasunaren eta kohesioaren alderdi guztiak baloratuko dira, eta bereziki honakoak: subjektibotasunaren adierazpena (iritzia, balorazioa, ziurtasuna, zitak sartzea) eta deixiaren aldaera espresiboak (konfiantza-eta kortesia-formulak); perpaus bakun eta konplexuak erabiltzea eskema semantiko eta sintaktiko desberdinekin; lotura prozedurak eta, zehazki, kausa, ondorioa, baldintza eta hipotesia adierazteko lokailuak; barne erreferentziako mekanismoak; estilo kohesionatuko esakuneak osatzeko prozedura desberdinak (perpaus-eraketen eta izen-eraketen arteko alternatiba; justaposizioaren, koordinazioaren eta mendeko perpausen artekoa - mendeko perpaus kausazkoa, ondoriozkoa, baldintzazkoa, kontzesiboa eta helburuzkoa-). Ebaluatuko da, halaber, ondokoak ezagutzen diren: subjuntibozko aditz laguntzailea, hitanoa eta deklinabidea.</p> <p>Aurreko mailetan ebaluatu diren araez gainera, honakoak hartuko dira aintzat: ortografia; puntuazioak perpausaren eta testuaren antolaketa kohesionaturako egiten duen ekarpena; marratxoaren eta parentesiaren erabilera tartekietan, eta komatxoaren erabilera adierazkorrrak. Halaber, ebaluatuko da kalko oker batzuk zuzentzea eta Euskaltzaindiaren arau batzuk ezagutzea.</p>

Oharrak

DBH1	DBH2
<p>9. Oinarrizko terminologia linguistikoa ezagutzen hastea, erabilerari buruz gogoeta egiteko jardueretan.</p> <p>Irizpide honekin egiaztatu nahi da jarduera gramatikaletan azalpenak eta jarraibideak jarraitzeko behar den oinarrizko terminologia ulertzen dela. Maila honetan egiaztatuko da honakoei buruzko terminologia ezagutzen dela: perpausaren modalitatea, hitz flexiboak eta ez-flexiboak, hitzak sortzeko prozedurak, sinonimia eta antonimia, kategoria gramatikalak (prototipo kasuetan), eta aditz sintagma eta izen sintagma (perpaus errazetan). Eskolako hiztegietan eta bestelako kontsulta lanetan informazio gramatikal orokorra lortzen den ebaluatuko da.</p>	<p>9. Hizkuntzari eta erabilera linguistikoaren araei buruzko ezagutzak aplikatzea ahozko eta idatzizko testuen ulermen arazoak konpontzeko eta maila honetako berezko testuen osatze eta berrikuspen lanak gero eta autonomia handiagoarekin egiteko.</p> <p>Irizpide honekin egiaztatu nahi da hizkuntzari eta erabilera araei buruzko ezagutza batzuk erabiltzen diren, testuen ulertze, osatze eta berrikusteari dagokionez. Honakoei begiratuko zaie bereziki: perpausaren modalitateek testuinguruetan dituzten esanahiak eta deixi pertsonalaren eta denbora eta lekua adierazteko deixiaren formak; hurrenkera, azalpena, ondorioa eta kontrastea adierazteko testu-lokaliluak; perpaus kausazkoak eta kontzesiboak; barne erreferentziako mekanismoak, gramatikalak nahiz lexikoak (elipsiari eta esanahi jakin baten hiperonimoei erreparatuz); ahalezkoaren eta aginteraren balioak; deklinabidea ezagutu eta zuzen erabiltzea; perpausaren ordena zuzena; eduki bera eskema sintaktiko desberdinen bitartez azaltzea. Arau ortografikoetan, honakoak begiratuko dira: H letra eta txistukariak zuzen erabiltzea eta gertatzen diren interferentziak; puntuazio-markak elkarriketetan erabiltzeko modu desberdinak; puntuaren era komaren erabilerak. Halaber, ebaluatuko da Euskaltzaindiaren arauak ezagutzea eta kalko okerrak zuzentzea.</p>
<p>10. Nafarroako hizkuntzak eta euskararen aldaera linguistikoak identifikatzea eta ulertzea haien artean sortzen diren erlazio moten ezaugarri nagusiak.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da Nafarroako hizkuntzak eta euskararen aldaera linguistikoak identifikatzen diren. Halaber, ebaluatuko da haien artean sortzen diren harreman moten ezaugarri nagusiak.</p>	<p>10. Oinarrizko terminologia linguistikoa ezagutzea, erabilerari buruz gogoeta egiteko jardueretan.</p> <p>Irizpide honekin egiaztatu nahi da gelako ezagutza gramatikalak eta jarduerak aipatzeko behar den terminologia egokia ezagutu eta erabiltzen den. Egiaztatuko da aurreko mailatan ebaluatutako terminologia eta maila honetako "hizkuntzaren ezaguera" epigrafean jasotakoa ezagutzen diren. Egiaztatuko da, halaber, hitzen forma eta funtzioa bereizten diren, eta kategoriaz aldatzeko prozedura lexikoak (hizkiak) eta sintaktikoak ezagutzen diren. Eskolako hiztegietan eta bestelako kontsulta lanetan informazio gramatikal orokorra gero eta autonomia handiagoarekin lortzea baloratuko da.</p>

Oharrak

DBH3	DBH4
<p>9. Oinarrizko terminologia linguistikoa ezagutzea jardueretan.</p> <p>Irizpide honekin egiaztatu nahi da jarduera gramatikaletan azalpenak eta jarraibideak jarraitzeko behar den oinarrizko terminologia ezagutzen den. Maila honetan, aurreko mailan erabilitako terminologia erabiltzeaz gainera, egiaztatuko da honakoen terminologia ere ezagutzen den: izen sintagma eta aditz sintagma eta osagarriak; elipsia; hitz mota desberdinen funtzio sintaktiko bereizgarriak. Eskolako hiztegietan informazio gramatikal orokorra lortzeko autonomia gero eta handiagoa izatea baloratuko da.</p>	<p>9. Terminologia linguistiko egokia ezagutu eta erabiltzea jardueretan.</p> <p>Irizpide honekin egiaztatu nahi da gelako ezagutza gramatikalak eta jarduerak aipatzeko behar den terminologia egokia ezagutu eta erabiltzen den. Egiaztatuko da ikasleek aurreko mailetan barneratutako terminologia eta maila honetan sartutakoa noraino ezagutzen duten. Egiaztatuko da, halaber, hitzen forma eta funtzioa bereizten diren, eta kategoriaz aldatzeko prozedura lexikoak (hizkiak) eta sintaktikoak ezagutzen diren. Hiztegietan eta bestelako kontsulta lanetan mota guztietako informazio linguistikoak lortzeko autonomia gero eta handiagoa izatea baloratuko da.</p>
<p>10. Euskalki nagusiak zein diren ezagutzea.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da ea ikasleek identifikatzen eta ezagutzen dituzten euskalki nagusiak eta haiei buruz historian zehar egin diren sailkapenak. Bonaparte, Azkue, Zuazo eta abar.</p>	<p>10. Euskara estandarra sortu zen arteko euskararen historia ezagutzea. Hizkuntzen arteko harremanetatik heldu diren fenomenoak ezagutzea: elebitasuna eta diglosia.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatzen da ikasleek euskara estandarra sortu arteko euskararen historia ezagutzen duten, eta hizkuntzen harremanetatik heldu diren fenomenoak ezagutzen dituzten: elebitasuna, diglosia eta abar.</p>

Oharrak

5. multzoa. Hizkuntzaren ikaskuntzari buruzko gogoeta

DBH1	DBH2
<p>11. Ikaskuntzan aurrera egiteko erabilitako estrategia batzuk identifikatu eta haien adibideak jartzea.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek ikaskuntza prozesua errazten duten oinarrizko estrategiak erabiltzen dituzten; esate baterako, aurrerapenak baloratzen joateko gaitasuna, gehiago eta hobeki ikasteko moduari buruzko gogoeta, ikasteko estilo pertsonalak kontuan hartuta (ikusizkoa, entzutezkoa ...), akatsa barneratu eta onartzea ikasteko prozesuaren atal gisa; lexikoa bildu, buruz ikasi eta berrikusteko moduak erabiltzea; hiztegia zuzen erabiltzea testuinguruaren arabera adiera egokia identifikatzeko; baliabide bibliografikoak, informatikoak eta digitalak erabiltzea informazioa biltzeko, gelan landutako alderdiak zabaldu edo berrikusteko eta abarretarako.</p>	<p>11. Hizkuntzaren sistema linguistikoari buruz barneratutako ezagutzak erabiltzea, komunikazioaren testuinguru desberdinetan, autoikaskuntzarako eta autozuzenketarako tresna gisa norberaren ahozko eta idatzizko produkzioetan, eta gainerakoen produkzioak ulertzeko.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek gaitasuna duten sistema linguistikoari buruz dituzten ezagutzak aplikatzeko eta beren produkzioak eta besteak ulertzea ahalbidetzen duen zuzentasun formalaren beharri buruz gogoeta egiteko.</p>
<p>12. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu gidatuan erabiltzea mezuak ereduetatik abiatuz sortzeko eta harreman pertsonalak ezartzeko; teknologia horien erabilera dela-eta interesa erakustea.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatuko da informazioaren eta komunikazioaren teknologiak komunikaziorako eta ikaskuntzarako tresna gisa erabiltzeko gaitasuna, betiere gelako ohiko jardueretan eta harreman pertsonalak ezartzeko. Ezartzen diren komunikazioak alde zuzenetik landutako lan ezagunei buruzkoak izanen dira, eta ereduak egiten dira. Kontuan hartuko da, halaber, ikasleek aniztasun linguistikoa baloratzen ote duten elementu aberasgarri gisa, eta hizkuntza dela-eta daukaten jarrera.</p>	<p>12. Ikaskuntzan aurrera egiteko erabilitako oinarrizko estrategia batzuk identifikatu, erabili eta ahoz azaltzea.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasteko prozesua errazten duten estrategiak erabiltzen ote diren: esate baterako, beren aurrerapenak baloratzeko gaitasuna, ikaskuntzari buruz gogoeta egitea; lexikoa bildu, buruz ikasi eta berrikusteko modu desberdinak erabiltzea; hiztegia zuzen erabiltzea testuinguruaren arabera adiera identifikatzeko; baliabide bibliografikoak, informatikoak eta digitalak erabiltzea informazioa biltzeko, ikasgelan landutako alderdi batzuk zabaltzeko edo berrikusteko; norberaren ikaskuntzaren ebaluazioan parte hartzea, eta autozuzenketarako mekanismo batzuk erabiltzea.</p>
<p>13. Hizkuntzaren kodearen alderdi formal batzuen ezagutza erabiltzea (morfologia, sintaxia eta fonologia) komunikazioaren testuinguru desberdinetan, autoikaskuntzarako eta autozuzenketarako tresna gisa norberaren produkzioetan, eta gainerakoen produkzioak hobeki ulertzeko.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatuko da ikasleak gai diren sistema linguistikoari buruz daukaten ezagutzak aplikatzeko, hizkuntzaren soinu, erritmo, intonazio eta antolaketa alderdiak erabiliz jarduerak desberdinetan, eta gogoeta egiteko beren produkzioak eta gainerakoen produkzioak ulertzea bideratzen duen zuzentasun formalaren beharraz.</p>	<p>13. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak gero eta autonomia handiagorekin erabiltzea, informazioa biltzeko, ereduetatik abiatuz testuak sortzeko, posta elektronikoko mezuak bidali eta jasotzeko, eta ahozko eta idatzizko harreman pertsonalak ezartzeko, teknologia horien erabilera dela-eta interesa erakutsiz.</p> <p>Helburua da ebaluatzea informazioaren eta komunikazioaren teknologiak komunikaziorako eta ikaskuntzarako tresna gisa erabiltzeko gaitasuna, betiere gelako ohiko jardueretan eta ahozko eta idatzizko harreman pertsonalak ezartzeko. Ezartzen diren komunikazioak lehendik landutako lan ezagunei buruzkoak izanen dira. Kontuan hartuko da, halaber, ikasleek aniztasun linguistikoa baloratzen ote duten elementu aberasgarri gisa, eta hizkuntza dela-eta eta hura erabiltzeko daukaten jarrera.</p>

Oharrak

DBH3	DBH4
<p>11. Komunikazio testuinguru desberdinetan, modu kontzientean, hizkuntzaren sistema linguistikoari buruz barneratutako ezagutzak erabiltzea, autozuzenketarako eta autoebaluaziorako tresna gisa norberaren ahozko eta idatzizko produkzioetan, eta gainerakoen produkzioak ulertzeko.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek gaitasuna duten sistema linguistikoari buruz dituzten ezagutzak gero eta autonomia handiagoarekin aplikatzeko eta beren produkzioak eta besteak ulertzea ahalbidetzen duen zuzentasun formalaren beharrari buruz gogoeta egiteko.</p>	<p>11. Komunikazio testuinguru desberdinetan, modu kontzientean, hizkuntzaren sistema linguistikoari buruz barneratutako ezagutzak erabiltzea, autozuzenketarako eta autoebaluaziorako tresna gisa norberaren ahozko eta idatzizko produkzioetan, eta gainerakoen produkzioak ulertzeko.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek gaitasuna duten sistema linguistikoari buruz dituzten ezagutzak gero eta autonomia handiagoarekin aplikatzeko eta beren produkzioak eta besteak ulertzea ahalbidetzen duen zuzentasun formalaren beharrari buruz gogoeta egiteko.</p>
<p>12. Ikaskuntzan aurrera egiteko erabilitako estrategiak identifikatu, erabili eta ahoz azaltzea.</p> <p>Irizpide honek ebaluatu nahi du ikasleek ikasteko prozesua errazten duten estrategiak erabiltzen dituzten; esate baterako, aurrerapenak baloratzea, ikaskuntzari buruz gogoeta egitea; lexikoa bildu, buruz ikasi eta berrikusteko estrategia desberdinak erabiltzea; hiztegiak eta baliabide bibliografiko, informatiko eta digitalak gero eta autonomia handiagoarekin erabiltzea; forma gramatikalen erabilera eta esanahia aztertu eta haiei buruz gogoeta egitea, ezagutzen dituen beste hizkuntza batzuekin konparatuz eta alderatuz; ikasteko aukerez kontzienteki baliatzea ikasgelan eta ikasgelatik kanpo, edo autozuzenketarako mekanismoak erabiltzea.</p>	<p>12. Ikasteko erabili diren estrategiak identifikatu, erabili eta azaltzea; erabil daitezkeen beste batzuen adibideak jartzea eta ikasteko helbururako egokienak zein diren erabakitzea.</p> <p>Irizpide honek ebaluatu nahi du ikasleek ikasteko prozesua errazten duten estrategiak erabiltzen dituzten, lexikoa bildu, buruz ikasi eta berrikusteko modu desberdinen aplikazio autonomoa eginez; hiztegiak eta baliabide bibliografiko, informatiko eta digitalak gero eta autonomia handiagoarekin erabiltzea; forma gramatikalen erabilera eta esanahia aztertu eta haiei buruz gogoeta egitea, ezagutzen dituen beste hizkuntza batzuekin konparatuz eta alderatuz; ikasteko aukerez kontzienteki baliatzea ikasgelan eta ikasgelatik kanpo; norberaren ikaskuntza ebaluatzen parte hartzea; edo autozuzenketarako mekanismoak erabiltzea.</p>
<p>13. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak gero eta autonomia handiagorekin erabiltzea, informazioa bilatzeko, ereduetatik abiatuz testuak sortzeko, posta elektronikoko mezuak bidali eta jasotzeko, eta ahozko eta idatzizko harreman pertsonalak ezartzeko, teknologia horien erabilera dela-eta interesa erakutsiz.</p> <p>Irizpide honekin baloratu nahi da informazioaren eta komunikazioaren teknologiak komunikaziorako eta ikaskuntzarako tresna gisa erabiltzeko gaitasuna, betiere gelako ohiko jardueretan eta ahozko eta idatzizko harreman pertsonalak ezartzeko. Ezartzen diren komunikazioak lehendik landutako lan ezagunei buruzkoak izanen dira. Kontuan hartuko da, halaber, ikasleek aniztasun linguistikoa baloratzen ote duten elementu aberasgarri gisa, eta hizkuntza dela-eta daukaten jarrera.</p>	<p>13. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak gero eta autonomia handiagorekin erabiltzea, informazioa bilatzeko, ereduetatik abiatuz testuak sortzeko, posta elektronikoko mezuak bidali eta jasotzeko, eta ahozko eta idatzizko harreman pertsonalak ezartzeko, teknologia horien erabilera dela-eta interesa erakutsiz.</p> <p>Irizpide honekin baloratu nahi da informazioaren eta komunikazioaren teknologiak komunikaziorako eta ikaskuntzarako tresna gisa erabiltzeko gaitasuna, betiere gelako ohiko jardueretan eta ahozko eta idatzizko harreman pertsonalak ezartzeko. Ezartzen diren komunikazioak lehendik landutako lan ezagunei buruzkoak izanen dira. Kontuan hartuko da, halaber, ikasleek aniztasun linguistikoa baloratzen ote duten elementu aberasgarri gisa, eta hizkuntza dela-eta daukaten jarrera.</p>

Oharrak

Euskara. A eredua (L2)

Helburuak

Etapa honetan, Euskara irakasgaiaren irakaskuntzak honako gaitasunak garatzea izanen du helburu:

1. Ahozko testu argietako eta hizkuntza estandarra erabiltzen den komunikazio egoera desberdinetako informazio orokorra eta berariazkoa entzun eta ulertzea, errespetuzko eta lankidetzazko jarrera hartuz.
2. Ahoz hitz egitea eta elkarreraginean jardutea komunikazioko ohiko egoeretan, modu ulergarri eta egokian eta autonomia handi samarrarekin: esperientziak, gertaerak, desioak eta asmoak deskribatzea, eta iritziak laburki justifikatzea edo planak azaltzea.
3. Ikasleen gaitasunetarako eta interesetarako egokia den maila bateko testuak irakurri eta ulertzea, informazio orokorra eta berariazkoa ateratzeko, eta irakurketa gozamenerako eta norberaren aberastasunerako iturri gisa erabiltzea.
4. Testu errazak idaztea helburu desberdinekin, era askotako gaietara buruz, kohesioa eta koherentzia lortzeko behar diren baliabideak erabiliz.
5. Hizkuntzaren oinarriko osagai fonetiko, lexiko, egiturazko eta funtzionalak erabiltzea komunikazioko tes-tuinguru errealean.
6. Ikaskuntzan autonomia garatzea, ikasteko prozesuei buruz gogoeta egitea eta hizkuntzara beste hizkun-tza batzuetan eskuratutako komunikazioko edukiak eta estrategiak transferitzea.
7. Ikasteko estrategiak eta eskura dauden bide guztiak (liburutegiak, informazioaren eta komunikazioaren te-knologiak eta abar) erabiltzea ahozko eta idatzizko informazioa lortu, hautatu eta aurkezteko.
8. Euskara eta hizkuntzak, oro har, baloratzea, jatorri, hizkuntza eta kultura desberdinetako pertsonen arte-ko komunikazioa eta elkar ulertzea bideratzeko, era guztietako bazterkeriak eta estereotipo linguistiko eta kulturalak saihestuz.
9. Nafarroako eleaniztasuna ezagutu eta errespetatzea, aldaera linguistikoen erabileraren aurrean jarrera po-sitiboa edukitzea eta hizkuntzekiko, hiztunekiko eta kulturarekiko errespetua izatea.
10. Hizkuntza aintzat hartzea informazioa eskuratzeko tresna gisa eta era guztietako edukiak ikasteko erre-minta gisa.
11. Dimentsio soziokulturala ezagutu eta lantzea.
12. Harbera izatea eta norberaren buruarekiko konfiantzako jarrera edukitzea ikasteko gaitasuna eta hizkun-tzaren erabilera direla eta.

Edukiak

1. multzoa. Entzutea eta ulertzea, hitz egitea eta hizketan aritzea

DBH1	DBH2
<p>Entzutea</p> <ul style="list-style-type: none"> Ikasgelako jarduerekin lotura duten ahozko mezu laburrak entzun eta ulertzea: jarraibideak, galderak, iruzkinak, elkarrizketak, deskribapenak eta narrazio laburrak. Entzuten denaren eduki orokorra iragartzea, hitzeko eta hitzez besteko elementuen laguntzarekin. Ahozko testuetan eguneroko gaiei eta iragartzeko modukoak diren gaiei buruzko berriazko informazioa lortzea: zenbakiak, prezioak, ordutegiak, izenak edo lekuak, euskarri desberdinetan aurkeztuak. 	<p>Entzutea</p> <ul style="list-style-type: none"> Ikasgelako jardueretan ohiko jardueri buruz azaldutako mezuak entzun eta ulertzea. Eguneroko gaiei eta era guztietako komunikabideetatik heldu eta iragartzeko modukoak diren gaiei buruzko ahozko testuetan informazio orokorra eta berriazkoa lortzea, hitzeko eta hitzez besteko elementuen laguntzarekin. Ahozko mezuak ulertzeko estrategiak erabiltzea: hitzeko eta hitzez besteko testuingurua eta egoerari buruzko aldez aurreko ezagutzak erabiltzea, gako hitzak identifikatzea.
<p>Hitz egitea eta hizketan aritzea</p> <ul style="list-style-type: none"> Ahozko testu laburrak sortzea, egitura logiko batekin eta ebakera egokiarekin, betiere eskema baten edo aldez aurretik prestatutako materialen laguntzarekin. Besteekin ahoz komunikatzea, egitura nahikoa errazekin, eguneroko bizitzako gaietatik hurbil dauden alderdiei buruz: kirolak, aisia, zale-tasanak, bidaiak musika, harreman pertsonalak eta abar. Elkarrizketa labur eta errazetan parte hartzea ikasgelan bertan, bai eta norberaren bizipen eta interesekin loturiko egoeren simulazioetan ere. Irakasleak eta ikaskideek ikasgelako jardueretan eskatutako informazioetarako egokiak diren erantzunak erabiltzea. Komunikazioan etenak gainditzeko estrategiak garatzea, hitzeko eta hitzez besteko elementuak erabiliz gauzak ahoz adierazteko, bikoteka edo taldeka eginiko jardueretan: gauzak errepikatzeak eta argitzeko eskatzea, besteak beste. 	<p>Hitz egitea eta hizketan aritzea</p> <ul style="list-style-type: none"> Ahozko testu labur eta koherenteak sortzea norberaren intereseko gaiei buruz, ebakera egokiarekin. Ikasgela barruko elkarrizketetan eta simulazioetan parte hartzea, komunikazioa lortzeko behar den ebakera eta intonazioa erabiliz. Ikasgela barruko komunikazio egoeretan erantzun egokiak lortzea. Komunikazio estrategiak erabiltzea komunikazioan gertatzen diren etenak gainditzeko eta komunikazioko elkartrukerari hasiera eta amaiera emateko.
<p>Testuak</p> <ul style="list-style-type: none"> Deskribapenak: lekuak, gauzak, pertsonak (erretratu fisikoa eta izaeraren erretratuak) eta abar. Narrazio testuak. Elkarrizketak: elkarrizketa. Azalpen testuak: azalpena, laburpena, glosarioak, ondorioak eta abar. 	<p>Testuak</p> <ul style="list-style-type: none"> Argudiozko testuak: eztabaida, diskurtsoa eta publizitatea (deiak, iragarkiak). Narrazio testuak (albistea, narrazioa). Azalpen testuak: definizioa, azalpena eta laburpena.

DBH3	DBH4
<p>Entzutea</p> <ul style="list-style-type: none"> • Testuinguru erreala eta simulatueta jarraibideak ulertzea. • Gai zehatz eta ezagunei buruzko aurreko mezuetatik informazio orokorra eta berariazkoa entzutea eta ulertzea. • Ikus-entzunezkoek emandako eta geldiro eta argitasunez ebakitako mezu errazak entzun eta ulertzea. • Ahozko mezuak ulertzeko estrategiak erabiltzea: hitzeko eta hitzez besteko testuingurua eta egoerari buruzko aldeko aurreko ezagutzak erabiltzea; gako hitzak identifikatzea; hitz egiten duenaren asmoa identifikatzea. 	<p>Entzutea</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gai ezagunei buruzko hizketaldi errazen, argitasunez eta modu antolatuan emandakoen, esanahi orokorra eta berariazkoa ulertzea. • Pertsonen arteko komunikazioa ulertzea, unean bertan erantzun ahal izateko. • Ikus-entzunezko hedabideetan hizkuntza argi eta soilean ematen dituzten programak oro har ulertzea, eta haien datu garrantzitsuenak ere ulertzea. • Ahozko mezuak ulertzeko estrategiak erabiltzea: hitzeko eta hitzez besteko testuingurua eta egoerari buruzko aldeko aurreko ezagutzak erabiltzea; gako hitzak identifikatzea; hitz egiten duenaren jarrera eta asmoa identifikatzea.
<p>Hitz egitea eta hizketan aritzea</p> <ul style="list-style-type: none"> • Era askotako gertaera, bizipen eta ezagutzei buruzko deskribapenak, narrazioak eta azalpen laburrak ahoz ematea. • Komunikazio helburu desberdinak dituzten eguneroko eta norberaren intereseko gaiak buruzko elkarrizketa eta simulazioetan parte hartzea. • Ikasgela barruko komunikazio egoeretan erantzun espontaneoak erabiltzea. • Elkarrizketaren konbentzio ohikoak eta propioak gero eta autonomia handiagoarekin erabiltzea, komunikazio jardura errealean eta simulatueta. • Elkarreraginean sorturiko zailtasunak gainditzeko komunikazio estrategiak gero eta autonomia handiagoarekin erabiltzea. 	<p>Hitz egitea eta hizketan aritzea</p> <ul style="list-style-type: none"> • Era askotako bizipen, gertaera eta edukiei buruzko deskribapenak, narrazioak eta azalpenak ahoz ematea. • Komunikazio helburu desberdinak dituzten eguneroko eta norberaren intereseko gaiak buruzko elkarrizketa eta simulazioetan aktiboki parte hartzea, arintasun eta zuzentasun handi samarrarekin. • Ikasgela barruko komunikazio egoeretan erantzun espontaneo eta zehatzak erabiltzea. • Elkarrizketaren berezko konbentzioak erabiltzea, komunikazio jardura errealean eta simulatueta. • Komunikatzeko estrategiak autonomiaz eta egokitasunez erabiltzea, elkarreraginari hasiera emateko, eusteko eta amaiera emateko.
<p>Testuak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Narrazio testuak: kazetaritzakoak (elkarrizketa, albisteei buruzko artikulak, txostenak). • Azalpen testuak. 	<p>Testuak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Argudiozko testuak: iruzkinak, kontra-argudioak eta testu administratiboak (erreklamazioa, erregru-idazkia). • Azalpen testuak: hitzaldia.

DBH1	DBH2
<p>Trebetasunak eta estrategiak</p> <p>Ahozkoaren ulermena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Aldez aurretik informazioa biltzea eta entzuten dena iragartzea. • Aktiboki entzutea, gainerako pertsonak eta haien iritzia errespetatuz. • Egoerari buruzko aldez aurreko ezagutzak eta hitzeko eta hitzez besteko testuingurua (ilustrazioak, tonua) erabiltzea, gai orokorra ezagutzea, entzuten denari buruzko oharrak hartzea, hiztegian kontsulta egitea, irakasleari galdetzea eta abar. • Igorlearen asmoa harrapatzea. Hark antzemandakoak justifikatzea. Gai edo ideia orokorra identifikatzea. Egitateak eta iritzia bereiztea; errealitatea eta fikzioa bereiztea. • Berariazko informazioari buruzko galderei erantzutea (galdera zuzenak, inferentziak eta abar), funtsezkoa hautatzea (egitateak, pertsonaia, lekua, denbora eta abar). • Testu mota identifikatzea: deskribapenak, narrazioak, elkarrizketak, jarraibideak eta abar. • Norberaren ulermena baloratzea. 	<p>Trebetasunak eta estrategiak</p> <p>Ahozkoaren ulermena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Aldez aurretik informazioa biltzea eta entzuten dena iragartzea. • Aktiboki entzutea, gainerako pertsonak eta haien iritzia errespetatuz. • Ahozko mezuak ulertzeko oinarriko estrategiak erabiltzea: mezu orokorra eta berariazko xehetasunak identifikatzea; izenburua mezuarekin lotzea; ezagutzen diren egiturak eta esanahiak ezagutu eta berrikustea eta abar. • Egoerari buruzko aldez aurreko ezagutzak eta hitzeko eta hitzez besteko testuingurua (ilustrazioak, tonua) erabiltzea, gai orokorra ezagutzea, entzuten denari buruzko oharrak hartzea, hiztegian kontsulta egitea, irakasleari galdetzea eta abar. • Igorlearen asmoa harrapatzea. Hark antzemandakoak justifikatzea. Gai edo ideia orokorra identifikatzea. Egitateak eta iritzia bereiztea; errealitatea eta fikzioa bereiztea. Testutik ondorioak ateratzea eta haiek justifikatzea. • Berariazko informazioari buruzko galderei erantzutea (galdera zuzenak, inferentziak eta abar), funtsezkoa hautatzea (egitateak, pertsonaia, lekua, denbora eta abar). • Ideia nagusiak laburbiltzea. • Norberaren ulermena baloratzea.

DBH3	DBH4
<p>1. Aurrez aurreko edo ikus-entzunezkoen bidezko eguneroko gai buruzko elkarrizketetan ideia orokorra eta ideia berariazko garrantzitsuenak ulertzea, poliki eta argitasunez hitz egiten denean.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek gaitasuna duten aurrez aurreko edo ikus-entzunezkoen bidezko elkarrizketan funtsezkoena ulertzeko, nahiz eta testuak osorik ez ulertu. Helburua izanen da, funtsean, jarraibideen, iruzkinen, galdera eta erantzunen, elkarrizketa laburren, deskribapenen eta narrazio laburren esanahia identifikatzea.</p>	<p>1. Mintzakide baten edo komunikabideen eskutik heldu diren gai ezagunei buruzko ahozko testuetan ideia orokorra eta informazio berariazkoak ulertzea.</p> <p>Irizpide honekin baloratu nahi da ikasleek gaitasuna duten gai ezagunei buruzko aurkezpen laburretan eta elkarrizketetan ideia nagusia eta xehetasun berariazkoak ulertzeko. Halaber, neurtu nahi da ikasleen gaitasuna komunikabideetatik heldu diren eta ebakera estandarra duten ahozko testuen ideia orokorra ulertzeko.</p>
<p>2. Ahoz komunikatzea, gai ezagunei edo aldez aurretik landutakoiei buruzko elkarrizketa eta simulazioetan parte hartuz; behar diren estrategiak erabiliko dira komunikazioaren jarraitutasuna errazteko, eta komunikazio asmoaren arabera diskurtso ulergarri eta egokia sortuko da.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek ahoz komunikatzeko duten gaitasuna, gai ezagunei buruzko elkarrizketetan, errealetan nahiz simulatuetan, parte hartuz. Funtsean honelakoak izanen dira: galderak egitea eta erantzutea, ideiak eta informazioa elkarrekin trukitzea, aurresteke moduko egoeretan gai ezagunei buruzko bizipenak kontatzea, komunikazioa bermatuko duten baliabide linguistikoak eta estrategiak erabiliz. Produktzioek akats lexiko, morfosintaktiko edo fonetiko batzuk edukitzean ahalko dituzte, komunikazioa zailtzen ez badute.</p>	<p>2. Bizipen pertsonal, plan eta proiektuei buruzko elkarrizketa eta simulazioetan gero eta autonomia handiagoaz parte hartzea, komunikazioa lortzeko egitura errazak, gizarte harremanetarako adierazpide ohikoena eta ebakera egokia erabiliz.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek norainoko gaitasuna duten ulermena eta adierazpena integratzea eskatzen duten egoera interaktiboetan jarduteko. Elkarrizketak bi motatako egoeretan gertatuko dira: ikasgelako ohikoak (informazioa eta argibideak eskatzea, baimena eskatzea, lan taldean jardutea eta abar) eta irakasleak sorturikoak (jokoak, simulazioak, rol jokoak, informazioaren eta komunikazioaren teknologien bidezko komunikazioa eta abar). Mezuak oraindik ere zalantziatik izan daitezke, eta litekeena da akats morfosintaktikoak eta lexiko urria edukitzea, baina mezuak beti ulergarria izan beharko du.</p>
<p>3. Ideia orokorra ezagutzea eta informazio berariazkoa ateratzea, ikusizko baliabideen laguntzarekin, gai ugariri buruzko eta adinaren arabera egokitutako idatzizko testuetatik eta curriculumeko arlo batzuekin lotutako testuetatik.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek zenbateko gaitasuna duten era askotako testuak ulertzeko: jarraibideak, gutunak, deskribapen eta narrazio laburrak, mezuak, galdetegiak eta abar, irakurketarako oinarriko estrategiak aplikatuz; esate baterako, esanahiak testuinguruaren edo ikusizko elementuen arabera inferitzea edo ezagutzen diren hizkuntzekin alderatzea.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da, halaber, testuak irakurtzeko gaitasuna; testu horiek paperean nahiz euskarri digitalean egoten ahal dira, eta luze samarrak izanen dira, eta ikasteko edo irakurketarekin gozatzeko irakurriko ditu ikasleak, hiztegiaren laguntza erabiliz, behar bada. Baloratuko da, halaber, ozenki irakurritako testuak ulertzen diren, aurretik isilik irakurrita.</p>	<p>3. Idatzizko testuetan informazio orokorra eta berariazkoa ulertzea; testu egokituak nahiz jatorrizkoak izanen dira, luzera desberdinetakoak, eta adinaren arabera egokituak. Testuak ulertu direla propio prestaturiko jarduera baten bidez erakutsiko da.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek gaitasuna duten pertsonen arteko testu idatziak ulertzeko; esate baterako, gutunak, iragarriak, era askotako liburuxkak, narrazioak, gazteentzako aldizkarietako artikulua, web orriak, abestien letrak eta abar. Irakurketarako estrategiak aplikatuko dira: esate baterako, esanahiak testuingurutik inferitzea edo ezagutzen dituen hizkuntzetako edo curriculumeko beste arlo batzuetako ezagutzak transferitzea. Halaber, testu luze samarrak, paperean nahiz euskarri digitalean, irakurtzeko gaitasuna ebaluatuko da, betiere hiztegi modu espontaneoan joz argudioren bat ulertzea zail gertatzen denean, gako hitzen bat ezagutzen ez delako, eta testu horiek ulertzen direla erakutsiz jarduera linguistikoen eta ez-linguistikoen bitartez.</p>

DBH3	DBH4
<p>1. Gai zehatz eta ezagunei buruzko ahozko testuetan eta ikus-entzunezko hedabideek argitasunez emititutako mzu errazetan informazio orokorra eta berariazkoa, ideia nagusia eta xehetasun muntadunak ulertzea.</p> <p>Irizpide honen bitartez neurtuko da ikasleek zein gaitasun duten jarraibideak jarraitzeko, deiak, elkarrizketak edo aurkezpen laburrak, aurrez aurrekoak, jarraitzeko; betiere, gai ezagunei buruzkoak izanen dira: aisia eta denbora librea, preferentziak, bizipen pertsonalak, ikasgelaren antolaketa eta hizlariaren asmoa identifikatzen dutenak. Halaber, neurtu nahi da ikasleen gaitasuna komunikabideetatik heldu diren eta ebakera estandarra duten ahozko testuen ideia orokorra eta informazio zehatzak ulertzeko.</p>	<p>1. Pertsonen arteko komunikazio egoeretan emititutako edo ikus-entzunezko hedabideek emandako ahozko testuetan informazio orokorra eta berariazkoa, ideia nagusia eta xehetasun garrantzitsuenak ulertzea; betiere, ahozko testu horiek ezagutza espezializatuak behar ez diren gaien buruzkoak izanen dira.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek gaitasuna duten aurrez aurreko komunikazio egoeretan emititutako mezuak ulertzeko; betiere, mezuak beharizan materialei eta gizarte harremanen buruzkoak, sentipen fisikoei eta sentimendu eta iritziei buruzkoak izanen dira. Halaber, irizpide honekin neurtu nahi da ikasleek norainoko gaitasuna duten ikus-entzunezko hedabideen hitzaldi, albiste eta aurkezpen argi, labur eta antolatutako ulertzeko.</p>
<p>2. Era askotako komunikazio asmoak dituzten ohiko edo interes pertsonaleko egoerei buruzko elkarrizketa eta simulazio laburretan parte hartzea, hizketaldiaren konbentzio propioak erabiliz eta elkarrekin-tzan sorturiko zailtasunak ebazteko behar diren estrategiez baliatuz.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek gaitasuna duten hizketaldietan jarduteko, betiere ulertzeko eta ulertua izateko estrategia egokiak erabiliz, horrela gustuak, beharizanak edo sentimenduak adierazteko, informazioa emateko edo hartzeko, iritzia emateko eta bizipenak kontatzeko.</p> <p>Hizketaldietan zuzeneko erlazioa gertatuko da ikasgelako ohiko mintzakideekin, edo bestela aurrean atzeriko ikasleak dituztela ongi daki ten jatorrizko hiztunekin.</p> <p>Litekeena da komunikazioko elkartrukeetan oker batzuk gertatzea, baina oker horiek ez dute komunikazioa oztopatuko.</p>	<p>2. Hizketaldi eta simulazioetan parte hartzea komunikazioari hasiera emateko, eusteko eta amaiera emateko estrategiak erabiliz, eta diskurtso ulergarria eta egoeraren eta komunikazio asmoaren arabera ezaugarriei egokitua sortuko da.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek gaitasuna duten era askotako komunikazio asmoak dituzten elkarrizketetan jarduteko (harremanak ezartzea, aurkeztea, narratzea eta argudiatzea, deskribatzea eta jarraibideak ematea), ikasgelako ohiko mintzakideekin edo jatorrizko hiztunekiko komunikazioa bermatuko duten estrategiak eta baliabideak erabiliz.</p> <p>Komunikazioko elkartrukeetan oinarritzko koordinazioko eta mendetasuneko elementuak izanen dira, eta litekeena da komunikazioa oztopatuko ez duten akats batzuk egitea.</p>
<p>3. Zabalera desberdineko jatorrizko testuetako eta testu egokituetako informazio orokorra eta datu garrantzitsu guztiak ulertzea, egitateak eta iritzia bereiziz eta egilearen komunikazioa asmoa identifikatuz, kasua bada.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek gaitasuna duten gai orokorrei buruzko edo curriculumeko beste irakasgai batzuekin lotutako idatzizko testuak ulertzeko (narratioak, deskribapenak, argudiozko testuak), irakurketarako ezagutzen dituzten estrategiak eta beste berri batzuk erabiliz; esate baterako, gaia identifikatzea elementu testualen eta paratestualen bitartez.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da, halaber, ikasleek gaitasuna duten zabalera desberdineko liburuak, albisteak, jarraibideak, azalpenak eta abar modu autonomoan irakurtzeko hainbat euskarritan eta xede desberdinekin: berariazko lan bat egiteko informazioa bildu edo komunikatzea, beste irakasgai batzuetako edukiak ikastea eta gozatzeko edo entretenezko irakurtzea. Baloratuko da, halaber, ozenki irakurtzen denean, erritmo eta intonazio egokiak, ikasleak ulertzen duen.</p>	<p>3. Zabalera desberdineko jatorrizko testuetako eta testu egokituetako informazio orokorra eta berariazkoa ulertzea, datuak, iritzia, argudioak, informazio implizituak eta egileak komunikatu nahi duena identifikatuz.</p> <p>Irizpide honekin aintzat hartuko da ikasleek idatzizko komunikazioko testu ohikoekin eta gehien erabiltzen direnak ulertzen dituzten, edo testu literarioak eta aztergai den hizkuntza hitz egiten den lekuetako kulturarekin eta gizartearekin loturiko zabalkundeko testuak, barnetatutako estrategiak erabiliz eta beste batzuetan aurrerapenak lortuz; esate baterako, zuzeneko inferentziak egitea.</p> <p>Irizpide honekin, ebaluatu nahi da, halaber, ikasleek gaitasuna duten testu luzeagoak autonomiaz irakurtzeko, era askotako edukiei buruzko informazioa kontsultatzeko edo bilatzeko, ikasteko edo gozamen edo jakin-min hutsarengatik, hiztegiak edo bestelako informazio iturri batzuk, paperean nahiz euskarri digitalean, zuzen erabiliz. Baloratuko da, halaber, ozenki irakurtzen denean, erritmo eta intonazio egokiak, ikasleak ulertzen duen.</p>

DBH1	DBH2
<p>4. Testu laburrak idaztea, egitura, funtzio eta lexiko egokiak erabiliz, bai eta kohesioaren oinarrizko elementuetako batzuk ere; eredueta- tik abiatuko da ikaslea, eta ortografiaren eta puntuazioaren oinarrizko arauak errespetatuko ditu.</p> <p>Irizpide honekin oharrak, deskribapenak, gutun arruntak edo elektro- nikoak eta mezuak idazteko gaitasuna ebaluatu nahi da (oinarrizko tes- tuak badira ere). Testuetan, maiz erabiltzen diren hitzak jasoko dira, ikasgelan landutako perpaus bakunek eta oinarrizko lokailuek osatu- riko egitura elkartuak. Aurkezpen argi, txukun eta ordenatua ere balo- ratuko da, paperean nahiz euskarri digitalean.</p>	<p>4. Era askotako testuak euskarri desberdinetan modu gidatuan idaz- tea, egitura eta lokailu errazak eta lexiko egokia erabiliz, formaren al- derdiak zainduz eta ortografiaren eta puntuazioaren funtsezko arauak errespetatuz, irakurleak testuak uler ditzan eta onartzeko moduko zu- zentasuna izan dezaten.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek, gidaritzapean, gauzak ida- tziz adierazteko duten gaitasuna, paperean nahiz euskarri digitalean irakurlearendako ulergarriak izan daitezen: gertaerei eta eguneroko eta ohiko jardueri buruzko deskribapenak, bizipen pertsonalei buruzko narrazioak, planak eta proiektuak, gutunak, postalak, formularioak eta posta elektronikoak. Aurkezpen argi, txukun eta ordenatua ere balora- tuko da, paperean nahiz euskarri digitalean.</p>
<p>5. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu gidatuan erabiltzea, informazioa bilatzeko, mezuak eredueta- tik abiatuz sor- tze eta harreman pertsonalak ezartzeko; teknologia horien erabile- ra dela-eta interesa erakustea.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatuko da informazioaren eta komunikazioaren teknologiak komunikaziorako eta ikasketarako tresna gisa erabiltzeko gaitasuna, betiere gelako ohiko jardueretan eta harreman pertsonalak ezartzeko. Ezartzen diren komunikazioak alde zuzenetik landutako lan ezagunei buruzkoak izanen dira, eta ereduarekin egiten dira. Kontuan hartuko da, halaber, ikasleek aniztasun linguistikoa baloratzen ote du- ten elementu aberasgarri gisa, eta atzerriko hizkuntza dela-eta hura erabiltzeko daukaten jarrera.</p>	

Oharrak

DBH3	DBH4
<p>4. Era askotako testuak euskarri desberdinetan modu gidatuan idaztea, lexikoa, egiturak eta kohesioko eta koherentziako elementu batzuk zainduz, ideien arteko erlazioak markatzeko eta testuak irakurlearendako ulergarriak izan daitezen.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatzen da ikasleek idatziz komunikatzeko duten gaitasuna; zirriborroak egin eta berrikusteko eta erregistro egokia hautatzeko duten gaitasuna. Testuek, gutxienez ere, sintaxi soil eta ulertterraza izanen dute, eta lexiko mugatua baina testuingururako egokia; ortografia eta puntuazioa zuzenak izanen dira. Testuek lotura izanen dute komunikazio behar ohikoenekin eta komunikazio asmo desberdinekin. Idazki guztietan, orobat, aurkezpen argi, txukun eta ordenatua ebaluatuko da, bai eta testuak lantzeko eta aurkezteko baliabide informatikoak erabiltzeko trebetasuna ere.</p>	<p>4. Era askotako testuak modu gidatuan idaztea, lexikoa, egiturak eta kohesioko eta koherentziako elementu batzuk zainduz, ideien arteko erlazioak markatzeko eta testuak irakurlearendako ulergarriak izan daitezen.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatzen da ikasleek idatziz komunikatzeko duten gaitasuna; ikasleak zirriborroak egiten eta berrikusten eta erregistro egokia hautatzen hasiko dira. Testuek sintaxi soil eta ulertterraza izanen dute, eta lexiko mugatua baina testuingururako egokia; ortografia eta puntuazioa zuzenak izanen dira. Testuek lotura izanen dute komunikazio behar ohikoenekin eta komunikazio asmo desberdinekin. Idazki guztietan, orobat, aurkezpen argi, txukun eta ordenatua ebaluatuko da, bai eta testuak lantzeko eta aurkezteko baliabide informatikoak erabiltzeko trebetasuna ere.</p>
	<p>5. Era askotako testuak autonomia handi samarrekin eta egitura logiko batekin idaztea, genero bakoitzaren oinarritzko konbentzioak, testuingururako lexiko egokia eta kohesioko eta koherentziako behar diren elementuak erabiliz, irakurlearendako erraz ulertzeko modukoak izan daitezen.</p> <p>Helburua da idatziz modu ordenatuan komunikatzeko gaitasuna aintzat hartzea, eta testu askeen produkzioan hasia (deiak, gutunak, jarraibideak, deskribapenak, bizipenei buruzko kontakizunak, albisteak...), egitura egoki logiko bat erabiliz eta arreta berezia eskainiz idazteko prozesuaren plangintza egiteari.</p> <p>Idazki guztietan, paperean nahiz euskarri digitalean, ebaluatuko da genero bakoitzaren oinarritzko konbentzioak gero eta gehiago erabiltzen diren eta aurkezpen argi, txukun eta ordenatua egiten den.</p>

Oharrak

3. multzoa. Alderdi soziokulturalak eta kulturarteko kontzientzia

DBH1	DBH2
<p>6. Elementu kultural edo geografiko batzuk identifikatzea eta haiek ezagutzeko interesa erakustea.</p> <p>Irizpide honekin egiaztatu nahi da ikasleek testuinguru soziokultural eta geografikoko ezaugarri garrantzitsuenetako batzuk ezagutzen dituztela, eta interesgarri zaizkiela eta aintzat hartzen dituztela kultur azturak, eta errespetuzko jarrera dutela gure erkidegoko balore eta jokabideekiko.</p>	<p>6. Alderdi sozial, kultural, historiko, geografiko edo literario batzuk identifikatu eta haien adibideak ematea, eta haiek ezagutzeko interesa erakustea.</p> <p>Irizpide honekin antzemanen da gizartearen, kulturaren, historiaren, geografiaren eta literaturaren ezaugarri garrantzitsuenak eta bereizgarriak ezagutzen diren. Halaber, ebaluatuko da ikasleek errespetua erakusten duten beste herri batzuen balore eta jokabideekiko, horrekin estereotipo batzuk gaindituz.</p>

4. multzoa. Hizkuntzaren ezaguera

DBH1	DBH2
<p>7. Hizkuntzaren kodearen alderdi formal batzuen ezagutza erabiltzea (morfologia, sintaxia eta fonologia) komunikazioaren testuinguru desberdinetan, hala norberaren produkzioetan nola gainerakoen produkzioak ulertzerakoan.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatuko da ikasleak gai diren sistema linguistikoari buruz dauzkaten ezagutzak aplikatzeko, hizkuntzaren soinu, erritmo, intonazio eta antolaketa alderdiak erabiliz jarduera desberdinetan, hala norberaren produkzioetan nola gainerakoen produkzioak ulertzerakoan.</p>	<p>7. Hizkuntzaren sistema linguistikoari buruz barneratutako ezagutzak erabiltzea komunikazioaren testuinguru desberdinetan, hala norberaren ahozko nahiz idatzizko produkzioetan nola gainerakoen produkzioak ulertzerakoan.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatuko da ikasleek gaitasuna duten sistema linguistikoari buruz dauzkaten ezagutzak aplikatzeko bai beren produkzioetan, bai gainerakoen produkzioak ulertzerakoan.</p>

Oharrak

DBH3	DBH4
<p>5. Alderdi kultural garrantzitsuenak identifikatzea, ikasten den hizkuntzaren gizarteak dauzkan ohitura, arau, jarrera eta baloreetako ezaugarri aipagarrienak seinalatzea, eta norberarenaz besteko patroikulturalak positiboki baloratzea.</p> <p>Irizpide honekin antzemanen da ikasleak gai ote diren ahozko eta idatzizko testuetan identifikatzeko hizkuntza hitz egiten den lekuetako kultura orokorraren ezaugarri aipagarri eta bereizgarri batzuk, haiek modu argi eta errazean deskribatzeko gauza diren, eta balore eta jorkabideekiko errespetua erakusten duten, horrekin estereotipo batzuk gaindituz.</p>	<p>6. Alderdi kultural aipagarrienak identifikatu eta deskribatzea eta ikasten ari den hizkuntzaren gizarteak eta norberaren gizarteak dituzten ohituren, usadioen, jarrenen eta baloreen ezaugarri nagusiak elkarrekin erlazionatzea, eta haiekiko errespetua erakustea.</p> <p>Irizpide honekin egiaztatu nahi da ikasleak gai diren ahozko eta idatzizko testuetan hizkuntzaren kultura orokorraren arrasto aipagarri eta bereizgarri batzuk identifikatzeko; antzemandako arrasto horien eta norberaren hizkuntzako ezaugarrien arteko antzekotasunak eta aldeak ezartzen dituzten, eta estereotipoak gaindituta beraienez besteko patroikulturalak baloratzen eta errespetatzen dituzten.</p>

DBH3	DBH4
<p>6. Hizkuntzaren sistema linguistikoari buruz barneratutako ezagutzak modu kontzientean erabiltzea era askotako komunikazio testuinguruetan, hala norberaren ahozko nahiz idatzizko produkzioetan nola gainerakoen produkzioak ulertzerakoan.</p> <p>Irizpide honekin aintzat hartu nahi da ikasleek gaitasuna duten sistema linguistikoari buruz dauzkaten ezagutzak gero eta autonomia handiagoarekin aplikatzeko, hala beraien ahozko nahiz idatzizko produkzioetan nola gainerakoen produkzioak ulertzerakoan.</p>	<p>7. Hizkuntzaren sistema linguistikoari buruz barneratutako ezagutzak kontzienteki erabiltzea, komunikazioaren testuinguru desberdinetan, autozuzenketarako eta autoebaluaziorako tresna gisa norberaren ahozko eta idatzizko produkzioetan, eta gainerakoen produkzioak ulertzeko.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatuko da ikasleek gaitasuna duten sistema linguistikoari buruz dauzkaten ezagutzak aplikatzeko beraien ahozko eta idatzizko produkzioetan, bai gainerakoen produkzioak ulertzerakoan.</p>

Oharrak

5. multzoa. Hizkuntzaren ikaskuntzari buruzko gogoeta

DBH1	DBH2
<p>8. Ikaskuntzan aurrera egiteko erabilitako estrategia batzuk identifikatu eta haien adibideak jartzea.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek ikaskuntza prozesua errazten duten oinarrizko estrategiak erabiltzen dituzten; esate baterako, aurrerapenak baloratzen joateko gaitasuna, gehiago eta hobeki ikasteko moduari buruzko gogoeta, akatsa barneratu eta onartzea ikasteko prozesuaren atal gisa; lexikoa bildu, buruz ikasi eta berrikusteko moduak erabiltzea; hiztegia zuzen erabiltzea testuinguruaren arabera adiera egokia identifikatzeko; baliabide bibliografikoak, informatikoak eta digitalak erabiltzea informazioa biltzeko, gelan landutako alderdiak zabaldu edo berrikusteko eta abarretarako.</p>	<p>8. Ikaskuntzan aurrera egiteko erabilitako oinarrizko estrategia batzuk identifikatu, erabili eta azaltzea.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasteko prozesua errazten duten strategiak erabiltzen ote diren; esate baterako, beren aurrerapenak baloratzeko gaitasuna, ikaskuntzari buruz gogoeta egitea; lexikoa bildu, buruz ikasi eta berrikusteko modu desberdinak erabiltzea; hiztegia zuzen erabiltzea testuinguruaren arabera adiera identifikatzeko; baliabide bibliografikoak, informatikoak eta digitalak erabiltzea informazioa biltzeko, ikasgelan landutako alderdi batzuk zabaltzeko edo berrikusteko; norberaren ikaskuntzaren ebaluazioan parte hartzea, eta autozuzenketarako mekanismo batzuk erabiltzea.</p>
<p>9. Hizkuntzaren kodearen alderdi formal batzuen ezagutza erabiltzea (morfologia, sintaxia eta fonologia) autoikaskuntzarako eta autozuzenketarako tresna gisa norberaren produkzioetan, eta gainerakoen produkzioak hobeki ulertzeko.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatuko da ikasleak gai diren sistema linguistikoari buruz dauzkaten ezagutzak aplikatzeko, hizkuntzaren soinu, erritmo, intonazio eta antolaketa alderdiak erabiliz jardura desberdinetan, eta gogoeta egiteko beren produkzioak eta gainerakoen produkzioak ulertzea bideratzen duen zuzentasun formalaren beharraz.</p>	<p>9. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu gidatuan erabiltzea informazioa lortzeko, testuak ereduetatik abiatuz sortzeko eta harreman pertsonalak ezartzeko; teknologia horien erabilera dela-eta interesa erakustea.</p> <p>Irizpide honekin baloratu nahi da informazioaren eta komunikazioaren teknologiak komunikaziorako eta ikasketarako tresna gisa erabiltzeko gaitasuna, betiere gelako ohiko jardueretan eta harreman pertsonalak ezartzeko. Ezartzen diren komunikazioak lehendik landutako lan ezagunei buruzkoak izanen dira. Kontuan hartuko da, halaber, ikasleek aniztasun linguistikoa baloratzen ote duten elementu aberasgarri gisa, eta hizkuntza dela-eta hura erabiltzeko daukaten jarrera.</p>
	<p>10. Eskualdeak berezko dituen alderdi sozial, kultural, historiko, geografiko edo literario batzuk ezagutzeko interesa erakustea.</p> <p>Halaber, ebaluatuko da ikasleek errespetua erakusten duten beste herri batzuen balore eta jokabideekiko, horrekin estereotipo batzuk gaindituz.</p>
	<p>11. Atzerriko hizkuntzaren sistema linguistikoari buruz barneratutako ezagutzak erabiltzea, komunikazioaren testuinguru desberdinetan, autoikaskuntzarako eta autozuzenketarako tresna gisa norberaren ahozko eta idatziko produkzioetan, eta gainerakoen produkzioak ulertzeko.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek gaitasuna duten sistema linguistikoari buruz dituzten ezagutzak aplikatzeko eta beren produkzioak eta besteak ulertzea ahalbidetzen duen zuzentasun formalaren beharri buruz gogoeta egiteko.</p>

DBH3	DBH4
<p>7. Ikaskuntzan aurrera egiteko erabilitako estrategiak identifikatu, erabili eta ahoz azaltzea.</p> <p>Irizpide honek ebaluatu nahi du ikasleek ikasteko prozesua errazten duten estrategiak erabiltzen dituzten; esate baterako, aurrerapenak baloratzea, ikaskuntzari buruz gogoeta egitea; lexikoa bildu, buruz ikasi eta berrikusteko estrategia desberdinak erabiltzea; hiztegiak eta baliabide bibliografiko, informatiko eta digitalak gero eta autonomia handiagoarekin erabiltzea; forma gramatikalen erabilera eta esanahia aztertu eta haiei buruz gogoeta egitea, ezagutzen dituzten beste hizkuntza batzuekin konparatuz eta alderatuz; ikasteko aukerez kontzienteki baliatzea ikasgelan eta ikasgelatik kanpo, edo autozuzenketarako mekanismoak erabiltzea.</p>	<p>8. Ikasteko erabili diren estrategiak identifikatu, erabili eta azaltzea; erabil daitezkeen beste batzuen adibideak jartzea eta ikasteko helbururako egokienak zein diren erabakitzea.</p> <p>Irizpide honek ebaluatu nahi du ikasleek ikasteko prozesua errazten duten estrategiak erabiltzen dituzten, lexikoa bildu, buruz ikasi eta berrikusteko modu desberdinen aplikazio autonomoa eginez; hiztegiak eta baliabide bibliografiko, informatiko eta digitalak gero eta autonomia handiagoarekin erabiltzea; forma gramatikalen erabilera eta esanahia aztertu eta haiei buruz gogoeta egitea, ezagutzen dituen beste hizkuntza batzuekin konparatuz eta alderatuz; ikasteko aukerez kontzienteki baliatzea ikasgelan eta ikasgelatik kanpo; norberaren ikasketa ebaluatzen parte hartzea; edo autozuzenketarako mekanismoak erabiltzea.</p>
<p>8. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak gero eta autonomia handiagoarekin erabiltzea, informazioa bilatzeko, ereduetatik abiatuz testuak sortzeko, posta elektronikoko mezuak bidali eta jasotzeko, eta ahozko eta idatzizko harreman pertsonalak ezartzeko, teknologia horien erabilera dela-eta interesa erakutsiz.</p> <p>Irizpide honekin baloratu nahi da informazioaren eta komunikazioaren teknologiak komunikaziorako eta ikasketarako tresna gisa erabiltzeko gaitasuna, betiere gelako ohiko jardueretan eta ahozko eta idatzizko harreman pertsonalak ezartzeko. Ezartzen diren komunikazioak lehendik landutako lan ezagunei buruzkoak izanen dira. Kontuan hartuko da, halaber, ikasleek aniztasun linguistikoa baloratzen ote duten elementu aberasgarri gisa, eta hizkuntza dela-eta hura erabiltzeko daukaten jarrera.</p>	<p>9. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak autonomia handi samarrarekin erabiltzea, informazioa bilatzeko, ereduetatik abiatuz testuak sortzeko, posta elektronikoko mezuak bidali eta jasotzeko, eta ahozko eta idatzizko harreman pertsonalak ezartzeko, teknologia horien erabilera dela-eta interesa erakutsiz.</p> <p>Irizpide honekin baloratu nahi da informazioaren eta komunikazioaren teknologiak komunikaziorako eta ikasketarako tresna gisa erabiltzeko gaitasuna, betiere gelako ohiko jardueretan eta ahozko eta idatzizko harreman pertsonalak ezartzeko. Ezartzen diren komunikazioak ikasgelan lehendik landutako lan ezagunei buruzkoak izanen dira. Kontuan hartuko da, halaber, ikasleek aniztasun linguistikoa baloratzen ote duten elementu aberasgarri gisa, eta hizkuntza dela-eta hura erabiltzeko daukaten jarrera.</p>
<p>9. Norberarenaz besteko patroikulturalen balorazio positiboa egitea.</p> <p>Irizpide honekin egiaztatuko da ikasleak gauza diren errespetua erakusteko beste herri batzuen balore eta jokabideekiko, horretarako estereotipo batzuk gaindituz.</p>	<p>10. Norberarenaz besteko patroikulturalen balorazio positiboa egitea.</p> <p>Irizpide honekin egiaztatuko da ikasleak gauza diren errespetua erakusteko beste herri batzuen balore eta jokabideekiko, horretarako estereotipo batzuk gaindituz.</p>
<p>10. Komunikazio testuinguru desberdinetan, modu kontzientean, atzerriko hizkuntzaren sistema linguistikoari buruz barneratutako ezagutzak erabiltzea, autozuzenketarako eta autoebaluaziorako tresna gisa norberaren ahozko eta idatzizko produkzioetan, eta gainerrakoen produkzioak ulertzeko.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek gaitasuna duten sistema linguistikoari buruz dituzten ezagutzak gero eta autonomia handiagoarekin aplikatzeko eta beren produkzioak eta besteenak ulertzea ahalbidetzen duen zuzentasun formalaren beharrari buruz gogoeta egiteko.</p>	<p>11. Komunikazio testuinguru desberdinetan, modu kontzientean, atzerriko hizkuntzaren sistema linguistikoari buruz barneratutako ezagutzak erabiltzea, autozuzenketarako eta autoebaluaziorako tresna gisa norberaren ahozko eta idatzizko produkzioetan, eta gainerrakoen produkzioak ulertzeko.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek gaitasuna duten sistema linguistikoari buruz dituzten ezagutzak gero eta autonomia handiagoarekin aplikatzeko eta beren produkzioak eta besteenak ulertzea ahalbidetzen duen zuzentasun formalaren beharrari buruz gogoeta egiteko.</p>

Ingelesa (L2)

Lehen hezkuntza bukatutakoan, ikasleek gai izan behar dute bigarren hizkuntzan gauzak adierazteko eta hauren bidez ahozko elkarreraginean jarduteko, eta idatziz erabiltzeko egoera erraz eta ohikoetan. Derrigorrezko bigarren hezkuntzan, ikasteko prozesuarekin jarraitzen da, etapa horren bukaeran ikasleek trebetasun produktiboak finkaturik eduki ditzaten eta gai izan daitezen elkarreraginean jarduteko eta esan nahi dutena ulertarazteko egoera multzo batean; esate baterako, azalpen pertsonalak eskaintzea eta eskatzea elkarrizketa ez-formal batean, ulertarazi nahi den ideia bat modu ulergarrian adieraztea, hizkuntza zabal eta erraza erabiltzea nahi dena azaltzeko, hizkuntza estandarrean dauden testuen ideia nagusiak ulertzea, nahiz eta eten nabarmenak egin behar izan plangintza gramatikal eta lexikoa egiteko. Halaber, etaparen bukaeran, jakin beharko dute malgutasunez aurre egiten ahozko eta idatzizko komunikazioaren eguneroko arazoei, eta jakinen dute ohiko elkarrizketetan parte hartzen, kexak azaltzen, bizipenak edo planak kontatzen, zerbait azaltzen edo argibideak eskatzen.

Helburuak

Eta honetan, atzerriko hizkuntza irakasgaiaren irakaskuntzak honako gaitasunak garatzea izanen du helburu:

1. Ahozko testu argietako eta hizkuntza estandarra erabiltzen den komunikazio egoera desberdinetako informazio orokorra eta berariazkoa entzun eta ulertzea, errespetuzko eta lankidetzazko jarrera hartuz.
2. Ahoz hitz egitea eta elkarreraginean jardutea komunikazioko ohiko egoeretan, modu ulergarri eta egokian eta autonomia handi samarrarekin: esperientziak, gertaerak, desioak eta asmoak deskribatzea, eta iritziak laburki justifikatzea edo planak azaltzea.
3. Ikasleen gaitasunetarako eta interesetarako egokia den maila bateko idatzizko testu mota desberdinak ulertzea, informazio orokorra eta berariazkoa ateratzeko, eta irakurketa gozamenerako eta norberaren aberastasunerako iturri gisa erabiltzea.
4. Testu errazak idaztea helburu desberdinekin, era askotako gai ezagunei edo interes pertsonaleko gaiei buruz, kohesioa eta koherentzia lortzeko behar diren baliabideak erabiliz.
5. Hizkuntzaren oinarriko elementuak -esate baterako, fonetika, lexikoa, egiturak eta funtzioak- modu gogoetatsuan eta zuzentasunez erabiltzea, komunikazioaren testuinguru errealean.
6. Ikasteko estrategiak eta eskura dauden bide guztiak (liburutegiak, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak eta abar) erabiltzea ahozko eta idatzizko informazioa lortu, hautatu eta aurkezteko.
7. Hizkuntza aintzat hartzea informazioa eskuratzeko tresna gisa eta era guztietako edukiak ikasteko erreminta gisa, eta ikasleak elkarreraginean jarduten dueneko erkidegoko hizkuntza gisa.
8. Hizkuntza baloratzea, jatorri, hizkuntza eta kultura desberdinetako pertsonen arteko komunikazioa eta elkar ulertzea bideratzeko, era guztietako bazterkeriak eta estereotipo linguistikoak saihestuz.
9. Norberaren ikasteko prozesuei buruz gogoeta egitea eta beste hizkuntza batzuetan barneraturiko komunikazio ezagutza eta estrategiak kasuko hizkuntza ikasteko transferitzea.
10. Atzerriko hizkuntzaren dimentsio soziokulturala ezagutu eta lantzea.

Edukiak

1. multzoa. Komunikatzeko trebetasunak: Entzutea eta ulertzea. Hitz egitea eta hizketan aritzea

Testuen tipologiari eta ahozko hizkuntza garatzen den testuinguruari dagokienez, ontzat ematen da ikasgelako komunikazio truke arruntak behin eta berriz agertuko direla hezkuntzaren etapa guztietan zehar: hizketaldiak, simulazioak, jarraibideak, galde-erantzunak, iruzkinak, gertakariei buruzko kontaerak. Horrenbestez, ez dira berariaz aipatzen mailetako testuei buruzko atalean, eta etapa honetan sakontasun eta heldutasun handiagoa hartzen dute. Hala eta guztiz ere, atal horretan aurkezten den testu tipologia bat dator lehenengo hizkuntzarako ezarritakoarekin, baina norainokoa eta maila apalagoak izanen dira.

DBH1	DBH2
<ul style="list-style-type: none"> Ikasgelako jarduerekin lotura duten ahozko mezu laburrak entzun eta ulertzea: jarraibideak, galderak, iruzkinak, deskribapenak eta narrazio laburrak; elkarrizketak. Entzuten denaren eduki orokorra iragartzea, hitzezko eta hitzez besteko elementuen laguntzarekin. Ahozko testuetan eguneroko gaiei eta iragartzeko modukoak diren gaiei buruzko berariazko informazioa lortzea: zenbakiak, prezioak, ordutegiak, izenak edo lekuak, euskarri desberdinetan aurkeztuak. Ahozko mezuak ulertzeko oinarritzko estrategiak erabiltzea: hitzezko eta hitzez besteko testuingurua eta egoerari buruzko alde aurreko ezagutzak erabiltzea. 	<ul style="list-style-type: none"> Ikasgelako jardueretan ohiko jardueri buruz azaldutako mezuak entzun eta ulertzea. Eguneroko gaiei eta era askotako komunikabideetatik heldu eta iragartzeko modukoak diren gaiei buruzko elkarrizketetan eta ahozko testuetan informazio orokorra eta berariazkoa lortzea, hitzezko eta hitzez besteko elementuen laguntzarekin. Ahozko mezuak ulertzeko estrategiak: hitzezko eta hitzez besteko testuingurua eta egoerari buruzko alde aurreko ezagutzak erabiltzea, gako hitzak identifikatzea.
<ul style="list-style-type: none"> Ahozko testu laburrak sortzea, egitura logiko batekin eta ebakera egokiarekin, betiere eskema baten edo alde aurretik prestaturiko materialen laguntzarekin. Besteekin ahoz komunikatzea, egitura nahikoa errazekin, eguneroko bizitzako gaietatik hurbil dauden alderdiei buruz: kirolak, aisia, zale-tasunak, bidaia musikak, harreman pertsonalak ... Ikasgelan bertan kontrolaturiko elkarrizketa labor eta errazetan aktiboki parte hartzea, bai eta norberaren bizipen eta interesekin loturiko egoeren simulazioetan ere, galderak eginez eta erantzunak emanez. Irakasleak eta ikasleak ikasgelako jardueretan eskatutako informazioetarako egokiak diren erantzunak erabiltzea. Komunikazioan etenak gainditzeko estrategiak garatzea, hitzezko eta hitzez besteko elementuak erabiliz gauzak ahoz adierazteko, bikoteka edo taldeka eginiko jardueretan. 	<ul style="list-style-type: none"> Ahozko testu labor eta koherenteak sortzea norberaren intereseko gaiei buruz, ebakera egokiarekin. Ikasgela barruko elkarrizketetan eta simulazioetan bikoteka edo taldeka parte hartzea, modu erdi kontrolatua, komunikazioa lortzeko behar den ebakera eta intonazioa erabiliz. Ikasgela barruko komunikazio egoeretan erantzun egokiak lortzea. Honakoetarako estrategiak garatzea: komunikazioan gertatzen diren etenak gainditzeko eta elkartruke komunikatiboei hasiera eta amaiera ematea.
<p>Testuak</p> <ul style="list-style-type: none"> Deskribapenak: lekuak, gauzak, pertsonak. Narrazio testuak: eguneroko bizipenak. Elkarrizketak: bizipen eta interes pertsonalekin lotutakoak. Jarraibideak emateko testuak (arauak, jarraibideak). 	<p>Testuak</p> <ul style="list-style-type: none"> Publizitate testuak. Argudiozko testuak (elkarrizketa, eztabaida). Narrazio testuak (albistea, kronika, narrazioa).

DBH3	DBH4
<ul style="list-style-type: none"> • Testuinguru erreala eta simulatueta jarraibideak ulertzea. • Gai zehatz eta ezagunei buruzko aurreko mezuetatik informazio orokorra eta berariazkoa entzutea eta ulertzea. • Ikus-entzunezkoek emandako eta geldiro eta argitasunez ebakitako mezu errazak entzun eta ulertzea. Testuak luzeagoak izanen dira, baina gaia, lehen bezala, ezaguna izanen da eta diskurtsoaren garapena berariazko markatzaileekin erraztuko da. • Ahozko mezuak ulertzeko estrategiak: hitzeko eta hitzez besteko testuingurua eta egoerari buruzko alde aurreko ezagutzak erabiltzea; gako hitzak identifikatzea; hitz egiten duenaren asmoa identifikatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Gai ezagunei buruzko hizketaldi errazen, argitasunez eta modu antolatuan emandakoen, esanahi orokorra eta berariazkoa ulertzea. • Pertsonen arteko komunikazioa ulertzea, unean bertan erantzun ahal izateko. • Ikus-entzunezko hedabideetatik hizkuntza argi eta solean emititutako programak oro har ulertzea, eta haien datu garrantzitsuenak ere ulertzea. • Ahozko mezuak ulertzeko estrategiak erabiltzea: hitzeko eta hitzez besteko testuingurua eta egoerari buruzko alde aurreko ezagutzak erabiltzea; gako hitzak identifikatzea; hitz egiten duenaren jarrera eta asmoa identifikatzea.
<ul style="list-style-type: none"> • Era askotako bizipen, gertaera eta ezagutzei buruzko deskribapenak eta narrazio laburrak ahoz ematea. • Komunikazio helburu desberdinak dituzten eguneroko eta norberaren intereseko gaii buruzko elkarrizketa eta simulazioetan parte hartzea. • Ikasgela barruko komunikazio egoeretan erantzun espontaneoak erabiltzea. • Elkarrizketaren konbentzio ohikoenak eta propioak gero eta autonomia handiagoarekin erabiltzea, komunikazio lan simulatueta. • Elkarreraginean sorturiko zailtasunak gainditzeko komunikazio estrategiak gero eta autonomia handiagoarekin erabiltzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Era askotako bizipen eta gertaerei buruzko deskribapenak, narrazioak eta azalpenak ahoz ematea. • Komunikazio helburu desberdinak dituzten eguneroko eta norberaren intereseko gaii buruzko elkarrizketa eta simulazioetan aktiboki parte hartzea. • Ikasgela barruko komunikazio egoeretan erantzun espontaneo eta zehatzak erabiltzea. • Elkarrizketaren berezko konbentzioak erabiltzea, komunikazio jarduera errealetan eta simulatueta. • Komunikatzeko estrategiak autonomiaz erabiltzea, elkarreraginari hasiera emateko, eusteko eta amaiera emateko.
<p>Testuak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Narrazio testuak: kazetaritza (erreportajea, elkarrizketak, albistei buruzko artikulua). • Azalpen testuak (definizioa, azalpena, laburpena). 	<p>Testuak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Argudiozko testuak iruzkinak, kontraargudiatzea. • Azalpen testuak: hitzaldia.

DBH1	DBH2
<p>Trebetasunak eta estrategiak</p> <p>Ahozkoaren ulermena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Aldez aurretik informazioa biltzea eta entzuten dena iragartzea. • Aktiboki entzutea, gainerako pertsonak eta haien iritziak errespetatuz. • Egoerari buruzko aldez aurreko ezagutzak eta hitzezko eta hitzez besteko testuingurua (ilustrazioak, tonua) erabiltzea, gai orokorra ezagutzea, entzuten denari buruzko oharrak hartzea, hiztegian kontsulta egitea, irakasleari galdetzea eta abar. • Igorlearen asmoa harrapatzea. Hark antzemandakoak justifikatzea. Gai edo ideia orokorra identifikatzea. Egitateak eta iritziak bereiztea; errealitatea eta fikzioa bereiztea. • Berariazko informazioari buruzko galderei erantzutea (galdera zuzenak, inferentziak eta abar), funtsezkoa hautatzea (egitateak, pertsonaiak, lekua, denbora eta abar). • Testu mota identifikatzea: deskribapenak, narrazioak, elkarrizketak, jarraibideak eta abar. • Norberaren ulermena baloratzea. 	<p>Trebetasunak eta estrategiak</p> <p>Ahozkoaren ulermena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Aldez aurretik informazioa biltzea eta entzuten dena iragartzea. • Aktiboki entzutea, gainerako pertsonak eta haien iritziak errespetatuz. • Ahozko mezuak ulertzeko oinarriko estrategiak erabiltzea: mezu orokorra eta berariazko xehetasunak identifikatzea; izenburua mezuarekin lotzea; ezagutzen diren egiturak eta esanahiak ezagutu eta berrikustea eta abar. • Egoerari buruzko aldez aurreko ezagutzak eta hitzezko eta hitzez besteko testuingurua (ilustrazioak, tonua) erabiltzea, gai orokorra ezagutzea, entzuten denari buruzko oharrak hartzea, hiztegian kontsulta egitea, irakasleari galdetzea eta abar. • Igorlearen asmoa harrapatzea. Hark antzemandakoak justifikatzea. Gai edo ideia orokorra identifikatzea. Egitateak eta iritziak bereiztea; errealitatea eta fikzioa bereiztea. Testutik ondorioak ateratzea eta haiek justifikatzea. • Berariazko informazioari buruzko galderei erantzutea (galdera zuzenak, inferentziak eta abar), funtsezkoa hautatzea (egitateak, pertsonaiak, lekua, denbora eta abar). • Ideia nagusiak laburbiltzea. • Norberaren ulermena baloratzea.

DBH3	DBH4
<p>Trebetasunak eta estrategiak</p> <p>Ahozkoaren ulermena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Aldez aurretik informazioa biltzea eta entzuten dena iragartzea. • Aktiboki entzutea, gainerako pertsonak eta haien iritziak errespetatuz. • Ahozko mezuak ulertzeko oinarrizko estrategiak erabiltzea: mezu orokorra eta berariazko xehetasunak identifikatzea; izenburua mezuarekin lotzea; ezagutzen diren egiturak eta esanahiak ezagutu eta berrikustea eta abar. • Egoerari buruzko aldez aurreko ezagutzak eta hitzeko eta hitzez besteko testuingurua (ilustrazioak, tonua) erabiltzea, gai orokorra ezagutzea, entzuten denari buruzko oharrak hartzea, hiztegian kontsulta egitea, irakasleari galdetzea eta abar. • Igorlearen asmoa harrapatzea. Hark antzemandakoak justifikatzea. Gai edo ideia orokorra identifikatzea. Egitateak eta iritziak bereiztea; errealitatea eta fikzioa bereiztea. Testutik ondorioak ateratzea eta haiek justifikatzea. • Berariazko informazioari buruzko galderei erantzutea (galdera zuzenak, inferentziak eta abar), funtsezkoa hautatzea (egitateak, pertsonaiak, lekua, denbora eta abar). • Ideia nagusiak laburbiltzea. • Norberaren ulermena baloratzea. 	<p>Trebetasunak eta estrategiak</p> <p>Ahozkoaren ulermena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Aldez aurretik informazioa biltzea eta entzuten dena iragartzea, eta gero, entzuten denean, hori egiaztatzea. • Aktiboki entzutea, gainerako pertsonak eta haien iritziak errespetatuz. Koherentzia faltak eta egokitasun akatsak antzematea. Umore edo ironia elementuak antzematea. • Ahozko mezuak ulertzeko oinarrizko estrategiak erabiltzea: mezu orokorra eta berariazko xehetasunak identifikatzea; izenburua mezuarekin lotzea; ezagutzen diren egiturak eta esanahiak ezagutu eta berrikustea eta abar. • Egoerari buruzko aldez aurreko ezagutzak eta hitzeko eta hitzez besteko testuingurua (ilustrazioak, tonua) erabiltzea, gai orokorra ezagutzea, entzuten denari buruzko oharrak hartzea, hiztegian kontsulta egitea, irakasleari galdetzea eta abar. • Igorlearen asmoa harrapatzea. Hark antzemandakoak justifikatzea. Gai edo ideia orokorra identifikatzea. Egitateak eta iritziak bereiztea; errealitatea eta fikzioa bereiztea. Testutik ondorioak ateratzea eta haiek justifikatzea. • Berariazko informazioari buruzko galderei erantzutea (galdera zuzenak, inferentziak eta abar), funtsezkoa hautatzea (egitateak, pertsonaiak, lekua, denbora eta abar). • Ideia nagusiak laburbiltzea. • Norberaren ulermena baloratzea.

DBH1	DBH2
<p>Ahozko adierazpena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Elkarrizketaren dinamika aplikatzea parte hartzeko, txanda eskatzeko, errepikapenak edo argibideak eskatzeko, adostasuna edo desadostasuna adierazteko, norberaren ikuspuntua adeitasunez azaltzeko eta abarretarako. • Minutu batzuetako ahozko aurkezpen bat egitea ikasleari interesgarria zaion topiko bati buruz; alde aurretik prestatutako eskema eta material osagarriak eskuratuko zaizkio (ikus-entzunezko baliabideak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak). Horri buruzko mahai-inguru labur bat egitea. • Azalpenaren entsegua egitea. • Ahozko autozuzenketa erabiltzea. • Bizikidetasun arauak eta besteen iritziak errespetatzea. • Norberaren eta besteen azalpenak objektiboki baloratzea. Irakaslearen laguntzarekin testuaren forma eta edukia hobetzeko moduak aurkitzea. 	<p>Ahozko adierazpena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Elkarrizketaren dinamika aplikatzea parte hartzeko, txanda eskatzeko, errepikapenak edo argibideak eskatzeko, adostasuna edo desadostasuna adierazteko, norberaren ikuspuntua adeitasunez azaltzeko eta abarretarako. • Ahozko aurkezpen bat egitea landutako gai bati buruz, lehendik prestatu eta eskuratutako eskema eta material osagarriak erabiliz (ikus-entzunezko bitartekoak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak), arreta berezia eskainiz edukiaren egituratzeari (konparaketa, lekuaren antolaketa, unitatea - atalak) eta entzuleen interesari eusten saiatuz. • Azalpenaren entsegua egitea. • Ahozko autozuzenketa erabiltzea. • Bizikidetasun arauak eta besteen iritziak errespetatzea. • Norberaren eta besteen azalpenak objektiboki baloratzea. Irakaslearen laguntzarekin testuaren forma eta edukia hobetzeko moduak aurkitzea.

DBH3	DBH4
<p>Trebetasunak eta estrategiak</p> <p>Ahozko adierazpena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Elkarrizketaren dinamika aplikatzea parte hartzeko, txanda eskatzeko, errepikapenak edo argibideak eskatzeko, adostasuna edo desadostasuna adierazteko, norberaren ikuspuntua adeitasunez azaltzeko eta abarretarako. Baliabideak, hizkuntza eta funtzio linguistiko egokiak erabiltzea. • Ahozko aurkezpen bat egitea landutako gai bati buruz, lehendik prestatu eta eskuratutako eskema eta material osagarriak erabiliz (ikus-entzunezko bitartekoak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak), arreta berezia eskainiz edukiaren egituratzeari (konparaketa, lekuaren antolaketa, unitatea - atalak) eta entzuleen interesari eusten saiatuz. • Azalpenaren entsegua egitea. • Esaten dena eta hura adierazteko bitartekoak unearen eta entzuleen arabera egokitzea, entzuleen arretari eusten saiatuz (enfasia, bolu-mena, tonua, entzuleen igurikapenak piztea: galderak, datu interesgarriak, umorea, ikusizko laguntzak ...) esan nahi dena birformulatuz. • Ahozko autozuzenketa erabiltzea. • Galderak egitea eta argibideak eskatzea, kortesiaz. • Taldeko jardueretan rol desberdinak hartzea: moderatzailea, eleduna, idazkaria. • Bizikidetasun arauak eta besteen iritziak errespetatzea. • Norberaren eta besteen azalpenak objektiboki baloratzea. Irakaslearen laguntzarekin testuaren forma eta edukia hobetzeko moduak aurkitzea. 	<p>Ahozko adierazpena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Elkarrizketaren dinamika aplikatzea parte hartzeko, txanda eskatzeko, errepikapenak edo argibideak eskatzeko, adostasuna edo desadostasuna adierazteko, norberaren ikuspuntua adeitasunez azaltzeko eta abarretarako. Baliabideak, hizkuntza eta funtzio linguistiko egokiak erabiltzea. • Ahozko aurkezpen bat egitea landutako gai bati buruz, lehendik prestatu eta eskuratutako eskema eta material osagarriak erabiliz (ikus-entzunezko bitartekoak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, adituen zitak, adibideak), arreta berezia eskainiz edukiaren egituratzeari (konparaketa, lekuaren antolaketa, unitatea-atalak) eta entzuleen interesari eusten saiatuz. • Azalpenaren entsegua egitea. • Gauzak argitasunez adieraztea, haria galdu gabe eta gidoirra behin eta berriz jo gabe. • Esaten dena eta hura adierazteko bitartekoak unearen eta entzuleen arabera egokitzea, entzuleen arretari eusten saiatuz (enfasia, bolu-mena, tonua, entzuleen igurikapenak piztea: galderak, datu interesgarriak, umorea, ikusizko laguntzak ...) esan nahi dena birformulatuz. • Ahozko autozuzenketa erabiltzea. • Galderak egitea eta argibideak eskatzea, kortesiaz. • Taldeko jardueretan rol desberdinak hartzea: moderatzailea, eleduna, idazkaria. • Bizikidetasun arauak eta besteen iritziak errespetatzea. • Norberaren eta besteen azalpenak objektiboki baloratzea. Irakaslearen laguntzarekin testuaren forma eta edukia hobetzeko moduak aurkitzea.

2. multzoa. Entzutea eta ulertzea. Idaztea

Testuen tipologiari eta idatzizko hizkuntza garatzen den testuinguruari dagokienez, ontzat ematen da gizarteko komunikazio truke arruntak behin eta berriz agertuko direla etapa guztietan zehar: postala, gutuna, posta elektronikoa, oharra eta deiak, galdetegiak, jarraibideak. Horrenbestez, ez dira berariaz aipatzen mailetako testuei buruzko atalean, eta etapa honetan lantzen jarraitzen dira, betiere ikasleen adinari eta interesari egokituak. Hala eta guztiz ere, atal horretan aurkezten den testu-tipologia bat dator lehenengo hizkuntzarako ezarritakoarekin, baina norainokoa eta maila apalagoak izanen dira.

DBH1	DBH2
<ul style="list-style-type: none"> • Jarduerak egoki ebazteko oinarriko jarraibideak ulertzea. • Testu mota batzuen informazio orokorra eta berariazkoa ulertzea, testuak paperean nahiz euskarri digitalean egon, jatorrizkoak nahiz egokituak izan, gai ezagunei buruzkoak nahiz curriculumeko beste irakasgai batzuetako edukiekin lotutakoak izan. • Irakurriaren ulermenaren oinarriko estrategiak erabiltzea: testu baten gaia identifikatzea testu-elementuen eta testuaz besteko elementuen laguntzarekin, alde aurreko ezagutzak erabiltzea, esanahiak testuinguruaren arabera inferitzea, edo ezagutzen diren hizkuntzetan antzeko hitz edo esaldiak konparatuz; iragarpenak (justifikatuak), igorlearen asmoa aurkitzea ... 	<ul style="list-style-type: none"> • Testu errazak irakurri aurretik eta irakurri bitartean edukia iragaritzea. • Testu mota batzuen informazio orokorra eta berariazkoa ulertzea, testuak paperean nahiz euskarri digitalean egon, jatorrizkoak nahiz egokituak izan, gai ezagunei buruzkoak nahiz curriculumeko beste arlo batzuetako edukiekin lotutakoak izan. • Testu luzeagoak autonomiaz irakurtzeko ekimena. • Irakurriaren ulermenaren estrategiak erabiltzea: testu baten gaia identifikatzea; alde aurreko ezagutzak erabiltzea; esanahiak testuinguruaren arabera eta ikusizko elementuen bitartez inferitzea, edo ezagutzen diren hizkuntzetan antzeko hitz edo esaldiak konparatuz. • Idatzizko komunikazioetan hizkuntza formala eta ez-formala bereizten dituzten formula batzuk ezagutzea eta erabiltzen hastea.
<ul style="list-style-type: none"> • Gauzak eta pertsonak identifikatzea. Eskerrak ematea. Gauzen eta pertsonen ezaugarriak ematea. <i>Qu'est-ce que c'est?, qui est- ce ?, c'est..</i> <i>Comment ... ?</i> Adina. Numeralak (1-100). • Pertsonen eta gauzen ezaugarriei buruzko informazioa ulertzea, eskatzea eta ematea. Adjektibo kalifikatzaileak (femeninoa / maskulinoa; desberdintasun grafikoak eta fonetikoak). Koloreak. Ezekoa: <i>ne ... pas.</i> <i>IL/Elle est / C'est; ils / elles sont / ce sont.</i> • Edukizari buruzko informazioa ulertzea, eskatzea eta ematea. <i>A qui est-ce? c'est à + izenordain tonikoak.</i> Determinatzaile posesiboak (singularreko 1., 2. eta 3. pertsonak). • Pertsonen eta gauzen kokapenari buruzko informazioa ulertzea, eskatzea eta ematea. Kopuruak. <i>Il y a, est-ce qu'il y a, il ny a pas de ...</i> Lekuzko preposizioak eta adberbioak (oinarrikoak). Savoir, croire eta regarder aditzen orainaldia. Numeralak (20-50). • Herrialde eta hirietako eguraldiari buruzko informazioa ulertzea, eskatzea eta ematea. Faire aditzaren orainaldia. Erantzunak: <i>oui, si, pas du tout.</i> Preposizioak + herrialdeak eta hiriak (<i>en, au, aux, à</i>). Eguraldiari buruzko adierazpideak: <i>faire beau, mauvais, chaud</i> eta <i>abar</i>. • Herri/hiri bateko lekuen eta eraikinen kokapenari buruzko informazioa ulertzea, eskatzea eta ematea. Kortesiako formulak. <i>Où se trouve, pour aller..</i> Determinatzaile kontraktuak (<i>au, aux, du, des</i>). Venir eta aller aditzen orainaldia. Lekuzko adberbioak eta lokuzioak (oinarrikoak). 	<ul style="list-style-type: none"> • Eguneroko bizitzako egitatei buruzko testuak ulertzea eta haiei buruz galdetzea eta informazioa ematea. Egun bakoitzaren uneak. Orduaren adierazpideak. Ezekoa: <i>ne pas, ne plus, ne jamais, ne rien.</i> Aditz bihurkariak. Bigarren taldeko aditzak: orainaldia eta agintera. • Osasunari eta desioei buruzko informazioa, aholkuak eta aginduak ulertzea, eskatzea eta ematea. Nahitaezkotasunaren adierazpideak: <i>il faut + infinitibo.</i> <i>Devoir, pouvoir</i> eta <i>vouloir</i> aditzen orainaldia. Kantitatezko adberbioak. Desioaren adierazpideak: <i>je voudrais, j'aimerais.</i> • Telefonoz harremanetan jartzea. Gonbit bat onartzea edo errefusatzeta. Kortesiako, harremanak hasteko eta agurtzeko formulak. Gonbit bat errefusatzeko formulak. • Erosten eta hautatzen jakitea eta behar bat adierazten jakitea. Prezioa, kalitatea, gaia eta kopurua galdetzea. <i>En</i> izenordaina. Determinatzaile partitiboak. Haien erabilera baieztoko eta ezezko esaldietan. • Iraganeko egitateak deskribatu eta kontatzea. Passé composé <i>être</i> eta <i>avoir</i> aditzekin. Ezekoa denbora konposatuetan. C.O.D. eta C.O.I. erako izenordain pertsonalak. Denborazko adberbioak eta adberbiozko lokuzioak. • Proiektuak deskribatu eta kontatzea. Izenordain pertsonal tonikoak (berriuspena). C.O.D. eta C.O.I. izenordain pertsonalak kokatzea, orainaldian, aginteran eta passé composé denboran.
<p>Lexikoa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Data, asteko egunak, hilabeteak, urtaroak. • Koloreak. • Ikasgelako eta eskola eta familia inguruneetako lexiko berariazkoa. • Eguraldiari buruzko lexiko berariazkoa. • Herriko eta hiriko eraikin eta lekuei buruzko lexiko berariazkoa. 	<p>Lexikoa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Honako gaietako buruzko lexiko berariazkoa: familia, jatekoak, bidaiak, aisia, proiektuak eta merkataritza, ostatu hartzea eta gorputzaren atalak. • Formula eta adierazpideak.

DBH3	DBH4
<ul style="list-style-type: none"> • Iraganeko ohiturak deskribatzea, aurrekotasuna adieraztea, baiez-tapena indartzea. Geroaldi sinplea. Venir de + infinitiboa (<i>Passé récent, futur proche</i>). <i>Aller</i> + infinitiboa. • Gauzak deskribatu eta konparatzea. Ezezkoa kortesiaz ematea. Konparatiboa. Superlatiboa, erlatiboa eta absolutua. Izenordain posesiboak. Izenordain erakusleak. • Mehatxu egitea, harridura adieraztea, iritzi pertsonala azaltzea. Izenordain pertsonalek perpausean betetzen duten lekua. <i>Qui, que, dont, où</i> izenordain erlatiboak. • Norberaren intereseko eta interes orokorreko gaiei, eguneroko gaiei eta curriculumeko beste arlo batzuen edukiekin loturiko gaiei buruzko adierazpide komunak, esaerak eta lexikoa gero eta autonomia handiagoarekin erabiltzea. • Antonimoak, "lagun aizunak" eta aurrizkidun eta atzizkidun hitz ohikoenak identifikatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Ziurtasuna, zehaztasuna adieraztea. C. O. D. izenordain pertsonalaren komunztadura lehenaldiko partizipioarekin. • Kausa, kontzesioa adieraztea. Argudiatzea; ikuspuntu bat defendatzea edo hari aurka egitea. Kausa adieraztea (<i>pourquoi, parce que</i>). Kontzesioaren adierazpideak. Ezezko bikoitza: <i>ne ni ni</i>. Argudiatzea: esaerak eta estereotipoak. • Iritziak adieraztea, aurka egitea; esaldi murriztaileak. Helburua adieraztea (<i>Afin de</i> + infinitiboa; <i>pour</i>+ infinitiboa). Y, en: osagarri gehigarri izenordainak. • Testu bat laburtzea. Sentimenduak adieraztea. Edukitza adieraztea. <i>Imparfait / passé composé</i>. <i>Pour, afin de</i> + infinitiboa. <i>Avant de</i> + infinitiboa.
<p>Lexikoa</p> <p>Jantziei buruzko hiztegi berariazkoa.</p> <p>Pertsona baten izaera eta fisionomia deskribatzeko hiztegi berariazkoa.</p> <p>Gauza baten ezaugarriak, koloreak, forma deskribatzeko hiztegi berariazkoa.</p> <p>Aurreko mailetan landutako lexikoa zabaltzea.</p> <p>Landutako gaiekin lotutako formulak eta adierazpideak.</p>	<p>Lexikoa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Norberaren intereseko eta interes orokorreko gaiei, eguneroko gaiei eta curriculumeko beste arlo batzuen edukiekin loturiko gaiei buruzko adierazpide komunak, esaerak eta lexikoa erabiltzea. • Ondokoak ezagutzea: antonimoak, sinonimoak, lagun aizunak eta hitzak aurrizkien eta atzizkien bidez nola sortu. Elkarrizketetarako estereotipoak. Homofono lexikalak. Sinonimoak / antonimoak.

DBH1	DBH2
<p>Fonetika</p> <ul style="list-style-type: none"> • Sinbolo fonetiko batzuk maiz erabiltzen diren fonemen ebakerarekin identifikatzea. • Hitzen eta esaldien erritmoarekin, intonazioarekin eta azentuarekin loturiko oinarrizko patroiak ezagutu eta erabiltzea. • Frantsesak berezkoagoak dituen soinuak, ama hizkuntzaren aldeak azpimarratuz: / i /, /u/, /y/ ; « j » grafiako fonema; e mutua eta bokal sudurkariak. 	<p>Fonetika</p> <ul style="list-style-type: none"> • Sinbolo fonetiko batzuk eta zailtasun berezia duten fonemen ebakera gero eta hobeki ezagutzea. • Hitzen eta esaldien erritmoarekin, intonazioarekin eta azentuarekin loturiko oinarrizko patroiak ezagutu eta erabiltzea. • Bokal sudurkariak; maskulinoaren eta femeninoaren arteko bereizketa fonetikoak, eta singularren eta pluralaren artekoa (<i>grand-grande; il vient-ils viennent</i>); /s/, /z/ ; eta « j » y « ch » grafien fonemak. <ul style="list-style-type: none"> • Intonazioa (galderazko eskema / eskema enuntziatiboa). • Liaison. • Grafia / fonetika erlazioaren berrikuspina.

DBH3	DBH4
<p>Fonetika</p> <ul style="list-style-type: none"> • Sinbolo fonetiko batzuk eta zailtasun berezia duten fonemen ebake- ra gero eta hobeki ezagutzea. • Hitzen eta esaldien erritmoarekin, intonazioarekin eta azentuarekin loturiko patroiak ezagutu eta erabiltzea. /e/ : -es, ez, -er grafiei dagokiena; /b/, /v/ Liaison-enchainement. Nabarmentzea: azentu tonikoak. Sentimenduak adierazteko intonazioa. Diskurtsoan azentuen jartzea. 	<p>Fonetika</p> <ul style="list-style-type: none"> • Sinbolo fonetiko batzuk eta zailtasun berezia duten fonemen ebake- ra gero eta hobeki ezagutzea eta erabiltzea. • Hitzen eta esaldien erritmoarekin, intonazioarekin eta azentuarekin loturiko patroiak ezagutu eta autonomiaz erabiltzea. Aurreko mailetan fonetikari buruz barneratutako eduki guztiak berrikusi eta sakontzea. Kontsonante soinu ahoskabe eta ahostunen arteko aurkakota- suna. Goranzko eta beheranzko intonazioak azpimarratzea. Erritmo adierazkorra.

Trebetasun eta estrategiak

- Ulertzeko eta adierazteko trebetasunak praktikan jartzerakoan, unitate linguistikoei eta funtzionamendu arauari buruzko ezagutza teorikoak aplikatzea.
 - a) Ikasleari oraindik ere menperatzen ez dituen egiturak aurkeztea. Haien funtzionamendua aztertzea eta haietaz baliatzea; lehenbizi ulertzeko trebetasunak eta gero sortzeko trebetasunak.
 - b) Ikasleek jada erabiltzen dituzten forma eta egitura gramatikalak aztertzea eta linguistikoki lantzea; hau da, izena ematea, haien erabilera fin-
tzea eta etekina ateratzea.
 - c) Ikaslea prestatzea forma linguistikoen eta fenomeno sintaktikoen manipulazio praktikoa egin dezan. Ikasleak jakin behar du esaldiko hitzak konbinatzen, sailkatzen, ordeztzen, aldatzen, modalizatzen, ordenatzen, errepikatzen eta abar.
- Testuetan adibideak aurkitzea. Ikastekoak diren elementuak identifikatzea. Identifikatutako elementuak konparatzea eta erlazionatzea.
- Eskolako hiztegiek ematen dituzten informazio linguistikoak interpretatzea; bereziki hitz motei buruzkoak, lexikoaren erlazio semantikoei buruzkoak (sinonimia, antonimia ...) eta araudiari buruzkoak.
- Norberaren ezagutzak (printzipio edo arau linguistikoak sartzea) edo kontsulta iturriak (hiztegiak, gramatikak, erabilerak ...) erabiltzea arazoak ebazteko edo eskatutako lana egiteko: osatzea, eraldatzea, laburtzea, zuzentzea, inferitzea, interpretatzea eta abar.

5. multzoa. Hizkuntzaren ikaskuntzari buruzko gogoeta

DBH1	DBH2
<ul style="list-style-type: none"> • Lexikoa antolatu, barneratu, gogoratu eta erabiltzeko oinarriko estrategiak aplikatzea. • Beste hizkuntza batzuetan garatutako ikasketa estrategiak aplikatzea. • Ikasteko baliabideak progresiboki erabiltzea; esate baterako, hiztegiak, kontsulta liburuak, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak. • Komunikazio helburu desberdinen arabera egokiak diren forma gramatikalen erabilerari eta esanahiari buruzko gogoeta gidatua. • Ahozko eta idatzizko produkzioak autoebaluatzeko eta autozuzentzeko estrategiak ikasten hastea. • Akatsa ikasteko prozesuaren zati baten gisara onartzea eta hura gainditzeko jarrera positiboa izatea. • Norberaren lana antolatzea (ikaskuntzari buruzko egunerokoa, agenda, dossierra, kontroleko erregistroa) ikaskuntzan aurrera egiteko estrategia gisa; helburuak ezarri eta haiek lortzeko bitartekoak identifikatuko dira. • Ikasteko estilo pertsonala garatzea. • Gelako testuinguruan eta gelatik kanpo sorturiko ikasketa aukerez baliatzeko interesa. • Taldeko jarduera eta lanetan aktiboki parte hartzea. • Gauzak jendaurrean eta idatziz adierazteko konfiantza eta ekimena. 	<ul style="list-style-type: none"> • Lexikoa antolatu, barneratu, gogoratu eta erabiltzeko estrategiak aplikatzea; esate baterako, testuingurutik esanahiak inferitzea, hitzak formaren eta esanahiaren arabera erlazionatzea, hitzak eta kontzeptuak definitzea. • Beste hizkuntza batzuetan garatutako ikasketa estrategiak aplikatzea. • Ikasteko baliabideak erabiltzea: hiztegiak, kontsulta liburuak, liburu-tegiak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak. • Komunikazio helburu desberdinen arabera egokiak diren forma gramatikalen erabilerari eta esanahiari buruzko gogoeta. • Ebaluazio partekatuko jardueretan eta norberaren ikaskuntzaren ebaluazioan parte hartzea, eta ahozko eta idatzizko produkzioen autozuzentzeko estrategiak erabiltzea. • Norberaren lana antolatzea (ikaskuntzari buruzko egunerokoa, agenda, dossierra, kontroleko erregistroa) ikaskuntzan aurrera egiteko estrategia gisa; helburuak ezarri eta haiek lortzeko bitartekoak identifikatuko dira. • Ikasteko estilo pertsonala garatzea. • Gelako testuinguruan eta gelatik kanpo sorturiko ikasketa aukerez baliatzeko interesa. • Taldeko jarduera eta lanetan aktiboki parte hartzea. • Gauzak jendaurrean eta idatziz adierazteko konfiantza eta ekimena. • Norberaren hizkuntzaren erabilera hobetzeko gaitasunean konfiantza izatea. • Baloratzea norberaren hizkuntza ikasteko, antolatzeko eta ezagutzak transmititzeko tresna bat dela.

DBH3	DBH4
<ul style="list-style-type: none"> • Lexikoa antolatu, barneratu, gogoratu eta erabiltzeko estrategiak aplikatzea; esate baterako, testuingurutik esanahiak inferitzea, hitzak formaren eta esanahiaren arabera erlazionatzea, hitzak eta kontzeptuak definitzea. • Beste hizkuntza batzuetan garatutako ikasketa estrategiak aplikatzea. • Ikasteko baliabideak antolatzea eta gero eta autonomia gehiagorekin erabiltzea; esate baterako, hiztegiak, kontsulta liburuak, liburutegiak edo informazioaren eta komunikazioaren teknologiak. • Forma gramatikalen erabilera eta esanahiari buruzko analisia eta gogoeta, ezagutzen diren hizkuntzekin konparaketa eta kontrastea eginenez. • Norberaren ikaskuntzaren ebaluazioan parte hartzea eta autozuzenketako estrategiak erabiltzea. • Norberaren lana antolatzea (ikaskuntzari buruzko egunerokoa, agenda, dossierra, kontroleko erregistroa) ikaskuntzan aurrera egiteko estrategia gisa; helburuak ezarri eta haiek lortzeko bitartekoak identifikatuko dira. • Ikasteko estilo pertsonala garatzea. • Gelako testuinguruan eta gelatik kanpo sorturiko ikasketa aukerez baliatzeko interesa. • Taldeko jarduera eta lanetan aktiboki parte hartzea. • Gauzak jendaurrean eta idatziz adierazteko konfiantza eta ekimena. • Norberaren hizkuntzaren erabilera hobetzeko gaitasunean konfiantza izatea. • Baloratzea norberaren hizkuntza ikasteko, antolatzeko eta ezagutzak transmititzeko tresna bat dela. 	<ul style="list-style-type: none"> • Lexikoa antolatu, barneratu, gogoratu eta erabiltzeko estrategiak aplikatzea; esate baterako, testuingurutik esanahiak inferitzea, hitzak formaren eta esanahiaren arabera erlazionatzea, hitzak eta kontzeptuak definitzea. • Beste hizkuntza batzuetan garatutako ikasketa estrategiak aplikatzea. • Ikasteko baliabideak antolatzea eta gero eta autonomia gehiagorekin erabiltzea; esate baterako, hiztegiak, kontsulta liburuak, liburutegiak edo baliabide digital eta informatikoak. • Forma gramatikalen erabilera eta esanahiari buruzko analisia eta gogoeta, ezagutzen diren hizkuntzekin konparaketa eta kontrastea eginenez. • Norberaren ikaskuntzaren ebaluazioan parte hartzea eta autozuzenketako estrategiak erabiltzea. • Norberaren lana antolatzea (ikaskuntzari buruzko egunerokoa, agenda, dossierra, kontroleko erregistroa) ikaskuntzan aurrera egiteko estrategia gisa; helburuak ezarri eta haiek lortzeko bitartekoak identifikatuko dira. • Ikasteko estilo pertsonala garatzea. • Gelako testuinguruan eta gelatik kanpo sorturiko ikasketa aukerez baliatzeko interesa. • Taldeko jarduera eta lanetan aktiboki parte hartzea. • Gauzak jendaurrean eta idatziz adierazteko konfiantza eta ekimena. • Norberaren hizkuntzaren erabilera hobetzeko gaitasunean konfiantza izatea. • Baloratzea norberaren hizkuntza ikasteko, antolatzeko eta ezagutzak transmititzeko tresna bat dela.

Ebaluazio irizpideak

1. multzoa. Entzutea eta ulertzea

DBH1	DBH2
<p>1. Aurrez aurreko edo ikus-entzunezkoen bidezko eguneroko gaien buruzko elkarrizketetan ideia orokorra eta ideia berariazkoenak ulertzea, poliki eta argitasunez hitz egiten denean.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek gaitasuna duten aurrez aurreko edo ikus-entzunezkoen bidezko elkarrizketetan funtsezkoena ulertzeko, nahiz eta testuak osorik ez ulertu. Helburua izanen da, funtsean, jarraibideen, iruzkinen, galdera eta erantzunen, elkarrizketa laburren, deskribapenen eta narrazio laburren esanahia identifikatzea.</p>	<p>1. Mintzakide baten edo komunikabideen eskutik heldu diren gai ezagunei buruzko ahozko mezuen ideia orokorra eta informazio berariazkoak ulertzea.</p> <p>Irizpide honekin baloratu nahi da ikasleek gaitasuna duten gai ezagunei buruzko aurkezpen laburretan eta elkarrizketetan ideia nagusia eta xehetasun berariazkoak ulertzeko. Halaber, neurtu nahi da ikasleen gaitasuna komunikabideetatik heldu diren eta ebakera estandarra duten ahozko testuen ideia orokorra ulertzeko.</p>

1. multzoa. Hitz egitea eta hizketan aritzea

DBH1	DBH2
<p>2. Ahoz komunikatzea, gai ezagunei edo alde zuzenetik landutakoei buruzko elkarrizketa eta simulazioetan parte hartuz; behar diren estrategiak erabiliko dira komunikazioaren jarraitutasuna errazteko, eta komunikazio asmoaren arabera diskurtso ulergarri eta egokia sortuko da.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek ahoz komunikatzeko duten gaitasuna, gai ezagunei buruzko elkarrizketetan, errealetan nahiz simulatuetan, parte hartuz. Funtsean honelakoak izanen dira: galderak egitea eta erantzutea, ideiak eta informazioa elkarrekin trukitzea, aurrerako moduko egoeretan gai ezagunei buruzko bizipenak kontatzea, komunikazioa bermatuko duten baliabide linguistikoak eta estrategiak erabiliz. Produkzioek akats lexiko, morfosintaktiko edo fonetiko batzuk edukitzen ahalko dituzte, komunikazioa zailtzen ez badute.</p>	<p>2. Orainaldiko, lehenaldiko eta geroaldiko ohiko egoerei buruzko elkarrizketa eta simulazioetan gero eta autonomia handiagoaz parte hartzea, komunikazioa lortzeko egitura errazak, gizarte harremanetarako adierazpide ohikoenak eta ebakera egokia erabiliko dira.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek norainoko gaitasuna duten ulermena eta adierazpena integratzea eskatzen duten egoera interaktiboetan jarduteko. Elkarrizketak bi motatako egoeretan gertatuko dira: ikasgelako ohikoak (informazioa eta argibideak eskatzea, baimena eskatzea, lan taldean jardutea eta abar) eta irakasleak sorturikoak (jokoak, simulazioak, rol jokoak, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien bidezko komunikazioa eta abar). Mezuak oraindik ere zalantzatiak izan daitezke, eta litekeena da akats morfosintaktikoak eta lexiko urria edukitzea, baina mezuak beti ulergarria izan beharko du.</p>

Oharrak

DBH3	DBH4
<p>1. Gai zehatz eta ezagunei buruzko ahozko testuetan eta ikus-entzunezko hedabideek argitasunez emititutako mezu errazetan informazio orokorra eta berariazkoa, ideia nagusia eta xehetasun muntadun batzuk ulertzea.</p> <p>Irizpide honek neurtuko du ikasleek zein gaitasun duten jarraibideak jarraitzeko, deiak, elkarrizketak edo aurkezpen laburrak, aurrez aurrekoak, jarraitzeko; betiere, gai ezagunei buruzkoak izanen dira: aisia eta denbora librea, preferentziak, bizipen pertsonalak, ikasgelaren antolaketa eta hizlariaren asmoa identifikatzen dutenak. Halaber, neurtu nahi da ikasleen gaitasuna komunikabideetatik heldu diren eta ebakera estandarra duten ahozko testuen ideia orokorra eta informazio zehatzak ulertzeko.</p>	<p>1. Gai zehatz eta ezagunei buruzko ahozko testuetan eta ikus-entzunezko hedabideek argitasunez emititutako mezu errazetan informazio orokorra eta berariazkoa, ideia nagusia eta xehetasun muntadun batzuk ulertzea.</p> <p>Irizpide honek neurtuko du ikasleek zein gaitasun duten jarraibideak jarraitzeko, deiak, elkarrizketak edo aurkezpen laburrak, aurrez aurrekoak, jarraitzeko; betiere, gai ezagunei buruzkoak izanen dira: aisia eta denbora librea, preferentziak, bizipen pertsonalak, ikasgelaren antolaketa eta hizlariaren asmoa identifikatzen dutenak. Halaber, neurtu nahi da ikasleen gaitasuna komunikabideetatik heldu diren eta ebakera estandarra duten ahozko testuen ideia orokorra eta informazio zehatzak ulertzeko.</p>

DBH3	DBH4
<p>2. Era askotako komunikazio asmoak dituzten ohiko edo interes pertsonaleko egoerei buruzko elkarrizketa eta simulazio laburretan parte hartzea, hizketaldiaren konbentzio propioak erabiliz eta elkarrekin-tzan zehar sorturiko zailtasunak ebazteko behar diren estrategiez baliatuz.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek gaitasuna duten hizketaldietan jarduteko, betiere ulertzeko eta ulertua izateko estrategia egokiak erabiliz, horrela gustuak, beharizanak edo sentimenduak adierazteko, informazioa emateko edo hartzeko, iritziak emateko eta bizipenak kontatzeko.</p> <p>Hizketaldietan zuzeneko erlazioa gertatuko da ikasgelako ohiko mintzakideekin, edo bestela aurrean atzerriko ikasleak dituztela ongi daki ten jatorrizko hiztunekin.</p> <p>Litekeena da komunikazioko elkartrukeetan oker batzuk gertatzea, baina oker horiek ez dute komunikazioa oztopatuko.</p>	<p>2. Era askotako komunikazio asmoak dituzten ohiko edo interes pertsonaleko egoerei buruzko elkarrizketa eta simulazio laburretan parte hartzea, hizketaldiaren konbentzio propioak erabiliz eta elkarrekin-tzan zehar sorturiko zailtasunak ebazteko behar diren estrategiez baliatuz.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek gaitasuna duten hizketaldietan jarduteko, betiere ulertzeko eta ulertua izateko estrategia egokiak erabiliz, horrela gustuak, beharizanak edo sentimenduak adierazteko, informazioa emateko edo hartzeko, iritziak emateko eta bizipenak kontatzeko.</p> <p>Hizketaldietan zuzeneko erlazioa gertatuko da ikasgelako ohiko mintzakideekin, edo bestela aurrean atzerriko ikasleak dituztela ongi daki ten jatorrizko hiztunekin.</p> <p>Litekeena da komunikazioko elkartrukeetan oker batzuk gertatzea, baina oker horiek ez dute komunikazioa oztopatuko.</p>

Oharrak

2. multzoa. Irakurtzea

DBH1	DBH2
<p>3. Ideia orokorra ezagutzea eta informazio berariazkoa ateratzea, ikusizko baliabideen laguntzarekin, gai ugari buruzko eta adinaren arabera egokituak idatzizko testuetatik; eta curriculumeko arlo batzuekin lotutako testuetatik.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek zenbateko gaitasuna duten era askotako testuak ulertzeko: jarraibideak, gutunak, deskribapen eta narrazio laburrak, mezuak, galdetegiak eta abar, irakurketarako oinarriko estrategiak aplikatuz; esate baterako, esanahiak testuinguruaren edo ikusizko elementuen arabera inferitzea edo ezagutzen diren hizkuntzekin aldatzea.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da, halaber, testuak irakurtzeko gaitasuna; testu horiek paperean nahiz euskarri digitalean egoten ahal dira, eta luze samarrak izanzen dira, eta ikasteko edo irakurketarekin gozatzeko irakurriko ditu ikasleak, hiztegiaren laguntza erabiliz, behar badiu. Baloratuko da, halaber, ozenki irakurritako testuak ulertzen diren, aurretik isilik irakurrita.</p>	<p>3. Idatzizko testuetatik informazio orokorra eta berariazkoa ulertzea; jatorrizko testuak nahiz egokituak izanzen dira, luzera desberdinetakoak, eta adinaren arabera egokituak. Testuak ulertu direla propio prestatutako lan baten bidez erakutsiko da.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek gaitasuna duten pertsonen arteko testu idatziak ulertzeko; esate baterako, gutunak, iragarkiak, era askotako liburuxkak, narrazioak, gazteentzako aldizkarietako artikulak, web orriak, abestien letrak eta abar. Irakurketarako estrategiak aplikatuko dira: esate baterako, esanahiak testuingurutik inferitzea, hitzak osatzeko arauak erabiltzea edo ezagutzen dituen hizkuntzetako edo curriculumeko beste arlo batzuetako ezagutzak transferitzea. Halaber, irizpide honekin testu luze samarrak, paperean nahiz euskarri digitalean, irakurtzeko gaitasuna ebaluatuko da, betiere hiztegi modu espontaneoan joz argudioaren bat ulertzea zail gertatzen denean, gako hitzen bat ezagutzen ez delako, eta testu horiek ulertzen direla erakutsiz lan linguistikoen eta ez-linguistikoen bitartez eta testuak ozenki irakurriz.</p>

2. multzoa. idaztea

DBH1	DBH2
<p>4. Testu laburrak idaztea, egitura, funtzio eta lexiko egokiak erabiliz, bai eta kohesioaren oinarriko elementuetako batzuk ere; eredueta-rik abiatuko da ikaslea, eta ortografiaren eta puntuazioaren oinarriko arauak errespetatuko ditu.</p> <p>Irizpide honekin, oharrak, deskribapenak, gutun arruntak edo elektronikokoak eta mezuak idazteko gaitasuna ebaluatu nahi da. Testuetan, maiz erabiltzen diren hitzak jasoko dira, perpaus bakunek eta oinarriko lokailuek osaturiko egitura elkartuak. Aurkezpen argi, txukun eta ordenatua ere baloratuko da, paperean nahiz euskarri digitalean izan.</p>	<p>4. Era askotako testuak modu gidatuan idaztea, egitura eta lokailu errazak eta lexiko egokia erabiliz, formaren alderdiak zainduz eta ortografiaren eta puntuazioaren funtsezko arauak errespetatuz, irakurleak testuak uler ditzan eta onartzeko moduko zuzentasuna izan dezaten.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek, eredueta-rik abiatuta, gauzak idatziz adierazteko duten gaitasuna, paperean nahiz euskarri digitalean irakurlearendako ulergarriak izan daitezten: gertaerei eta eguneroko eta ohiko jardueri buruzko deskribapenak, bizipen pertsonalei buruzko narrazioak, planak eta proiektuak, gutunak, postalak eta formularioak.</p> <p>Aurkezpen argi, txukun eta ordenatua ere baloratuko da, paperean nahiz euskarri digitalean izan.</p>

Oharrak

DBH3	DBH4
<p>3. Zabalera desberdineko jatorrizko testuetako eta testu egokituetao informazio orokorra eta datu garrantzitsu guztiak ulertzea, egitateak eta iritziak ezagutuz eta egilearen komunikazioa asmoa identifikatuz, kasua bada.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek gaitasuna duten gai orokorre buruzko edo curriculumeko beste arlo batzuekin lotutako idatzizko testuak ulertzeko (narrazioak, deskribapenak, argudiozko testuak), irakurketarako ezagutzen dituen estrategiak eta beste berri batzuk erabiliz; esate baterako, gaia identifikatzea elementu testualen eta paratualen bitartez.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da, halaber, ikasleek gaitasuna duten zabalera desberdineko liburuak, albisteak, jarraibideak, azalpenak eta abar irakurtzeko hainbat euskarritan eta xede desberdinekin: berariazko lan bat egiteko informazioa bildu edo komunikatzea, beste arlo batzuetako edukiak ikastea edo besterik gabe gozatzeko edo entretenitzeko. Baloratuko da, halaber, ozenki irakurtzen denean, erritmo eta intonazio egokiek, ikasleak ulertzen duen.</p>	<p>3. Zabalera desberdineko jatorrizko testuetako eta testu egokituetao informazio orokorra eta datu garrantzitsu guztiak ulertzea, egitateak eta iritziak ezagutuz eta egilearen komunikazioa asmoa identifikatuz, kasua bada.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek gaitasuna duten gai orokorre buruzko edo curriculumeko beste arlo batzuekin lotutako idatzizko testuak ulertzeko (narrazioak, deskribapenak, argudiozko testuak), irakurketarako ezagutzen dituen estrategiak eta beste berri batzuk erabiliz; esate baterako, gaia identifikatzea elementu testualen eta paratualen bitartez.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da, halaber, ikasleek gaitasuna duten zabalera desberdineko liburuak, albisteak, jarraibideak, azalpenak eta abar irakurtzeko hainbat euskarritan eta xede desberdinekin: berariazko lan bat egiteko informazioa bildu edo komunikatzea, beste arlo batzuetako edukiak ikastea edo besterik gabe gozatzeko edo entretenitzeko. Baloratuko da, halaber, ozenki irakurtzen denean, erritmo eta intonazio egokiek, ikasleak ulertzen duen.</p>

DBH3	DBH4
<p>4. Era askotako testuak modu gidatuan idaztea, lexikoa, egiturak eta kohesioko eta koherentziako elementu batzuk zainduz, ideien arteko erlazioak markatzeko eta testuak irakurlearendako ulergarriak izan daitezen.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatzen da ikasleek idatziz komunikatzeko duten gaitasuna; ikasleak zirriborroak egiten eta berrikusten eta erregistro egokia hautatzen hasiko dira. Testuek sintaxi soil eta ulerterraza izanen dute, eta lexiko mugatua baina testuingururako egokia; ortografia eta puntuazioa zuzenak izanen dira. Testuek lotura izanen dute komunikazio behar ohikoenekin eta komunikazio asmo desberdinekin. Idazki guztietan, orobat, aurkezpen argi, txukun eta ordenatua ebaluatuko da, bai eta testuak lantzeko eta aurkezteko baliabide informatikoak erabiltzeko trebetasuna ere.</p>	<p>4. Era askotako testuak modu gidatuan idaztea, lexikoa, egiturak eta kohesioko eta koherentziako elementu batzuk zainduz, ideien arteko erlazioak markatzeko eta testuak irakurlearendako ulergarriak izan daitezen.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatzen da ikasleek idatziz komunikatzeko duten gaitasuna; ikasleak zirriborroak egiten eta berrikusten eta erregistro egokia hautatzen hasiko dira. Testuek sintaxi soil eta ulerterraza izanen dute, eta lexiko mugatua baina testuingururako egokia; ortografia eta puntuazioa zuzenak izanen dira. Testuek lotura izanen dute komunikazio behar ohikoenekin eta komunikazio asmo desberdinekin. Idazki guztietan, orobat, aurkezpen argi, txukun eta ordenatua ebaluatuko da, bai eta testuak lantzeko eta aurkezteko baliabide informatikoak erabiltzeko trebetasuna ere.</p>

Oharrak

3. multzoa. Alderdi soziokulturalak eta kulturarteko kontzientzia

DBH1	DBH2
<p>5. Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialde eta kulturetako elementu kultural edo geografiko batzuk identifikatzea, eta haiek ezagutzeko interesa erakustea.</p> <p>Irizpide honekin egiaztatu nahi da ikasleek atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeetako testuinguru soziokultural eta geografikoko ezaugarri garrantzitsuenetako batzuk ezagutzen dituzten, eta interesgarri zaizkien eta aintzat hartzen dituzten beraienaz besteko kultur ohi-turak, eta errespetuzko jarrera duten beste herrialdeetako balore eta jokabideekiko.</p>	<p>5. Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeetako alderdi sozial, kultural, historiko, geografiko edo literario batzuk identifikatu eta haien adibideak ematea, eta haiek ezagutzeko interesa erakustea.</p> <p>Irizpide honek ebaluatzen du ikasleek atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeetako gizartearen, kulturaren, historiaren, geografiaren eta literaturaren ezaugarri garrantzitsuenak eta bereizgarrienak ezagutzen dituzten. Halaber, ebaluatuko da ikasleek errespetua erakusten duten beste herri batzuen balore eta jokabideekiko, horrekin estereotipo batzuk gaindituz.</p>

4. multzoa. Hizkuntzaren ezaguera

DBH1	DBH2
<p>6. Atzerriko hizkuntzaren kodearen alderdi formal batzuen ezagutza erabiltzea (morfologia, sintaxia eta fonologia) komunikazioaren testuinguru desberdinetan, autoikaskuntzarako eta autozuzenketarako tresna gisa norberaren produkzioetan, eta gainerakoien produkzioak hobeki ulertzeko.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatuko da ikasleak gai diren sistema linguistikoari buruz dauzkaten ezagutzak aplikatzeko, hizkuntzaren soinu, erritmo, intonazio eta antolaketa alderdiak erabiltzean jarduera desberdinetan, eta gogoeta egiteko beren produkzioak eta gainerakoien produkzioak ulertzea ahalbidetzen duen zuzentasun formalaren beharraz.</p>	<p>6. Atzerriko hizkuntzaren sistema linguistikoari buruz barneratutako ezagutzak erabiltzea, komunikazioaren testuinguru desberdinetan, autoikaskuntzarako eta autozuzenketarako tresna gisa norberaren ahozko eta idatzizko produkzioetan, eta gainerakoien produkzioak ulertzeko.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek gaitasuna duten sistema linguistikoari buruz dituzten ezagutzak aplikatzeko eta beren produkzioak eta besteak ulertzea ahalbidetzen duen zuzentasun formalaren beharri buruz gogoeta egiteko.</p>

Oharrak

DBH3	DBH4
<p>5. Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeetako alderdi kultural garrantzitsuenak identifikatzea, ikasten den hizkuntzaren gizar-teak dauzkan ohitura, arau, jarrera eta baloreetako ezaugarri aipagarrienak seinalatzea, eta norberarenaz besteko patroikulturalak positiboki baloratzea.</p> <p>Irizpide honekin egiaztatuko da ikasleak gai ote diren ahozko eta idatzizko testuetan identifikatzeko atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeetako kultura orokorraren ezaugarri aipagarri eta bereizgarriak, haiek modu argi eta errazean deskribatzeko gauza diren, eta beste herrialdeetako balore eta jokabideekiko errespetua erakusten duten, horrekin estereotipo batzuk gaindituz.</p>	<p>5. Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeetako alderdi kultural garrantzitsuenak identifikatzea, ikasten den hizkuntzaren gizar-teak dauzkan ohitura, arau, jarrera eta baloreetako ezaugarri aipagarrienak seinalatzea, eta norberarenaz besteko patroikulturalak positiboki baloratzea.</p> <p>Irizpide honekin egiaztatuko da ikasleak gai ote diren ahozko eta idatzizko testuetan identifikatzeko atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeetako kultura orokorraren ezaugarri aipagarri eta bereizgarriak, haiek modu argi eta errazean deskribatzeko gauza diren, eta beste herrialdeetako balore eta jokabideekiko errespetua erakusten duten, horrekin estereotipo batzuk gaindituz.</p>

DBH3	DBH4
<p>6. Komunikazio testuinguru desberdinetan, modu kontzientean, atzerriko hizkuntzaren sistema linguistikoari buruz barneratutako ezagutzak erabiltzea, autozuzenketarako eta autoebaluaziorako tresna gisa norberaren ahozko eta idatzizko produkzioetan, eta gainerrakoen produkzioak ulertzeko.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek gaitasuna duten sistema linguistikoari buruz dituzten ezagutzak gero eta autonomia handiagoarekin aplikatzeko eta beren produkzioak eta besteak ulertzea ahalbidetzen duen zuzentasun formalaren beharrari buruz gogoeta egiteko.</p>	<p>6. Komunikazio testuinguru desberdinetan, modu kontzientean, atzerriko hizkuntzaren sistema linguistikoari buruz barneratutako ezagutzak erabiltzea, autozuzenketarako eta autoebaluaziorako tresna gisa norberaren ahozko eta idatzizko produkzioetan, eta gainerrakoen produkzioak ulertzeko.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek gaitasuna duten sistema linguistikoari buruz dituzten ezagutzak gero eta autonomia handiagoarekin aplikatzeko eta beren produkzioak eta besteak ulertzea ahalbidetzen duen zuzentasun formalaren beharrari buruz gogoeta egiteko.</p>

Oharrak

5. multzoa. Hizkuntzaren ikaskuntzari buruzko gogoeta

DBH1	DBH2
<p>7. Ikaskuntzan aurrera egiteko erabilitako estrategia batzuk identifikatu eta haien adibideak jartzea.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek ikaskuntza prozesua errazten duten oinarrizko estrategiak erabiltzen dituzten; esate baterako, aurrerapenak baloratzen joateko gaitasuna, gehiago eta hobeki ikaste-ko prozesuaren atal gisa; lexikoa bildu, buruz ikasi eta berrikusteko moduak erabiltzea; hiztegia zuzen erabiltzea testuinguruaren arabera adiera egokia identifikatzeko; baliabide bibliografikoak, informatikoak eta digitalak erabiltzea informazioa biltzeko, gelan landutako alderdiak zabaldu edo berrikusteko eta abarretarako.</p>	<p>7. Ikaskuntzan aurrera egiteko erabilitako oinarrizko estrategia batzuk identifikatu eta ahoz azaltzea.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasteko prozesua errazten duten strategiak erabiltzen ote diren: esate baterako, beren aurrerapenak baloratzeko gaitasuna, ikaskuntzari buruz gogoeta egitea; lexikoa bildu, buruz ikasi eta berrikusteko modu desberdinak erabiltzea; hiztegia zuzen erabiltzea testuinguruaren arabera adiera identifikatzeko; baliabide bibliografikoak, informatikoak eta digitalak erabiltzea informazioa biltzeko, ikasgelan landutako alderdi batzuk zabaltzeko edo berrikusteko; norberaren ikaskuntzaren ebaluazioan parte hartzea, eta autozuzenketarako mekanismo batzuk erabiltzea.</p>
<p>8. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu gidatuan erabiltzea mezuak ereduetatik abiatuz sortzeko eta harreman pertsonalak ezartzeko; teknologia horien erabilera dela-eta interesa erakustea.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatuko da informazioaren eta komunikazioaren teknologiak komunikaziorako eta ikasketarako tresna gisa erabiltzeko gaitasuna, betiere gelako ohiko jardueretan eta harreman pertsonalak ezartzeko. Ezartzen diren komunikazioak aldez aurretik landutako lan ezagunei buruzkoak izanen dira, eta ereduakin egingen dira. Kontuan hartuko da, halaber, ikasleek aniztasun linguistikoa baloratzen ote duten elementu aberasgarri gisa, eta atzerriko hizkuntza dela-eta hura erabiltzeko daukaten jarrera.</p>	<p>8. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu gidatuan erabiltzea testuak ereduetatik abiatuz sortzeko eta harreman pertsonalak ezartzeko; teknologia horien erabilera dela-eta interesa erakustea.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatuko da informazioaren eta komunikazioaren teknologiak komunikaziorako eta ikasketarako tresna gisa erabiltzeko gaitasuna, betiere gelako ohiko jardueretan eta harreman pertsonalak ezartzeko. Ezartzen diren komunikazioak lehendik landutako lan ezagunei buruzkoak izanen dira. Kontuan hartuko da, halaber, ikasleek aniztasun linguistikoa baloratzen ote duten elementu aberasgarri gisa, eta atzerriko hizkuntza dela-eta hura erabiltzeko daukaten jarrera.</p>

Oharrak

DBH3	DBH4
<p>7. Ikaskuntzan aurrera egiteko erabilitako estrategiak identifikatu eta ahoz azaltzea.</p> <p>Irizpide honek ebaluatu nahi du ikasleek ikasteko prozesua errazten duten estrategiak erabiltzen dituzten; esate baterako, aurrerapenak baloratzea, ikaskuntzari buruz gogoeta egitea; lexikoa bildu, buruz ikasi eta berrikusteko estrategia desberdinak erabiltzea; hiztegiak eta baliabide bibliografiko, informatiko eta digitalak gero eta autonomia handiagoarekin erabiltzea; forma gramatikalen erabilera eta esanahia aztertu eta haiei buruz gogoeta egitea, ezagutzen dituen beste hizkuntza batzuekin konparatuz eta alderatuz; ikasteko aukerez kontzienteki baliatzea ikasgelan eta ikasgelatik kanpo, edo autozuzenketarako mekanismoak erabiltzea.</p>	<p>7. Ikaskuntzan aurrera egiteko erabilitako estrategiak identifikatu eta ahoz azaltzea.</p> <p>Irizpide honek ebaluatu nahi du ikasleek ikasteko prozesua errazten duten estrategiak erabiltzen dituzten; esate baterako, aurrerapenak baloratzea, ikaskuntzari buruz gogoeta egitea; lexikoa bildu, buruz ikasi eta berrikusteko estrategia desberdinak erabiltzea; hiztegiak eta baliabide bibliografiko, informatiko eta digitalak gero eta autonomia handiagoarekin erabiltzea; forma gramatikalen erabilera eta esanahia aztertu eta haiei buruz gogoeta egitea, ezagutzen dituen beste hizkuntza batzuekin konparatuz eta alderatuz; ikasteko aukerez kontzienteki baliatzea ikasgelan eta ikasgelatik kanpo, edo autozuzenketarako mekanismoak erabiltzea.</p>
<p>8. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak gero eta autonomia handiagoarekin erabiltzea, informazioa bilatzeko, ereduetatik abiatuz testuak sortzeko, posta elektronikoko mezuak bidali eta jasotzeko, eta ahozko eta idatzizko harreman pertsonalak ezartzeko, teknologia horien erabilera dela-eta interesa erakutsiz.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatuko da informazioaren eta komunikazioaren teknologiak komunikaziorako eta ikasketarako tresna gisa erabiltzeko gaitasuna, betiere gelako ohiko jardueretan eta harreman pertsonalak ezartzeko, ahoz nahiz idatziz. Ezartzen diren komunikazioak lehenik landutako lan ezagunei buruzkoak izanen dira. Kontuan hartuko da, halaber, ikasleek aniztasun linguistikoa baloratzen ote duten elementu aberasgarri gisa, eta atzerriko hizkuntza dela-eta hura erabiltzeko daukaten jarrera.</p>	<p>8. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak gero eta autonomia handiagoarekin erabiltzea, informazioa bilatzeko, ereduetatik abiatuz testuak sortzeko, posta elektronikoko mezuak bidali eta jasotzeko, eta ahozko eta idatzizko harreman pertsonalak ezartzeko, teknologia horien erabilera dela-eta interesa erakutsiz.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatuko da informazioaren eta komunikazioaren teknologiak komunikaziorako eta ikasketarako tresna gisa erabiltzeko gaitasuna, betiere gelako ohiko jardueretan eta harreman pertsonalak ezartzeko, ahoz nahiz idatziz. Ezartzen diren komunikazioak lehenik landutako lan ezagunei buruzkoak izanen dira. Kontuan hartuko da, halaber, ikasleek aniztasun linguistikoa baloratzen ote duten elementu aberasgarri gisa, eta atzerriko hizkuntza dela-eta hura erabiltzeko daukaten jarrera.</p>

<p>Oharrak</p>

Bigarren atzerriko hizkuntza: Alemana (L3)

Sarreran esaten den bezala, hirugarren hizkuntzen (L3) kasuan, antzeko helburu eta metodologiak erabiliko dira, lan sistema bertsua izanen da eta ebaluazio irizpideak ere parekoak izanen dira. Hala eta guztiz ere, haie-tan lan errazagoak egingen dira eta lortu beharreko emaitzak ere apalagoak izanen dira, funtsean curriculumean ordu gutxiago erabiliko direlako. Hizkuntza edukiak berariazkoak dira, eta bigarren hizkuntzarako (L2) ezarri-takoetatik abiatuz diseinatu dira.

Helburuak.

Eta honetan, atzerriko hizkuntza irakasgaiaren irakaskuntzak honako gaitasunak garatzea izanen du hel-buru:

1. Ahozko testu argietako eta hizkuntza estandarra erabiltzen den komunikazio egoera desberdinetako infor-mazio orokorra eta berariazkoa entzun eta ulertzea, errespetuzko eta lankidetzazko jarrera hartuz.
2. Ahoz hitz egitea eta elkarreraginean jardutea komunikazioko ohiko egoeretan, modu ulergarri eta egokian eta autonomia handi samarrarekin: esperientziak, gertaerak, desioak eta asmoak deskribatzea, eta iritziak laburki justifikatzea edo planak azaltzea.
3. Ikasleen gaitasunetarako eta interesetarako egokia den maila bateko idatzizko testu mota desberdinak uler-tzea, informazio orokorra eta berariazkoa ateratzeko, eta irakurketa gozamenerako eta norberaren abe-rastasunerako iturri gisa erabiltzea.
4. Testu errazak idaztea helburu desberdinekin, era askotako gai ezagunei edo interes pertsonaleko gaiei buruz, kohesioa eta koherentzia lortzeko behar diren baliabideak erabiliz.
5. Hizkuntzaren oinarriko elementuak -esate baterako, fonetika, lexikoa, egiturak eta funtzioak- modu go-goetatsuan eta zuzentasunez erabiltzea, komunikazioaren testuinguru errealetan.
6. Ikasteko estrategiak eta eskura dauden bide guztiak (liburutegiak, informazioaren eta komunikazioaren te-knologiak eta abar) erabiltzea ahozko eta idatzizko informazioa lortu, hautatu eta aurkezteko.
7. Hizkuntza aintzat hartzea informazioa eskuratzeko tresna gisa eta era guztietako edukiak ikasteko erre-minta gisa, eta ikasleak elkarreraginean jarduten dueneko erkidegoko hizkuntza gisa.
8. Hizkuntza baloratzea, jatorri, hizkuntza eta kultura desberdinetako pertsonen arteko komunikazioa eta elkar ulertzea bideratzeko, era guztietako bazterkeriak eta estereotipo linguistikoak saihestuz.
9. Norberaren ikasteko prozesuei buruz gogoeta egitea eta beste hizkuntza batzuetan barneraturiko komu-nikazio ezagutza eta estrategiak kasuko hizkuntza ikasteko transferitzea.
10. Atzerriko hizkuntzaren dimentsio soziokulturala ezagutu eta lantzea.

Edukiak

1. multzoa. Komunikatzeko trebetasunak: Entzutea eta ulertzea, hitz egitea eta hizketan aritzea

Ziklo bakoitzerako proposatzen den testu tipologiak eskatzen du aldez aurretik dedikazio sakonagoa eta jarraituagoa –L1ean lanari jarraipena emanen zaio– izatea aipatu testu motak lantzeko.

DBH1	DBH2
<ul style="list-style-type: none"> Ikasgelako jarduerekin lotura duten elkarrizketa eta azalpen laburrak entzun eta ulertzea: jarraibideak, galdera, iruzkinak, deskribapenak eta narrazio laburrak. Entzuten denaren eduki orokorra iragartzea, hitzeko eta hitzez besteko elementuen laguntzarekin. Ahozko testuetan eguneroko gaiak eta iragartzeko modukoak diren gaiak buruzko berariazko informazioa lortzea. zenbakiak, prezioak, ordutegiak, izenak edo lekuak, euskarri desberdinetan aurkeztuak. Ahozko mezuak ulertzeko oinarriko estrategiak: hitzeko eta hitzez besteko testuingurua eta egoerari buruzko aldez aurreko ezagutzak erabiltzea. 	<ul style="list-style-type: none"> Ziklo bakoitzerako proposatzen den testu tipologiak eskatzen du aldez aurretik dedikazio sakonagoa eta jarraituagoa –L1ean lanari jarraipena emanen zaio– izatea aipatu testu motak lantzeko. Ikasgelako ohiko jarduerari buruz azaldutako ahozko mezuak entzun eta ulertzea. Eguneroko gaiak eta era askotako komunikabideetatik heldu eta iragartzeko modukoak diren gaiak buruzko elkarrizketetan eta ahozko testuetan informazio orokorra eta berariazkoa lortzea, hitzeko eta hitzez besteko elementuen laguntzarekin.
<ul style="list-style-type: none"> Ahozko testu laburrak sortzea, egitura logiko batekin eta arauaren arabera izan nahi duen ebakerekin, betiere eskema baten edo aldez aurretik prestatutako materialen laguntzarekin. Besteekin ahoz komunikatzea, egitura nahikoa errazekin, eguneroko bizitzako gaietatik hurbil dauden alderdiei buruz: kirolak, aisia, zale-tasunak, bidaiak musika, harreman pertsonalak ... Elkarrizketa labur eta kontrolatuetan parte hartzea ikasgelan bertan, bai eta norberaren bizipen eta interesekin loturiko egoeren simulazioetan ere. Irakasleak eta ikasleek ikasgelako jardueretan eskatutako informazioetarako egokiak diren erantzunak erabiltzea. Komunikazioan etenak gainditzeko estrategiak garatzea, hitzeko eta hitzez besteko elementuak erabiliz gauzak ahoz adierazteko, bikoteka edo taldeka eginiko jardueretan. 	<ul style="list-style-type: none"> Ahozko mezuak ulertzeko estrategiak: hitzeko eta hitzez besteko testuingurua eta egoerari buruzko aldez aurreko ezagutzak erabiltzea, gako hitzak identifikatzea. Ahozko testu labur eta koherenteak sortzea norberaren intereseko gaiak buruz, ebakera egokiarekin. Ikasgela barruko elkarrizketetan eta simulazioetan bikoteka eta taldeka parte hartzea, modu erdi kontrolatuan, komunikazioa lortzeko behar den ebakera eta intonazioa erabiliz. Ikasgela barruko komunikazio egoeretan erantzun egokiak lortzea. Komunikazioko etenak gainditzeko estrategiak garatzea, hitzez besteko elementuak erabiliz eta hitzeko elementuez gero eta gehiago baliatuz.
<p>Testuak</p> <ul style="list-style-type: none"> Deskribapenak: lekuak, gauzak, pertsonak. Narrazio testuak: eguneroko bizipenak. Elkarrizketak: bizipen eta interes pertsonalekin lotutakoak. 	<p>Testuak</p> <ul style="list-style-type: none"> Publizitate testuak. Argudiozko testuak (elkarrizketa). Narrazio testuak (albistea, kronika, narrazioa).

DBH3	DBH4
<ul style="list-style-type: none"> • Testuinguru erreala eta simulatuetan jarraibideak ulertzea. • Gai zehatz eta ezagunei buruzko aurreko mezuetatik informazio orokorra eta berariazkoa entzutea eta ulertzea. • Ikus-entzunezkoek emandako mezu errazak entzun eta ulertzea; mezu oso hautatuak edo egokituak izanzen dira. • Ahozko mezuak ulertzeko estrategiak: hitzeko eta hitzez besteko testuingurua eta egoerari buruzko aldeko aurreko ezagutzak erabiltzea; gako hitzak identifikatzea; hitz egiten duenaren asmoa identifikatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Ziklo bakoitzerako proposatzen den testu tipologiak eskatzen du aldeko aurretik dedikazio sakonagoa eta jarraituagoa -L1ean lanari jarraipena emanen zaio- izatea aipatu testu motak lantzeko. • Gai ezagunei buruzko hizketaldi errazen, argitasunez eta modu antolatuan emandakoen, esanahi orokorra eta berariazkoa ulertzea. • Informazio pertsonala ulertzea, modu espontaneoan elkarreaginean jarduteko. • Ikus-entzunezko hedabideek hizkuntza argi eta soilean emititutako programak oro har ulertzea, eta haien datu garrantzitsuenak ere ulertzea. • Ahozko mezuak ulertzeko estrategiak: hitzeko eta hitzez besteko testuingurua eta egoerari buruzko aldeko aurreko ezagutzak erabiltzea; gako hitzak identifikatzea; hitz egiten duenaren jarrera eta asmoa identifikatzea.
<ul style="list-style-type: none"> • Bizipen eta gertaerei buruzko deskribapenak eta narrazio laburrak ahoz ematea. • Komunikazio helburu desberdinak dituzten eguneroko eta norberaren intereseko gaien buruzko elkarrizketa eta simulaziotan parte hartzea. • Ikasgela barruko komunikazio egoeretan erantzun espontaneoak ematea. • Elkarrizketaren konbentzio ohikoenak eta propioak gero eta autonomia handiagoarekin erabiltzea, komunikazio lan simulatuetan. • Elkarreraginean sorturiko zailtasunak gainditzeko komunikazio estrategiak gero eta autonomia handiagoarekin erabiltzea. • Komunikazio estrategiak erabiltzea komunikazioan gertatzen diren etenak gainditzeko eta komunikazioko elkartrukeei hasiera eta amaiera emateko. 	<ul style="list-style-type: none"> • Bizipen eta gertaerei buruzko deskribapenak eta narrazio laburrak ahoz ematea. • Komunikazio helburu desberdinak dituzten eguneroko eta norberaren intereseko gaien buruzko elkarrizketa eta simulaziotan aktiboki parte hartzea. • Ikasgela barruko komunikazio egoeretan erantzun espontaneo eta zehatzak erabiltzea. • Elkarrizketaren berezko konbentzioak erabiltzea, jarduera simulatuetan. • Komunikatzeko estrategiak autonomiaz erabiltzea, elkarreaginari hasiera emateko, eusteko eta amaiera emateko.
<p>Testuak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Narrazio testuak: kazetaritzakoak (erreportajea, elkarrizketak, albistei buruzko artikulak). • Azalpen testuak (definizioa, azalpena, laburpena) 	<p>Testuak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Iruzkin txikiak egitea, arrazoiak eta ikuspuntuak ematea. • Azalpen testuak (azalpena, definizioa). • Jarraibideak emateko testuak (arauak, jarraibideak).

DBH1	DBH2
<p>3. Ideia orokorra ezagutzea eta informazio berariazkoa ateratzea, ikusizko baliabideen laguntzarekin, gai ugariri buruzko eta adinaren arabera egokitutako idatzizko testuetatik; eta curriculumeko arlo batzuekin lotutako testuetatik.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek zenbateko gaitasuna duten era askotako testuak ulertzeko: jarraibideak, gutunak, deskribapen eta narrazio laburrak, mezuak, galdetegiak eta abar, irakurketarako oinarritzko estrategiak aplikatuz; esate baterako, esanahiak testuinguruaren edo ikusizko elementuen arabera inferitzea edo ezagutzen diren hizkuntzeekin alderatzea.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da, halaber, testuak irakurtzeko gaitasuna; testu horiek paperean nahiz euskarri digitalean egoten ahal dira, eta luze samarrak izanen dira, eta ikasteko edo irakurketarekin gozatzeko irakurriko ditu ikasleak, hiztegiaren laguntza erabiliz, behar badiu. Baloratuko da, halaber, ozenki irakurritako testuak ulertzen diren, aurretik isilik irakurrita.</p>	<p>3. Idatzizko testuetatik informazio orokorra eta berariazkoa ulertzea; jatorrizko testuak nahiz egokituak izanen dira, luzera desberdinetakoak, eta adinaren arabera egokituak. Testuak ulertu direla propio prestatutako lan baten bidez erakutsiko da.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek gaitasuna duten pertsonen arteko testu idatziak ulertzeko; esate baterako, gutunak, iragarkiak, era askotako liburuxkak, narrazioak, gazteentzako aldizkarietako artikulak, web orriak, abestien letrak eta abar. Irakurketarako estrategiak aplikatuko dira: esate baterako, esanahiak testuingurutik inferitzea, hitzak osatzeko arauak erabiltzea edo ezagutzen dituen hizkuntzetako edo curriculumeko beste arlo batzuetako ezagutzak transferitzea. Halaber, irizpide honekin testu luze samarrak, paperean nahiz euskarri digitalean, irakurtzeko gaitasuna ebaluatuko da, betiere hiztegiara modu espontaneoan joz argudioaren bat ulertzea zail gertatzen denean, gako hitzen bat ezagutzen ez delako, eta testu horiek ulertzen direla erakutsiz lan linguistikoen eta ez-linguistikoen bitartez eta testuak ozenki irakurriz.</p>

2. multzoa. idaztea

DBH1	DBH2
<p>4. Testu laburrak idaztea, egitura, funtzio eta lexiko egokiak erabiliz, bai eta kohesioaren oinarritzko elementuetako batzuk ere; eredueta- tik abiatuko da ikaslea, eta ortografiaren eta puntuazioaren oinarritzko arauak errespetatuko ditu.</p> <p>Irizpide honekin oharrak, deskribapenak, gutun arruntak edo elektronikokoak eta mezuak oinarritzko moduan bada ere idazteko gaitasuna ebaluatu nahi da. Testuetan, maiz erabiltzen diren hitzak jasoko dira, perpaus bakunek eta oinarritzko lokailuek osaturiko egitura elkartuak. Aurkezpen argi, txukun eta ordenatua ere baloratuko da, paperean nahiz euskarri digitalean.</p>	<p>4. Era askotako testuak modu gidatuan idaztea, egitura eta lokailu errazak eta lexiko egokia erabiliz, formaren alderdiak zainduz eta ortografiaren eta puntuazioaren funtsezko arauak errespetatuz, irakurleak testuak uler ditzan eta onartzeko moduko zuzentasuna izan dezaten.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek, eredueta- tik abiatuta, gauzak idatziz adierazteko duten gaitasuna, paperean nahiz euskarri digitalean irakurlearendako ulergarriak izan daitezkeen: gertaerei eta eguneroko eta ohiko jardueri buruzko deskribapenak, bizipen pertsonalei buruzko narrazioak, planak eta proiektuak, gutunak, postalak eta formularioak.</p> <p>Aurkezpen argi, txukun eta ordenatua ere baloratuko da, paperean nahiz euskarri digitalean.</p>

Oharrak

DBH3	DBH4
<p>3. Zabalera desberdineko jatorrizko testuetako eta testu egokituetao informazio orokorra eta datu garrantzitsu guztiak ulertzea, egitateak eta iritziak ezagutuz eta egilearen komunikazioa asmoa identifikatuz, kasua bada.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek gaitasuna duten gai orokorre buruzko edo curriculumeko beste arlo batzuekin lotutako idatzizko testuak ulertzeko (narrazioak, deskribapenak, argudiozko testuak), irakurketarako ezagutzen dituen estrategiak eta beste berri batzuk erabiliz; esate baterako, gaia identifikatzea elementu testualen eta paratustualen bitartez.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da, halaber, ikasleek gaitasuna duten zabalera desberdineko liburuak, albisteak, jarraibideak, azalpenak eta abar irakurtzeko hainbat euskarritan eta xede desberdinekin: berariazko lan bat egiteko informazioa bildu edo komunikatzea, beste arlo batzuetako edukiak ikastea edo besterik gabe gozatzeko edo entretenitzeko. Baloratuko da, halaber, ozenki irakurtzen denean, erritmo eta intonazio egokiek, ikasleak ulertzen duen.</p>	<p>3. Zabalera desberdineko jatorrizko testuetako eta testu egokituetao informazio orokorra eta datu garrantzitsu guztiak ulertzea, egitateak eta iritziak ezagutuz eta egilearen komunikazioa asmoa identifikatuz, kasua bada.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek gaitasuna duten gai orokorre buruzko edo curriculumeko beste arlo batzuekin lotutako idatzizko testuak ulertzeko (narrazioak, deskribapenak, argudiozko testuak), irakurketarako ezagutzen dituen estrategiak eta beste berri batzuk erabiliz; esate baterako, gaia identifikatzea elementu testualen eta paratustualen bitartez.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da, halaber, ikasleek gaitasuna duten zabalera desberdineko liburuak, albisteak, jarraibideak, azalpenak eta abar irakurtzeko hainbat euskarritan eta xede desberdinekin: berariazko lan bat egiteko informazioa bildu edo komunikatzea, beste arlo batzuetako edukiak ikastea edo besterik gabe gozatzeko edo entretenitzeko. Baloratuko da, halaber, ozenki irakurtzen denean, erritmo eta intonazio egokiek, ikasleak ulertzen duen.</p>

DBH3	DBH4
<p>4. Era askotako testuak modu gidatuan idaztea, lexikoa, egiturak eta kohesioko eta koherentziako elementu batzuk zainduz, ideien arteko erlazioak markatzeko eta testuak irakurlearendako ulergarriak izan daitezen.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatzen da ikasleek idatziz komunikatzeko duten gaitasuna; ikasleak zirriborroak egiten eta berrikusten eta erregistro egokia hautatzen hasiko dira. Testuek sintaxi soil eta ulerterraza izanen dute, eta lexiko mugatua baina testuingururako egokia; ortografia eta puntuazioa zuzenak izanen dira. Testuek lotura izanen dute komunikazio behar ohikoenekin eta komunikazio asmo desberdinekin. Idazki guztietan, orobat, aurkezpen argi, txukun eta ordenatua ebaluatuko da, bai eta testuak lantzeko eta aurkezteko baliabide informatikoak erabiltzeko trebetasuna ere.</p>	<p>4. Era askotako testuak modu gidatuan idaztea, lexikoa, egiturak eta kohesioko eta koherentziako elementu batzuk zainduz, ideien arteko erlazioak markatzeko eta testuak irakurlearendako ulergarriak izan daitezen.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatzen da ikasleek idatziz komunikatzeko duten gaitasuna; ikasleak zirriborroak egiten eta berrikusten eta erregistro egokia hautatzen hasiko dira. Testuek sintaxi soil eta ulerterraza izanen dute, eta lexiko mugatua baina testuingururako egokia; ortografia eta puntuazioa zuzenak izanen dira. Testuek lotura izanen dute komunikazio behar ohikoenekin eta komunikazio asmo desberdinekin. Idazki guztietan, orobat, aurkezpen argi, txukun eta ordenatua ebaluatuko da, bai eta testuak lantzeko eta aurkezteko baliabide informatikoak erabiltzeko trebetasuna ere.</p>

Oharrak

3. multzoa. Alderdi soziokulturalak eta kulturarteko kontzientzia (L2)

DBH1	DBH2
<p>5. Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialde eta kulturetako elementu kultural edo geografiko batzuk identifikatzea, eta haiek ezagutzeko interesa erakustea.</p> <p>Irizpide honekin egiaztatu nahi da ikasleek atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeetako testuinguru soziokultural eta geografikoko ezaugarri garrantzitsuenetako batzuk ezagutzen dituzten, eta interesgarri zaizkien eta aintzat hartzen dituzten beraienaz besteko kultur ohi-turak, eta errespetuzko jarrera duten beste herrialdeetako balore eta jokabideekiko.</p>	<p>5. Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeetako alderdi sozial, kultural, historiko, geografiko edo literario batzuk identifikatu eta haien adibideak ematea, eta haiek ezagutzeko interesa erakustea.</p> <p>Irizpide honek ebaluatzen du ikasleek atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeetako gizartearen, kulturaren, historiaren, geografiaren eta literaturaren ezaugarri garrantzitsuenak eta bereizgarrienak ezagutzen dituzten. Halaber, ebaluatuko da ikasleek errespetua erakusten duten beste herri batzuen balore eta jokabideekiko, horrekin estereotipo batzuk gaindituz.</p>

4. multzoa. Hizkuntzaren ezaguera

DBH1	DBH2
<p>6. Atzerriko hizkuntzaren kodearen alderdi formal batzuen ezagutza erabiltzea (morfologia, sintaxia eta fonologia) komunikazioaren testuinguru desberdinetan, autoikaskuntzarako eta autozuzenketarako tresna gisa norberaren produkzioetan, eta gainerakoien produkzioak hobeki ulertzeko.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatuko da ikasleak gai diren sistema linguistikoari buruz dauzkaten ezagutzak aplikatzeko, hizkuntzaren soinu, erritmo, intonazio eta antolaketa alderdiak erabiliz jarduera desberdinetan, eta gogoeta egiteko beren produkzioak eta gainerakoien produkzioak ulertzea ahalbidetzen duen zuzentasun formalaren beharraz.</p>	<p>6. Atzerriko hizkuntzaren sistema linguistikoari buruz barneratutako ezagutzak erabiltzea, komunikazioaren testuinguru desberdinetan, autoikaskuntzarako eta autozuzenketarako tresna gisa norberaren ahozko eta idatzizko produkzioetan, eta gainerakoien produkzioak ulertzeko.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek gaitasuna duten sistema linguistikoari buruz dituzten ezagutzak aplikatzeko eta beren produkzioak eta besteek ulertzea ahalbidetzen duen zuzentasun formalaren beharri buruz gogoeta egiteko.</p>

Oharrak

DBH3	DBH4
<p>5. Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeetako alderdi kultural garrantzitsuenak identifikatzea, ikasten den hizkuntzaren gizar-teak dauzkan ohitura, arau, jarrera eta baloreetako ezaugarri aipagarrienak seinalatzea, eta norberarenaz besteko patroi kulturalak positiboki baloratzea.</p> <p>Irizpide honekin egiaztatuko da ikasleak gai ote diren ahozko eta idatzizko testuetan identifikatzeko atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeetako kultura orokorraren ezaugarri aipagarri eta bereizgarriak, haiek modu argi eta errazean deskribatzeko gauza diren, eta beste herrialdeetako balore eta jokabideekiko errespetua erakusten duten, horrekin estereotipo batzuk gaindituz.</p>	<p>5. Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeetako alderdi kultural garrantzitsuenak identifikatzea, ikasten den hizkuntzaren gizar-teak dauzkan ohitura, arau, jarrera eta baloreetako ezaugarri aipagarrienak seinalatzea, eta norberarenaz besteko patroi kulturalak positiboki baloratzea.</p> <p>Irizpide honekin egiaztatuko da ikasleak gai ote diren ahozko eta idatzizko testuetan identifikatzeko atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeetako kultura orokorraren ezaugarri aipagarri eta bereizgarriak, haiek modu argi eta errazean deskribatzeko gauza diren, eta beste herrialdeetako balore eta jokabideekiko errespetua erakusten duten, horrekin estereotipo batzuk gaindituz.</p>

DBH3	DBH4
<p>6. Komunikazio testuinguru desberdinetan, modu kontzientean, atzerriko hizkuntzaren sistema linguistikoari buruz barneratutako ezagutzak erabiltzea, autozuzenketarako eta autoebaluaziorako tresna gisa norberaren ahozko eta idatzizko produkzioetan, eta gainerrakoen produkzioak ulertzeko.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek gaitasuna duten sistema linguistikoari buruz dituzten ezagutzak gero eta autonomia handiagoarekin aplikatzeko eta beren produkzioak eta besteak ulertzea ahalbidetzen duen zuzentasun formalaren beharrari buruz gogoeta egiteko.</p>	<p>6. Komunikazio testuinguru desberdinetan, modu kontzientean, atzerriko hizkuntzaren sistema linguistikoari buruz barneratutako ezagutzak erabiltzea, autozuzenketarako eta autoebaluaziorako tresna gisa norberaren ahozko eta idatzizko produkzioetan, eta gainerrakoen produkzioak ulertzeko.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek gaitasuna duten sistema linguistikoari buruz dituzten ezagutzak gero eta autonomia handiagoarekin aplikatzeko eta beren produkzioak eta besteak ulertzea ahalbidetzen duen zuzentasun formalaren beharrari buruz gogoeta egiteko.</p>

<p>Oharrak</p>

5. multzoa. Hizkuntzaren ikaskuntzari buruzko gogoeta

DBH1	DBH2
<p>7. Ikaskuntzan aurrera egiteko erabilitako estrategia batzuk identifikatu eta haien adibideak jartzea.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek ikaskuntza prozesua errazten duten oinarrizko estrategiak erabiltzen dituzten; esate baterako, aurrerapenak baloratzen joateko gaitasuna, gehiago eta hobeki ikasteko moduari buruzko gogoeta, akatsa barneratu eta onartzea ikasteko prozesuaren atal gisa; lexikoa bildu, buruz ikasi eta berrikusteko moduak erabiltzea; hiztegia zuzen erabiltzea testuinguruaren arabera adiera egokia identifikatzeko; baliabide bibliografikoak, informatikoak eta digitalak erabiltzea informazioa biltzeko, gelan landutako alderdiak zabaldu edo berrikusteko eta abarretarako.</p>	<p>7. Ikaskuntzan aurrera egiteko erabilitako oinarrizko estrategia batzuk identifikatu eta ahoz azaltzea.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasteko prozesua errazten duten strategiak erabiltzen ote diren: esate baterako, beren aurrerapenak baloratzeko gaitasuna, ikaskuntzari buruz gogoeta egitea; lexikoa bildu, buruz ikasi eta berrikusteko modu desberdinak erabiltzea; hiztegia zuzen erabiltzea testuinguruaren arabera adiera identifikatzeko; baliabide bibliografikoak, informatikoak eta digitalak erabiltzea informazioa biltzeko, ikasgelan landutako alderdi batzuk zabaltzeko edo berrikusteko; norberaren ikaskuntzaren ebaluazioan parte hartzea, eta autozuzenketarako mekanismo batzuk erabiltzea.</p>
<p>8. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu gidatuan erabiltzea mezuak ereduetatik abiatuz sortzeko eta harreman pertsonalak ezartzeko; teknologia horien erabilera dela-eta interesa erakustea.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatuko da informazioaren eta komunikazioaren teknologiak komunikaziorako eta ikaskuntzarako tresna gisa erabiltzeko gaitasuna, betiere gelako ohiko jardueretan eta harreman pertsonalak ezartzeko. Ezartzen diren komunikazioak alde zuzenetik landutako lan ezagunei buruzkoak izanen dira, eta ereduekin eginen dira. Kontuan hartuko da, halaber, ikasleek aniztasun linguistikoa baloratzen ote duten elementu aberasgarri gisa, eta atzerriko hizkuntza dela-eta hura erabiltzeko daukaten jarrera.</p>	<p>8. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu gidatuan erabiltzea testuak ereduetatik abiatuz sortzeko eta harreman pertsonalak ezartzeko; teknologia horien erabilera dela-eta interesa erakustea.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatuko da informazioaren eta komunikazioaren teknologiak komunikaziorako eta ikasketarako tresna gisa erabiltzeko gaitasuna, betiere gelako ohiko jardueretan eta harreman pertsonalak ezartzeko. Ezartzen diren komunikazioak lehendik landutako lan ezagunei buruzkoak izanen dira. Kontuan hartuko da, halaber, ikasleek aniztasun linguistikoa baloratzen ote duten elementu aberasgarri gisa, eta atzerriko hizkuntza dela-eta hura erabiltzeko daukaten jarrera.</p>

Oharrak

DBH3	DBH4
<p>7. Ikaskuntzan aurrera egiteko erabilitako estrategiak identifikatu eta ahoz azaltzea.</p> <p>Irizpide honek ebaluatu nahi du ikasleek ikasteko prozesua errazten duten estrategiak erabiltzen dituzten; esate baterako, aurrerapenak baloratzea, ikaskuntzari buruz gogoeta egitea; lexikoa bildu, buruz ikasi eta berrikusteko estrategia desberdinak erabiltzea; hiztegiak eta baliabide bibliografiko, informatiko eta digitalak gero eta autonomia handiagoarekin erabiltzea; forma gramatikalen erabilera eta esanahia aztertu eta haiei buruz gogoeta egitea, ezagutzen dituen beste hizkuntza batzuekin konparatuz eta alderatuz; ikasteko aukerez kontzienteki baliatzea ikasgelan eta ikasgelatik kanpo, edo autozuzenketarako mekanismoak erabiltzea.</p>	<p>7. Ikaskuntzan aurrera egiteko erabilitako estrategiak identifikatu eta ahoz azaltzea.</p> <p>Irizpide honek ebaluatu nahi du ikasleek ikasteko prozesua errazten duten estrategiak erabiltzen dituzten; esate baterako, aurrerapenak baloratzea, ikaskuntzari buruz gogoeta egitea; lexikoa bildu, buruz ikasi eta berrikusteko estrategia desberdinak erabiltzea; hiztegiak eta baliabide bibliografiko, informatiko eta digitalak gero eta autonomia handiagoarekin erabiltzea; forma gramatikalen erabilera eta esanahia aztertu eta haiei buruz gogoeta egitea, ezagutzen dituen beste hizkuntza batzuekin konparatuz eta alderatuz; ikasteko aukerez kontzienteki baliatzea ikasgelan eta ikasgelatik kanpo, edo autozuzenketarako mekanismoak erabiltzea.</p>
<p>8. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak gero eta autonomia handiagoarekin erabiltzea, informazioa bilatzeko, ereduetatik abiatuz testuak sortzeko, posta elektronikoko mezuak bidali eta jasotzeko, eta ahozko eta idatzizko harreman pertsonalak ezartzeko, teknologia horien erabilera dela-eta interesa erakutsiz.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatuko da informazioaren eta komunikazioaren teknologiak komunikaziorako eta ikasketarako tresna gisa erabiltzeko gaitasuna, betiere gelako ohiko jardueretan eta harreman pertsonalak ezartzeko, ahoz nahiz idatziz. Ezartzen diren komunikazioak lehenik landutako lan ezagunei buruzkoak izanen dira. Kontuan hartuko da, halaber, ikasleek aniztasun linguistikoa baloratzen ote duten elementu aberasgarri gisa, eta atzerriko hizkuntza dela-eta hura erabiltzeko daukaten jarrera.</p>	<p>8. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak gero eta autonomia handiagoarekin erabiltzea, informazioa bilatzeko, ereduetatik abiatuz testuak sortzeko, posta elektronikoko mezuak bidali eta jasotzeko, eta ahozko eta idatzizko harreman pertsonalak ezartzeko, teknologia horien erabilera dela-eta interesa erakutsiz.</p> <p>Irizpide honekin ebaluatuko da informazioaren eta komunikazioaren teknologiak komunikaziorako eta ikasketarako tresna gisa erabiltzeko gaitasuna, betiere gelako ohiko jardueretan eta harreman pertsonalak ezartzeko, ahoz nahiz idatziz. Ezartzen diren komunikazioak lehenik landutako lan ezagunei buruzkoak izanen dira. Kontuan hartuko da, halaber, ikasleek aniztasun linguistikoa baloratzen ote duten elementu aberasgarri gisa, eta atzerriko hizkuntza dela-eta hura erabiltzeko daukaten jarrera.</p>

<p>Oharrak</p>

Curriculum.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

(3. liburukia)

Aukerako irakasgaiak:

Literatura sorkuntza
Literatura sorkuntza, D eredia
Oinarrizko matematika
Oinarrizko hizkuntza trebetasunak
Oinarrizko hizkuntza trebetasunak, D eredia
Matematikan sakontzen
Kultura klasikoa
Geografia ekonomikoa
Lanbide hastapena-Helduarora eta bizitza aktibora igarotzea
Literatura unibertsala
Literatura unibertsala, D eredia
Matematikan sakontzen
Fisika eta kimikan sakontzen



Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

Izenburua: Curriculum. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (3. liburukia)
© Nafarroako Gobernua. Hezkuntza Departamentua
1. edizioa, 1. inprimaldia (2007)

Azala:	Asís Bastida
Fotokonposizioa:	Pretexto pretexto@cin.es
Inprimaketa:	Gráficas Lizarra
L.G.:	NA 2.354-2007
I.S.B.N. [lan osoa]:	978-84-235-2997-1
I.S.B.N. [3. bol.]:	978-84-235-2994-0

Bultzatzailea eta banatzailea: Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Fondona
Navas de Tolosa kalea, 21
31002 IRUÑA
Telefonoa: 848 427 121
Faxa: 848 427 123
fondo.publicaciones@cfnavarra.es
www.cfnavarra.es/publicaciones

Aurkezpena

53/2007 FORU AGINDUA , maiatzaren 23koa, Hezkuntza kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan eta pribatu itunduetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapari dagozkion aukerako irakasgaien curriculum onetsi eta irakasgai horiek nola eman arautzen duena, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren kurtsoko aukerak ere onesten dituenak ...	7
I. Eranskina. DBHko aukerako irakasgaiak	14
II. Eranskina. Curriculum aukerak	15
Aukerako irakasgaiak	17
Literatura sorkuntza. Lehen kurtsoa	19
Literatura sorkuntza. D eredia. Lehen kurtsoa	27
Oinarrizko Matematika. Lehen kurtsoa	35
Oinarrizko Hizkuntza Trebetasunak. Bigarren kurtsoa	43
Oinarrizko Hizkuntza Trebetasunak. D eredia. Bigarren kurtsoa	51
Matematikan sakontzen. Bigarren kurtsoa	59
Kultura Klasikoa. Hirugarren kurtsoa	69
Geografia ekonomikoa. Laugarren kurtsoa	75
Lanbide hastapena-Helduarora eta bizitza aktibora igarotzea. Laugarren kurtsoa	83
Literatura Unibertsala. Laugarren kurtsoa	91
Literatura Unibertsala. D eredia. Laugarren kurtsoa	97
Matematikan sakontzen. Laugarren kurtsoa	103
Fisika eta Kimikan sakontzen. Laugarren kurtsoa	113

53/2007 FORU AGINDUA, maiatzaren 23koa, Hezkuntza kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan eta pribatu itunduetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapari dagozkion aukerako irakasgaien curriculuma onetsi eta irakasgai horiek nola eman arautzen duena, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren kurtsoko aukerak ere onesten dituena.

Eskola Antolamendu eta Berriztapenerako Zerbitzuko zuzendariak adostasun txostena eman du, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapari dagozkion aukerako irakasgaien curriculuma onetsi eta irakasgai horiek nola eman arautzeko, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren kurtsoko aukerak ere onesteko.

Martxoaren 19ko 25/2007 Foru Dekretuak, Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzaren curriculuma ezartzen duenak, 5.7 artikuluan xedatzen du ikasleek aukerako irakasgai bat izanen dutela etapako lehen hiru kurtsoetako bakoitzean. Halaber, foru dekretu horretako 6. artikulua laugarren kurtsoarean antolaketa ezartzen du: 2. atalean ikasleek aukeratu beharreko irakasgaiak ageri dira (horietatik hiru hartu beharko dituzte); 3. atalak ezartzen du ikastetxeek irakasgai horiek guztiak curriculum aukeretan bilduta eskaini beharko dituztela, Hezkuntza Departamentuak zehazten duen moduan; eta 4. atalak dio ikasleek, horretaz gainera, Hezkuntza Departamentuak zehazten dituen aukerako irakasgaietako bat hartzen ahalko dutela.

Hortaz, Hezkuntza Departamentuari dagokio Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapari dagozkion aukerako irakasgaien curriculuma onestea eta irakasgai horiek nola eman arautzea, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren kurtsoko aukerak ere onestea.

Ikasleen behar eta interesak, barne eta kanpo ebaluazioen emaitzak eta gaur egungo gizartearen eskariak kontuan hartuta, Hezkuntza Departamentuak irizpide hauei jarraikiz antolatuko du aukerako irakasgaien eremua:

- a) Hizkuntzak ikastea bultzatuko da. Horretarako, atzerriko bigarren hizkuntza eskainiko da etapa osoan.
- b) Hizkuntzaren bidez komunikatzeko oinarrizko gaitasuna eta matematikako gaitasuna garatzea. Horretarako aukerako irakasgai hauek eskainiko dira: Oinarrizko matematika, Literatura sorkuntza, Oinarrizko hizkuntza trebetasunak eta Matematikan sakontzen.

- c) Kultura orokorrean sakontzea, eta ikasleen berariazko prestakuntza azpimarratzea, oinarritzkoak diren gainerako gaitasunak garatzen laguntzeko.

Laugarren kurtsoan curriculumeko hiru aukera izanen dira: bat Zientziaren esparrua, beste bat Giza Zientziena eta hirugarrena, Teknologiaren esparrua. Azken hori oinarritzko prestakuntzakoa izanen da eta modu praktikoagoan landuko da, erdi mailako heziketa ziklo batzuetara jo nahi duten ikasleak prestatu ahal izateko.

Aukerako irakasgaiak hautatzean, tutoreak bideratu egingen ditu ikasleak, beren interes, gaitasun eta beharretarako egokienak direnak hauta ditzaten. Ikastetxeek kurtso bakoitzerako aukerako irakasgai guztiak eskainiko dituzte, ikastetxeko antolamendua eta langileak kontuan hartuta betiere.

Horrenbestez, eta Nafarroako Gobernuari eta lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 41.1.g artikuluan xedatutakoarekin bat,

AGINDU DUT:

1. artikulua. *Helburua eta aplikazio eremua*

Foru agindu hau, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapari dagozkion aukerako irakasgaien curriculumak onetsi eta irakasgai horiek nola eman arautzen duena, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren kurtsoa aukerak ere onesten dituena, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publiko eta pribatu itundu guztietan aplikatuko da.

2. artikulua. *Aukerako irakasgaien eta laugarren kurtsoa curriculum aukeren xedea*

Etapako aukerako irakasgaiak eta laugarren kurtsoa curriculum aukerak, gainerako irakasgaiekin batera, etapako oinarritzko gaitasunak eta helburuak lortzen lagundu behar dute. Tutorearen orientazioaren bidez ikasleei horiek egoki hautatzen lagunduko zaie, beren interes, motibazio, gaitasun eta beharrak kontuan hartuta.

3. artikulua. *Aukerako irakasgaiak*

1. Foru agindu honen I. eranskinean kurtsoen arabera banatuta daude etapako aukerako irakasgaiak.

2. Ikasleek, kurtso bakoitzean, I. eranskinean aukerako irakasgai gisa agertzen direnen arteko bat hautatuko dute.

3. I. eranskinean ageri diren aukerako irakasgai guztiak eskaini beharko dituzte ikastetxeek.

4. III. eranskinean, aukerako irakasgai hauen curriculuma dago:

- Oinarrizko matematika.
- Literatura sorkuntza.
- Literatura sorkuntza, D eredia.
- Matematikan sakontzen.
- Oinarrizko hizkuntza trebetasunak.
- Oinarrizko hizkuntza trebetasunak, D eredia.
- Kultura klasikoa.
- Matematikan sakontzen.
- Fisika eta kimikan sakontzen.
- Literatura unibertsala.
- Literatura unibertsala, D eredia.
- Geografia ekonomikoa.
- Lanbide hastapena – Helduarora eta bizitza aktibora igarotzea.

5. Laugarren kurtsoko Atzerriko bigarren hezkuntzaren, Plastika eta ikus-hezkuntzaren, Musikaren, Teknologiarene, Informatikaren, Latinaren, Biologia eta geologiaren eta Fisika eta kimikaren curriculuma martxoaren 19ko 25/2007 Foru Dekretuaren II. eranskinean azaltzen da. Dekretu horren bidez Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzaren curriculuma ezarri da.

4. artikulua. *Curriculum aukerak*

1. Laugarren kurtsoan, hiru curriculum aukera eskainiko dituzte ikastetxeek: Zientzia, Giza zientziak eta Teknologia. Zientziaren esparruari lotuta Biologia eta geologia eta Fisika eta kimika daude; Giza Zientzien esparruari lotuta Latina eta Informatika; eta Teknologiarene esparruari lotuta, berriz, Teknologia eta Plastika eta ikus-hezkuntza.

2. II. eranskinean zehaztuta dago laugarren kurtsoko aukerak osatzen dituzten irakasgaien banaketa.

3. Ikasleek curriculum aukera bateko hiru irakasgai izanen dituzte. Horietako bi, aukerari lotutakoak izanen dira, eta hurrengo ikasleak hautatuko du curriculum aukerarako hirugarren irakasgai gisa ezarritakoen artean.

4. Ikastetxe guztiek artikuluko honetako 1. puntuaz azaltzen diren hiru curriculum aukerak eskaini beharko dituzte; dena dela, Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuak zilegi izanen du curriculum aukeraren eskaintza mugatzeko baimena ematea, Hezkuntza Departamentuak ezartzen dituen irizpideetatik abiatuta.

5. artikulua. *Curriculumaren garapena*

Ikastetxeek aukerako irakasgaien eta curriculum aukerak osatzen dituztenen curriculuma garatu eta osatuko dute, hezkuntza proiektuaren barnean.

6. artikulua. *Ikastetxeak diseinatutako aukerako irakasgaiak*

1. Ikastetxe guztiek zilegi izanen dute ikastetxe bakoitzak diseinatutako aukerako bi irakasgai eskaintzea: bata 3. kurtsoan eta bestea 4. kurtsoan Teknologiaren esparruan.

2. Ekainaren 15a baino lehen, ikastetxeko zuzendariak aukerako irakasgai horiek aurkeztuko dizkio Eskola Antolamendu eta Berriztapenerako Zerbitzuko zuzendariari, agiri hauekin batera:

- a) Irakasgai horiek hautatzeko arrazoiak.
- b) Irakasgaien curriculuma: oinarriko gaitasunak, helburuak, edukiak eta ebaluazio irizpideak lortzen nola lagunduko duten.
- c) Irakasgai horiek garatzeko eskura dituzten materialak eta baliabide didaktikoak.
- d) Koordinazio didaktikoko departamentuak, irakasgaiak emateko arduradunak hiru urterako gutxienez.

3. Jasotako agiriak azterturik, Hezkuntza Berriztapenaren eta Curriculum Garapenaren Atalak, alde batetik, eta, bestetik, ikastetxeko ikuskatzaileak, Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuko zuzendariaren oniritziarekin, balorazio txostenak eginen dituzte.

Hezkuntza Berriztapenaren eta Curriculum Garapenaren Atalaren balorazio txostenak irizpide hauek izanen ditu kontuan:

- a) Irakasgaiak oinarriko gaitasunak lortzen nola laguntzen duen eta irakasgai horrek ikastetxeko hezkuntza proiektuan zer leku duen.
- b) Irakasgaiaren curriculumaren koherentzia.
- c) Eskura dagoen materialaren egokitasuna.

Ikastetxeko ikuskatzailearen balorazio txostenak irizpide hauek izanen ditu kontuan:

- a) Ikastetxearen ezaugarrietarako eta ikasleen beharretarako egokia den.
- b) Irakasleen profilaren egokitasuna.
- c) Hala denean, plantilla handitzea komeni izatea.

4. Ekainaren 30a baino lehen, Hezkuntza Departamentuak baimena emanen du, bidezkoa bada, eskatutako aukerako irakasgaiak emateko.

5. Ikastetxeak diseinatutako aukerako irakasgaiak, baimendu eta gero, hiru urtez eskainiko da. Hiru urte horiek betetakoan, beste eskaera bat aurkeztu ahalko du ikastetxeak.

7. artikulua. *Foru agindu honetan araututako irakasgaiak ematea.*

1. Foru agindu honetan araututako irakasgaiak gutxienez ere hogei ikasle baldin badaude soilik emanen dira.

2. Hezkuntza Departamentuak, Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuaren txostena ikusi ondoren, zilegi izanen du aurreko atalean adierazitakoa baino txikiagoa den ikasle kopuru batentzat baimentzea aukerako irakasgaia.

3. Atzerriko bigarren hizkuntzaren kasuan, hori hautatzen duten ikasleei bermatuko zaie etapa osoan izanen dutela.

4. Arte plastikoen departamentu didaktikoez laugarren kurtsoko Plastika eta ikus-hezkuntza zein ikuspegitatik bideratu erabakiko dute, beren programazioetan Marrazketa teknikoaren edo Marrazketa artistikoaren ikuspegia garatuz, etapako azken kurtsorearen orientazio izaera eta ikasleen curriculum aukera kontuan hartuta.

5. Atzerriko bigarren hizkuntza kasuan kasuko Atzerriko Hizkuntzaren koordinazio didaktikoko departamentuak emanen du; Oinarrizko hizkuntza trebetasunak, Literatura sorkuntza eta Literatura unibertsala Gaztelania eta Literaturaren koordinazio didaktikoko departamentuak eta, hala denean, Euskara eta Literaturakoak; Oinarrizko matematika, 2. kurtsoko Matematikan sakontzen eta 4. kurtsoko Matematikan sakontzen, berriz, Matematika departamentuak; Kultura klasikoa Latin edo Grekoko departamentuak; Geografia ekonomikoa Geografia eta Historia departamentuak; Fisika eta kimikan sakontzen Fisika eta Kimika departamentuak, eta Lanbide hastapena-Helduarora eta bizitza aktibora igarotzea Teknologia Departamentuak.

6. Irakasgai horiek beste espezialitate batzuetako irakasleek edo koordinazio didaktikoko beste departamentu batzuetakoek (aurreko atalean agertzen ez direnetakoek) emateko baimena Hezkuntza Departamentuko Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuan eskatu beharko da.

8. artikulua. *Atzerriko bigarren hizkuntza.*

1. Aukerakoan artetik Atzerriko bigarren hezkuntza hartu duten ikasleek etapa osoan izanen dute irakasgai hori. Irakasgaiaren programazioa egitean, lau kurtsoretan zehar koherentzia izan behar duela kontuan izanen da.

2. Atzerriko bigarren hizkuntza edozein kurtsotan hartu ahal izateko ezinbestekoa izanen da ikasleek, kasuan kasuko departamentu didaktikoaren iritziz, kurtsu horretarako behar den maila izatea. Egoera horri aurre egiteko, ikastetxeek aukera izanen dute, behar beste irakasle izanez gero, maila desberdinetako taldeak eratzeko, ikasleak lau kurtsoretako lehenengoan egin gabe hasi ahal izateko.

3. Ikaseek Atzerriko bigarren hizkuntza utzi ahalko dute, salbuespenez, edozein ikasturte bukatutakoan, gurasoek edo legezko ordezkariak eskaera idatziz aurkeztu eta gero. Eskaera

ikastetxeko zuzendariari bidaili zaio, hizkuntza hori uztearen arrazoiak adierazita. Zuzendarriak, kasuan kasuko koordinazio didaktikoko departamentuari kontsulta egin ondoren, eskaeraren gaineko ebazpena emanen du.

9. artikulua. *Lanbide hastapena – Helduarora eta bizitza aktibora igarotzea.*

1. Lanbide hastapena – Helduarora eta bizitza aktibora igarotzea izeneko aukerako irakasgaiaren helburu berariazkoa da ikasleei orientazioa ematea, etapa bukaeran aurrera begirako aukera egokia egin dezaten; horretarako oinarritzko edukiak eta zenbait jarduera izanen dira.

2. Ikastetxearen instalazio eta baliabideekin bat, eta ikasleen motibazioa handitu eta ikasitakoa testuinguru batean txertatzeko, irakasgai horretan lanbide arloren baten inguruko praktikak sartu ahalko dira.

3. Lanbide hastapena – Helduarora eta bizitza aktibora igarotzea izeneko irakasgaia planifikatu eta garatzeko Orientazio Departamentuaren laguntza izanen da.

Xedapen Gehigarriak

Lehenbiziko xedapen gehigarria. *Urteko Programazio Orokorra*

Ikastetxeek honako hauek sartuko dituzte Urteko Programazio Orokorrean: ikasturte bakoitzean eskainitako aukerako irakasgaiak, laugarren kurtsoko aukerei dagozkien irakasgaiak eta beren programazio didaktikoak.

Bigarren xedapen gehigarria. *Aukerako eskaintza.*

Hezkuntza Departamentuak zilegi izanen du I. eranskinean ageri diren aukerako irakasgaien eskaintza aldatu eta handitzea, eskaintza ikastetxeen beharren arabera egokitzeko.

Xedapen Iragankorrak

Xedapen iragankor bakarra. *Araudiaren indarraldia.*

Bigarren Hezkuntzaren antolamendu berria ezarri arte, ekainaren 30eko 806/2006 Errege Dekretuak araututakoarekin bat, aukerako irakasgaien eta DBHko laugarren kurtsoko aukeren gaineko araudia Hezkuntza kontseilariaren ekainaren 15eko 152/2004 Foru Agindua izanen da.

Xedapen Indargabetzaileak

Xedapen indargabetzaile bakarra. *Arau indargabetuak.*

Indarrrik gabe utzi dira Hezkuntza kontseilariaren ekainaren 15eko 152/2004 Foru Agindua eta foru agindu honetan ezarritakoaren kontrakoak diren maila bereko edo apalagoko arau guztiak.

Azken xedapenak

Azken xedapen bakarra. *Indarra hartzea.*

Foru agindu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Iruñean, 2007ko maiatzaren 23an.

Miguel Sanz Sesma

Nafarroako Gobernuako lehendakaria

Luis Campoy Zueco

Hezkuntza kontseilaria

I. eranskina
DBHko aukerako irakasgaiak

Ikasleak aukerako bat hautatuko du kurtso bakoitzean*

<i>DBHko 1.a</i>	<i>DBHko 2.a</i>	<i>DBHko 3.a</i>	<i>G eredia</i>	<i>D/A eredia</i>
Atzerriko bigarren hizkuntza	Atzerriko bigarren hizkuntza	Atzerriko bigarren hizkuntza	3h.	2h.
Oinarrizko matematika	Matematikan sakontzen	Kultura klasikoa	3h.	2h.
Literatura sorkuntza	Oinarrizko hizkuntza trebetasunak	Ikastetxeak diseinatutakoa	3h.	2h.

<i>DBHko 4.a</i>	<i>G eredia</i>
Zientzietako aukera	- Matematikan sakontzen (3h.)
	- Fisika eta kimikan sakontzen (3h.)
Giza Zientzietako aukera	- Literatura unibertsala (3h.)
	- Geografia ekonomikoa (3h.)
Teknologiako aukera	- Ikastetxeak diseinatutakoa (3h.)
	- Lanbide hastapena-Helduarora eta bizitza aktibora igarotzea (3h.)

* A ereduko aukerakoa, G/A ikastetxe batean, Euskara eta literatura izanen da (3h).

II. eranskina Curriculum aukerak

Ikasleek **Curriculum Aukera** bat hautatuko dute (3 irakasgai)

DBHko 4.A

Zientziako aukera (3 irakasgai)

	<i>G</i>	<i>D/A</i>
1. Biologia eta geologia	(3h.)	(2 h.)
2. Fisika eta kimika	(3 h.)	(2 h.)
3. <i>Hauetako bat hautatu:</i>		
• Informatika	(3 h.)	(2 h.)
• Atzerriko bigarren hizkuntza	(3 h.)	(2 h.)
• Plastika eta ikus-hezkuntza	(3 h.)	(2 h.)
• Musika	(3 h.)	(2 h.)

Giza Zientziako aukera (3 irakasgai)

	<i>G</i>	<i>D/A</i>
1. Latina	(3h.)	(2 h.)
2. Informatika	(3 h.)	(2 h.)
3. <i>Hauetako bat hautatu:</i>		
• Atzerriko bigarren hizkuntza	(3 h.)	(2 h.)
• Plastika eta ikus-hezkuntza	(3 h.)	(2 h.)
• Musika	(3 h.)	(2 h.)

Teknologiako aukera (3 irakasgai)

	<i>G</i>	<i>D/A</i>
1. Teknologia	(3h.)	(2 h.)
2. Plastika eta ikus-hezkuntza	(3 h.)	(2 h.)
3. <i>Hauetako bat hautatu:</i>		
• Informatika	(3 h.)	(2 h.)
• Atzerriko bigarren hizkuntza	(3 h.)	(2 h.)
• Musika	(3 h.)	(2 h.)

Aukerako irakasgaiak

Literatura sorkuntza [Lehen kurtsoa]

Sarrera

Aukerako irakasgai honen planteamenduan prestakuntza ona duten ikasleak hartzen dira kontuan, DBHko Lehen Zikloari ekin baino lehen, aurreko etapan alegia, hizkuntz ezagutza finkatu eta oinarrizko komunikazio beharrak ase dituztenak. Aurrerantzean, bada, haien komunikazio gaitasuna garatzeko prozesua zabalagoa izanen da, literaturaren, kazetaritzako iritzi testuen, publizitatearen eta saiakeraren ekarpenak jasoko baititu.

Literatura testuak irakurriz eta ulertuz literatura arloko prestakuntza garatzen da eta, ondorioz, ikasleen prestakuntza intelektuala hobetzen da eta aberastasun pertsonala handitzen: gazte-gaztetatik irakurle autonomoak izanen dira, literaturak gaurko gizartean duen balioa aintzat hartu eta hartaz gozatzeko gauza direnak. Irakurketa, literatura sorkuntza eta informazioa konbinatzeko proposatzen da curriculum honetan. Horrela literatura prestakuntzaren garapenean ikasleek jokoan jarriko dituzte hizkuntz trebetasun guztiak: mintzamina, entzumena, irakurmena, idazmena.

Komunikabideek, eta zehazkiago prentsak, hainbesteko garrantzia dutelarik gaurko gizartean, eskolak ezin dio uko egin ikasleen gaitasun kritikoa garatzeari, komunikabideen eragin ahaltsuari autonomiaz aurre egiteko gai izan behar dutelako. Hain zuzen ere iritzi testuen arloan, zenbat eta urrunago iritsi gogoeta, analisia, artikuluen eta zutabeen produkzioa, hainbat eragin-korragoa izanen da egindako lana. Kritika espezializatuaren alorrean kazetaritzaren alderdietako bat landuko da, interesgarria izan daitekeena zenbait kultur zaletasunen garapena sustatzeko.

Nerabeen artean publizitatea hain sakon errotuta dagoenez, eskolak badu beste egiteko nagusi bat eremu horretan, ikasleak prestatu behar baititu publizitateari behar adinako zentzu kritikoaz aurre egiteko. Hizkuntzaren ikuspegitik modu objektiboan begiratu ahal zaie publizitateak erabiltzen dituen baliabideetako askori, eta aldi berean literatura hizkuntzarekin dituzten loturak ikus daitezke.

DBHaren hasieran ikasleak ikerlan txikiak egiteko gai badira, horrek esan nahi du hasi direla pixkanaka beren kabuz ikasten eta beren ikasketen plangintzaz, antolamenduaz eta azken emaitzaz arduratzen. Hizkuntza, izan ere, jakintza da, eta ikasleen jakintza ez da besterik beren hitzez adierazten ahal dutena baizik.

Curriculum honetan agertzen diren eduki asmo handikoen idazketa dute tresnarik erabilgarriena garapen kognitibo eta linguistikoa sustatzeko, ikasleei hizkuntza garatzen laguntzen baitie beren burua hobeto ulertzeko eta iritzi kritikoak azaltzeko. Ekinaren ekinez ikasten da idazten, ereductatik abiatuta, imitazioaren bidez, prozesu konplexu batean (planifikazioa, testua idaztea eta berrikustea). Prozesu horretan paperera eraman behar dira errealitateari buruzko ezagutzak, testuari eta testuinguruari dagozkionak eta hizkuntzari berari dagozkionak. Ezagutza horiek aski dira idazketa eraginkorra izan dadin komunikazio egoera guztietan.

Generoak eta testu motak finkatuta daude konbentzioen eta faktore soziokulturalen bitartez. Gazteak botere egitura moldatzaile horietan egokitu daitezen nahi badugu, hainbat mota eta generotako ereduak irakatsi behar dizkiegu. Idazten irakastea osagai garrantzitsua da gure hezkuntza sistemaren xedean. Horregatik curriculum honetan testu mota eta genero guztiak jorratzen dira: Narrazioa ipuin literarioaren bidez jorrotzen da; azalpena, ikerketa lanaren bidez; argudioaren ikuspegi zabala ematen da iritzi generoetan; deskripzioa han-hemen agertzen da ipuin literarioetan eta testu poetikoetan, ikus dezakegu baita ikerlanetan ere.

Irakasleak funtsezko eginkizuna betetzen du ikaslearen hizkuntz trebetasunen eta idazmenaren garapenean. Izan ere, prozesuan zehar ikasleari bere laguntza osoa eskaintzen dio, aktiboa eta eraikitzailea. Ex cathedra irakaskuntzaren funtzioa ere aintzat hartu behar da eta balantza pedagogikoaren oreka bilatu behar da, ikasleei ez eskatu gehiegi egiteko baina aldi berean irakaslea ez dadila izan laguntza emaile hutsa.

Horregatik guztiagatik, curriculum hau garatu ahal izateko ikasle motibatuak behar dira, jakinmina eta lanerako gaitasun frogatua dutenak eta inolako zalantzarik gabe literatura eta kulturarekiko interesa dutenak.

Oinarrizko gaitasunak lortzeko irakasgaiak egiten duen ekarpena

Irakasgai honek *hizkuntzaren bidez komunikatzeko gaitasuna* eskuratzen laguntzen du, literaturaren, kazetaritzako iritzi testuen, publizitatearen eta saiakeraren ekarpenak konbinatzen baitira eta ikasleek hizkuntzaren inguruko trebetasunak garatzen baitituzte: mintzamina, entzumen, irakurmena, idazmena. Irakasgai honetako eduki guztietatik abiatuta askotariko testuen ulermenezko irakurketa eta ahozko zein idatzizko adierazpena lantzen dira, kalitatezko edozein ikasketa egiteko ezinbesteko baliabide gisa.

Bakarka nahiz taldean testuak irakurri, hausnartu eta iruzkintzeko, entzuten, azaltzen eta argudiatzen trebatu beharra dago. Beste alde batetik, ikasgelan eta ikasgelatik kanpo lantzen diren testuen balorazio kritikoa eta sentimendu, ideia eta iritzien komunikazioa ezinbestekoak dira irakasgai honen helburuak lortzeko; jarduera horiek gaitasuna lortzen laguntzen dute, haietan hizkuntza ahoz nahiz idatziz erabiltzen baita.

Literatura Sorkuntzak bereziki laguntzen du *kultur eta arte gaitasuna* lortzen. Izan ere, literatura estilo desberdinak bereizten eta baloratzen ikasten denez, nork bere idazlanetan estilo horiek birsortzeko gaitasunak garatzen dira. Irakasgai honen ildotik ideiak, esperientziak edo sentimenduak modu jator eta originalean adierazteko trebetasunak lortzen dira. Horrela irudimena eta sormena pizten dira.

Irakasgai honek *gaitasun soziala eta herritartasuna* garatzen laguntzen du, besteren lanak aintzat hartu, ulertu eta kritikoki baloratzeko gaitasuna sustatzen duelako, jarrera ireki eta begirunetsuak harraraziz. Irakurritako testua ikasgelan hausnartu eta iruzkintzean aukera emanen da nork bere ideiak adierazteko eta besteenak baloratzeko. Errespetua, tolerantzia, lankidetzeta eta malgutasuna sustatuko dira eta gizarte trebetasunak errazago lortuko dira.

Irakasgai honek lagundu egiten du *informazioaren tratamendurako gaitasuna eta gaitasun digitala* garatzen: une bakoitzean behar den informazioa bilatu eta aukeratu behar da eta nork bere ahazko eta idatzizko testuak sortzeko erabili behar du. Informazio horietako asko bilatu eta aukeratzeko beharrezkoa izanen da, adibidez, liburutegiak egoki erabiltzea edo Internet erabiltzea. Bilaketa horiek gidaritzapean egitea gaitasun digitala garatzeko bidea izanen da. Lanak egiteko euskarri elektronikoak erabiliko dira, idazketa prozesuko eragiketa batzuk (plangintza, testua egitea, berrikustea...) eraginkortasun handiagoz egin ahal izateko. Horrek ere lagundu egiten du gaitasun hau lortzen.

Literatura Sorkuntzaren bidez *ikasten ikasteko gaitasuna* errazago lortzen da. Izan ere, ikasteko gertutasuna eta ikaskuntza antolatzeko trebetasuna sustatzen dira, autonomiarako, diziplinarako eta gogoetarako trebetasunak sustatzen dira, eta norberaren gaitasun eta baliabideez jabetzera bultzatzen da, baita norberaren akatsak onartzera ere, hobekuntzarako tresna gisa. Irakasgai honetan memorizazioa, argumentazioa, norberaren eta besteren ideien laburpena eta norberaren lanaren emaitzak eraginkortasunez adierazteko trebetasuna lantzen dira. Horiek gero ikaskuntzak ere erraztuko dituzte.

Irakasgai honek lagundu egiten du *autonomia eta ekimen pertsonala* lortzen, erabiltzen diren prozeduretan planifikatu, antolatu, aztertu eta komunikatu beharra dagoelako. Bakarka lanak egitea eta taldean gogoeta eta iruzkinak egitea ariketa lagungarriak dira inhibizio eta aurreiritziak gainditzeko, ikaskideen ekarpenak baloratzeko, akatsak onartzeko eta horiek nola zuzendu behar diren ulertzeko. Laburbilduz, irakasgai honek hobekuntzarako aukerak eskaintzen ditu eta hobetu nahia sustatzen du. Irakasgai honen bidez ikasleek kritikarako gaitasuna garatzen dute. Horrela, komunikabideen eragin ahaltsuari autonomiaz aurre egiteko gai izanen dira.

Helburuak

1. Literatura testuak, kazetaritzako iritzi testuak, publizitatekoak eta saiakerak ulertzeko gaitasunaren garapenean sakontzea.
2. Testuen sorkuntza komunikaziorako eta pentsamenduaren heldutasunerako bide ezin egoikiagoa eta atsegina dela ohartzea eta ekintza hori baloratzea.

3. Behar adinako koherentzia eta zuzentasunez aritzea literatura testuak, kazetaritzako iritzi testuak, publizitatekoak eta saiakerak sortzen, helburuen eta komunikazio egoeraren arabera.
4. Mezu zehatz baten zerbitzuan planak eta testuak egiteko gaitasuna hobetzea.
5. Genero eta testu mota desberdinen produkzioan esku hartzen duten hizkuntz ezagutza testualak, kontestualak eta gramatikalak finkatzea.
6. Literatura estilo desberdinak ezagutu eta baloratzea, eta norberak sortutako testuetan estiloak imitatzeke nolabaiteko gaitasuna garatzea.
7. Prentsan informazioa eta iritzia bereiztea eta kazetaritzako iritzi testuak egiteko gai izatea.
8. Publizitateko mezuen osaera eta eragina zentzu kritikoz aztertzea.
9. Ikerlanak egiteko prozesuak ezagutzea, batez ere datuak, informazioak eta ezagutzak elkarrekin erlazionatzen dituztenak.
10. Nork bere buruarengan konfiantza gehiago izatea sorkuntza lan pertsonalen emaitza egoki eta erabilgarriak ikustean.
11. Eskola liburutegia nahiz informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea irakasgaiari buruzko lanak arazoitu eta orientatzeko eta ezagutzak ikasi eta partekatzeko tresnagisa.

Edukiak

1. multzoa. *Literatura sorkuntza: poesia eta kontakizuna*

- Literatura estiloak. Ezaugarriak eta azterketa.
- Metrika. Bertsoa, ahapaldia eta poema. Forma metriko nagusiak.
- Erretorika. Gaztelaniazko poesiak dituen figura literario nagusiak.
- Poesia aukeratuen gaineko iruzkinak egitea estilo literario desberdinei erreparatuta.
- Testu poetikoak planifikatu eta sortzea hainbat irizpide kontuan harturik, hala nola ikuspegiaren aldaketa, imitazioa, norberaren pentsamenduaren adierazpena, askotariko eraldaketak eta abar.
- Ipuin literarioaren osagaiak: narratzailea, egitura, pertsonaiak, lekua eta denbora.
- Ipuin literarioak aukeratzea haien amaiera, deskripzioak eta beste genero batzuekiko erlazioa aztertzeke.
- Ipuinak planifikatu eta sortzea, ikuspegiari, irakurleei, egiturari eta estetikari buruzko jarraibideak kontuan hartuz.

2. multzoa. *Kazetaritzako eta publizitateko sorkuntza*

- Kazetaritza generoak. Ezaugarriak eta azterketa.
- Kritika espezializatua. Zinema eta literatura kritikaren alorreko testuak planifikatu eta egitea.

- Iritzi generoak eta argudiozko testuen egitura. Artikulu eta zutabeen azterketa.
- Iritzi testuak planifikatu eta egitea.
- Publizitateko iragarkiak prentsan. Mekanismo linguistikoaren eta bestelakoaren azterketa: testua eta irudia.
- Publizitateko iragarkiak planifikatu eta sortzea bai komunikazio prozesua eta bai merkatu teknikak kontuan hartuz.

3. multzoa. *Saiakeragintza. Ikerketa lana*

- Saiakera. Haren ezaugarriak ulertzeko oinarriak.
- Gaia aukeratzea, hainbat iturritatik informazioak biltzea, horiek aukeratu, aztertu eta alderatzea, eta testuan azaltzea.
- Ikerketa lana planifikatu eta egitea, iturrien hautaketa eta norberak sortutako testu batean integratu beharra kontuan hartuz.

Ebaluazio irizpideak

1. Literatura testu baten estiloa zein den esatea, irizpide linguistikoak, tematikoak eta erretorikoak erabiliz.

Irizpide honen bidez ebaluatu nahi da noraino barneratu dituzten ikasleek literaturari buruzko ezagutzak, ikasgelan iruzkindutako testuak irakurriz, baloratuz eta gozatuz; begiratuko da ea gai diren testutik urrundu eta haren edukia, antolaketa, hizkuntzaren erabilera eta egilearen eskua ebaluatzeko. Ondokoak ebaluatuko dira: gaiak eta motiboak ulertzea, genero nagusien ezaugarriak (kontakizunaren historiaren elementuak eta bilakaera kronologikoa, antzerki testuaren osagaiak, bertsokeraren egiturak eta erritmoan duten eragina) eta azpigenero nagusienak ezagutzea, eta baliabide erretoriko ohikoenak ere ezagutzea, arreta berezia jarriz hizkuntza poetikoaren balio sinbolikoari.

Helburu hori lortzeko, honako hauek atzeman behar dira: literatura testuaren identitatea markatzen duten egiturazko elementuak (argumentua, pertsonaiak, ekintzak, lekuak, denborak etab.), testuan dauden askotariko erregistroak, eta erabilitako prozedura erretorikoen mota nagusiak errekurrentziak, irudiak, hitz hautaketa, etab.).

2. Poema baten ezaugarri metriko eta erretorikoak zehaztea, gaztelaniazko bertsoaren lau erri-tmoak eta baliabide literario desberdinen eraginkortasuna aztertuz. Poemak osatzea, kontuan hartuz, besteak beste, estiloa, beste poema batzuen eraldaketa, sentimenduaren adierazpen hutsa eta zenbait baliabideren erabilera, aurrez zehaztutako gai eta formen arabera.

Irizpide honen bidez egiaztatu nahi da ikasleek badutela gaitasuna olerkiak berezko dituen ezaugarri formalak atzemateko, bai ikuspuntu metriko eta erritmikotik, bai linguistiko eta erretorikotik. Hizkuntza poetikoaren funtzionamendu arauen ezagutza ebaluatuko da.

Hizkuntzaren bidez komunikatzeko gaitasunaren garapenean, irizpide honen bitartez jakin nahi da ea ikasleek idatzizko hizkuntzan lortu duten maila aski ote den testu poetikoak ulertu eta barneratu ondoren horiek berriz formulatu ahal izateko. Berreraikuntza horrek erakutsi behar du jatorrizko testuaren oinarritzko elementuak ulertu direla, ideien nahiz formen alde-tik, eta berriz erabili direla norberaren mezua adierazteko. Ez da kalitate literarioa ebaluatuko, formaren, bertsoaren, erritmoaren eta erretorikaren aldetik ezaugarri jakinak dituzten olerkien ereduak imitatzeke eta helburu zehatz batekin haien eraldaketa errazak egiteko gaitasuna baizik.

3. Ipuin literarioaren osagaiak bereiztea, hots, narratzailea, ikuspegia, egitura, pertsonaien karakterizazioa eta espazioaren zein denboraren tratamendu desberdinak, eta haren ezaugarriak azaltzea, osagaiak ulerturik, sailkapenen eta beste genero batzuekin duen loturaren arabera. Hura eraldatzea osaketa-alderdiekin zerikusia duten jarraibideak kontuan hartuz, hala nola amaiera, ikuspegiak, egoera aldaketak eta abar.

Irizpide honen bidez ebaluatuko da ea ikasleak, beren kultur eta arte gaitasunaren garapenean, kontakizun literario bat irakurrita, gai ote diren hura literario egiten duten elementu formal eta kulturalak ezagutu eta labur azaltzeko: nola kontaktzen den istorio bat, zer kontaktzen den, nork kontaktzen duen, nondik kontaktzen duen, noiz eta non gertatzen den. Halaber, ebaluatuko da ea egitura horietan antzematen duten istorio hori kontakizunaren tradizio baten barnean dagoela (herri ipuinak, maitagarrienak, fantasiakoak, literarioak, alegiak...) bai haren formagatik bai pentsamolde edo balio-sistemagatik (ikasbidea, mezua, jolasa...).

Irizpide honen bidez, gainera, aztertu nahi da ea ikasleak gai diren ezagutu edo bizi izan dituzten gertaera batzuk kontatzeko, hurrenez hurren eta zehaztasunez, agindutako egitura erabilia, batzuetan, eta kontuan izanik zer kontaktzen den eta nori, eta zer transmititu nahi den; eta hori modu pertsonalean egiteko gaitasuna neurtuko da.

4. Zenbait egunkaritan kazetaritzako generoen ereduak bereiztea, kontuan izanik informazioaren eta iritziaren konbinazio desberdinak, eta artikulua edo zutabe baten egitura azaltzea, ideien arteko loturak erakusten dituen eskema baten bidez. Zinema eta literaturako kritika espezializatuak idaztea, testuingurua kontuan izanik, egiturak markatutako ildoei jarraituz, horretarako behar den informazioa alde aurretik bilduta, eta iritzi artikulua bat egitea ikas-tetxeko aldizkarirako, ideiak behar bezala egituratuz eta argudiatze-testuaren egitura ereduari jarraituz.

Irizpide honek irakurmena ebaluatzen du gizarte esparruan. Irizpide honen bidez egiaztatu nahi da ikasleak gai direla idatzizko komunikabideetan kazetaritzako genero nagusiak identifikatzeko, iritzia eta informazioa bereiziz, eta azpigerenoren -erreportajea, editoriala, zutabea, elkarrizketa...- oinarritzko ezaugarriak bereizten dituztela. Jakin nahi da ea bereizten duten ideia nagusia, hura ageri den enuntziatuei erreparatuz; ea bereizten duten nola dagoen egituratuta informazioa, eta ideiak antolatzeke teknikak erabiltzen dituzten, hala nola eskemak edo kontzeptu-mapak. Testuari modu kritikoan heldu beharko diote, eta generoa ezagutu.

Testuaren edukia, egitura eta hizkuntzaren erabilera ebaluatu beharko dituzte modu orokorrean. Horri guztiari nor bere iritzia osatu eta adierazteko gaitasuna gehitzen zaio, gaitasun sozialaren eta herritartasunaren eta norberaren autonomiaren garapenean.

Honakoak ere ebaluatuko dira: idazmena, informazioa bilatu eta lantzeko gaitasuna, eta, emandako ereduetatik abiatuta, ideiak iritziaren arloko azpigenero informatiboen formularen arabera antolatuta adierazteko gaitasuna. Informazioa lantzeko gaitasunaren eta gaitasun digitalaren garapena ere ebaluatuko da.

5. Prentsan agertutako publizitate iragarkien gaineko iruzkinak egitea, kode desberdinen artean dagoen erlazioa eta erabilitako hizkuntz kodearen ezaugarriak kontuan izanik. Baliabide linguistikoak, ikonikoak eta merkadotekniakoak erabiltzea ikastetxeko bizitzarekin zerikusia duen publizitate iragarki bat egiteko.

Irizpide honen bidez egiaztatu nahi da ikasleek informazio zehatzak ateratzeko gaitasuna dutela eta elementu testualak eta paratestualak, mezuaren asmoa eta hizkuntzaren elementuak identifikatzen dituztela. Iragarkiak kritikoki aztertu beharko dituzte, haien kodeak ezagutu, haien edukia, egitura eta asmoa ebaluatu beharko dituzte modu orokorrean. Iritzi pertsonala eman beharko dute, azalpen egituratua eginez, publizitateak beren bizitzan duen eraginari buruz.

Era berean, kontuan izan behar da ea gai diren kode horiek (hizkuntzarena, ikurrena...) taldean berregiteko, ikastetxeko bizitzan benetako eragina izan dezaketen iragarkiak sortze aldera.

6. Saiakera batean erabilitako jakintza iturriak atzematea, aldez aurretik iturri horiek arakatu baitira, ikerketa lanean zehar. Gai interesgarri bati buruzko ikerketa lana idaztea, aurkibide bati jarraituz; haren garrantzia justifikatzea, ondorio berritzaile eta erabilgarriak ateratzea eta argi azaltzea zein iturri bibliografiko erabili diren.

Irizpide honen bidez egiaztatu nahi da ikasleek badakitela, oro har, nondik datozen saiakerari eusten dioten informazioak. Defendatzen den tesia ulertzeko gaitasuna, hura argudiatzen den modua eta hura egiaztatzen duten datuak baloratuko dira.

Kontsulta iturriak erabiltzen jakin behar dute, eragiten dieten gaurko gaiei buruzko lan pertsonalak egiteko. Iritzi arrazoituak eta pertsonalak emateko gaitasun kritikoari erreparatuko zaio. Idatzizko testuak paperean eta euskarri digitalean behar bezala aurkeztu eta arau ortografiko eta tipografikoak betetzea ere baloratuko da.

7. Norberaren ideiak eta esperientziak erabiltzea asmo literarioko testuak sortzeko, generoko egiturak eta prozedura erretorikoak ohartuki erabiliz eta tradizio literarioko ereduera joz.

Irizpide honen bidez egiaztatu nahi da ikasleak gai direla testu literario bat sortzeko prozesuari ekiteko beren bizipen eta emozioak erabiliz eta literaturak eskaintzen dizkien egile ospetsuen ereduari jarraituz. Ikasleek trebetasun handi samarra erakutsi behar dute genero ba-

koitzeko egiturak erabiltzen, eta hizkuntza literarioaren adierazpideak erabili behar dituzte, ikasgelako praktika pedagogikoan landu direnak, bai prosaz bai bertsoz.

8. Ahozko eta idatzizko testu desberdinetan, bereizkeria soziala, arrazaren edo sexuaren ziozkoa etab. nola edo hala agertzen duten irudi eta esapideak identifikatzea, halakorik ez erabiltzeko ordezkio bideak arakatzea eta ordezkio bide horiek erabiltzea norberaren produkzioetan.

Egiaztatu nahi da ikasleek bereizkeriazko hizkera antzematen dutela ahozko, idatzizko eta hitz eta ikurrez osatutako testuetan, gizarteak eta pertsonak nahita edo oharkabean hizkera hori nola erabiltzen duten hausnartzen dutela, eta bereizkeriarik gabeko bideak proposatu eta erabiltzen dituztela. Komeni da bereziki erreparatzea gizarte komunikabideetatik datozen mezuei eta hitzezko kodearen eta hitzik gabeko kodeen arteko harremanei.

Literatura sorkuntza. D eredua [Lehen kurtsoa]

Sarrera

Aukerako irakasgai honen planteamenduan prestakuntza ona duten ikasleak hartzen dira kontuan, DBHko Lehen Zikloari ekin baino lehen, aurreko etapan alegia, hizkuntz ezagutza finkatu eta oinarrizko komunikazio beharrak ase dituztenak. Aurrerantzean, bada, haien komunikazio gaitasuna garatzeko prozesua zabalagoa izanen da, literaturaren, kazetaritzako iritzi testuen, publizitatearen eta saiakeraren ekarpenak jasoko baititu.

Literatura testuak irakurriz eta ulertuz literatura arloko prestakuntza garatzen da eta, ondorioz, ikasleen prestakuntza intelektuala hobetzen da eta aberastasun pertsonala handitzen: gazte-gaztetatik irakurle autonomoak izanen dira, literaturak gaurko gizartean duen balioa aintzat hartu eta hartaz gozatzeko gauza direnak. Irakurketa, literatura sorkuntza eta informazioa konbinatzeko proposatzen da curriculum honetan. Horrela literatura prestakuntzaren garapenean ikasleek jokoan jarriko dituzte hizkuntz trebetasun guztiak: mintzamina, entzumena, irakurmena, idazmena.

Komunikabideek, eta zehazkiago prentsak, hainbesteko garrantzia dutelarik gaurko gizartean, eskolak ezin dio uko egin ikasleen gaitasun kritikoa garatzeari, komunikabideen eragin ahaltsuari autonomiaz aurre egiteko gai izan behar dutelako. Hain zuzen ere iritzi testuen arloan, zenbat eta urrunago iritsi gogoeta, analisia, artikuluen eta zutabeen produkzioa, hainbat eraginkorragoa izanen da egindako lana. Kritika espezializatuaren alorrean kazetaritzaren alderdietako bat landuko da, interesgarria izan daitekeena zenbait kultur zaletasunen garapena sustatzeko.

Nerabeen artean publizitatea hain sakon errotuta dagoenez, eskolak badu beste egiteko nagusi bat eremu horretan, ikasleak prestatu behar baititu publizitateari behar adinako zentzu kritikoaz aurre egiteko. Hizkuntzaren ikuspegitik modu objektiboan begiratu ahal zaie publizitateak erabiltzen dituen baliabideetako askori, eta aldi berean literatura hizkuntzarekin dituzten loturak ikus daitezke.

DBHaren hasieran ikasleak ikerlan txikiak egiteko gai badira, horrek esan nahi du hasi direla pixkanaka beren kabuz ikasten eta beren ikasketen plangintzaz, antolamenduaz eta azken emaitzaz arduratzen. Hizkuntza, izan ere, jakintza da, eta ikasleen jakintza ez da besterik beren hitzez adierazten ahal dutena baizik.

Curriculum honetan agertzen diren eduki asmo handikoek idazketa dute tresnarik erabilgarriena garapen kognitibo eta linguistikoa sustatzeko, ikasleei hizkuntza garatzen laguntzen baitie beren burua hobeto ulertzeko eta iritzi kritikoak azaltzeko. Ekinaren ekinez ikasten da idazten, ereduetatik abiatuta, imitazioaren bidez, prozesu konplexu batean (planifikazioa, testua idaztea eta berrikustea). Prozesu horretan paperera eraman behar dira errealitateari buruzko ezagutzak, testuari eta testuinguruari dagozkionak eta hizkuntzari berari dagozkionak. Ezagutza horiek aski dira idazketa eraginkorra izan dadin komunikazio egoera guztietan.

Generoak eta testu motak finkatuta daude konbentzioen eta faktore soziokulturalen bitartez. Gazteak botere egitura moldatzaile horietan egokitu daitezen nahi badugu, hainbat mota eta generotako ereduak irakatsi behar dizkiegu. Idazten irakastea osagai garrantzitsua da gure hezkuntza sistemaren xedean. Horregatik curriculum honetan testu mota eta genero guztiak jorratzen dira: Narrazioa ipuin literarioaren bidez jorratzen da; azalpena, ikerketa lanaren bidez; argudioaren ikuspegi zabala ematen da iritzi generoetan; deskripzioa han-hemen agertzen da ipuin literarioetan eta bertsoetan, eta ikerlanetan ere ikus dezakegu.

Irakasleak funtsezko eginkizuna betetzen du ikaslearen hizkuntz trebetasunen eta idazmenaren garapenean. Izan ere, prozesuan zehar ikasleari bere laguntza osoa eskaintzen dio, aktiboa eta eraikitzailea. Ex cathedra irakaskuntzaren funtzioa ere aintzat hartu behar da eta balantza pedagogikoaren oreka bilatu behar da, ikasleei ez eskatu gehiegi egiteko baina aldi berean irakaslea ez dadila izan laguntza emaile hutsa.

Horregatik guztiagatik, curriculum hau garatu ahal izateko ikasle motibatuak behar dira, jakinmina eta lanerako gaitasun frogatua dutenak eta inolako zalantzarik gabe literatura eta kulturarekiko interesa dutenak.

Oinarrizko gaitasunak lortzeko irakasgaiak egiten duen ekarpena

Irakasgai honek hizkuntzaren bidez komunikatzeko gaitasuna eskuratzen laguntzen du, literaturaren, kazetaritzako iritzi testuen, publizitatearen eta saiakeraren ekarpenak konbinatzen baitira eta ikasleek hizkuntzaren inguruko trebetasunak garatzen baitituzte: mintzamena, entzumen, irakurmena, idazmena. Irakasgai honetako eduki guztietatik abiatuta askotariko testuen ulermenezko irakurketa eta ahozko zein idatzizko adierazpena lantzen dira, kalitatezko edozein ikasketa egiteko ezinbesteko baliabide gisa.

Bakarka nahiz taldean testuak irakurri, hausnartu eta iruzkintzeko, entzuten, azaltzen eta argudiatzen trebatu beharra dago. Beste alde batetik, ikasgelan eta ikasgelatik kanpo lantzen diren testuen balorazio kritikoa eta sentimendu, ideia eta iritzien komunikazioa ezinbestekoak dira irakasgai honen helburuak lortzeko; jarduera horiek gaitasuna lortzen laguntzen dute, haietan hizkuntza ahoz nahiz idatziz erabiltzen baita.

Literatura Sorkuntzak bereziki laguntzen du *kultur eta arte gaitasuna* lortzen. Izan ere, literatura estilo desberdinak bereizten eta baloratzen ikasten denez, nork bere idazlanetan estilo horiek birsortzeko gaitasunak garatzen dira. Irakasgai honen ildotik ideiak, esperientziak edo sentimenduak modu jator eta originalean adierazteko trebetasunak lortzen dira. Horrela irudimena eta sormena pizten dira.

Irakasgai honek *gaitasun soziala eta herritartasuna garatzen* laguntzen du, besteren lanak aintzat hartu, ulertu eta kritikoki baloratzeko gaitasuna sustatzen duelako, jarrera ireki eta begirunetsuak harraraziz. Irakurritako testua ikasgelan hausnartu eta iruzkintzean aukera emanen da nork bere ideiak adierazteko eta besteenak baloratzeko. Errespetua, tolerantzia, lankidetzeta eta malgutasuna sustatuko dira eta gizarte trebetasunak errazago lortuko dira.

Irakasgai honek lagundu egiten du *informazioaren tratamendurako gaitasuna eta gaitasun digitala* garatzen: une bakoitzean behar den informazioa bilatu eta aukeratu behar da eta nork bere ahozko eta idatzizko testuak sortzeko erabili behar du. Informazio horietako asko bilatu eta aukeratzeko beharrezkoa izanen da, adibidez, liburutegiak egoki erabiltzea edo Internet erabiltzea. Bilaketa horiek gidaritzapean egitea gaitasun digitala garatzeko bidea izanen da. Lanak egiteko euskarri elektronikoak erabiliko dira, idazketa prozesuko eragiketa batzuk (plangintza, testua egitea, berrikustea...) eraginkortasun handiagoz egin ahal izateko. Horrek ere lagundu egiten du gaitasun hau lortzen.

Literatura Sorkuntzaren bidez *ikasten ikasteko gaitasuna* errazago lortzen da. Izan ere, ikasteko gertutasuna eta ikaskuntza antolatzeke trebetasuna sustatzen dira, autonomiarako, diziplinarako eta gogoetarako trebetasunak sustatzen dira, eta norberaren gaitasun eta baliabideez jabetzera bultzatzen da, baita norberaren akatsak onartzera ere, hobekuntzarako tresna gisa. Irakasgai honetan memorizazioa, argumentazioa, norberaren eta besteren ideien laburpena eta norberaren lanaren emaitzak eraginkortasunez adierazteke trebetasuna lantzen dira. Horiek geroko ikaskuntzak ere erraztuko dituzte.

Irakasgai honek lagundu egiten du *autonomia eta ekimen pertsonala* lortzen, erabiltzen diren prozeduretan planifikatu, antolatu, aztertu eta komunikatu beharra dagoelako. Bakarka lanak egitea eta taldean gogoeta eta iruzkinak egitea ariketa lagungarriak dira inhibizio eta aurreiritziak gainditzeko, ikaskideen ekarpenak baloratzeko, akatsak onartzeko eta horiek nola zuzendu behar diren ulertzeko. Laburbilduz, irakasgai honek hobekuntzarako aukerak eskaintzen ditu eta hobetu nahia sustatzen du. Irakasgai honen bidez ikasleek kritikarako gaitasuna garatzen dute. Horrela, komunikabideen eragin ahaltuari autonomiaz aurre egiteko gai izanen dira.

Helburuak

1. Literatura testuak, kazetaritzako iritzi testuak, publizitatekoak eta saiakerak ulertzeko gaitasunaren garapenean sakontzea.
2. Testuen sorkuntza komunikaziorako eta pentsamenduaren heldutasunerako bide ezin egoikiagoa eta atsegina dela ohartzea eta ekintza hori baloratzea.

3. Behar adinako koherentzia eta zuzentasunez aritzea literatura testuak, kazetaritzako iritzi testuak, publizitatekoak eta saiakerak sortzen, helburuen eta komunikazio egoeraren arabera.
4. Mezu zehatz baten zerbitzuan plangintza egin eta testuak egin nahiz berrikusteko gaitasuna hobetzea.
5. Genero eta testu mota desberdinen produkzioan esku hartzen duten hizkuntz ezagutza testualak, kontestualak eta gramatikalak finkatzea.
6. Literatura estilo desberdinak ezagutu eta baloratzea, eta norberak sortutako testuetan estiloak imitatzeke nolabaiteko gaitasuna garatzea.
7. Prentsan informazioa eta iritzia bereiztea eta kazetaritzako iritzi testuak egiteko gai izatea.
8. Publizitateko mezuen osaera eta eragina zentzu kritikoz aztertzea.
9. Ikerlanak egiteko prozesuak ezagutzea, batez ere datuak, informazioak eta ezagutzak elkarrekin erlazionatzen dituztenak.
10. Nork bere buruarengan konfiantza gehiago izatea sorkuntza lan pertsonalen emaitza egoki eta erabilgarriak ikustean.
11. Eskola liburutegia nahiz informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea irakasgaiari buruzko lanak arrazoitu eta orientatzeko eta ezagutzak ikasi eta partekatzeko tresnagisa.

Edukiak

1. multzoa. *Literatura sorkuntza: bertsoak, poesia eta kontakizuna*

- Literatura estiloak. Ezaugarriak eta azterketa.
- Metrika. Bertsoa: bat-batekoa eta idatzia. Forma metriko nagusiak.
- Erretorika. Figura literario batzuk: metafora eta konparazioa.
- Bertso eta erromantze aukeratuen gaineko iruzkinak egitea estilo eta garai desberdinei erreparatuta.
- Bertsoak planifikatu eta sortzea hainbat irizpide kontuan harturik, hala nola ironia, imitazioa, norberaren pentsamenduaren adierazpena, askotariko eraldaketak eta abar.
- Ipuin literarioaren osagaiak: narratzailea, egitura, pertsonaiak, lekua eta denbora. Idatzizko eta ahozko narrazioa (kontakizuna).
- Ipuin literarioak aukeratzea haien amaiera, deskripzioak eta beste genero batzuekiko erlazioa aztertzeke.
- Ipuinak planifikatu eta sortzea, ikuspegiari, irakurleei, egiturari eta estetikari buruzko jarraibideak kontuan hartuz.

2. multzoa. *Kazetaritzako eta publizitateko sorkuntza*

- Kazetaritza generoak. Ezaugarriak eta azterketa.
- Kritika espezializatua. Zinema eta literatura kritikaren alorreko testuak planifikatu eta egitea.
- Iritzi generoak eta argudiozko testuen egitura. Artikulu eta zutabeen azterketa.
- Iritzi testuak planifikatu eta egitea.
- Publizitateko iragarkiak prentsan. Mekanismo linguistikoen eta bestelakoen azterketa: testua eta irudia.
- Publizitateko iragarkiak planifikatu eta sortzea bai komunikazio prozesua eta bai merkatu teknikak kontuan hartuz.

3. multzoa. *Testu akademikoak sortzea. Eduki akademikoak idatziz prestatu eta ahoz azaltzea*

- Testu akademikoa. Haren ezaugarriak ulertzeko oinarriak.
- Gaia aukeratzea, hainbat iturritatik informazioak biltzea, horiek aukeratu, aztertu eta alderatzea, eta testuan azaltzea.
- Ikerketa lana planifikatu eta egitea, iturrien hautaketa eta norberak sortutako testu batean integratu beharra kontuan hartuz. Sortutako lan akademiko bat ahoz azaltzea.

Ebaluazio irizpideak

1. Literatura testu baten estiloa zein den esatea, irizpide linguistikoak, tematikoak eta erretorikoak erabiliz.

Irizpide honen bidez ebaluatu nahi da noraino barneratu dituzten ikasleek literaturari buruzko ezagutzak, ikasgelan iruzkindutako testuak irakurriz, baloratuz eta gozatuz; begiratuko da ea gai diren testutik urrundu eta haren edukia, antolaketa, hizkuntzaren erabilera eta egilearen eskua ebaluatzeko. Ondokoak ebaluatuko dira: gaiak eta motiboak ulertzea, genero nagusien ezaugarriak (kontakizunaren historiaren elementuak eta bilakaera kronologikoa, antzerki testuaren osagaiak, bertsokeraren egiturak eta erritmoan duten eragina) eta azpigenero nagusienak ezagutzea, eta baliabide erretoriko ohikoenak ere ezagutzea, arreta berezia jarriz hizkuntza poetikoaren balio sinbolikoari.

Helburu hori lortzeko, honako hauek atzeman behar dira: literatura testuaren identitatea markatzen duten egiturazko elementuak (argumentua, pertsonaiak, ekintzak, lekuak, denborak etab.), testuan dauden askotariko erregistroak, eta erabilitako prozedura erretorikoen mota nagusiak errekurrentziak, irudiak, hitz hautaketa, etab.).

- 2. Bertso baten ezaugarri metriko eta erretorikoak, beren erritmoa, baliabideak eta asmoak zehaztea. Bertsoak osatzea, kontuan hartuz, besteak beste, estiloa, sentimenduaren adierazpen hutsa eta zenbait baliabideren erabilera, aurrez zehaztutako gai eta formen arabera.**

Irizpide honen bidez egiaztatu nahi da ikasleek badutela gaitasuna bertsoak berezko dituen ezaugarri formalak atzemateko, bai ikuspuntu metriko eta erritmikotik, bai linguistiko eta erretorikotik. Hizkuntza poetikoaren funtzionamendu arauen ezagutza ebaluatuko da.

Hizkuntzaren bidez komunikatzeko gaitasunaren garapenean, irizpide honen bitartez jakin nahi da ea ikasleek idatzizko eta ahoko hizkuntzan lortu duten maila aski ote den testu poetikoak ulertu eta barneratu ondoren horiek berriz formulatu ahal izateko. Berreraikuntza horrek erakutsi behar du jatorrizko testuaren oinarriko elementuak ulertu direla, ideien nahiz formen aldetik, eta berriz erabili direla norberaren mezua adierazteko. Ez da kalitate literarioa ebaluatuko, formaren, erritmoaren eta erretorikaren aldetik ezaugarri jakinak dituzten bertsoen ereduak imitatzeke eta helburu zehatz batekin haien eraldaketa errazak egiteko gaitasuna baizik.

- 3. Ipuin literarioaren osagaiak bereiztea, hots, narratzailea, ikuspegia, egitura, pertsonaien karakterizazioa eta espazioaren zein denboraren tratamendu desberdinak, eta haren ezaugarriak azaltzea, osagaiak ulerturik, sailkapenen eta beste genero batzuekin duen loturaren arabera. Hura eraldatzea osaketa-alderdiekin zerikusia duten jarraibideak kontuan hartuz, hala nola amaiera, ikuspegiak, egoera aldatetako eta abar.**

Irizpide honen bidez ebaluatuko da ea ikasleak, beren kultur eta arte gaitasunaren garapenean, kontakizun literario bat irakurrita, gai ote diren hura literario egiten duten elementu formal eta kulturalak ezagutu eta labur azaltzeko: nola kontaktzen den istorio bat, zer kontaktzen den, nork kontaktzen duen, nondik kontaktzen duen, noiz eta non gertatzen den. Halaber, ebaluatuko da ea egitura horietan antzematen duten istorio hori kontakizunaren tradizio baten barnean dagoela (herri ipuinak, maitagarrienak, fantasiakoak, literarioak, alegiak...) bai haren formagatik bai pentsamolde edo balio-sistemagatik (ikasbidea, mezua, jolasa...).

Irizpide honen bidez, gainera, aztertu nahi da ea ikasleak gai diren ezagutu edo bizi izan dituzten gertaera batzuk kontatzeko, hurrenez hurren eta zehaztasunez, agindutako egitura erabilia, batzuetan, eta kontuan izanik zer kontaktzen den eta nori, eta zer transmititu nahi den; eta hori modu pertsonalean egiteko gaitasuna neurtuko da.

- 4. Zenbait egunkaritan kazetaritzako generoen ereduak bereiztea, kontuan izanik informazioaren eta iritziaren konbinazio desberdinak, eta artikulua edo zutabe baten egitura azaltzea, ideien arteko loturak erakusten dituen eskema baten bidez. Zinema eta literaturako kritika espezializatuak idaztea, testuingurua kontuan izanik, egiturak markatutako ildoak jarraituz, horretarako behar den informazioa alde aurretik bilduta, eta iritzi artikulua bat egitea ikastetxeko aldizkarirako, ideiak behar bezala egituratuz eta argudiatze-testuaren egitura ereduari jarraituz.**

Irizpide honek irakurmena ebaluatzen du gizarte esparruan. Irizpide honen bidez egiaztatu nahi da ikasleak gai direla idatzizko komunikabideetan kazetaritzako genero nagusiak identi-

fikatzeko, iritzia eta informazioa bereiziz, eta azpigeneroen –erreportajea, editoriala, zutabea, elkarrizketa...– oinarrizko ezaugarriak bereizten dituztela. Jakin nahi da ea bereizten duten ideia nagusia, hura ageri den enuntziatuei erreparatuz; ea bereizten duten nola dagoen egituratuta informazioa, eta ideiak antolatzeke teknikak erabiltzen dituzten, hala nola eskemak edo kontzeptu-mapak. Testuari modu kritikoan heldu beharko diote, eta generoa ezagutu. Testuaren edukia, egitura eta hizkuntzaren erabilera ebaluatu beharko dituzte modu orokorrean. Horri guztiari nor bere iritzia osatu eta adierazteko gaitasuna gehitzen zaio, gaitasun sozialaren eta herritartasunaren eta norberaren autonomiaren garapenean.

Honakoak ere ebaluatuko dira: idazmena, informazioa bilatu eta lantzeko gaitasuna, eta, emandako ereduetatik abiatuta, ideiak iritzia arloko azpigenero informatiboen formularen arabera antolatuta adierazteko gaitasuna. Informazioa lantzeko gaitasunaren eta gaitasun digitalaren garapena ere ebaluatuko da.

5. Prentsan agertutako publizitate iragarkien gaineko iruzkinak egitea, kode desberdinen artean dagoen erlazioa eta erabilitako hizkuntz kodearen ezaugarriak kontuan izanik. Baliabide linguistikoak, ikonikoak eta merkatoteknikoak erabiltzea ikastetxeko bizitzarekin zerikusia duen publizitate iragarki bat egiteko.

Irizpide honen bidez egiaztatu nahi da ikasleek informazio zehatzak ateratzeko gaitasuna dutela eta elementu testualak eta paratestualak, mezuaeren asmoa eta hizkuntzaren elementuak identifikatzen dituztela. Iragarkiak kritikoki aztertu beharko dituzte, haien kodeak ezagutu, haien edukia, egitura eta asmoa ebaluatu beharko dituzte modu orokorrean. Iritzi pertsonala eman beharko dute, azalpen egituratua eginez, publizitateak beren bizitzan duen eraginari buruz.

Era berean, kontuan izan behar da ea gai diren kode horiek (hizkuntzarena, ikurrena...) taldean berregiteko, ikastetxeko bizitzan benetako eragina izan dezaketen iragarkiak sortze aldera.

6. Testu akademiko batean erabilitako jakintza iturriak atzematea, alde aurretik iturri horiek arakatu baitira, ikerketa lanean zehar. Gai interesgarri bati buruzko ikerketa lana idaztea, aurkibide bati jarraituz; haren garrantzia justifikatzea, ondorio berritzaile eta erabilgarriak ateratzea eta argi azaltzea zein iturri bibliografiko erabili diren. Lan hori ahoz azaltzea.

Irizpide honen bidez egiaztatu nahi da ikasleek badakitela, oro har, nondik datozen testu akademikoari eusten dioten informazioak. Defendatzen den tesia ulertzeko gaitasuna, hura argudiatzen den modua eta hura egiaztatzen duten datuak baloratuko dira.

Kontsulta iturriak erabiltzen jakin behar dute, eragiten dieten gaurko gaiei buruzko lan pertsonalak egiteko. Iritzi arrazoituak eta pertsonalak emateko gaitasun kritikoari erreparatuko zaio. Idatzizko testuak paperean eta euskarri digitalean behar bezala aurkeztu eta arau ortografiko eta tipografikoak betetzea ere baloratuko da, bai eta lana ahoz ongi azaltzea ere.

7. Norberaren ideiak eta esperientziak erabiltzea asmo literarioko testuak sortzeko, generoko egiturak eta prozedura erretorikoak ohartuki erabiliz eta tradizio literarioko eruedetara joz.

Irizpide honen bidez egiaztatu nahi da ikasleak gai direla testu literario bat sortzeko prozesuari ekiteko beren bizipen eta emozioak erabiliz eta literaturak eskaintzen dizkien egile ospetsuen eruedei jarraituz. Ikasleek trebetasun handi samarra erakutsi behar dute genero bakoitzeko egiturak erabiltzen, eta hizkuntza literarioaren adierazpideak erabili behar dituzte, ikasgelako praktika pedagogikoan landu direnak, bai prosaz bai bertsoz.

8. Ahozko eta idatzizko testu desberdinetan, bereizkeria soziala, arrazaren edo sexuaren ziozkoa etab. nola edo hala agertzen duten irudi eta esapideak identifikatzea, halakorik ez erabiltzeko ordezkio bideak arakatzea eta ordezkio bide horiek erabiltzea norberaren produkzioetan.

Egiaztatu nahi da ikasleek bereizkeriazko hizkera antzematen dutela ahozko, idatzizko eta hitz eta ikurrez osatutako testuetan, gizarteak eta pertsonak nahita edo oharkabean hizkera hori nola erabiltzen duten hausnartzen dutela, eta bereizkeriarik gabeko bideak proposatu eta erabiltzen dituztela. Komeni da bereziki erreparatzea gizarte komunikabideetatik datozen mezuei eta hitzezko kodearen eta hitzik gabeko kodeen arteko harremanei.

Sarrera

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza hasterakoan zenbait ikaslek artean garatu gabe dituzte etapa berria aprobetxamendu onez egiteko behar diren gaitasunak. Ez dakizkitez ongi ezinbesteko eta funtsezko kontzeptuak, DBHn bereganatu behar dituzten kontzeptu berrien oinarri direnak, eta ikasteko zailtasun handiak izaten dituzte, eragiketa konbinatuak egiteko behar diren prozedurak arin eta trebetasunez erabiltzeko gai ez izateagatik.

Irakasgai honen xedea da matematika horrelako ikasleentzat irakasgai errazagoa eta adierazgarriagoa izan dadin saiitzea. Abiapuntu gisa kontuan hartu behar da pertsona guztiek ez dituztela adimen gaitasun berdinak arrazoiketa abstraktuan aritzeko. Hala ere, matematika irakasleek ahaleginak egin behar dituzte DBHn hasten diren ikasle guztiek matematikako oinarrizko gaitasunak gara ditzaten, errendimendu hobea lortzeko eta irakasgai hau hobeki ulertzeko. Horretarako, oinarrizko eduki kontzeptualak bereziki landu behar ditugu eta ikasleen esperientziari lotutako adibide zehatzak erabili horiek ulertarazteko, askotariko baliabideen bitartez. Beste alde batetik, kontuan hartu behar da ikasle guztiek ez dutela erritmo berean ikasten, unitate didaktiko bakoitza azaltzeko hartu beharreko denbora egokitze aldera.

Horrelako ikasleentzat garrantzi handikoa da irakasleekin hurbileko harremana izatea; adimena erabiltzeko oztupoak kentzea errazten du, autoestimari on egiten dio eta irakasgaiaren kontzeptuak ezin ulertzeak ikasle askori eragiten dien zapuzketa gainditzeko laguntzen du.

Hamabi-hamahiru urteko ikasleek ikasketan izaten dituzten zailtasunen artean bi azpimarratu behar dira: problema oso errazak ebazteko eragiketa egokia nola aukeratu, eta bi eragiketa edo gehiagoren arteko konbinazioa nola egin. Ikasleek Lehen Hezkuntzako azken ziklotik herrestan ekartzen dituzte zailtasun horiek eta DBHn pixkanaka korapilatu egiten zaizkie; izan ere, etapa honetan ikasleek zenbaki negatiboak eta erro karratuak erabili behar dituzte, egoera zehatz bakoitzean horiek noiz erabili jakin behar dute, eragiketak ongi egin behar dituzte, eta aljebra ikasten hasten dira letrak erabiliz, baita letren eta zenbakien arteko konbinazio ope-

ratiboak ere. Eta hori guztia lortuko badute, jauzi izugarria egin behar dute arrazoibide abstraktua eratzeko prozesuan.

DBHko lehen kurtsoko ikasgelan elkarrekin daude horrelako ikasleak eta programazio arruntari jarraitzen dioten gainerakoak, eta zaila da lehenengoei bereiz eta behar adina denboraz jaramon egitea. Horregatik komenigarria da *Oinarrizko Matematika* aukerako irakasgaia ezartzea. Bertan aintzat hartuko da ikasgaiaren izaera hezitzailea eta, ahal den heinean, arrazoimen eta jeneralizazio-ahalmen matematikoen garapena sustatuko duten jarduerak egingen dira. Irakasgaiaren alderdi instrumentala bereziki landuko da; izan ere, eguneroko jardueretan agertzen diren problemak ebatziko dira, baita kontsumo eta erosketa ohiturekin zerikusia duten beste batzuk ere. Hipotesi sinpleak prestatu eta egiaztatuko dira, prentsatik eta komunikabideetatik ateratako zenbaki eta portzentajeak erabiliz, eta ikasitako kontzeptuak praktikan jarriko dira, hobeto ulertzeko nola kuantifikatzen diren beste irakasgai batzuetan, esate baterako Geografia eta Historian eta Natur Zientzietan, prozeduratzat erabiltzen diren fenomenoak.

Eduki bakoitza lantzeko proposatzen diren jarduerak ahalik ongien egokitu behar zaizkie irakasgai honetako ikasleen garapen psikoebolutiboaren maila desberdinei. Aldez aurretik ikasle bakoitzak dituen zailtasunen diagnostikoa egin behar da eta atzematen diren akats motak sailkatu.

Matematika erabat hierarkizatua dagoela kontuan izanik, ikasi beharrekoa ikasita dagoela ziurtatu behar dugu hurrengo gaiari ekin aurretik eta ilun gelditu ohi diren alderdiak azpimarratu behar ditugu, adibidez hizkuntza aljebraikoa: parentesien erabilera eta esanahia, letrek hizkuntza matematikoan dituzten funtzioak, eragiketa konbinatuetarako erabiltzen den sinbolizazioa, etab.

Eduki berrien ikasketari dagokionez, komenigarria da lehenago ikasi diren edukiekin lotzea, ikasleek errazago barneratu eta gogoratu ditzaten. Beste alde batetik, akatsak azaldu ahala arreta eman beharko zaie, edozein motatakoak direla ere: akatsak eragiketetan edo jeneralizazioan, akats kontzeptualak, nahasteak lehendik ikasitakoarekin, eta abar. Finkatu baino lehen zuzendu behar dira eta errotuta daudenak erauzteko ahaleginak egin behar dira.

Metodologiaren ikuspegitik, azpimarratu behar da zein garrantzitsua den ikasleen segurtasuna indartzea ikasketan aurrera egin ahala, eta ikasten dituzten gaiak eguneroko bizitzan erabilgarriak direla erakustea. Gainera, zalantzak eta galderak lasai azaltzeko giro aproposa sortu behar da, eta, azken batean, ikasleek matematikarekin duten harreman afektiboa hobetu behar da.

Kalkulagailua tresna pedagogiko gisa erabili behar da, algoritmoen bidez edo buruz egindako eragiketen emaitzak egiaztatzeko, saiakuntza-erroreen bidezko jarduerak egiteko, eta kontzeptuak ulertzen laguntzen ahal duten erregulartasunak ikusteko, jardueraren xede zehatza kalkulua egitea bera ez denean. Komeni da beste material eta baliabide batzuk ere izatea, eskuetan erabiltzen ahal direnak, geometriako jardueretarako: bilbe, irudi eta gorputz geometriko desberdinak dituzten paper orriak, bilbe triangeluarreko eta karratuko geoplanoa, angeluak, luzerak, azalerak eta bolumenak neurtzeko tresnak etab. Ordenagailua erabiltzea interesgarria izan daiteke figuren irudikapenerako eta animaziorako edo hainbat motatako grafikoak egin eta interpretatzeko, adibidez.

Oinarrizko gaitasunak lortzeko irakasgaiak egiten duen ekarpena

Irakasgaiaren curriculum osoak matematikako gaitasuna lortzen laguntzen duela esan daiteke; izan ere, errealitatea interpretatu eta deskribatzeko eta horren gainean jarduteko pentsamendu matematikoaren modu desberdinak erabiltzeko gaitasuna ikasketaren xedearen zati da. Eduki multzo guztiak matematikaren ikuspegitik arrazoitzeko, argudio matematikoak ulertzeko eta hizkuntza matematikoan gauzak adierazi eta komunikatzeko trebetasun eta jarrerak aplikatzera bideratuta daude. Horretarako, tresna egokiak erabili behar dira eta ezagutza matematikoa bes-telako ezagutzekin batu behar da. Hala, ondorioak aterako dira, ziurgabetasuna gutxituko da eta konplexutasun maila desberdinetako eguneroko egoerei aurre eginen zaie. Esan behar da matematika irakasteko modu guztiek ez dutela berdin laguntzen matematikako gaitasuna lortzen: ikasketen funtzionaltasuna azpimarratzeak, inguratzen gaituen mundua ulertzeko erabil-garritasunak edo problemak ebazteko estrategien hautapenak, horiek guztiek benetako aukera ematen dute matematika hainbat jakintza-arlori edo eguneroko bizitzako hainbat egoerari apli-katzeko.

Forma, erlazio eta egitura geometrikoak bereiztea, batez ere ikusmen espazialaren garapenaren bidez, eta formak nahiz adierazpenak planoaren eta espazioaren artean transferitzeko gaitasu-na garatzea lagungarriak dira *mundu fisikoa ezagutzeko eta harekin elkarreraginean aritzeko gaitasuna* sakonean lantzeko. Eredugintza beste erreferente bat da norabide berean. Ereduek egiteko, egiazko egoeraren ezaugarri nabarmenak identifikatu eta hautatu behar dira, sinbolo-en bidez hura irudikatu behar da eta jokabideak, erregulartasunak eta inbariantek zehaztu, ho-rietatik abiatuta ereduaren eboluzioari, zehaztasunari eta mugei buruzko aurreikuspenak egin ahal izateko.

Bestalde, ikasteko eta problemak ebazteko baliabide didaktiko gisa tresna teknologikoak erans-ten dira eta hori lagungarria da ikasleek *informazioaren tratamendurako gaitasuna eta gaitasun digitala* hobetu dezaten. Era berean, hizkuntza grafikoa eta estatistikoa erabiliz hobeki interpre-tatzen da komunikabideek azaldutako errealitatea. Halaber, oso garrantzitsua da hizkuntza mota desberdinen arteko elkarreragina: hizkuntza naturala, zenbakizkoa, grafikoa, geometrikoa eta aljebraikoa erabili behar dira informazioaren tratamendua eta ikasleen esperientzia elkarri lotzeko.

Matematikaren bidez *hizkuntzaren bidezko komunikaziorako gaitasuna* lantzen da. Izan ere matematikan etengabe erabili behar dira mintzamina eta idazmena, ideiak formulatu eta adie-razteko. Horregatik, matematika irakatsi eta ikasteko harreman guztietan, batez ere problemen ebazpenean, garrantzi berezia du egindako prozesuak eta erabilitako arazoibideak adierazteak, hala ahoz nola idatziz, adierazpen horiek pentsamendua formalizatzen laguntzen dutelako. Hiz-kuntza matematikoa, berez, ideiak komunikatzeko bidea da, eta bere terminoen zehaztasuna-gatik eta hipotesiak transmititzeko ahalmen handiagatik nabarmentzen da, bere lexiko sinteti-ko, sinboliko eta abstraktuari esker.

Matematika lagungarria da *adierazpen kultural eta artistikorako gaitasuna* lantzeko, ezagutza matematikoa bera kulturaren adierazpen unibertsala delako. Geometria, bereziki, gizadiaren

arte-adierazpenaren zati da, inguratzen gaituen mundua deskribatu eta ulertzeko eta sortu dituen egituren edertasunaz jabetzeko bitartekoak eskaintzen baitizkigu. Irakasgai honen bidez sentikortasuna eta sormena, pentsamendu dibergentea, autonomia eta grina estetikoak landu nahi dira.

Problemak ebazteko prozesuek bereziki laguntzen dute *autonomia eta ekimen pertsonala* sustatzen, estrategiak planifikatzeko eta erronkei aurre egiteko erabiltzen direlako eta lagungarriak direlako ziurgabetasunarekin bizitzeko eta, aldi berean, erabakiak hartzeko prozesuak kontrolatzeko. Halaber, matematikan garatzen diren teknika heuristikoak informazioa tratatzeko eta arrazoitzeko eredu orokorrak dira, eta irakasgai honek sendotu egiten ditu *ikasten ikasteko gaitasunarekin* zerikusia duten trebetasunak, hala nola autonomia, iraunkortasuna, sistematizazioa, hausnarketa kritikoa eta norberaren lanaren emaitzak eraginkortasunez komunikatzeko gaitasuna.

Gaitasun sozialari eta herritartasunari ere ekarpena egiten zaio, matematika gizarteko fenomenoak deskribatzeko erabiltzen baita. Matematikak, batez ere funtzio-analisiaren eta estatistikaren bidez, iragarpenak egiteko eta erabakiak hartzeko irizpide zientifikoak eskaintzen ditu. Halaber, gaitasun hori lortzeko lagungarria da problemak ebazteko prozesuetan egindako akatsak modu eraikitzailean aztertzea. Horrela, bide batez, besteren ikuspuntuak aintzat hartzen dira, norberaren ikuspuntuen parean jarritz, eta egoera bati ekiteko aukera desberdinak aztertzen dira.

Helburuak

1. Matematikarekiko jarrera positiboa lortzea eta ikasleei laguntzea pentsamendu eta jarduera matematikoen onuraz eta baliagarritasunaz ohar daitezen.
2. Ikasleen autoestimua eta beren buruarekiko konfiantza sustatzea haien interesa pizten duten jardueren bitartez.
3. Sormena, erabakiak hartzeko gaitasuna eta askotariko problemen ebazpenari ekiteko trebetasun pertsonalak sustatzea.
4. Informazio iturri desberdinen aurrean gaitasun kritikoa garatzea.
5. Testu bateko hitzak eta kontzeptuak ulertzea, hizkuntza arruntetik hizkuntza matematikora aldatzeko.
6. Oinarrizko enuntziatu matematikoak interpretatu eta zuzen adieraztea, hizkuntza egokia erabiliz.
7. Agindutako lanak burutzeko behar den informazioa bilatu eta erabiltzea.
8. Matematikan ikasitako gaiak eguneroko egoera eta arazoetan izan ditzaketen aplikazioekin lotzea.
9. Eragiketak eta unitate aldaketak egiteko behar-beharrezkoak diren errutinak eta prozedurak ikastea.

10. Testu eta kontzeptuak ulertuz eta tresna-errutinak ikasiz, oinarrizko problemak ebazteko behar diren estrategien jabe egitea.
11. Zenbaki mota desberdinekin aritzea, bakoitza zertarako den beharrezkoa eta zertarako erabil daitekeen ulertzeko, eta ongi moldatzea oinarrizko eragiketak egiten eta parentesiak erabiltzen.
12. Problema ebaztea zenbait eragiketaren konbinazio sinplea beharrezkoa denean, bai eta adierazpen aljebraiko errazak eta haien eragiketak tarteko direnean ere.
13. Planoaren eta espazioaren pertzepzioa garatzea eta irudi eta gorputz geometrikoen oinarrizko osagaiak atzematea.
14. Irudi geometrikoen azalera eta gorputz geometrikoen bolumena kalkulatzeko estrategiak bilatu eta aplikatzea.
15. Erlazio funtzionalak interpretatu eta bestelakoetatik bereiztea, grafiko funtzionalak eta grafiko estatistikoak interpretatuz eta baloratuz.

Edukiak

1. multzoa. *Aritmetika eta aljebra*

- Zenbaki arruntak eta zenbaki osoak. Zenbakizko adierazpena: zenbakiak testuinguru desberdinetan erabiltzea. Ordenamendua eta adierazpen grafikoa. Eragiketak zenbaki arruntekin eta zenbaki osoekin: esanahia, kalkulua (buruz, algoritmoen bidez, kalkulagailuz) eta erabilgarritasuna. Idazkera eta hierarkia.
- Problema ebazteko estrategiak, eragiketa bat edo eragiketa konbinatuen multzo bat aukeratu behar denean eta aurretiaz emaitzaren estimazioa egin behar denean.
- Zatiagarritasuna. Nola deskonposatu zenbakiak faktore lehenetan zatigarritasun irizpideen bitartez. Nola kalkulatu z.k.h. eta m.k.t. eta nola aplikatu problema errazetan.
- Berreturekin eragiketak egitea, berretzailea zenbaki arrunta eta berrekizuna zenbaki osoa izanik. Problema ebaztea, berreturekin eragiketak egin eta propietateak aplikatu behar direlarik.
- Zenbaki arrazionalak: Adierazpide ezberdinak, esanahia eta irudikapena testuinguruaren arabera. Zatikari erako zenbaki arrazionalekin eragiketak egiteko algoritmoak. Zatikari baliokideak eta eragiketen propietateak erabiliz kalkuluak buruz egitea. Zenbaki hamartarrak. Eragiketak egitea algoritmoen bidez eta kalkulagailua erabiliz. Zenbatespena: hurbilketa, biribiltzea eta mozketa.
- Zuzeneko eta zeharkako neurketak. Neurriak sistema metriko hamartarreko neurri unitateen bidez adieraztea. Unitate batetik beste batera aldaketa egin behar den kasuak. Neurrien kalkulua eta zenbatespena.
- Magnitudeen arteko erlazioak. Proporzionaltasun erlazioak bestelakoetatik bereiztea. Zuzeneko proporzionaltasuna. Problema-egoerak ebaztea eta arrazoiak, ehunekoak, deskontuak eta gehikuntzak kalkulatzeko.

- Hizkuntza aljebraikoa. Adierazpen aljebraikoak eta lehen mailako ekuazioak. Problema errazak ebaztea, hizkuntza arruntetik hizkuntza aljebraikora igaro eta lehen graduako ekuazioak egin behar direlarik.

2. multzoa. *Geometria*

- Puntuak, zuzenak, planoak eta horien posizio erlatiboak ezagutzea.
- Angeluak. Motak. Angeluen alderaketa. Berdintasun kasuak. Neurri unitateak. Eragiketak.
- Forma eta irudi lauak manipulatu, deskribatu, marraztu eta sailkatzea.
- Poligono ganbilak. Triangeluak. Triangelu eta lerro ohargarriak eraikitzea.
- Poligonoen eta irudi zirkularren luzerak eta perimetroak kalkulatzeko hainbat unitatetan eta bizitzako hainbat testuingurutan, prozedura desberdinak aplikatuz.
- Azalera deskonposizioaren bidez kalkulatu eta hainbat unitatetan ematea.
- Zenbait gorputzen bolumenak. Edukiera eta bolumen unitateak.
- Problema ebazteko eta emaitzak zenbatesteko estrategiak, forma geometrikoen eraiketan eta luzera, perimetro, azalera eta bolumenen kalkuluan.

3. multzoa. *Taulak eta grafikoak*

- Erreferentzia sistemak eta koordenatu kartesiarrak nola erabili objektuak eta informazioa irudikatzen.
- Balio-taulak eta grafikoak. Grafikoetatik abiatuta taulak lortzea eta alderantziz.
- Eguneroko bizitzako egoerak, zientziak aztertzen dituzten gertaerak eta informazioaren munduan azaltzen diren gertaerak hartu eta horien analisiak egitea, maiztasunak kalkulatu eta taulak zein barra-diagramak eginez.
- Maiztasun-taulak eta barra-grafikoak interpretatzea.

Ebaluazio irizpideak

1. Zenbaki arruntak eta osoak, zatikiak, hamartar errazak eta portzentajeak, horien bidezko eragiketak eta horien propietateak erabiltzea informazioa bildu, eraldatu eta trukatzeko.

Ebaluatuko da nola erabiltzen diren, benetako bizitzatik hartutako egoeretan, zenbaki mota desberdinak, horien balioa nola interpretatzen den, eta ea ikasleak gai diren hainbat modutan idatzitako zenbakiak konparatu eta tartekatzen. Halaber, zenbaki arrunt, zenbaki oso, zatiki, hamartar eta portzentajeekin eragiketak egiteko gaitasuna ebaluatu nahi da. Parentesiak eta eragiketen hierarkia erabili beharko dira. Ikasleek zenbaki lehenetako txikiak identifikatu beharko dituzte, zenbaki konposatuak faktore lehenetan deskonposatu beharko dituzte, zatigarritasun irizpideak erabiliz, eta bi edo hiru zenbakiren zatitzaile komunen handiena eta multiplo komunen txikiena lortu beharko dituzte.

2. Problema ebaztea lau eragiketen bidez, zenbaki arruntekin, osoekin, hamartarrekin, zatikizkoekin eta portzentajeekin, eta eguneroko bizitzan proportzionaltasun egoerak atzematea, kalkulu mota egokia erabiliz eta emaitza testuinguruari noraino egokitzen zaion baloratuz.

Baloratu nahi da ea ikasleak gai diren eragiketa desberdinei esanahi berriak esleitzeko eta egoera bakoitzerako kalkulu mota egokiena hautatzeko. Era berean, ebaluatu nahi da nola interpretatzen diren kalkuluetan lortutako emaitzak, eta egiaztatu nahi da ikasleek ez dutela emaitza besterik gabe ontzat ematen, aitzitik, abiapuntuko egoerarekin erkatzen dutela.

3. Hizkuntza aljebraikoa erabiltzen hastea inguruko egoera sinpleak deskribatzen dituzten aldagaien arteko erlazioak adierazteko.

Irizpide honen bidez, adierazpen sinpleak hizkuntza aljebraikora itzultzeko eta adierazpen aljebraikoen zenbakizko balioak kalkulatzeko gaitasuna ebaluatuko da. Kontuan hartuko da, halaber, lehen mailako ekuazio baten bidez planteatu beharreko problema errazak nola planteatu eta ebazten diren.

4. Irudi lauak ezagutu eta egitea, haien elementuak deskribatzea eta haien propietateak erabiltzea eguneroko bizitzako egoerei aplikatzeko.

Irizpide honen bidez ebaluatu nahi da ikasleek nola ikasi dituzten geometria lauako kontzeptuak, eta eguneroko bizitzako hainbat egoera eta problemaren aurrean kontzeptu horiek erabiltzeko gai ote diren.

5. Irudi lauen angeluak, perimetroak eta azalerak kalkulatzeko neurri-unitate egokia erabiliz.

Ikasleek hainbat metodo erabiliz irudi lauen angeluak, perimetroak eta azalerak neurtzeko gaitasuna dutela egiaztatu nahi da. Gainera, kontuan hartuko da nola erabiltzen diren oinarriko irudien bidezko deskonposizio-metodoak ingurunean irudi lauen azalerak kalkulatzeko, eta nola erabiltzen diren neurri-unitateak.

6. Askotariko informazioak prestatu eta interpretatzea, eguneroko datu multzoekin taulak eta grafikoak eginez.

Irizpide honen bidez, irudikapen grafiko sinple baten ezaugarriak deskribatzeko eta hark daukan informazioa zuzen interpretatzeko gaitasuna ebaluatu nahi da, baita datu multzoak grafiko egokiaren bidez irudikatzeko gaitasuna ere. Gainera, maiztasun-eta barra-diagramak informazioa bildu eta irudikatzeko nola erabiltzen eta interpretatzen diren ebaluatu behar da.

7. Problema ebazteko estrategia eta teknika errazak erabiltzea, hala nola enuntziatuaren analisi, saiakuntza eta errorea edo problema errazago baten ebazpena; lortutako soluzioa egiaztatzea, eta ebazpenerako erabili den prozedura azaltzea, ikaslearen mailarako hizkuntza matematiko egokia erabiliz.

Irizpide honen bidez ebaluatu nahi da nola ekiten dioten ikasleek problemari, soluzioa lortzeko prozedura estandarrik ez dagoenean. Hainbat alderdi ebaluatuko dira: ea enuntziatua

ulertzen den testuaren zati bakoitza aztertuz eta alderdi nagusienak identifikatuz, nola aplikatzen diren ebazpenerako estrategia sinpleak, eta ea ikasleak soluzioa egiaztatzeko ohiturarik eta trebetasunik ba ote duen. Era berean, ebaluatu egin behar dira ebazpenak bilatzeko jarraikitasuna, nork bere buruarengan soluzioa lortzeko konfiantza izatea, eta garatutako ideia eta prozesu pertsonalak hitz egokiez transmititzeko gaitasuna, ikaskideek uler ditzaten. Truke jarduera hori egiteko jarrera positiboa izatea ere kontuan hartuko da.

Oinarrizko Hizkuntza Trebetasunak [Bigarren kurtsoa]

Sarrera

Aukerako irakasgai hau DBHko bigarren kurtsoan hizkuntzaren ezagutza eta erabilera finkatu nahi dituzten ikasleei dago zuzendua bereziki. Beraren bidez, funtsean, azalpenezko eskola testuak, narrazio testu errazak eta kazetaritzako testuak ulertzeko eta sortzeko gaitasunak indartu nahi dira, literatura testuak ulertzeko gaitasuna ahanzi gabe. Gainera, alderdi formalagoak ere indartzen dira, idazkeraren gaineko konbentzioen ingurukoak: ortografia eta puntuazioa, gizartean kultura mailaren adierazgarritzat jotzen direnak.

Curriculum honen zati handi baten helburua azalpen testuak ulertzeko gaitasuna lortzea da, ideia nagusi hau oinarri dela: ikasleak irakurtzen dutena ulertzeko estrategiez hornitzea hizkuntzaren bitartez ikasteko ahalmena garatzeko gaitasunez hornitzea da, eta hori beren kabuz egingen duten neurrian, beste irakasgaietako ezagutzen ikasbide gisa erabili ohi dituzten testuak ikasteko moduan egon daitezten lortuko da.

Ulermena eta adierazteko ahalmena elkarri estu-estu lotuta daude. Bi gaitasun horiek erabiliz, ikasleek testutik ideia nagusiak atera behar dituzte, egitura atzeman, laburpena egin, antolaketaren eskema osatu eta edukiari buruzko galderak eta erantzunak egin behar dituzte. Hurrengo urratsean prozesu hori bera aplikatu behar da testuak sortzeko, hasieran irakaslearen laguntzaz eta gero nor bere kabuz.

Jakina denez, testu generoak eta testu motak hitzarmenak dira, alegia, gizarte egituretan integrazio soziokulturala lortzeko bitartekoak dira. Horregatik, azalpenezko eskola testuetarako ulermena eta adierazpen ahalmena behin finkatuta daudenean, narrazio testuari ekin beharko zaio horren agerpen guztiak kontuan hartuz, izan ere, haren erabilera ez baita xede literariora mugatzen; aitzitik, hura ikusi ohi dugu kazetaritzako testuetan, bai eta, gero eta sarriago, publizitatearen baliabideen artean ere. Oinarrizko hizkuntza-trebetasuna da, hortaz, gizartean hainbesteko eragina duten esparruetan maiz aurkitzen diren testu mota horiek ulertzekoa. Arrazoi beragatik oinarrizkotzat jo behar da pertsona eta erakundeekiko harremanetan erabiltzen diren

testuekin ere ongi moldatzea. Gutunak aukera asko ematen ditu hizkuntza gaitasunak garatzeko eta haren testua hainbat modutan formulatzen ahal da; laburra denez, alderdi ortografikoak, semantikoak, sintaktikoak eta testualak lantzea ahalbidetzen du, eskaintzen dituen komunikazio goeren oparotasun eta aniztasuna dela medio.

Eskolan ezinbestez landu beharreko hizkuntza trebetasuna da idazmena. Idazteko prozesua konplexua da eta urratsez urrats egiten da. Abiapuntu gisa beste testu batzuk irakurtzen dira eta elkarrekin lotzen, ongi egituraturako antolamendua lortzeko. Azkenean ateratzen den produktua esperientzia pertsonalaren emaitza da eta egileak hizkuntza zein komunikazio trebetasun asko jarri ditu jokoan hura lortzeko. Ikasleei eskura jarri behar zaizkie osagai eta ezagutza horiek guztiak.

Literatura pertsona aberasteko bidea da. Literaturaren balioez gozatzen duten irakurleak lortzea eskolaren zeregin ukalezina da. Hori horrela, curriculum honen proposamena da ahozko eta idatzizko tradizioetik abiatzea literaturari ekiteko, gauza hurbil eta ezagunetatik hasita errazago helduko delakoan informazioa bultzatzen duen produkzioaraino.

Azkenik, irakaslearen egitekoa funtsezkoa da oinarrizko hizkuntza trebetasun hauen garapenean, aktibo agertu behar baitu prozesu osoan, ikasbideak eskainiz, ikaslearen zereginarekin konbinaturik, hau betiere bere ikasketaren arduradun nagusia baita.

Oinarrizko gaitasunak lortzeko irakasgaiak egiten duen ekarpena

Irakasgai honetako eduki guztietatik abiatuta askotariko testuen ulermenezko irakurketa, mintzamena eta idazmena lantzen dira, kalitatezko edozein ikasketa egiteko ezinbesteko baliabideak baitira; hau da, *hizkuntzaren bidez komunikatzeko gaitasuna* lortzea errazten da. Azalpen eta narrazio testuak irakurri eta horien laburpenak eta eskemak eginez, eta gero horrelako testuak sortuz, ikasleek hizkuntzari dagozkion trebetasunak garatzen dituzte: mintzatu, hizketan aritu, entzun, irakurri, ulertu eta idaztekoak.

Irakasgai honen barnean, zenbait kanta, erromantze eta elezahar irakurri eta baloratzea lagungarria da *kultur eta arte gaitasuna* garatzeko, hots, literatura ondarea eta gizakien kezken adierazgarriak diren gai errepikakorrak hobeki ezagutzeko.

Hizkuntza ikasteak, komunikaziorako gaitasunaren garapen gisa ulertuta, laguntza erabakigarria ematen du *gaitasun soziala eta herritartasuna* garatzeko, hau da, harremanetarako, bizikidetzarako, pertsonen arteko errespeturako eta elkar ulertzeko trebetasun eta abilezien multzoa garatzeko. Izan ere, hizkuntza ikastea besteekin komunikatzen ikastea da, besteek transmititzen dutena ulertzen eta beste errealitate batzuetara hurbiltzen ikastea. Irakasgai honek herritartasunari lotutako gaitasun hori ere lortzen laguntzen du, aurreiritziak eta munduaren irudi estereotipatuak hizkuntzaren bidez nola transmititzen diren aztertzen den heinean, hizkuntzaren erabilerak diskriminatzailea ezabatzen laguntzeko xedearekin.

Irakasgai honek lagundu egiten du *informazioaren tratamendurako gaitasuna eta gaitasun digitala* garatzen: une bakoitzean behar den informazioa bilatu eta aukeratu behar da eta nork bere ahozko eta idatzizko testuak sortzeko erabili behar du. Lanak egiteko teknologia berriak erabiliko dira, idazketa prozesuko lan batzuk (plangintza, testua egitea, berrikustea...) eraginkortasun handiagoz egin ahal izateko. Horrek ere lagundu egiten du gaitasun hau lortzen.

Hizkuntza gaitasunak landuz gero, *ikasten ikasteko gaitasuna* errazago lortzen da. Izan ere, ikasteko gertutasuna eta ikaskuntza antolatzekeo abilezia sustatzen dira, autonomiarako, diziplinarako eta gogoetarako trebetasunak ere sustatu egiten dira, eta norberaren gaitasun eta baliabideez jabetzera bultzatzen da, baita norberaren akatsak onartzera ere, hobekuntzarako tresna gisa. Irakasgai honetan memorizazioa, argumentazioa, norberaren eta besteren ideien laburpena eta norberaren lanaren emaitzak eraginkortasunez adierazteko trebetasuna lantzen dira. Horiek geroko ikaskuntzak ere erraztuko dituzte.

Hizkuntza erabiltzen ikasten denean, arazoak aztertzen eta konpontzen, planak egiten eta erabakiak hartzen ere ikasten da, hizkuntzaren eginkizunetako bat gure gizarte jarduera arautu eta bideratzea baita. Horregatik, hizkuntza trebetasunak lantzea lagungarria da *ekimen pertsonala* garatzeko eta nork bere jarduera gero eta *autonomia* handiagoz erregulatzeko.

Helburuak

1. Hizkuntza ahoz eta idatziz erabiltzea gizarte eta kultura jardueran, modu argi eta zehatzean, nahikoa arin eta aise, egoera eta funtzio desberdinetara egokituz, begirunea eta gizabidea agertuz.
2. Hizkuntzari eta hizkuntzaren erabilerari buruzko ezagutzak nolabaiteko autonomiaz aplikatzea ahozko eta idatzizko testuak ulertzeko eta egoki (hizkuntza erregistro desberdinak erabiliz), zuzen eta koherentziaz idatzi eta mintzatzeko.
3. Erakundeekiko eta pertsonen arteko komunikaziorako idazki mota guztiak ulertu eta erabiltzea: gutunak, eskabideak, txostenak, albisteak, erreportajeak...
4. Hizkuntza erabiltzea gauza berriak ikasteko, errealitatea ulertu eta aztertzekeo eta pentsamendua finkatu eta garatzeko tresna gisa.
5. Komunikabideek (prentsa, irratia eta telebista) esaten dutena interpretatzea eta arreta bereziz aztertzea ahozko eta idatzizko adierazpena, baita horrek hitzez besteko kodeekin duen erlazioa ere, komunikabideetatik datozen mezuei buruzko jarrera kritikoa garatzeko.
6. Irakurketa eta idazketa baloratzea, komunikatzeko bideak eta kultura aberastasunaren eta pertsonen gozamenaren iturriak diren aldetik.
7. Norberaren baliabideak edo kontsultarako baliabideak (hiztegiak, gramatikak, testu prozesadoreak...) erabiltzea norberaren akatsak zuzentzeko.
8. Eskola liburutegia nahiz informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea irakasgaiari buruzko lanak arrazoitu eta orientatzeko eta ezagutzak ikasi eta partekatzekeo tresna gisa.

Edukiak

1. multzoa. *Azalpen eta narrazio testuak ulertzea*

- Kurtsoko irakasgaiekin zerikusia duten azalpen testuak irakurri eta ulertzea. Puntuazio zeinuak doinuaren bidez interpretatzea, baliabide prosodikoak eta keinuzkoak erabiliz.
- Ulermenezko irakurketaren faseak: testua osorik irakurtzea, lerroaldeka irakurtzea, lerroalde-en izenburuak, testuaren eta haren osagaien antolamenduari antzematea, eskema egitea eta laburpena egitea. Irakurtzeko prozesuan estrategiak aplikatzea: irakurri baino lehen, aurre-irakurketa (aurretiko ezagutzak abian jartzea, iragarpenak egitea), irakurketa, irakurri ondoren.
- Azalpen testuak antolatzeako erak: konparazioa, problema/soluzioa, kausalitatea, deskripzioa eta segida. Adibideak.
- Laburpena. Laburpena ongi egiteko arauak: kenketa, orokortzea eta integrazioa. Laburpenaren ezaugarriak.
- Narrazio testuak, kazetaritzakoak eta publizitatekoak irakurri eta ulertzea. Haien egitura atzematea eta laburpena egitea. Narrazioan nagusi diren aditz formak.
- Erakundeekiko eta pertsonen arteko komunikazioan erabiltzen diren testuak irakurri eta ulertzea: eskaera, aurkezpen gutuna, merkataritzako gutuna, lagunarteko gutuna, txostena, jarraibideen testua, errezetak etab.

2. multzoa. *Testua sortu eta berrikustea: ortografia eta kaligrafia*

- Testua planifikatzea (proiektua, eskema, zirriborroa, idazketa, berrikuspina eta edizioa), sortzea eta berrikustea: koherentzia, kohesioa, egokitasuna eta aberastasuna.
- Nork bere produkzioak, ahozkoak zein idatzizkoak, ebaluatu eta zuzentzeko estrategiak ikasten hastea.
- Ortografia. Letren arazo ortografiko nagusiak, arauen azalpena eta praktika. Tiletaren erabilera. Puntuazioa.
- Kaligrafia. Letra ulergarri idaztea. Idatzizko testuen aurkezpena zaintzea.
- Jendaurrean eta idatziz adierazpenak egiteko konfiantza eta ekimena.

3. multzoa. *Hainbat motatako testuak sortzea*

- Kurtsoko irakasgaiekin zerikusia duen azalpen testua egiteko faseak: gaia hautatu, informazioa bilatu, edukiak aukeratu, ideiak antolatu, eskema egin, edukia idatzi, galderak eta erantzunak egin. Gaia ahoz azaltzea.
- Ipuin tradizionala. Ipuinak eraldatzea osagaietako batzuk manipulatur: pertsonaiak, hizkuntza, egitura, aditz denborak, espazioa, ikuspegia... Ahozko kontakizuna.
- Pertsonen arteko testuak egitea: mota desberdinetako gutunak (e-mailak, blogak...) eta administrazioko beste testu batzuk. Nola erabili testu horietako esapide eta hitz bereziak.
- Albisteak eta erreportajeak egitea. Egiturak, motak, faseak.

4. multzoa. *Ahozko adierazpena*

- Ahozko kontakizuna (narrazioak edo bizipenak).
- Ahozko azalpena (faseak: prestakuntza, azalpena eta ondorioak).
- Ahozko interakzioa: elkarrizketa; galderei erantzutea; argudiatzea eta eztabaidatzea: arauak eta mekanismoak.

5. multzoa. *Irakurzaletasuna sustatzea*

- Irakurzaletasuna sustatzea hainbat motatako testuen bidez.
- Herri kanta eta erromantzeak irakurtzea.
- Elezaharrak irakurtzea.
- Gazteentzako literaturako testuak irakurtzea.

Ebaluazio irizpideak

1. Ideia orokorra atzeman eta berariazko informazioa ateratzea, hainbat motatako testuak hartuta (azalpenak, kontakizunak eta testu praktikoak), eta ulertu direla erakustea, berariazko jarduera baten bidez.

Irizpide honen bidez egiaztatu nahi da ikasleak gai direla kurtsoko irakasgaiekin zerikusia duen testu bat –azalpena, kontakizuna, gutuna, albistea...– ahoz edo idatziz parafraseatu edo azaltzeko, eta gainera, ideia, gertaera edo datu esanguratsuak buruan atxikitzen dituztela. Prozesu horretan ikasleak testuaren zatiak bereizi behar ditu, testuaren garrantziaz eta esanahiaz jabetu, ideia nagusiak bigarren mailakoetatik bereizi, eta mezuan esplizituki ematen ez diren datuak ondorioztatuz.

Halaber, ebaluatu behar da ea ikasleek informazio zehatzak ateratzen dituzten; hizketa eta komunikazio-asmoa identifikatzen dituzten; prozesu nahiko luzeak burutzeko jarraibideei jarraitzen dieten; prozesu baten faseak, gertaeren sekuentzia eta denbora-garapena identifikatzen dituzten. Aipatutako testu mota horiek ulertzeko gaitasuna (ahozkoa edo idatzizkoa) egiaztatzea da helburua.

2. Norberaren jarduera planifikatu, egin eta berrikusteko behar diren gidoiak, lan planak, laburpenak, eskemak etab. egitea, ikasteko teknika erabilgarrienak baliatuz.

Irizpide honen arretagune nagusia izanen da ea nola erabiltzen den hizkuntza ikasketa lanak egiteko. Egiaztatu nahi da ikasleak gai direla jardueraren garapenerako beharrezkoak diren urratsak antolatzeke, hizkuntzaren arauak, ordena eta argitasuna errespetatuz, aurkezpena zainduz eta teknika erabilgarriak baliatuz, hala nola azpimarrak, taulak, laburpenak, gaikako antolatzaileak, edukien eskemak, perpaus tematikoak, gako-hitzak etab. Beren produkzioak berrikusiko dituzte behar diren laguntzez baliaturik, emandako adibideak, kontsultak, erka-tzeak, hiztegiak, entziklopediak etab. abiapuntu direla.

Bereziki ebaluatuko da nola garatzen den ikasten ikasteko gaitasuna, bai norberaren ahalmenen kontzientziari bai buru-lanerako tekniken bidez horiek garatzeko behar diren estrategiei erreparatuta.

3. Zerbait kontatu, azaldu, esplikatu, laburtu eta iruzkintzea, paperean edo euskarri digitalean, erregistro egokia erabiliz, ideiak argi eta garbi antolatuz, enuntziatuak sekuentzia lineal kohesiodunetan josiz, gramatika eta ortografia arauak betez eta testua planifikatu eta berrikustearen garrantzia aintzat hartuz.

Irizpide honen bidez ebaluatu nahi da ea testuak garbi antolaturik idazten diren, perpausak sekuentzia lineal kohesiodunetan josiz, eta interesik agertzen den testuak planifikatu eta berrikusteko, bertsio bat baino gehiago eginez, formatu eta erregistro egokiak dituen behin betiko testura iritsi arte. Ebaluatuko da ea ikasleek ba ote dakiten erakundeekiko eta pertsonen arteko komunikaziorako testu egokiak osatzen, horrelako testuetan hitzarmenez erabiltzen diren araei jarraituz; kazetaritzako kronika laburrak idazten, informazioa modu hierarkikoan antolatuz; kontakizun eta azalpen errazak laburtzen, jatorrizko testuaren oinarritzko elementuak berreginez; esparru akademikoko esplikazio eta azalpen errazak, glosarioak eta egindako lanei buruzko txostenak osatzen. Idatzizko testuak paperean eta euskarri digitalean behar bezala aurkeztu eta arau ortografiko eta tipografikoak betetzea ere baloratuko da.

Ebaluzioan aintzat hartu behar da ikasleekiko egokitze maila, izan ere trebetasun horiek guztiak eta gaitasun horien garapena guztiz garrantzitsuak baitira integrazio soziokulturala eta etorkizuneko autonomia pertsonala lortzeko.

4. Testuak egitea, paperean edo euskarri digitalean, ikasgelan irakurri edo iruzkindutako literatura testuak eredu harturik, edo testu horietan aldaketaren batzuk egitea.

Irizpide honen bidez egiaztatu nahi da ikasleak gai direla literaturaz ikasitakoak beren idazkietan erabiltzeko (paperean nahiz euskarri digitalean). Horretarako, ipuin, kanta, erromantze edo elezahar bat osatu beharko dute, ikasgelan erabilitako ereduak imitatuz, edo eredu horietan aldaketaren bat egin beharko dute helburu jakin batekin. Irizpide honen xedea ez da egindako testuen kalitate literarioa ebaluatzea, baizik eta ikasitakoak nola erabiltzen diren eta helburu eta zeregin jakin batzuetarako testuak nola sortzen diren ebaluatzea.

Honakoak ebaluatuko dira: ulermenezko irakurketaren garapena, adierazpen pertsonala, irakurtzearen atsegina, eta literaturak transmititzen dituen gizarte balioak ezagutzera, mota desberdinetako eredu-testuetan ageri diren hitzarmenen ezagutzaren bitartez.

5. Gelan egindako obren irakurketari buruzko iritzia azaltzea; egilearen ikuspegia eta hizkuntzaren erabilera baloratzea; obraren eduki literarioa eta esanahia bereiztea, eta edukia norberaren esperientziarekin lotzea.

Irizpide honen bitartez irakurtzeko gaitasuna ebaluatuko da literaturaren esparruan, irakurtzeko interesa nola garatzen den ikusteko, atsegin iturria eta nortasuna aberasteko bidea den aldetik. Ikasleek testua modu kritikoan aztertu beharko dute, horren edukia, egitura, hizkun-

tzaren erabilera eta egilearen ikuspuntua ebaluatu, obraren ingurune sozial eta historikoa ezagutu eta esku hartzen duten pertsonaien ezaugarriak zehaztu. Iritzi pertsonala eman behar harko dute, idatziz zein ahoz, obraren alderdi gogokoenei eta arbuiautueni buruz, eta iruzkinak eginen dituzte obrak deskribatzen duen bezalako mundu batean sortzen diren ondorioez eta obraren edukiaren eta norberaren bizipenen arteko inplikazioaz.

Halaber, baloratu nahi da ea ikasleek ba ote dakiten ikusten, irakurritako obrek erakusten dizkieten esperientzietan, bizi diren gizarteko errealitatea ulertzen lagunduko dieten balioak ikasi eta ezagutzeko iturria.

Oinarrizko Hizkuntza Trebetasunak

D eredua [Bigarren kurtsoa]

Sarrera

Aukerako irakasgai honek, izenak adierazten duen bezala, kontuan hartzen ditu bereziki DBHko 2. kurtsoko ikasleen artean hizkuntzaren ezagutza eta erabilera finkatu beharra dutenak. Horrela, bada, azalpeneko eskola testuak, zailtasun txikiko narrazio testuak, kazetaritzako testuak, pertsonen arteko eta erakundeekiko harremanetako testuak ulertu eta sortzeko gaitasunak indartu nahi ditu funtsean, hots, testu praktikoei dagozkienak. Hala ere, ez du albora uzten literatura testuen ulermena, gaurko gizarteari literaturak eskaintzen dizkion balioak ezin baztertuzkoak direlako. Gainera, alderdi formalagoak ere indartzen dira, idazkeraren gaineko konbentzioen ingurukoak: ortografia eta puntuazioa, gizartean kultura mailaren adierazgarritzat jotzen direnak.

Curriculum honen zati handi baten helburua azalpen testuak ulertzeko gaitasuna lortzea da, ideia nagusi hau oinarri dela: ikasleak irakurtzen dutena ulertzeko estrategiez hornitzea hizkuntzaren bitartez ikasteko ahalmena garatzeko gaitasunez hornitzea da, eta hori beren kabuz egiten duten neurrian, beste irakasgaietako ezagutzen ikasbide gisa erabili ohi dituzten testuak ikasteko moduan egon daitezen lortuko da.

Ulermena eta adierazteko ahalmena elkarri estu-estu lotuta daude. Bi gaitasun horiek erabiliz, ikasleek testutik ideia nagusiak atera behar dituzte, egitura atzeman, laburpena egin, antolaketaren eskema osatu eta edukiari buruzko galderak eta erantzunak egin behar dituzte. Hurrengo urratsean prozesu hori bera aplikatu behar da testuak sortzeko, hasieran irakaslearen laguntzaz eta gero nork bere kabuz.

Jakina denez, testu generoak eta testu motak hitzarmenak dira, alegia, gizarte egituretan integrazio soziokulturala lortzeko bitartekoak dira. Horregatik, azalpeneko eskola testuetarako ulermena eta adierazpen ahalmena finkatuta daudenean, narrazio testuari ekin beharko zaio

horren agerpen guztiak kontuan hartuz, izan ere, haren erabilera ez baita xede literariora mugatzen; aitzitik, hura ikusi ohi dugu kazetaritzako testuetan, bai eta, gero eta sarriago, publizitatearen baliabideen artean ere. Oinarrizko hizkuntza-trebetasuna da, hortaz, gizartean hainbesteko eragina duten esparruetan maiz aurkitzen diren testu mota horiek ulertzekoa. Arrazoi beragatik oinarrizkotzat jo behar da pertsona eta erakundeekiko harremanetan erabiltzen diren testuekin ere ongi moldatzea. Gutunak aukera asko ematen ditu hizkuntza gaitasunak garatzeko eta haren testua hainbat modutan formulatzen ahal da; laburra denez, alderdi ortografikoak, semantikoak, sintaktikoak eta testualak lantzea ahalbidetzen du, eskaintzen dituen komunikazio egoeren oparotasun eta aniztasuna dela medio.

Eskolan ezinbestez landu beharreko hizkuntza trebetasuna da idazmena. Idazteko prozesua konplexua da eta urratsez urrats egiten da. Abiapuntu gisa beste testu batzuk irakurtzen dira eta elkarrekin lotzen, ongi egituraturako antolamendua lortzeko. Azkenean ateratzen den produktua esperientzia pertsonalaren emaitza da eta egileak hizkuntza zein komunikazio trebetasun asko jarri ditu jokoan hura lortzeko. Ikasleei eskura jarri behar zaizkie osagai eta ezagutza horiek guztiak.

Literatura pertsona aberasteko bidea da. Literaturaren balioez gozatzen duten irakurleak lortzea eskolaren zeregin ukalezina da. Hori horrela, curriculum honen proposamena da ahozko eta idatzizko tradizioetik abiatzea literaturari ekiteko, gauza hurbil eta ezagunetatik hasita errazago helduko delakoan informaziora bultzatzen duen produkzioaraino.

Azkenik, irakaslearen egitekoa funtsezkoa da oinarrizko hizkuntza trebetasun hauen garapenean, aktibo agertu behar baitu prozesu osoan, ikasbideak eskainiz, ikaslearen zereginarekin konbinaturik, hau betiere bere ikasketaren arduradun nagusia baita.

Oinarrizko gaitasunak lortzeko irakasgaiak egiten duen ekarpena

Irakasgai honetako eduki guztietatik abiatuta askotariko testuen ulermenezko irakurketa, mintzamena eta idazmena lantzen dira, kalitatezko edozein ikasketa egiteko ezinbesteko baliabideak baitira; hau da, *hizkuntzaren bidez komunikatzeko gaitasuna* lortzea errazten da. Azalpen eta narrazio testuak irakurri eta horien laburpenak eta eskemak eginez, eta gero horrelako testuak sortuz, ikasleek hizkuntzari dagozkion trebetasunak garatzen dituzte: mintzatu, hizketan aritu, entzun, irakurri, ulertu eta idaztekoak.

Irakasgai honen barnean, zenbait kanta, erromantze eta elezahar irakurri eta baloratzea lagungarria da *kultur eta arte gaitasuna* garatzeko, hots, literatura ondarea eta gizakien kezken adierazgarriak diren gai errepikakorrak hobeki ezagutzeko.

Hizkuntza ikasteak, komunikaziorako gaitasunaren garapen gisa ulertuta, laguntza erabakigarria ematen du *gaitasun soziala eta herritartasuna* garatzeko, hau da, harremanetarako, bizikidetzarako, pertsonen arteko errespeturako eta elkar ulertzeko trebetasun eta abilezien multzoa garatzeko. Izan ere, hizkuntza ikastea besteekin komunikatzen ikastea da, besteek transmititzen dutena ulertzen eta beste errealitate batzuetara hurbiltzen ikastea. Irakasgai honek herritartasu-

nari lotutako gaitasun hori ere lortzen laguntzen du, aurreiritziak eta munduaren irudi estereotipatuak hizkuntzaren bidez nola transmititzen diren aztertzen den heinean, hizkuntzaren erabilera diskriminatzailea ezabatzen laguntzeko xedearekin.

Irakasgai honek lagundu egiten du *informazioaren tratamendurako gaitasuna eta gaitasun digitala* garatzen: une bakoitzean behar den informazioa bilatu eta aukeratu behar da eta nork bere ahozko eta idatzizko testuak sortzeko erabili behar du. Lanak egiteko teknologia berriak erabiliko dira, idazketa prozesuko lan batzuk (plangintza, testua egitea, berrikustea...) eraginkortasun handiagoz egin ahal izateko. Horrek ere lagundu egiten du gaitasun hau lortzen.

Hizkuntza gaitasunak landuz gero, *ikasten ikasteko gaitasuna* errazago lortzen da. Izan ere, ikasteko gertutasuna eta ikaskuntza antolatzeko abilezia sustatzen dira, autonomiarako, diziplinarako eta gogoetarako trebetasunak ere sustatu egiten dira, eta norberaren gaitasun eta baliabideez jabetzera bultzatzen da, baita norberaren akatsak onartzera ere, hobekuntzarako tresna gisa. Irakasgai honetan memorizazioa, argumentazioa, norberaren eta besteren ideien laburpena eta norberaren lanaren emaitzak eraginkortasunez adierazteko trebetasuna lantzen dira. Horiek geroko ikaskuntzak ere erraztuko dituzte.

Hizkuntza erabiltzen ikasten denean, arazoak aztertzen eta konpontzen, planak egiten eta erabakiak hartzen ere ikasten da, hizkuntzaren eginkizunetako bat gure gizarte jarduera arautu eta bideratzea baita. Horregatik, hizkuntza trebetasunak lantzea lagungarria da *ekimen pertsonala* garatzeko eta nork bere jarduera gero eta *autonomia* handiagoz erregulatzeko.

Helburuak

1. Hizkuntza ahoz eta idatziz erabiltzea gizarte eta kultura jardueran, modu argi eta zehatzean, nahikoa arin eta aise, egoera eta funtzio desberdinetara egokituz, begirunea eta gizabidea agertuz.
2. Hizkuntzari eta hizkuntzaren erabilerari buruzko ezagutzak nolabaiteko autonomiaz aplikatzea ahozko eta idatzizko testuak ulertzeko eta egoki (hizkuntza erregistro desberdinak erabiliz), zuzen eta koherentziaz idatzi eta mintzatzeko.
3. Erakundeekiko eta pertsonen arteko komunikaziorako idazki mota guztiak ulertu eta erabiltzea: gutunak, eskabideak, txostenak, albisteak, erreportajeak...
4. Hizkuntza erabiltzea gauza berriak ikasteko, errealitatea ulertu eta aztertzeko eta pentsamendua finkatu eta garatzeko tresna gisa.
5. Komunikabideek (prentsa, irratia eta telebista) esaten dutena interpretatzea eta arreta bereziz aztertzea ahozko eta idatzizko adierazpena, baita horrek hitzez besteko kodeekin duen erlazioa ere, komunikabideetatik datozen mezuei buruzko jarrera kritikoa garatzeko.
6. Irakurketa eta idazketa baloratzea, komunikatzeko bideak eta kultura aberastasunaren eta pertsonen gozamenaren iturriak diren aldetik.
7. Norberaren baliabideak edo kontsultarako baliabideak (hiztegiak, gramatikak, testu prozesadoreak...) erabiltzea norberaren akatsak zuzentzeko.

8. Eskola liburutegia nahiz informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea irakasgaiari buruzko lanak arrazoitu eta orientatzeko eta ezagutzak ikasi eta partekatzeko tresna gisa.

Edukiak

1. multzoa. *Azalpen eta narrazio testuak ulertzea*

- Kurtsoko irakasgai guztiekin zerikusia duten azalpen testuak irakurri eta ulertzea. Puntuazio zeinuak doinuaren bidez interpretatzea, baliabide prosodikoak eta keinuzkoak erabiliz.
- Ulermeneko irakurketaren faseak: testua osorik irakurtzea, lerroaldeka irakurtzea, lerroalde-en izenburuak, testuaren eta haren osagaien antolamenduari antzematea, eskema egitea eta laburpena egitea. Irakurtzeko prozesuan estrategiak aplikatzea: irakurri baino lehen, aurre-irakurketa (aurretiko ezagutzak abian jartzea, iragarpenak egitea), irakurketa, irakurri ondoren.
- Azalpen testuak antolatzeako erak: konparazioa, problema/soluzioa, kausalitatea, deskripzioa eta segida. Adibideak.
- Laburpena. Laburpena ongi egiteko arauak: kenketa, orokortzea eta integrazioa. Laburpenaren ezaugarriak.
- Narrazio testuak, kazetaritzakoak eta publizitatekoak irakurri eta ulertzea. Haien egitura atzematea eta laburpena egitea. Narrazioan nagusi diren ahozko eta idatzizko aditz formak.
- Erakundeekiko eta pertsonen arteko komunikazioan erabiltzen diren testuak irakurri eta ulertzea: eskaera, aurkezpen gutuna, merkataritzako gutuna, lagunarteko gutuna, txosten akademikoa, jarraibideen testua, errezetak etab.

2. multzoa. *Testua sortu eta berrikustea, ortografia eta kaligrafia*

- Testua planifikatzea (proiektua, eskema, zirriborroa, idazketa, berrikuspina eta edizioa), sortzea eta berrikustea: koherentzia, kohesioa, egokitasuna eta aberastasuna.
- Nork bere produkzioak, ahozkoak zein idatzizkoak, ebaluatu eta zuzentzeko estrategiak ikasten hastea.
- Ortografia. Letren arazo ortografiko nagusiak, arauen azalpena eta praktika. Puntuazioa.
- Kaligrafia. Letra ulergarriz idaztea.
- Jendaurrean eta idatziz adierazpenak egiteko konfiantza eta ekimena.

3. multzoa. *Hainbat motatako testuak sortzea*

- Kurtsoko irakasgaiekin zerikusia duen azalpen testua egiteko faseak: gaia hautatu, informazioa bilatu, edukiak aukeratu, ideiak antolatu, eskema egin, edukia idatzi, galderak eta erantzunak egin. Gaia ahoz azaltzea.

- Ipuin tradizionala. Ipuinak eraldatzea osagaietako batzuk manipulaturik: pertsonaiak, hizkuntza, egitura, aditz denborak, espazioa, ikuspegia... Ahozko kontakizuna.
- Pertsonen arteko testuak egitea: mota desberdinetako gutunak (e-mailak, blogak...) eta administrazioko beste testu batzuk. Nola erabili testu horietako esapide eta hitz bereziak.
- Albisteak eta erreportajeak egitea. Egiturak, motak, faseak.

4. multzoa. *Ahozko adierazpena*

- Ahozko kontakizuna (narrazioak edo bizipenak)
- Ahozko azalpena (faseak: prestakuntza, azalpena eta ondorioak).
- Ahozko interakzioa: elkarrizketa; galderei erantzutea; argudiatzea eta eztabaidatzea: arauak eta mekanismoak.

5. multzoa. *Irakurzaletasuna eta literatura sustatzea*

- Irakurzaletasuna sustatzea hainbat motatako testuen bidez.
- Herri kanta, bertso eta erromantzeak. Ahozko transmisioaren forma eta baliabide bereziak.
- Elezaharrak irakurtzea.
- Gazteentzako literaturako narrazio testuak irakurtzea.

Ebaluazio irizpideak

1. Ideia orokorra atzeman eta berriazko informazioa ateratzea, hainbat motatako testuak hartuta (azalpenak eta kontakizunak), eta ulertu direla erakustea, berriazko jardura baten bidez.

Irizpide honen bidez egiaztatu nahi da ikasleak gai direla kurtsoko irakasgaiekin zerikusia duen testu bat –azalpena, kontakizuna, gutuna, albiste...– ahoz edo idatziz parafraseatu edo azaltzeko, eta gainera, ideia, gertaera edo datu esanguratsuak buruan atxikitzen dituztela. Prozesu horretan ikasleak testuaren zatiak bereizi behar ditu, testuaren garrantziaz eta esanahiaz jabetu, ideia nagusiak bigarren mailakoetatik bereizi, eta mezuan esplizituki ematen ez diren datuak ondorioztatu.

Halaber, ebaluatu behar da ea ikasleek informazio zehatzak ateratzen dituzten; hizketa eta komunikazio-asmoa identifikatzen dituzten; prozesu nahiko luzeak burutzeko jarraibideei jarraitzen dieten; prozesu baten faseak, gertaeren sekuentzia eta denbora-garapena identifikatzen dituzten. Aipatutako testu mota horiek ulertzeko gaitasuna (ahozkoa edo idatzizkoa) egiaztatzea da helburua.

2. Norberaren jardura planifikatu, egin eta berrikusteko behar diren gidioak, lan planak, laburpenak, eskemak etab. egitea, ikasteko teknika erabilgarrienak baliatuz.

Irizpide honen arretagune nagusia izanen da ea nola erabiltzen den hizkuntza ikasketa lanak egiteko. Egiaztatu nahi da ikasleak gai direla jardueraren garapenerako beharrezkoak diren

urratsak antolatzen, hizkuntzaren arauak, ordena eta argitasuna errespetatuz, aurkezpena zainduz eta teknika erabilgarriak baliatuz, hala nola azpimarrak, taulak, laburpenak, gaikako antolatzaileak, edukien eskemak, perpaus tematikoak, gako-hitzak, etab. Beren produkzioak berrikusiko dituzte behar diren laguntzez baliaturik, emandako adibideak, kontsultak, erka-tzeak, hiztegiak, entziklopediak etab. abiapuntu direla.

Bereziki ebaluatuko da nola garatzen den ikasten ikasteko gaitasuna, bai norberaren ahalmenen kontzientziari bai buru-lanerako tekniken bidez horiek garatzeko behar diren estrategiei erreparatuta.

3. Zerbait kontatu, azaldu, esplikatu, laburtu eta iruzkintzea, paperean edo euskarri digitalean, erregistro egokia erabiliz, ideiak argi eta garbi antolatuz, enuntziatuak sekuentzia lineal kohesiodunetan josiz, gramatika eta ortografia arauak betez eta testua planifikatu eta berrikustearen garrantzia aintzat hartuz.

Irizpide honen bidez ebaluatu nahi da ea testuak garbi antolaturik idazten diren, perpausak sekuentzia lineal kohesiodunetan josiz, eta interesik agertzen den testuak planifikatu eta berrikusteko, bertsio bat baino gehiago eginez, formatu eta erregistro egokiak dituen behin betiko testura iritsi arte. Ebaluatuko da ea ikasleek ba ote dakiten erakundeekiko eta pertsonen arteko komunikaziorako testu egokiak osatzen, horrelako testuetan hitzarmenez erabiltzen diren araei jarraituz; kazetaritzako kronika laburrak idazten, informazioa modu hierarkikoan antolatuz; kontakizun eta azalpen errazak laburtzen, jatorrizko testuaren oinarriko elementuak berreginez; esparru akademikoko esplikazio eta azalpen errazak, glosarioak eta egindako lanei buruzko txostenak osatzen. Idatzizko testuak paperean eta euskarri digitalean behar bezala aurkeztu eta arau ortografiko eta tipografikoak betetzea ere baloratuko da.

Ebaluazioan aintzat hartu behar da ikasleekiko egokitze maila, izan ere trebetasun horiek guztiak eta gaitasun horien garapena guztiz garrantzitsuak baitira integrazio soziokulturala eta etorkizuneko autonomia pertsonala lortzeko.

4. Testuak egitea, paperean edo euskarri digitalean, ikasgelan irakurri edo iruzkindutako literatura testuak eredu harturik, edo testu horietan aldaketaren batzuk egitea.

Irizpide honen bidez egiaztatu nahi da ikasleak gai direla literaturaz ikasitakoak beren idazkietan erabiltzeko (paperean nahiz euskarri digitalean). Horretarako, ipuin, kanta, erromantze edo elezahar bat osatu beharko dute, ikasgelan erabilitako ereduak imitatuz, edo eredu horietan aldaketaren bat egin beharko dute helburu jakin batekin. Irizpide honen xedea ez da egindako testuen kalitate literarioa ebaluatzea, baizik eta ikasitakoak nola erabiltzen diren eta helburu eta zeregin jakin batzuetarako testuak nola sortzen diren ebaluatzea.

Honakoak ebaluatuko dira: ulermenezko irakurketaren garapena, adierazpen pertsonala, irakurtzearen atsegina, eta literaturak transmititzen dituen gizarte balioak ezagutzea, mota desberdinetako eredu-testuetan ageri diren hitzarmenen ezagutzaren bitartez.

5. Gelan egindako obren irakurketari buruzko iritzia azaltzea; testuen iruzkina egitea tradizio-ko gai eta motiboak kontuan hartuta, egilearen ikuspegia eta hizkuntzaren erabilera baloratzea; obraren eduki literarioa eta esanahia bereiztea, eta edukia norberaren esperientziarekin lotzea.

Irizpide honen bitartez irakurtzeko gaitasuna ebaluatuko da literaturaren esparruan, irakurtzeko interesa nola garatzen den ikusteko, atsegin iturria eta nortasuna aberasteko bidea den aldetik. Ikasleek testua modu kritikoan aztertu beharko dute, horren edukia, egitura, hizkuntzaren erabilera eta egilearen ikuspuntua ebaluatu, obraren ingurune sozial eta historikoa ezagutu eta esku hartzen duten pertsonaien ezaugarriak zehaztu. Iritzi pertsonala eman beharko dute, idatziz zein ahoz, obraren alderdi gogokoenei eta arbuiautueni buruz, eta iruzkinak eginen dituzte obrak deskribatzen duen bezalako mundu batean sortzen diren ondorioez eta obraren edukiaren eta norberaren bizipenen arteko inplikazioaz.

Halaber, baloratu nahi da ea ikasleek ba ote dakiten ikusten, irakurritako obrek erakusten dizkieten esperientzietan, bizi diren gizarteko errealitatea ulertzen lagunduko dieten balioak ikasi eta ezagutzeko iturria.

Matematikan sakontzen [Bigarren kurtsoa]

Sarrera

Problemen ebazpena hartu behar da matematikaren irakaskuntzaren helburutzat eta, hortaz, hura laguntzen duten egoera didaktikoak sustatu behar dira. Komeni da matematika gustukoen duten ikasleen interesa eta motibazioa suspertzea. Horregatik prestatu da Matematikan Sakontzen aukerako irakasgaia, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren kurtsoko ikasleetariko batzuek aukera izan dezaten beren ulermena eta komunikazio, planifikazio eta kalkulu ahalmenak arreta handiagoz garatzeko.

Irakasgai hau pentsamendu formalaren mailara iritsi diren ikasleei eskaintzen zaie, gainerakoak pentsamendu zehatzaren mailan baitaude. Etapa honetan, matematikak halako abstrakzio eta formalizazio maila jasoa hartzen du. Aljebra, dedukziozko arrazoibidea eta demostrazioak egiteko modua ikasten hasten da. Hori dela eta, matematikarekiko jarrera desberdinak sortzen dira. Ondorioz, komeni da matematikan sakontzeko aukera ematea zientzia horretarako gaitasun eta zaletasun handiena duten ikasleei. Aukerako irakasgai honek ikasle argiak atzematen lagundu behar du, matematikarako duten talentua sustatzeko, gerora matematikaren alorretan eta aplikazioetan lan egiteko bidea izan dezaten. Hurrengo kurtsoetan ere behar duten arreta emanen zaie.

Honelako irakasgai bat planteatzeko badago beste arrazoi bat, alegia, azkenaldiko joera pedagogikoa dela problemak ebatzi beharrean ariketak behin eta berriz errepikatzea errutinak ikasteko. Joera horrek matematikaren irakaskuntza hein handi batean kutsatu du Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, testuliburuetak ariketa sorta errepikakorretatik hasi eta planteatzen diren azterketa motetaraino, eta praktika horietan trebatuta dauden ikasleak aspertu edo egiten ditu. Matematikaren alderdi hezitzaileak hainbat gaitasun intelektual garatzen laguntzen du, adibidez arrazoimen logikoa, orokortzeko gaitasuna, ikusmen espaziala eta analogiazko arrazoimena, baina errutinak eta baliabideak ikaste hutsetik haragoko lan matematikoa eskatzen du.

Zatigarritasuna eta ordena bezalako gai oinarriko batzuk ozta-ozta ageri dira curriculumen edukietan eta beste batzuk falta dira, heziketarako interes handia duten trebetasunak garatu

eta hobetzeko balio izan arren; esate baterako, zenbakien teoriaren oinarriak ikastea edo erregela eta konpasarekin eraikuntza geometrikoak egitea.

Beste alde batetik, orain artean, ahaleginak eta baliabideak ugaritu egin dira matematikan zailtasun gehien ageri dituzten ikasleei laguntza berezia emateko, denek lortu ahal dezaten eskatzen diren gutxieneko ikasketak gainditzea. Irakasgai honek ordea, orain arte ahantzita egon den alderdi bat estali nahi du: matematikan goi mailako gaitasunak bereganatu dituzten ikasleei arreta eman beharra. Ikasgelan aspertzen diren ikasleei, motibazio eta pizgarri sendoagoak behar dituzten horiei eman nahi zaie laguntza.

Komenigarria izanen da irakasleek, jarduerak aurkeztu baino lehen, kontuan hartzea irakasleek zer ezagutza eta trebetasun bereganatu dituzten. Bigarren kurtsoko irakasgai arruntean eta honako honetan aldi berean planteatu beharko dira ezagutzak, erlazioen eta ezagutzen goragoko mailan kokatuz ordea.

Garrantzitsua da ikasleei planteatzen zaizkien jarduerak ez izatea ez errazegiak (aspertu eta motibazioa galdu ez dezaten) ez eta zailegiak ere (nork bere gaitasunetan konfiantza galtzea eta etsipen sententzia saihesteko). Irakasleek zenbait ikasketaren aurrean agertzen dituzten zailtasunak ikusita, komenigarria da irakasleek esku har dezaten haien lorpenak nabarmenduz, nork bere buruarengan duen konfiantza sendotuz eta egiten dakiten gauzak erakutsiz.

Aukerakoa denez, honako irakasgai honen edukiak DBHko bigarren kurtsoko matematika irakasgaiaren edukietatik abiatuta aurkezten dira, baina goragoko mailan. Bestalde, ez dute trabarik egiten hirugarren kurtsoko matematika irakasgaiaren edukietan. Irasgelako programazioaren garapenak aplikazio eta problema konplexuagoak hartu beharko ditu barnean, ikasle hauen gaitasun eta ikasteko erritmo desberdinak kontuan hartuz. Eduki hauek bide emanen dute irakasleek lehendik dituzten ezagutzak eguneratzeko, berriz erabiltzeko, eraldatzeko, eta forma egituratu eta erlazioatuagoetarantz bideratzeko. Bide emanen dute, halaber, ekintza-gogoeta binomioa erabiltzen deneko jarduera eta problemak egiteko prozesuak eta haien ondorioak hausnartu eta azaltzeko. Irakasgai honetako irakasleek gai izan behar dute matematikoki ozenki mintzatzeko, zer egiten duten eta nola egiten duten azaltzeko, zorrotasunez zuzendua izan dadin saiatuz. Horrela irakasleak gero eta zehatzago hitz egitera behartuak sentituko dira.

Komeni da irakasleek esku hartzea, beren proposamenen bitartez, irakasleak ohitu daitezten problemak eta egoerak modu itxian ikusi ordez hautabideak eta iradokizunak aurkeztera.

Problemen ebazpena erabili behar da ez bakarrik arloko helburu eta eduki gisa, baizik eta garrantzia duen tresna metodologikotzat ere bai; izan ere, hark bide eman behar du kontzeptuak eta prozedurak ikasteko. Ikasitako errutinazko algoritmoetara ere jo behar da, ikasketa adierazgarriago bihurtzeko xedez.

Horrez gain, komeni da matematikaren historia erabiltzea, zenbait eduki sartzeko edo finkatzeko testuinguru egokiak eskaintzen dituelako eta haren laguntzaz irakasleek errazago atzematen dituztelako zientzia honek denboran zehar izan duen bilakaera, garapen ekonomikoarekin zein produkzioarekin dituen loturak eta kultura desberdinetan izan dituen erabilerak.

Garrantzitsua da elkarrekin estu lotuta egotea esku-hartze hezitzaileari buruzko irizpideak eta ikasleei aukera etengabe eta egokiak eskainiko dizkieten material eta bestelako baliabideak aukeratzeko irizpideak. Ildo horretan komeni izanen da zentzuz erabiltzea bai ordenagailua eta bai Interneten aurkitzen ahal diren euskarri informatikoko curriculum materialak.

Oinarrizko gaitasunak lortzeko irakasgaiak egiten duen ekarpena

Irakasgaiaren curriculum osoak *matematikako gaitasuna* lortzen laguntzen duela esan daiteke; izan ere, errealitatea interpretatu eta deskribatzeko eta horren gainean jarduteko pentsamendu matematikoaren modu desberdinak erabiltzeko gaitasuna ikasketaren xedearen zati da. Eduki multzo guztiak matematikaren ikuspegitik arrazoitzeko, argudio matematikoak ulertzeko eta hizkuntza matematikoan gauzak adierazi eta komunikatzeko trebetasun eta jarrerak aplikatzera bideratuta daude. Horretarako, tresna egokiak erabili behar dira eta ezagutza matematikoa bestelako ezagutzekin batu behar da. Hala, ondorioak aterako dira, ziurgabetasuna gutxituko da eta konplexutasun maila desberdinetako eguneroko egoerei aurre eginen zaie. Esan behar da matematika irakasteko modu guztiek ez dutela berdin laguntzen matematikako gaitasuna lortzen: ikasketen funtzionaltasuna azpimarratzeak, inguratzen gaituen mundua ulertzeko erabilgarritasunak edo problemak ebazteko estrategien hautapenak, horiek guztiek benetako aukera ematen dute matematika hainbat jakintza-arlori edo eguneroko bizitzako hainbat egoerari aplikatzeko.

Forma, erlazio eta egitura geometrikoak bereiztea, batez ere ikusmen espazialaren garapenaren bidez, eta formak nahiz adierazpenak planoaren eta espazioaren artean transferitzeko gaitasuna garatzea lagungarriak dira *mundu fisikoa ezagutzeko eta harekin elkarreraginean aritzeko gaitasuna* sakonean lantzeko. Eredugintza beste erreferente bat da norabide berean. Ereduek egiteko, egiazko egoeraren ezaugarri nabarmenak identifikatu eta hautatu behar dira, sinboloen bidez hura irudikatu behar da eta jokabideak, erregularitasunak eta inbariantek zehaztu, horietatik abiatuta ereduaren eboluzioari, zehaztasunari eta mugei buruzko aurreikuspenak egin ahal izateko.

Bestalde, ikasteko eta problemak ebazteko baliabide didaktiko gisa tresna teknologikoak erantsen dira eta hori lagungarria da ikasleek *informazioaren tratamendurako gaitasuna eta gaitasun digitala* hobetu dezaten. Era berean, hizkuntza grafikoa eta estatistikoa erabiliz hobeki interpretatzen da komunikabideek azaldutako errealitatea. Halaber, oso garrantzitsua da hizkuntza mota desberdinen arteko elkarreragina: hizkuntza naturala, zenbakizkoa, grafikoa, geometrikoa eta aljebraikoa erabili behar dira informazioaren tratamendua eta ikasleen esperientzia elkarri lotzeko.

Matematikaren bidez *hizkuntzaren bidezko komunikaziorako gaitasuna* lantzen da. Izan ere matematikan etengabe erabili behar dira mintzamena eta idazmena, ideiak formulatu eta adierazteko. Horregatik, matematika irakatsi eta ikasteko harreman guztietan, batez ere problemen ebazpenean, garrantzi berezia du egindako prozesuak eta erabilitako arrazoibideak adierazteak, hala ahoz nola idatziz, adierazpen horiek pentsamendua formalizatzen laguntzen dutelako. Hiz-

kuntza matematikoa, berez, ideiak komunikatzeko bidea da, eta bere terminoen zehaztasunagatik eta hipotesiak transmititzeko ahalmen handiagatik nabarmentzen da, bere lexiko sintetiko, sinboliko eta abstraktuari esker.

Matematika lagungarria da *adierazpen kultural eta artistikorako gaitasuna* lantzeko, ezagutza matematikoa bera kulturaren adierazpen unibertsala delako. Geometria, bereziki, gizadiaren arte-adierazpenaren zati da, inguruzten gaituen mundua deskribatu eta ulertzeko eta sortu dituen egituren edertasunaz jabetzeko bitartekoak eskaintzen baitizkigu. Irakasgai honen bidez sentikortasuna eta sormena, pentsamendu dibergentea, autonomia eta grina estetikoa landu nahi dira.

Problema ebazteko prozesuek bereziki laguntzen dute *autonomia eta ekimen pertsonala* sustatzen, estrategiak planifikatzeko eta erronkei aurre egiteko erabiltzen direlako eta lagungarriak direlako ziurgabetasunarekin bizitzeko eta, aldi berean, erabakiak hartzeko prozesuak kontrolatzeko. Halaber, matematikan garatzen diren teknika heuristikoak informazioa tratatzeko eta arrazoitzeko eredu orokorrak dira, eta irakasgai honek sendotu egiten ditu ikasten ikasteko gaitasunarekin zerikusia duten trebetasunak, hala nola autonomia, iraunkortasuna, sistematizazioa, hausnarketa kritikoa eta norberaren lanaren emaitzak eraginkortasunez komunikatzeko gaitasuna.

Gaitasun sozialari eta herritartasunari ere ekarpena egiten zaio, matematika gizarteko fenomenoak deskribatzeko erabiltzen baita. Matematikak, batez ere funtzio-analisiaren eta estatistikaren bidez, iragarpenak egiteko eta erabakiak hartzeko irizpide zientifikoak eskaintzen ditu. Halaber, gaitasun hori lortzeko lagungarria da problema ebazteko prozesuetan egindako akatsak modu eraikitzailean aztertzea. Horrela, bide batez, besteren ikuspuntuak aintzat hartzen dira, norberaren ikuspuntuen parean jarriz, eta egoera bati ekiteko aukera desberdinak aztertzen dira.

Helburuak

Irakasgai honen irakaskuntzaren bidez hurrengo gaitasunak garatu nahi dira:

1. Matematikarekiko jarrera positiboaren garapena sustatzea eta ikasleei laguntzea pentsamendu eta jarduera matematikoen onuraz eta atsegingarritasunaz ohar daitezen.
2. Sormena, erabakiak hartzeko gaitasuna eta askotariko problemen ebazpenari ekiteko trebetasun pertsonalak sustatzea.
3. Hizketan zehaztasun handiagoa lortzea eta ohiko argudiatze moduei matematikaren adierazpide desberdinak gehitzea, pentsamendu matematikoa hitz zehatzez adierazteko eta haren zorroztasuna areagotzeko.
4. Erabili eta garatzea usteak adierazteko pentsamendu logikoaren formak, sintesirako zein analisirako gaitasuna eta indukziozko zein dedukziozko pentsamendua, eta demostrazio matematikoaren ideia atzematea.
5. Gaitasuna lortzea errealitatek eta eguneroko bizitzatik informazioa ateratzeko, hura kuantifikatzeko eta ahal den heinean lantzeko erlazioak eta beste aplikazio batzuk ezartze aldera.

6. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren curriculumean prestakuntza matematiko hobea eskaintzea gaitasun handiena duten ikasleei.
7. Matematikaren historiaren bitartez ikasleen kultur prestakuntza hobetzea.
8. Problema interesgarriak eta ez errutinazkoak planteatu eta ebazteko aukera ematea eduki matematiko sinpleen bitartez.
9. Zentzu estetikoa garatzea forma geometrikoen bitartez eta erregelaz eta konpasaz egiten diren eraikuntzen bitartez.
10. Ikusmen espaziala garatzea, gorputzen geometria, gorputzen garapen laua eta simetria-elementuen bilaketa direla medio.
11. Kritikarako gaitasuna garatzea zenbait informazioaren aurrean eta haien zorrotzasun eta zehaztasun faltaz ohartzeko gauza izatea.
12. Ordenagailuak eta beste baliabide teknologiko batzuk erabiltzea matematikako zenbait ikasgai ikasteko eta zenbait jokotan aritzeko.
13. Zenbait jarrera garatzea, hots, iraunkortasuna, ikertzeko eta bilatzeko joera, problemen ebazpenaren bitartez metodologia zientifikoa erabiltzeko ohitura, eta bide bakarrari eutsi ordez estrategia, prozedura eta baliabide desberdinak erabiltzeko malgutasuna.
14. Talde lana sustatzea, besteren proposamenak aztertuz eta norberarenak segurtasunez baina zorrozkeriarik gabe aldeztuz.

Edukiak

1. multzoa. *Aritmetika eta aljebra*

- Zenbaki sistemak. Zenbaki sistema posizionalak eta ez-posizionalak. Sistema hamartarra, hirurogeitarra eta bitarra. Zenbaki sistema batetik bestera igarotzea. Zenbaki baten adierazpen polinomikoa oinarri jakin batekin. Zenbaki baten zifren posizio-balioari buruzko problemak ebaztea.
- Zenbaki arruntak. Eragiketak zenbaki arruntekin. Buruz kalkulatzeko estrategiak. Kriptogramak. Sorgin-karratuak. Zenbaki kapikuak. Zenbaki poligonalak: zenbaki triangeluarrak, karratuak, pentagonalak, hexagonalak etab. Zenbaki afinak: lagunak, perfektuak etab.
- Indukzio metodoaren oinarriak. Zenbaki arrunten segida batzuk: zenbaki arruntak, zenbaki bikoitiak, zenbaki bakoitiak, zenbaki arrunt baten multiploak, zenbaki arrunt baten berreturak. Fibonacciren segida.
- Ordena zenbaki arrunten multzoan. Ordena erlazioa eta N-nakako eragiketak.
- Zenbaki osoak. Zatigarritasuna zenbaki osoen multzoan. Zenbaki lehenak. Zenbaki kongruenteak. Zatigarritasunarekin, m.k.t.-aren eta z.k.h.-aren erabilerarekin eta zenbaki kongruenteekin zerikusia duten problemak ebaztea.
- Zenbaki arrazionalak. Adierazpen moduak. Zenbaki arrazional baten adierazpen hamartarra. Oinarri arrazionalako eta berretzaile osoko potentziak. Notazio zientifikoa. Zenbaki handiak eta zenbaki txikiak. Kalkulagailua eta notazio zientifikoa.

- Beste zenbaki hamartar batzuk: elkarneurgaitzak. Zenbaki irrazionalen adibideak: pi zenbakia eta urrezko zenbakia. Zenbaki horiekin, hurbilketarekin eta matematikaren historiarekin zerkusia duten jarduerak. Absurdu bidezko demostrazio metodoa ikasten hastea, biren erroa ez dela arrazionala frogatuz.
- Zuzeneko eta alderantzizko proportzionaltasuna eta magnitudeen arteko beste erlazio batzuk aplikatzea; ekuazioak eta ekuazio sistemak erabiltzea problemak ebazteko: problema geometrikoak eta beste aztergai batzuk dituztenak: adinak, higikariak, erlojuak, iturriak, nahasketak, dirua etab.
- Biderkadura ohargarriak eta geometria. Aljebra geometrikoa.
- Kalkulu orriak eta ordenagailuko beste programa batzuk erabiltzea ekuazioak ebazteko eta grafikoki interpretatzeko.

2. multzoa. *Geometria*

- n aldeko poligono ganbilak. Indukzio metodoaren aplikazioa: poligono ganbilaren angeluen batura; poligonoaren barne-angelua; poligono ganbilaren diagonalen kopurua, aldean arabea.
- Erregelaz eta konpasaz zenbait eraikuntza egitea: triangeluak, lerro ohargarriak, segmentuen arteko batez besteko, hirugarren eta laugarren proportzionala, zirkunferentziak eta tangenteak.
- Pitagorasen teorema: buru-hausgarriak, demostrazio desberdinak eta teoremaren jeneralizazioak antzeko irudietarako.
- Antzeko irudiei buruzko problema geometrikoak ebaztea. Antzeko irudien perimetroa, azalera eta bolumena.
- Irudi eta gorputzen azalera eta bolumenak deskonposizioaren bidez kalkulatzeko problemen ebazpena.
- Planoaren teselazioa poligono erregularren bidez, eta teselazioak zatigarritasunarekin duen erlazioa. Mosaiko erregularrak eta erdierregularrak.
- Poliedro erregularrak eta erdierregularrak; simetria elementuak ikasten hastea.
- Zenbait gorputz geometrikoren garapen laua.
- Ordenagailuko programak erabiltzea irudi geometrikoak eraikitzeke eta haien tratamendu dinamikorako.

3. multzoa. *Funtzioak eta grafikoak*

- Funtzioak zer diren ikastea eta eguneroko bizitzako erlazio funtzionalak azaltzea, adibidez: produktu baten prezioa haren tamainaren arabera, zerbitzu baten prezioa hura erabiltzen den denboraren arabera, sukaldaritzako errezeta bateko osagaien kantitatea errazio kopuruaren arabera.

- Geometriako multzoan agertzen diren erlazio funtzionalen deskribapena: angeluen batura eta diagonalen kopurua poligono baten aldeen kopuruaren arabera.
- Funtzio baten azpian dagoen eredu atzematea haren datuekin taulak osatuz eta funtzioaren adierazpen aljebraikoa lortzea kasu errazetan.
- Testu, taula eta formuletatik abiatuta grafikoak egitea.
- Grafikoak eta grafiko bati lotutako gertaera baten ezaugarriak interpretatzea.
- Poligono erregularren perimetroa eta azalera eta kuboaren bolumena erabiltzea mota bereko magnitudeen arteko funtzioak bestelako funtzioetatik bereizteko.
- Zuzeneko eta alderantzizko proportzionaltasun funtzioak eta haien grafikoen ezaugarriak.
- Grafikoaren eta lotutako fenomenoaren ezaugarri orokorrak eta lokalak egiaztatzeke erabiltzen diren grafikoak baliatzea: jarraitutasuna, monotonia, maximoak eta minimoak.
- Optimizazioa zer den ikasten hasia, azalera bera eta perimetro desberdinak edo azalera desberdinak eta perimetro bera dituzten irudietatik abiatuta, baliabide desberdinak erabiliz: geo-planoa, tamgram-a etab.
- Kalkulagailu grafikoak eta ordenagailuko programak erabiltzea grafikoak aztertzeke.
- Geometria dinamikoa erabiltzea ordenagailuko programen bidez, funtzioa zer den hobeki ulertzeke baliabide gisa.

4. multzoa. *Estatistika*

- Lagina eta populazioa bereiztea. Laginen adierazgarritasuna.
- Komunikabideetan, publizitatean edo Interneten aurkitzen diren informazio engainagarri edo zehaztugabeak.
- Nola egiten den inkesta. Galdesorta mota simple batzuk.
- Taula edo inkesta bati lotutako grafiko estatistikoak.
- Grafikoetako errore eta engainuak.
- Zentralizazio neurriak, horien kalkulua eta interpretazioa.
- Barreiadurari eta asimetriari buruzko sarrera ez-formala, datuen eta zentralizazio neurrien arteko konparazioan oinarritua.
- Kalkulu orria erabiltzea datuak antolatzeke, kalkulu eta grafikoak egiteke, eta zentralizazio neurriak eta neurri horietan datuen aldaketak duen eragina interpretatzeke.
- Zenbaketa teknikak ikasten hasia. Zenbaketaren printzipio orokorra.
- Zuhaitz-diagramak.
- Elementuak errepikatzen diren ala ez eta elementuen ordenak axola duen ala ez kontuan harturik egin daitezkeen taldekatzeak: sarrera ez-formala.

Ebaluazio irizpideak

- 1. Zenbaki arrunt, oso eta arrazionalen eta zenbait zenbaki irrazionalen erabilera, haiekin egiten diren eragiketak eta haien propietateak sakonago lantzea, zenbakizko informazioa bildu, eraldatu eta transmititzeko.**

Baloratu nahi da ea ikasleek gaitasunik ote duten zenbaki mota desberdinak eta horien arteko eragiketak identifikatu, adierazi eta erabiltzeko, problemak ebazte aldera, eta tartean diren prozesuen esanahiaz jabetzen diren, buruz, algoritmoekin edo kalkulagailuarekin kalkuluak egiten dakiten eta emaitza zehatz edo hurbilduak lortzen dituzten. Erabilitako eragiketen artean, zatigarritasun kontzeptua, multiploak, zatitzaileak eta horiek problemen ebazpenerako duten garrantzia ongi ulertzea baloratu behar da.

- 2. Zenbaki sistema desberdinen jatorria eta bilakaera ezagutzea, batez ere posizio-sistemenak, eta zenbakizko erlazio batzuk ulertzeak duen garrantzia baloratzea zenbakien teoriaren esparruan.**

Baloratu eginen da digitu bakoitzaren posizio-balioa ulertzeko gaitasuna, oinarri jakin batekin zenbaki baten adierazpen polinomikoa erabili behar denean, zenbakizko problemak ebazterakoan. Irizpide honen bidez, halaber, baloratu nahi da zenbateko gaitasuna duten ikasleek zenbaki mota batzuk eta horien arteko erlazioak atzeman eta ezagutzeko problemak ebazterakoan, eta zenbait demostrazio erraz egiteko, indukzio eta dedukzio bidezko metodoa erabiliz.

- 3. Zenbakizko proportzionaltasun erlazioak eta geometriako proportzionaltasun erlazioak beste batzuetatik bereiztea eta erlazio horiek problemak ebazteko erabiltzea, hizkuntza aljebraikoa eta ekuazioen ebazpena zuzen erabiliz.**

Egiatzatu nahi da ikasleak gai direla proportzionaltasun erlazioei antzemateko eguneroko bizitzako hainbat egoeratan, eta erlazio horien bidez balio ezezagunak lortzen dituztela beste balio ezagun batzuetatik abiatuta, behar den hizkuntza aljebraikoa zuzen erabiliz, eta, halaber, lehen mailako ekuazioak planteatu eta ebazteko gai direla bai metodo aljebraikoen bidez bai kalkulu orria eta ordenagailuko beste programa batzuk erabiliz.

- 4. Irudi eta gorputz geometrikoen propietateak ikertzea, irudi eta gorputz sinpleagoetan deskonposatuz; luzerak, perimetroak, azalerak eta bolumenak zenbatetsi eta kalkulatzeko zuzenean edo zeharka edo jakinak diren beste batzuekin duten erlazioaren bidez, haien notazioa, terminologia eta propietateak erabiliz.**

Irizpide honen bidez egiaztatu nahi da ikasleak gai direla neurriak zenbatetsi eta kalkulatzeko zuzenean nahiz zeharka, baita ezagunak diren beste batzuekin deskonposizioaren edo antzekotasunaren bidez duten erlazioari erreparatuta ere. Irudi eta gorputzak planoan eta espazioan ikusteko eta haien propietateez jabetzeko gaitasuna ere baloratu nahi da, baita plano eta espazioa, hurrenez hurren, teselatu edo betetzen dutenak bereizteko gaitasuna ere.

- 5. Erlazio funtzionalak deskribatu eta interpretatzea benetako bizitzako ohiko egoeretan eta geometriako beste egoera batzuetan, azpian duten eredu matematikoa atzematea, dagokien adierazpen aljebraikoa lortzea eta ereduaren propietateak erreferentziako fenomenoarekin lotzea.**

Fenomeno bat aztertu ondoren dagokion eredu matematikoa eraikitzeko eta modu desberdinetan (hitzez, taula eta grafikoen bidez, adierazpen aljebraikoen bidez) hura adierazteko egin behar diren urratsetan abstrakzio prozesuak nola betetzen diren baloratu nahi da, eta nola egiten den alderantzizko prozesua, hau da, ereduaren propietateak eta ezaugarriak interpretatzea aztergai den fenomenoan.

- 6. Populazio batetik lagin adierazgarriak hartzeko irizpideak erabiltzea, inkestek eta galdesortek eduki behar dituzten ezaugarriak eta alderdiak zehaztea, datu garrantzitsuak antolatu eta aurkeztea, estatistikako prozedura eta kalkulu egokiak erabiliz, eskuz edo automatikoki, kalkulagailu eta programa informatikoen bidez.**

Estatistika deskribatzailearen kontzeptuak noraino ezagutzen eta ulertzen diren baloratu nahi da, eta ea ikasleek irizpide egokiak erabiltzen dituzten lagin adierazgarriak lortzeko eta zenbait laginketa oker eginda daudela konturatzeko. Gainera, inkestak egiteko, zentralizazio neurriak erabiltzea komeni dela jabetzeko eta datuen barreiadura baloratzeko gaitasuna ebaluatu nahi da. Taulak eta grafikoak egitea, horiek ematen duten informazioa interpretatzea, kalkulu orria erabiltzea datuak antolatzeko, kalkuluak egiteko eta grafikoak sortzeko, zentralizazio neurriak interpretatzea eta datuak aldatzean neurri horiek nola aldatzen diren ulertzea.

- 7. Eredu matematikoak, arrazoitzeko moduak, estrategiak eta problemak ebazteko teknikak erabiltzea, lortutako soluzioaren koherentzia egiaztatzea eta hizkuntza egokia erabiltzea ebazpen prozesuaren etapak azaltzeko.**

Irizpide honen bidez neurtuko da zenbateko gaitasuna duten ikasleek problema bat ulertzeko, plan bat asmatu eta betetzeko eta soluzioa egiaztatzeko. Horretarako indukzioz eta dedukzioz arrazoitu behar dute eta estrategia hauek erabili behar dituzte: kodetzea, eskemak egitea, diagramak egitea, grafikoen bidez problema irudikatzea, eta jada egindako problema errazagoetara ekartzea. Halaber, jakin nahi da zenbateko gaitasuna duten zehazteko, orokortzeko, aieruak formulatzeko eta egiaztatu edo frogatzeko eta jarraitutako prozesua hitzez adierazteko, lortutako soluzioa koherentea den begiratzeko eta ikaskideek lortutako soluzioekin erkatzea komeni dela jabetzeko.

Kultura Klasikoa [Hirugarren kurtsoa]

Sarrera

Mendebaldeko zibilizazioa hainbat kulturaren arteko nahaste eta komunikazio prozesuaren emaitza da. Mendebaldeko gaurko kultura, izan ere, grekoa eta erromatarra bezalako zibilizazioetan izandako gertaeren emaitza da. Haien irudimen sortzailea eta munduaren ikuskera, haien erlijioa, politikaren arloko aurrerapenak (erakundeak eta zuzenbidea), teknologiaren arlokoak (hirigintza, komunikazio sareak, teknologia militarra), artea eta bizikidetzaren arauak, filosofia, zientzia, literatura eta abar gureganaino heldu dira. Haien lorpenez eta esperientziaz baliatu izan gara hiru mila urtean. Kultura klasikoa hasi zen jakintza sistematikoki antolatzen. Munduaz izan zuen ikuskerak gure pentsaeraren sakoneko egiturari eusten dio eta gaur ere berak gidatzen gaitu garrantzitsutzat dauzkagun helburuetara. Zibilizazio haren etika soziala eta arauak ditugu gaur ere oinarri.

Kultura Klasikoa irakasgaiaren bidez ikasleek nahikoa ongi ikasi behar dute zer ekarri dion mundu klasikoak Mendebaldeko zibilizazioari literaturaren, artearen, filosofiaren, zientziaren eta hizkuntzaren alorretan, besteak beste, beren mundua hobeki ulertu ahal izan dezaten. Horrela kontzientzia historikoaren eta gaitasun kritikoaren oinarriak emanen zaizkie eta, aldi berean, europar nortasunaren osagai komun asko ezagutzeko aukera izanen dute. Ezagutza horiek, inondik ere, ikasleen kultura eta hizkuntza prestakuntza oinarritzat hobetzen lagunduko dute. Gainera, ikasleek edozein jakintza-alor humanistiko, zientifiko edo tekniko lantzeko tresna erabilgarriak erabiltzen ikasiko dute.

Kultura latindarraren eta greziarraren ekarpenak biltzen dira irakasgai honetan eta, beraz, ondare klasikoa bere osoan hartzen da. Egile greziar eta latindarren testuak erabiltzen dira kontzeptu desberdinen inguruan, bi zibilizazioen arteko antzekotasunak eta aldeak zehaztuz. Horretarako irudi eta testu klasikoetara joko da, edo edukien aipamena egiten duten testu modernoetara. Halaber, ikasleek eskura dituzten informazio iturriak erabiliko dira: liburutegia eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak.

Kultura Klasikoko edukietan ikasle guztiak hartu behar dira kontuan, edozein direlarik etorkizunean eginen dituzten ikasketak edo lan motak, eta beren hizkuntzaren, pentsamenduaren eta kulturaren sustraiak ezagutzeko aukera eman behar zaie, hain zuzen ere, mundu klasikoaren ezagutza orokor eta bateratua izateko aukera. Edukien antolamenduak esplizituki erakutsi behar ditu aurkezten diren kontzeptuen arteko erlazio posibleak, jakintza-alor anitzeko eta osotarako ikuspegia hartuta. Hartara ikasketa adierazgarria sustatuko da. Ikasketa mota horrek berekin dakar ezagutzak, prozedurak eta jarrerak erlazioan, integratu eta beste arlo batzuetara hedatzeko ohituraren garapena, bai eta ikasketa prozesuan gogobetetasuna lortzea eta, ondorioz, mundu klasikorako motibazioa berez sortzea ere.

Kultura Klasikoaren bidez ikasleek hobeki ezagutuko dituzte mundu klasikoa, kultura klasikoak egungo munduan duen oihartzuna eta antzinako greko eta latin hizkuntzek gure hizkuntzetan duten lekua, aztertu eta ikertzeko metodoak garatuko dituzte, jarrera kritiko arduratsua hartuko dute eta beren kabuz ikasteko autonomia garatuko dute. Halaber, Kultura Klasikoak sustatu egin behar du norberaren kulturaren arauak eta beste kultura batzuenak errespetatu, aintzat hartu eta uler daitezen, gaurko arau sozialen oinarri diren printzipioen azterketaren bidez. Azpimarratu behar du, gainera, hizkuntza zabalagoa eta zehatzagoa lortu beharra, termino greko eta latinoen esanahiaren ezagutzaren bidez aberastua.

Oinarrizko gaitasunak lortzeko Kultura Klasikoak egiten duen ekarpena

Kultura Klasikoak badu hizkuntz alderdi garrantzitsua: oinarrizko hiztegia ikasteak egungo hizkuntzetako lexikoaren sustraiez hausnartzen laguntzen du. Kultura Klasikoak *hizkuntza gaitasuna* garatuko du, termino eta esapide greko eta latinoak ikasiko baitira, hizkuntza modernoetako mintzaira artistikoari, zientifikoari, teknikoari eta lagunartekoari aplikaturik. Gainera, mundu klasikoa eta beraren iraupena ezagututa, ondorengo literatura hobeki interpreta daiteke, bertan gaiek, arketipoek, mitoek eta topikoek bizirik iraun baitute. Aldi berean, irakurtzeko interesa, testuen izaera estetikoaren balorazioa eta literatura zaletasuna garatzen dira.

Irakasgaiaren bidez *adierazpen kultural eta artistikorako gaitasuna* lortzen da, greziarrek eta erromatarrek utzi zuten ondare arkeologiko eta artistiko garrantzitsua ezagutzen baita. Horrela, artea giza sormenaren emaitza eta historiaren lekukoa den neurrian, irakasgai honek arteaz gozatzeko eta hura estimatzen laguntzen du; gainera, ondare hori zaintzeko interesa sustatzen du. Halaber erreferentziak ematen ditu balorazio kritikoa egiteko kultura eta mitologia greko-latin-darretan oinarrituta gerora egin diren artelanei buruz, edota komunikabideek hedatzen dituzten mezuei buruz, hauen oinarri ikonikoa maiz erreperitorio klasikoan baitago.

Gaitasun sozialari eta herritartasunari ere ekarpena egiten dio: erromatarren eta greziarren erakundeak eta bizimodua ezagutzen dira eta erreferentzia historikotzat hartzen dira gizarte antolaketa, herritarrek bizitza publikoan duten partaidetza eta gizabanakoen nahiz taldeen eskubide eta betebeharren mugaketa ulertzeko.

Greziar eta erromatar gizarteetan zeuden desberdintasunak ezagututa, gizarte talde edo talde etniko jakinetako kide izategatik edo sexuagatik jasaten den diskriminazioaren aurreko eran-

tzun kritikoa sortzen da. Hartara ikasleek balorazio positiboa egingen dute herritarren parte-hartzeaz, negoziazioaz eta guztientzat berdinak diren arauen aplikazioaz, gatazkak konpontzeko tresna baliagarri gisa.

Irakasgai honek lagundu egiten du *informazioaren tratamendurako gaitasuna eta gaitasun digitala* garatzen, irakasgaiaren zati batean informazioa bilatu, hautatu eta tratatu behar baita. Horrez gain, gaitasun hori lortzeko oinarritzko tresnak dira honakoak: informazioa bildu, hautatu eta aztertzea, laburpenak egiteko teknikak aplikatzea, hitz gakoak identifikatzea eta ideia nagusien eta bigarren mailako ideien artean bereiztea. Izan ere, gaitasun horrek lotura estuak ditu etengabeko prestakuntza pertsonalerako trebetasunekin. Bestalde, irakasgai honek gaitasun digitala garatzen lagunduko du informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzen diren heinean, informazioa orokortzen duen tresna gisa eta ikasitakoak besteei adierazteko baliabide gisa.

Kultura klasikoaren bidez *ikasten ikasteko gaitasuna* errazago lortzen da. Izan ere, ikasteko gertutasuna eta ikasketa antolatzeke trebetasuna sustatzen dira, autonomiarako, diziplinarako eta gogoetarako trebetasunak sustatzen dira, memorizazioaren bidez datuak berreskuratzeko gaitasuna lantzen da eta hezkuntza prozesua zorrotzasun logikoaren testuinguruan kokatzen da.

Irakasgai honek lagundu egiten du *autonomia eta ekimen pertsonala* lortzen, erabiltzen diren prozeduretan planifikatu, aukera desberdinak ebaluatu eta erabakiak hartu behar direlako. Elkarlanean arituz eta emaitzak elkarri azalduz, ikaskideen ekarpenak baloratzen dira, norberaren akatsak aitortzen dira, nola zuzendu behar diren ulertzen da eta emaitza ezegokien aurrean amore ez ematen ikasten da. Laburbilduz, irakasgai honek hobekuntzarako aukerak eskaintzen ditu eta hobetu nahia sustatzen du.

Helburuak

Kultura Klasikoa irakasgaiaren helburua da ikasleen honako gaitasun hauek garatzea:

1. Kultura grekoaren eta latindarraren garapenaren funtsezko prozesuak ulertzea, literaturatik, arte greko eta latindarretik eta arkeologiatik ateratako erreferentzien identifikazioa, konparazioa eta kategorizazioa direla bide.
2. Kultura grekoan eta latindarrean eratutako ideia, sineste, ohitura eta baloreek Mendebaldeko egungo gizartean eta kulturaren dirautela eta Europako zibilizazioaren sakoneko egitura baldintzatu dutela ohartzea, horiek guztiak baloratzea eta kritikoki juzgatzea.
3. Termino zientifiko, tekniko, artistiko, literario eta lagunartekoek norberaren hizkuntzan duten esanahiaz gogoeta egitea, grekoan edo latinean dagozkien lexema eta hizkien esanahiekin erlazionatuz; haien ezagutza aplikatzea ikasketa berrietarako eta norberaren mintzamina eta idazmena hobetzeko.
4. Autonomiaz antolatzea –bakarka nahiz taldean– kultura klasikoari dagozkion alderdiei buruzko ikerketa jarduerak, eta alderdi horiek beste alor batzuetatik jasotako ekarpenekin erlazionatzea; haien planteamenduan eta garapenean jarraitutako prozesuaz gogoeta eta hitz egitea, modu horretara konfiantza eta segurtasuna lortzeko.

5. Eskola liburutegia nahiz informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea greko-latindar kulturaren eta zibilizazioaren inguruko gai azpimarragarriei buruzko lanak ezagutu, arrazoitu eta orientatzeko eta ezagutzak ikasi eta partekatzeko tresna gisa.
6. Norberaren ikasketa prozesuaz arduratzea eta autoestimua garatzea, norberak taldeari egiten dizkion ekarpenen garrantzia eta elkarlanean ari direnek tolerantziaz eta elkartasunez jokatu beharra baloratuz, edozein motatako bereizkeriak gaitzetsiz eta iritzi desberdinak errespetatuz.
7. Kultur ondare grekoa eta latindarra preziatu eta errespetatzea, ondare horrek ikusmolde, babilio, hizkuntza eta kultura desberdinen arteko komunikazio eta bizikidetzari esker iraun duela ohartzea, eta norberaren inguruneko arau sozialen erlatibotasuna eta hizkuntzen, ideologiaren eta kulturen aniztasuna zibilizazio guztientzat elementu aberasgarriak direla ulertzea.
8. Kultur ondare klasikoa ikertzeko gogoia izatea, hura atsegin eta gozamen iturria izatea, jakinmina garatzea eta hura zaintzen eta hobetzen aktiboki laguntzea.
9. Mundu klasikoa gure ingurune geografikoarekin lotzea, Nafarroan erromanizazioaren aztarnak ikertuz.

Edukiak

1. multzoa. *Guztientzako edukiak*

- Arlo honetako ikasketarako beharrezkoak diren hizkuntza trebetasunak lortzea: idatzizko eta ahozko testuak ulertzea, hiztegi berezia ezagutzea, mintzamina eta idazmina zuzen erabiltzea etab.
- Idatzizko iturrietako informazioa ulertzea eskemen, grafikoen, mapa kontzeptualen, laburpenen eta abarren bidez.

2. multzoa. *Mundu klasikotik egungo mundura. Egungo ikuspegia*

- Kultura klasikoaren transmisioa orain arte.
- Hizkuntza elementu eta literaturako gai greko-latindarren iraupena egungo hizkuntza eta literaturetan.
- Aztarna klasikoa arkitekturan eta artean.
- Zibilizazio klasikoaren presentzia gaurko munduko arteetan, zientzietan eta eguneroko bizitzan.

3. multzoa. *Grezia*

- Grezia klasikoa bere esparru historikoan eta geografikoan.
- Greziako gizartea: eguneroko bizitza eta gobernu erak. Polisa.

- Greziako hizkuntza. Idazketaren jatorria. Alfabeto grekoa. Hizkuntza grekoaren etapa historikoak.
- Literatura genero grekoak: epika, lirika, antzerkia. Hitz laua.
- Unibertsoari buruzko ikusmolde mitikoa eta arrazionala.
- Greziar mundu mitikoa.
- Greziar artea.

4. multzoa. *Erroma*

- Erromaren jatorria: mitotik historiara.
- Erroma bere esparru historikoan eta geografikoan.
- Latina eta hizkuntza erromanikoak.
- Latinezko literaturaren mugarri handiak komedian, poesia lirikoan eta epikoan eta oratorian.
- Gizarte erromatarra Errepublikatik Inperiora bitartean: eguneroko bizimodua eta erakundeak.
- Zuzenbide erromatarra.
- Erromatar artea: obra publikoak eta hirigintza.
- Erromatarren erlijioa.
- Hispania erromatarra.
- Erromanizazioa Nafarroan: arrastoak.

Ebaluazio irizpideak

1. Testuak eta mezuak (ahozkoak, idatzizkoak eta ikus-entzunezkoak) adierazi eta ulertzea, arloko hiztegi berezia eta oinarrizko kontzeptuak erabiliz.

Irizpide honen bidez egiaztatu nahi da ikasleak gai direla testu baten edukia ulertzeko, greziar eta erromatar zibilizazioetako gertaerak, pertsonaiak eta alderdiak identifikatzeko eta testuak eskainitako datuak egungo erreferentziekin lotzeko. Horretarako, testuen eskemak eta laburpenak eginen dituzte, batez ere, testu historikoenak. Gainera, lortutako ezagutzetatik abiatuta, iruzkinak sartuko dituzte eta greziar nahiz erromatar gizarteetako bizimoduak, ohiturak eta jarrerak baloratuko dituzte gure gizarteekin alderatuta, hiztegia, mintzamena eta idazmena egoki erabiliz.

2. Greziar eta erromatar zibilizazioen ezaugarri nagusiak bereiztea, haien jatorrizko elementuak identifikatzea eta Mendebaldeko zibilizazioari egin dizkieten ekarpenen alderdi esanguratsuak baloratzea.

Irizpide honen bidez egiaztatu behar da ikasleak gai direla greziar eta erromatar zibilizazioak denboran eta espazioan kokatzeko, haiek osatzen zituzten oinarrizko elementuak deskriba-

tzeko eta haien antolaketa politiko, ekonomiko eta sozialen nondik norakoak azaltzeko. Halaber egiaztatu behar da ikasleek gaurko munduan eta kultur eta arte ondarean bereizi egiten dituztela zibilizazio horiek Mendebaldeko zibilizazioari egin dizkioten ekarpenen elementu nagusiak.

3. Erromatar zibilizazioaren antolaketa politiko, ekonomiko eta sozialaren ezaugarriak azaltzea eta Hispanian erromanizazioak izan zuen garrantzia baloratzea, baita gure herrialdean Erromak utzitako ondarearen iraupena ere, eta haren ekarpen nagusietako batzuk aztertzea.

Irizpide honen bidez egiaztatu behar da ikasleek erromatar zibilizazioaren ezaugarriak ezaugarritzen dituztela, eta arreta berezia jarriko zaio antolaketa politiko-sozialari eta ekonomikoari; Hispania Erromak sortutako mundu mediterraneoaren zati izan zela jakin behar dute eta ondare artistikoan nahiz egungo beste ezaugarri kultural batzuetan identifikatu behar dituzte erromatar zibilizazioak Espainian eta Nafarroako Foru Komunitatean utzitako ondarea. Halaber, baloratu egingen da gure ondare historiko, arkeologiko, artistiko, linguistiko eta instituzionalaren askotarikotasuna eta aberastasuna atzeman eta aintzat hartzeko gaitasuna izatea, erromatarrek Espainiako lurraldean utzi zituzten aztarnak aztertzean.

4. Literatura greko-latindarraren mugarri nagusiak ezagutzea, Europako eta Mendebaldeko kulturaren oinarri literarioa baita, eta gaurko arte adierazpenak beren eredu klasikoekin lotzea. Garai guztietako literatura eta arte azalpen desberdinetan inspirazio iturri gisa mitologia klasikoa bereiztea.

Irizpide honen bidez egiaztatu nahi da ea ikasleek identifikatzen dituzten mitologia klasikoaren eta ondare arkeologiko greko-latindarraren elementu nagusiak adierazpen-testuinguru desberdinetan, literatura testuetan eta edozein motatako ikonografian, ea horien esanahi berriazkoa ulertzen duten eta horien balioa aintzat hartzen duten inspirazio iturri gisa. Horretarako, bilaketak egingen dituzte askotariko iturrietara joz, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak barne, edo beren ezagutzak azalduko dituzte mitologia edo arkeologia gaien inguruko testuak, mezuak edo irudiak iruzkinduz.

5. Hizkuntzen aniztasunak dakarren kultur aberastasunaz jabetzea eta Espainiako eta Europako hizkuntza gehienak jatorri berekoak direla ohartzea. Latinetik ez datozen hizkuntzetan tradizio greko-latindarrak izan duen eragina ikustea.

Irizpide honen bidez egiaztatu nahi da ikasleak gai direla hizkuntza modernoetako hitz arruntak eta lexiko zientifiko-teknikoaren jatorri greko-latindarra atzemateko. Hizkuntza erromaniakoak eta horien banaketa geografikoa identifikatzea baloratuko da.

Geografia ekonomikoa [Laugarren kurtsoa]

Sarrera

Geografia Ekonomikoa aukerako irakasgaiaren xedea da Gizarte Zientzietan ikasitako geografia sakonago lantzea, gizakiaren eta ingurune naturalaren arteko eraginaren ondorioz sortu diren eremu geoekonomikoak aztertuz.

Geografia ekonomikoak gaur egungo arazo ugari ulertzen laguntzen du. Ingurunearen eta espazioaren eraginak konbinatzea, jarduera ekonomikoaren azterketan, sekula ere ez da ingurune-determinismoranzko atzerapausoa. Alderantziz, lagundu egiten du modu osoagoan erakusten prozesu ekonomikoaren izaera ez-determinista eta espazio ekonomikoa eratuko duten erabakiak hartzeko orduan giza adimenak eta ingurumen-pertzepzioak betetzen dituzten egin-kizunak.

1973ko krisi ekonomikoaz geroztik eskualdeen globalizazioa gero eta zabalagoa da, eta horren ondorioz sistema eta eremu neoekonomikoen arteko muga tradizionalak ezabatzen ari dira. Aldaketa horretarako lagungarriak izan dira Europako ekonomia sozialisten lur jotzea eta garatzeko bidean dauden herrialdeetako produktuak mendebaldeko merkatuetara iristea.

Irakasgai honen edukiak eskualdea eremu ireki, funtzional eta dinamikotzat aurkezten digun kontzeptu berri horretan oinarrituta daude, eta ardatz hauek dituzte: munduaren eskualdekako egitura aztertzea, garapen maila desberdineko eskualde eta herrialdeen arteko harremanak aztertzea, eta gizakiak ingurune naturalean egiten dituen jarduerak sortutako ingurumen arazoak ulertzea.

Ikuspegi pedagogikotik, irakasgaiaren helburuak eta edukiak ikasleen adinari eta garapen mailari egokitu behar zaizkie. Irakaskuntza mota aktiboa aukeratu da, non ikaslea bere ikasketa prozesuaren jabe eta protagonista den, informazio iturri tradizionalak eta teknologia berriak erabiltzen baititu.

Ikasleek, gainera, Geografiak berezko dituen teknika eta trebetasun espazialak lortu behar dituzte: mapak egin, erabili eta iruzkintzea, grafikoak egin eta iruzkintzea, serie estatistikoak aztertzea, etab. Aldi berean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren curriculumeko hainbat arlotan batera lantzen diren trebetasunak ere lortu behar dituzte, bereziki hizkuntz gaitasunei dagozkienak.

Oinarrizko gaitasunak lortzeko irakasgaiak egiten duen ekarpena

Geografia Ekonomikoa irakasgai integratzailea denez, hura ikastea lagungarria da oinarrizko hainbat gaitasun lortzeko.

Gaitasun soziala eta herritartasuna hertsiki lotuta dago irakasgaiak aztertzen duen gaiari. Curriculum osoa gaitasun hori lortzera bideratuta dagoela esan daiteke, gizartearen errealitatea, egungoa eta historikoa, ulertzea baita ikasketaren helburua. Helburu hori lortzeko, ordea, lehenik eta behin, gizartearen bilakaera eta antolaketa, lorpenak eta arazoak ezagutu behar dira. Ikasleek gaitasun hori erabili beharko dute gizartearen moldatzeko. Noski, egungo gizartearen ezaugarriak, haien aniztasuna, norbera bizi den gizartearen elementu eta interes komunak ulertzen lagunduko du eta, ildo horretatik, bizikidetasuna errazten duten sentimendu komunak sorraraziko ditu.

Beste ekarpen bat lor daiteke, aurrekoak bezain garrantzitsua, gizakiaren eta ingurunearen arteko elkarrenergina eta horren ondorioz eratzen den lurraldearen antolaketa ezagututa. Irakasgaiak aukera ugari eskaintzen ditu espazioa eta bertako baliabideak erabiltzean gizakiak nola diharduen aztertzeko, eta ez bakarrik arazoak sortzen dituenen, baita ingurumenaren babesa eta zaintza ziurtatzeko ekintza arduratsuak egiten dituenen ere.

Informazioaren tratamendurako gaitasuna eta gaitasun digitala garatzeko ekarpena oso garrantzitsua da, gizarteko gertaerak ulertzeko behar-beharrezkoak direlako informazioa lortu eta ulertzeko trebetasunak. Horiek ezinbesteko elementuak dira irakasgai honetako ikasketa askotan. Ekarpen berezia egiten da errealitatea zuzenean edo zeharka behatuz bildutako informazioa bilatu, lortu eta tratatzeko, baita idatzizko iturriak, iturri grafikoak edo ikus-entzunezkoak erabiltzeko ere, hala paperezko euskarrian nola informazioaren eta komunikazioaren teknologien bitartez. Askotariko iturriek eskaintzen duten informazioa objektibotasun eta egokitasun irizpideen arabera hautatzeko irizpideak ezartzea, alderdi garrantzitsuak garrantzirik gabekoetatik bereiztea, iturriak aipatu eta alderatzea edo informazioa modu kritikoan integratu eta aztertzea, horiek guztiak, besteak beste, gaitasun hori lortzeko egiten diren funtsezko ekarpenak dira.

Bestalde, errealitatea ulertzeko askotan ahozkoa ez den hizkuntza erabiltzen da eta hizkuntza horrek ikonoen, ikurren eta irudikapenen lengoia ezagutzen eta interpretatzen laguntzen du. Horietarikoak dira, bereziki, hizkuntza kartografikoa eta irudiaren hizkuntza.

Hizkuntza gaitasuna ikasketa ororen funtsezko oinarria da. Horregatik, teknika egokiak erabiliz, irakasgai guztiek lagundu behar dute testuak irakurtzeko orduan, bai ikasgelan, bai

kanpoan, haiek hobeki ulertzen. Gauza bera gertatu behar da irakaslearen azalpenekin, idatzizko eta ahozko adierazpenekin, eta irakasgaiaren hiztegi berezia erabili behar da. Hain zuzen ere, irakasgai honen edukien ezaugarriei esker, gaitasun hori garatzen ahal da ikasleak eraginkortasunez parte hartzen badu bere ikasketan, informazio iturriak modu autonomoan erabiliz.

Halaber *matematikako gaitasuna* lortzen laguntzen da nolabait ere. Errealitatearen alderdi kuantitatiboak eta espazialak ezagututa lortzen ahal da gaitasun hori, irakasgaiak barruan hartzen baititu eragiketa errazak, magnitudeak, ehunekoak eta proportzioak, oinarritzko estatistikako nozioak, zenbakizko eskalen eta eskala grafikoen erabilera, erreferentzia sistemak eta forma geometrikoen ezagutza, baita neurtzeko irizpideak, informazioen zenbakizko kodetzea eta horren irudikapen grafikoa ere. Tresna horiek guztiak erabiltzen badira gizarte errealitatea deskribatu eta aztertzeko, ikasleek hautematen dute tresna horiek hainbat egoeratan erabiltzen ahal direla, eta hartara funtzionalagoak bihurtzen dira matematikako gaitasunari lotutako ikasketak.

Ikasten ikasteko gaitasuna lortuz gero, ikasleak ikastea errazten duten tresnak izanen ditu, baina, gainera, arazoei buruzko ikuspegi estrategikoa izanen du, aldaketak aurreikusten ahalko ditu eta ikuspegi positibotik haietara moldatzen jakinen du. Horretarako eskaintzen diren aukerak zabalak dira: mota desberdinetako arazoibideak aplikatzea, kausa anitzeko azalpenak bilatzea eta gizarte fenomenoek efektuak iragartzea. Gainera, informazio iturriei buruzko ezagutzak eskaintzen dira eta nola erabili behar diren erakusten da: hainbat bidetatik lortutako informazioa bilduz eta sailkatuz eta, betiere, hura aztertuz. Halaber lagundu egiten du pentsatzeko, antolatzeko, buruz ikasteko eta informazioa berreskuratzekeo estrategiak (hala nola laburpenak, eskemak edo mapa kontzeptualak) garatzen direnean.

Irakasgai honek autonomia eta ekimen pertsonala susta dezan, planifikazio eta gauzatze ekimenak garatu behar dira, baita erabakiak hartzeko prozesuak ere. Horiek argiagoak dira eztabaidak eta bakarkako edo taldeko lanak egiteko orduan, asmatu, aztertu, planifikatu, jardun, egindakoa berraztertu, aurreikusitako helburuak eta lortutakoak alderatu eta ondorioak atera behar baitira.

Helburuak

Irakasgai honen garapenak ondoko gaitasun hauek bereganatzen lagundu behar die ikasleei:

1. Ikasgaiaren hiztegi berariazkoa ezagutzea.
2. Ingurune naturalaren eta giza jardueraren arteko eraginaren ondorioz sortu diren eskualde-eremuak bereiztea eta haien egitura sozioekonomikoak ezagutzea.
3. Gizakia aldaketa espazialen protagonista aktiboa, aldaketak zuzentzeko eta egitura sozioekonomikoak hobetzeko gauza dela ulertzea.

4. Jarrera kritikoa izatea baliabide naturalen ustiapenari buruz, eta ondare naturala errespetatu, zaindu eta babestearen aldekoa izatea.
5. Eskola liburutegiko baliabideak bere kabuz erabiltzea bakarka edo talde txikietan ikerketak egiteko, eskualdeen azterketa geografikoaren arloko ezagutzak eta teknikak aplikatuz.
6. Irakasgaia ikasteko oinarritzko hizkuntza gaitasunak lortzea: entzuten dena ulertzea, irakurtzen dena ulertzea, eta zuzen mintzatu eta idaztea.
7. Teknologia berriak irakasgaiaren ikasketari aplikatzea.

Edukiak

1. multzoa. *Globalizazioa*

- Definizioa eta ezaugarriak.
- Eskualde kontzeptu berria, sistema espazial integratu gisa.
- 1973ko krisiaren ondoko aldaketak. Sistema kapitalistaren berregituraketa.
- Bakarka edo taldean ikerlan bat egitea multzo honetako edukietako bati buruz, eskola liburutegiko baliabideak erabiliz, edozein euskarri motatan.
- Argazkiak, marrazkiak eta testu idatziak dituzten panelen erakusketa egitea. Horren gida egitea.
- Idatziz prestatu ondoren, hitzaldi bat egitea eta aukeratutako gaia power-point-en aurkeztea. Mahai-inguru bat eta eztabaida bat antolatzea.

2. multzoa. *Mundu garatua*

- Azpigarapenaren egungo kontzeptua: adierazleak eta neurriak.
- Lurralde antolaketa eremu garatuetan.
- Eskualde garatu handien kokapen geografikoa:
 - Europar Batasuna.
 - Estatu Independenteen Erkidegoko lurraldeak.
 - Japonia.
 - Amerika anglosaxoia.
 - Australia eta Zeelanda Berria.
- Bakarka edo taldean ikerlan bat egitea mundu azpigaratuko eskualde edo herrialde bati buruz, eskola liburutegiko baliabideak erabiliz, edozein euskarri motatan.
- Argazkiak, marrazkiak eta testu idatziak dituzten panelen erakusketa egitea. Horren gida egitea.
- Idatziz prestatu ondoren, hitzaldi bat egitea eta aukeratutako gaia power-point-en aurkeztea. Mahai-inguru bat eta eztabaida bat antolatzea.

3. multzoa. *Mundu azpigaratua*

- Azpigarapenaren egungo kontzeptua: adierazleak eta neurriak.
- Azpigarapenaren kausak.
- Garapen mailak.
- Eskualde azpigaratuen kokapen geografikoa:
 - Txina.
 - India eta Asiako hego-ekialdea.
 - Ekialde Hurbila eta Erdikoa.
 - Afrika arabiarra eta Afrika beltza.
 - Iberoamerika.
- Bakarka edo taldean ikerlan bat egitea mundu azpigaratuko eskualde edo herrialde bati buruz, eskola liburutegiko baliabideak erabiliz, edozein euskarri motatan.
- Argazkiak, marrazkiak eta testu idatziak dituzten panelen erakusketa egitea. Horren gida egitea.
- Idatziz prestatu ondoren, hitzaldi bat egitea eta aukeratutako gaia power-point-en aurkeztea. Mahai-inguru bat eta eztabaida bat antolatzea.

4. multzoa. *Eguno ingurumen krisia*

- Eguno ingurumen krisiaren definizioa eta kausak.
- Gizakiak ingurune naturalean sortzen dituen arazoak:
 - Erliebea aldatzea.
 - Aire kutsatzea.
 - Ur ingurunea andeatzea.
 - Lurzorua andeatzea.
 - Ingurune biotikoa.
- Bakarka edo taldean ikerlan bat egitea ingurumen arazo bati eta beraren ondorioei buruz, eskola liburutegiko baliabideak erabiliz, edozein euskarri motatan.
- Argazkiak, marrazkiak eta testu idatziak dituzten panelen erakusketa egitea. Horren gida egitea.
- Idatziz prestatu ondoren, hitzaldi bat egitea eta aukeratutako gaia power-point-en aurkeztea. Mahai-inguru bat eta eztabaida bat antolatzea.

Ebaluazio irizpideak

1. Globalizazioa zer den jakitea: merkatu eta enpresak mundu osora hedatu eta nazioen mugaz gaindiko dimentsioa hartzeko joera.

Irizpide honen bidez ebaluatu nahi da ea ikasleek ulertzen duten produkzio erak eta kapital mugimenduak mundu mailan eratzten direla eta gobernuak eskumenak galtzen ari direla sareko gizartea deitu izan zaionaren aurrean, eta ea iritzi kritikoa duten gertaera horren ondorioei buruz.

2. Mundu garatuko eta azpigaratuko herrialde batzuetako adierazle sozioekonomikoak aztertzea eta ezagutza hori erabiltzea baliabideak banatzeko orduan dauden desorekak haute-mateko; desoreka horien ondorioetako batzuk azaltzea eta desberdintasunen aurrean sentikortasuna agertzea.

Irizpide honen bidez ebaluatu nahi da ea ikasleek ba ote dakiten zenbakizko datuetatik informazioa ateratzen eta ulertzen eta beren ondorioak azaltzen, eta informazio hori herrialdeen garapen mailen arteko desberdintasunak identifikatzeko erabiltzen ote duten. Gainera, ebaluatu behar da ea desberdintasun horien ondorioetako batzuei antzematen dieten, batez ere, mendekotasun harremanei. Ikasleek beren iritziak azaltzean desberdintasun egoerak gaitzetsi behar dituzte.

3. Jarduera ekonomikoen eta banakako portaeren ingurumen ondorioak azaltzeko kasuren bat deskribatzea eta ingurumenaren ikuspegitik garapen modu iraunkorrak eta garapen modu kaltegarriak bereiztea; narriadura geldiarazteko nazioarteko akordio eta politiken adibideren bat ematea.

Irizpide honen bidez egiaztatu nahi da ikasleak jabetu egin direla lurraldearen okupazioak eta ustiapenak ingurumenean sor ditzaketen arazoez, eta ingurumena babesteko jarrerak eta politikak ezagutzen dituztela. Horretarako, ingurumenaren kalitatea hobetzen eta garapen iraunkorrerako bidean laguntzen duten jarduketa eta politika zehatzak iradoki behar dituzte, arreta berezia jarritz Nafarroako ingurumen politikari.

4. Gizarteko gertaerei buruz informazioa lortu, erlazionatu eta prozesatzeko eta ondorioak modu antolatu eta ulergarrian adierazteko iturri desberdinak erabiltzea: grafikoak, krokisak, gaikako mapak, datu baseak, irudiak, idatzizko iturriak. Xede horrekin, informazioaren eta komunikazioaren teknologiek eskaintzen dituzten aukerak erabiltzea.

Irizpide honen bidez ebaluatu behar da ea ikasleek ongi erabiltzen dituzten tresna grafiko eta kartografikoak eta behar bezala irakurri eta interpretatzen dituzten grafikoak eta gaikako mapak (komunikabideetan azaldu ohi direnak bezain zailak, edo errazagoak). Era berean, ondorioak aurkezteko orduan, testu prozesadoreek edo aurkezpenek eskaintako aukerak erabiltzen dituzten baloratu behar da.

5. Iturri desberdinetatik lortutako informazioa zorrotasunez erabiltzea idazlanak egin eta hitzaldiak prestatzeko, eta ikasleen bizitzatik hurbileko eguneroko gaiei buruzko eztabaidetan parte hartzean iritzi arrazoituak ematea, elkartasunezko jarrerak agertuz.

Irizpide honen bidez egiaztatu behar da ikasleak sentikorrak direla egungo munduko arazo-en aurrean (hala nola talde baztertuak, diskriminazio egoerak, ingurumen narriadura, lan merkatua, kontsumo ohiturak etab.), eta arazo horiei zorrotasunez eta elkartasunez ekiten dietela. Bestalde, idatzizko eta ahozko hizkuntza eta argudioak ongi erabiltzen ote dituzten eta taldeko elkarrizketari eta jardunari buruzko arauak onartzen dituzten baloratzen ahal da.

Lanbide hastapena-Helduarora eta bizitza aktibora igarotzea [Laugarren kurtsoa]

Sarrera

Hezkuntza etapa hau amaitutakoan ikasle askok lan bizitzari ekin beharko diote eta oraintxe jaso behar dituzte enpresa mundura hurbilduko dituzten ezagutza berariazkoak.

Lanbide hastapena - Helduarora eta bizitza aktibora igarotzea irakasgaiak ikasle horiei bide ematen die lan munduko sare legal, antolamenduzko eta ekonomikora hurbiltzeko. Irakasgai honek, gainera, lanaren garapenean gertatzen diren prozesuak ezagutzeko eta lanbideren bat hobeki ezagutzeko balioko du.

Irakasgai honetan lan munduarekin zerikusia duten gaitasun kognitiboak garatzen dira. Gaitasun horiei lotuta, eta ikastetxeak dituen baliabideen arabera, egiten jakite profesionalera hurbiltzea proposatzen da, horrek eduki praktikoez hornituko baitu irakasgaia eta ikasleei motibazio maila handiagoa emanen.

Ez dira gaitasun kognitiboak soilik landu behar, ordea. Ikaslearen garapen pertsonala errazten duten beste gaitasun batzuk ere landu behar dira, egokituko zaion ingurune sozialean moldatzen lagunduko baitiote. Helburu hori lortzen ahal da laneko praktika osasungarriekin zerikusia duten edukien bitartez, bai eremu pertsonalean zein kolektiboan, eta ikasle bakoitzaren interes eta ahalbideei egokitutako lanbide ibilbidea prestatzen hasiz.

Etapako helburu orokorretan planteatutako gaitasunen esparruan, irakasgai honek ondoko edukiak garatzen ditu: lan mundua ezagutzea (lege eta ekonomia alderdiak, antolamendua, produkzio prozesu oinarrizkoak, horietako zenbaitek berezko duten egiten jakitea, etab.); lan munduan banakako eta taldeko praktika osasungarriak izatea; eta nork bere prestakuntza eta lanbide-ibilbidea egiten hastea.

Eduki horiek direla medio, Lanbide hastapena - Helduarora eta bizitza aktibora igarotzea irakasgaiaren bitartez ikasleen oinarrizko lanbide gaitasunak garatu nahi dira, beren prestakuntza-ibilbide pertsonala gertatzeko gauza izan daitezen (ez da irakasgai honen helburua ikasleak heziketa ziklo bat edo bestea egiteko prestatzea).

Lanbide hastapena hainbat gaitasun landu eta sustatzeko esparrua da: nor bere lan ingurunea behatzeko gaitasuna, ekimena eta erabakiak hartzeko gaitasuna, sormena, talde lana, lanaren antolaketa eta plangintza, etab. Aldi berean, hainbat egoeratan beste pertsona batzuekin harremanak izateko gizarre trebetasunak garatuko dira: negoziazioei ekin, arazoak eta gatazka konpondu, etab.

Ikuspegi horretatik, *egiten jakite* horren helburua da irakasgaiari eduki praktikoa ematea, ikasleen motibazioa areagotzeko eta gaitasun konplexu batzuk neurri handiagoan garatzeko. Bestela, gerta liteke ikasleek heziketa ziklo zehatz batean espezializatzen aurreratu egitea. Antolatzen diren praktikak, zehazki, ikasleak bere ingurune hurbilean ikusten dituen jardueren esparrukoak izan behar dira. Komeni da azpimarratzea irakasgai hau garatzeko eremu fisikoak ohiko ikasgela baino zabalagoa izan behar duela. Ikasgela-lantegi bat behar da, eta beharrezkoa izan daiteke, gainera, benetako lanbide praktikak egiten diren tokietara bisitak egitea.

Irakasgaiaren diseinuan hautatu den curriculum tratamenduari dagokionez, argibide batzuk eman beharra dago:

Irakasgaiaren helburuek eta edukiak zehatzak izan behar dute, eta ikasteko hautatzen den lanbide arloari buruzkoak. Horrela, lan mundua ezagutzeko sustatuko da, ikastetxeak inguruan dituen lan baliabideen eta ikasleek dituzten interesen azterketatik abiatuta.

Edukiak aukeratzeko eta batzuk besteen aldean lehenesteko irizpidea beti izan behar du kasuan kasuko lanbidearen azterketaren arabera egokitzat jotzen dena. Hirugarren multzoak bestelako tratamendua izan behar du. Multzo horretan, bistan denez, aurreko bi multzoetan baino zabalago aztertuko dira lanbideak, baina ez horren sakon. Hartara, interes eta ahalbide pertsonalen eta lan zein prestakuntza eskaintzaren artean dagoen erlazioa atzemanen da.

Irakasgai ematen ahal da lan-proiektu txikiak eginez, lanbideren baten ikerketari lotuak, ikasle taldeak aukeraturako lanbide arlo zehatz baten barnean. Metodologia horren bitartez sartuko dira pixkanaka multzo guztietan ageri diren edukiak.

Bestalde, informazioaren eta komunikazioaren teknologiei esker ikasleek funtzionalago eta hurbilago ikusten dute irakasgai; izan ere, hainbat aukera eskaintzen dizkie gelan landutako alderdiak praktikan jartzeko, dagoen enplegu eskaria aztertzeko (iragarkiak, baldintzak...) eta egiten diren hautapen prozesuak ezagutzeko.

Oinarrizko gaitasunak lortzeko irakasgaiak egiten duen ekarpena

Hizkuntzaren bidez komunikatzeko gaitasunari ekarpena egiten zaio, berariazko hiztegia ikasten baita, informazioa bilatu, aztertu, hautatu, laburtu eta azaltzeko prozesuetan erabiltzeko.

Txosten eta dokumentu teknikoak irakurtzea, interpretatzea eta irakurtzea ariketa lagungarriak dira testu motak eta testuen egitura formalak ezagutzeko eta horiek erabiltzeko gai izateko.

Lanbide hastapenak *mundu fisikoa ezagutzeko eta harekin elkarreraginean aritzeko gaitasuna* lortzen laguntzen du, irakasgai horretan ingurune osasungarria eta bizi kalitatearen hobekuntza lortzeko gaitasuna eta prestasuna garatzen direlako, lan eta enpresa jarduerak ingurumenean duen eragina ezagutu eta kritikoki aztertzen delako, eta zentzuz kontsumitzeko jarrera arduratsuak sustatzen direlako.

Ingurunea behatu eta arakatzeari, lana planifikatu eta antolatzea, lan desberdinak egitea, erantzukizunak hartzea eta erabakitzea, ekintza horiek guztiek bide ematen dute gauza jakingarri eta baliagarriak ikasteko. Horrela ikasleek errazago garatzen dituzte *ikasten ikasteko gaitasuna eta autonomia eta ekimen pertsonala*. Gainera, gaitasun horiek gaitasun soziala eta herritartasuna sustatzen dute, gizabanakoak benetako lan ingurunean eraginkortasunez sartzeari ahalbidetzen duen garapen pertsonal eta profesionala lortzen delako, eta gizarteak gero eta beharrezkoagoak dituelako pertsona ekintzaileak, ideia propioak eta ekimena dituztenak, gizarte hobetzeko prozesuetan arduraz eta errespetuz parte hartu eta nahasteko prest daudenak.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren barneko tresnatzat eta eguneroko bizitzako lan tresna eraginkor gisa erabiliko dituzte ikasleek, informazioa bilatu, hautatu eta interpretatzeko, eta horrela errazago lortuko dituzte *informazioaren tratamendurako gaitasuna eta gaitasun digitala*; gaitasun horiek beste errealitate kultural eta sozioekonomiko batzuetara hurbiltzeko bidea emanen diete.

Helburuak

Irakasgai honen garapenak ondoko gaitasun hauek bereganatzen lagundu behar die ikasleei:

1. Nafarroako, nazioko eta nazioarteko ingurune sozioekonomikoaren ezaugarriak eta eskarriak ezagutu eta jakitea, eta horien garapenean autonomiaz eta ekimenez parte eta esku hartzeko interesa izatea, bai inoren konturako lanean bai norberaren konturako lanean.
2. Enpresen funtzionamendua, produkzioaren mundua eta lan harremanak gidatzen dituzten mekanismo eta balio oinarrikoak ezagutu eta ulertzea, eta ongizatea eta gizarte garapena lortze aldera lanak eta pertsonen duten garrantzia aintzat hartzea.
3. Lanbide arlo jakin batean teknologia berriak sartu ondoren gertatutako aldaketa garrantzitsuei antzematea.
4. Lan munduan sexua, gizarte maila edo ideologia direla-eta izaten diren desberdintasunez jabetzea, eta aktiboki parte hartzea aukera-berdintasunerako onak diren jarrera-aldaketetan.
5. Sormenez, ekimenez eta asmo ekintzailez jardutea prestakuntza eta profesionalizatorako estrategia pertsonalen gaineko erabakiak hartzean, buruezagutza, ingurumenaren behaketa eta norberaren esperientzia erkatuz.

6. Informazioa bilatu, aukeratu eta interpretatzea, modu kritiko eta arduratsuan erabiltzea, lortu nahi den helburuaren arabera, eta modu antolatuan jakinaraztea, hiztegi egokiena erabiliz.
7. Informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera sustatzea, eguneroko bizitzako lan tresna eraginkorrak baitira.
8. Lan taldearen barnean lanari buruzko jarrera positiboa agertzea arazo praktikoak konpondu behar direnean eta norberaren ardurak onartzea, lankidetzarako prestasunez, tolerantziaz eta elkertasunez.
9. Lanbide familia jakin bateko produkzio jarduerak inguru fisikoan eta gizartean sortzen dituen ondorioak kritikoki baloratzea.
10. Jarduera arlo bateko segurtasun eta higiene arauak ezagutu eta errespetatzea, eta arau horiek osasunaren eta pertsona nahiz taldeen segurtasunaren arloan eta ingurumen arloan aplikatzeak duen eragina ulertzea.

Edukiak

1. multzoa. *Lanaren mundua.*

Multzo honetan zabal aztertzen dira lan munduarekin zerikusia duten gai guztiak. Irakasgai hau aukeratzen duten ikasleetako batzuk dagoeneko mundu horretan sartzeko moduan egonen dira, hamasei urte beteak izanen dituztelako.

Hemen, lana produkzio jardueraren osagai sortzailatzat hartzen da. Jarduera horrek erlazio sare konplexua behar du, zein sistematan instalatzen den. Ezagutu behar dira haren legeak, lege markoa, askotariko lan harremanak, ez bakarrik inoren konturako lanetik, kontratu, hitzarmen eta abarretatik sortzen direnak, baizik eta norberaren konturako lanari dagozkionak eta haien baldintzak ere bai. Produkzio jarduerak enpresan gauzatzen eta garatzen dira. Enpresa pixkanaka eraldatzen da gizartea eraldatu ahala. Errealitate hori ikasgelako jardueren ikuspegian islatu behar da. Helburua ez da irakasgai legalista eta azalpen hutsezkoa egitea, hori ez litzatekeelako bat etorriko multzo honetan zehazten diren edukien aldakortasunarekin. Beste alde batetik, ikasleentzat gogaikarria izanen litzateke, ziur aski. Metodologia aktibora jo behar da eta talde lanak, eztabaidak, rol jokoak eta horrelakoak antolatu, ikasleek hurbilen dituzten baliabideak erabiliz: egunkarietako berriak, enpresak ikusteko bisitak, kontaktuak informazio iturri izan daitezkeen senitarteko edo inguruko pertsona zaharrekin eta erakunde egokiekin, eta antzeko beste jarduera batzuk.

Ikasleen motibazioaren pizgarria izan daiteke lanbide jakin bateko teknikak, materialak, tresnak, jardunbideak eta abar hobeto ezagutzea, lanbide horrek berezkoak dituen lan praktiko-en bitartez. Ikastetxearen inguruabarrak, giza baliabideei eta materialei dagokienez, eta ikasle taldearen ezaugarriak egokiak izanez gero, hori guztia lanbide batekin baino gehiagorekin egin liteke.

1. Norberaren konturako lana: langile autonomoak, lan sozietate anonimoak, kooperatibak.
2. Besteren konturako lana:
 - Lan harremanak.
 - Lan merkatuan sartzeari buruzko INEM, aldi baterako laneko enpresak...
 - Lan kontratua. Motak.
 - Hitzarmen kolektiboak. Enpresa erakundeak, sindikatu erakundeak.
 - Gizarte segurantzaren helburuak; aplikazio eremuak; enpresen inskripzioak; langileen afiliazioa; prestazioak.
 - Soldata.
 - Lan gatazka
3. Produkzio sistema: oinarri ideologikoak eta antolamendua.
 - Eskaintza-eskarien legea.
 - Sektore ekonomikoak. Lanbide arloak.
 - Enpresa sortzeko tramiteak: legeztatzea, tramite juridikoak eta merkataritzakoak, fiskalak, udalarekikoak, lan arlokoak.
 - Produkzioaren antolaketa. Produkzio metodo berriak.
4. Enpresaren antolaketa:
 - Jarduera. Enpresa mota. Jabetza. Erabakiak hartzea. Informazio sistemak. Agenteak.
 - Organigrama: Sailak. Fabrikazio prozesuak. Zerbitzuak
 - Enpresaren antolamendutik sortutako lanpostu eta lanbideen tipologia.
5. Lanbide arlo bakoitzean izaten diren arazoak:
 - Giza jardueren ingurune naturalean duten eragina.
 - Produkzio jardueren belaunaldi gazteen bizitzan eta lanean duen eragina.
 - Lanbide arloak eta teknologia berriak: birmoldatu beharra.
6. Zenbait lanbidetan aritzeko behar diren abilezia eta trebetasunak.

2. multzoa. *Lana eta osasuna*

Hurrengo multzoaren edukiek zerikusia dute lan esparruko segurtasunarekin, higieinarekin, lanbide gaixotasunarekin, langabezia egoerari buruzko jarrerarekin eta horrek izan ditzakeen ondorioekin. Garrantzi berezia dute ikasleen autonomia eta oreka pertsonala garatzeko. Jarreraren garapena bereziki garrantzitsua da edukien tratamendu didaktikoan.

Hona hemen multzo honetako edukien adibide batzuk: lehen laguntzak emateko praktikak, arriskuez ohartu ondoren prebentzio neurriak hartzea, lanbide bakoitzean aritzeak eragin ditzakeen gaixotasunak, gai horietaz arduratzen diren erakundeak.

1. Laneko segurtasuna.
2. Laneko osasunari buruzko araudia.
3. Laneko segurtasun eta higienearen ardura duten erakundeak.
4. Prebentzio zerbitzuak.
5. Lehen laguntzak enpresan.
6. Babeserako ekipamenduak eta neurriak.
7. Lanbide gaixotasunak.
8. Lanbide gaixotasunen prebentzioa.
9. Lanbide gaixotasunak eragiten dituzten faktoreak eta gaixotasun horien sailkapena.
10. Langabezia eta osasuna.

3. multzoa. *Prestakuntza eta lanbide-ibilbidea eratzea*

Lanbide arlo asko biltzen dituen multzo honek agerian jartzen du aukerako irakasgai honen izaera bideratzailea. Edukien garapenean, informazioa bilatzeko prozedurak, prestakuntza ibilbideak sortzekoak, laneratzekoak eta horrelakoak lehenetsi behar dira. Azken kasu horretan ikasleei laguntza emanen zaie lan ingurunearekin harremanak izateko eta lana bilatzeko beren baliabide pertsonalak ugaritu ditzaten. Lehendabizi beren gaitasun mailaz jabetu behar dute eta gero pixkanaka horiek egokitu.

1. Lanbide arloak eta lanbideak.
2. Hezkuntza sistematik lan mundura sartzea.
 - Ibilbide posibleak.
 - Informazio iturriak.
3. Hezkuntza eskaintza eta lan eskaintza ingurune hurbilean.
4. Interes eta gaitasun pertsonalak eta lanbide profila: zertan datozen bat eta zertan ez.
5. Lanbide ibilbidea prestatzeko erabili behar diren gaitasunak:
 - Informazioa bilatzeko teknikak
 - Autoebaluazioa: gaitasunak eta prestasuna
 - Lana bilatu eta lortzeko teknikak (informazio bilketa, hautapen prozesuak, erabakiak hartzea etab.)

Ebaluazio irizpideak

1. Lan eta ekimen pertsonal eta profesionalak planifikatu eta garatzea bakarka eta taldean, eta asmo ekintzailez jardutea ezarritako helburuak lortzeko.

Egiaztatu nahi da ikasleek banakako eta taldeko lanerako ohitura egokiak hartu dituztela, eskatzen zaizkien lanak arduraz eta taxuz egiten dituztela, informazioa modu objektibo eta kritikoa hautatzeko gauza direla, azaltzen zaizkien arazoetarako konponbide sortzaileak eskaintzen dituztela eta modu arrazoitu eta zuzenean komunikatzen direla.

2. Egungo enpresa motak eta erak, horien eginkizunak eta gizartearen garapena eta ongizatea lortzeko betetzen duten egitekoa ezagutzea.

Egiatzatu nahi da ikasleek enpresaren funtzionamendua eta lan harremanetako mekanismoak ezagutzen dituztela, kudeaketarako oinarrizko prozedura eta agiriak ezagutzen eta erabiltzen dituztela, negoziatziorako eta talde lanerako teknikak aplikatzen dituztela eta enpresaren gizarte eginkizunaren garrantzia aintzat hartzen dutela.

3. Lan esparruan bereizkeriazko jarrerez ohartzea eta lanean ardura, ganora eta portaera etikoa agertzea; halaber, gizartearen eta taldeen ongizatea helburu duten proiektuetan parte hartzeko gogoia agertzea.

Baloratu nahi da ea ikasleek jarrera kritiko eta positiboa hartzen duten laneko bereizkeriaren aurrean, beste pertsona batzuen ahalegina aintzat hartu eta haien iritzi eta eskubideak errespetatzen dituzten, eta beste talde eta pertsona batzuen bizi edo lan baldintzak hobetzea helburu duten jardueretan parte hartzeko kezkarik ba ote duten.

4. Ahozko eta idatzizko testuak azaldu eta ulertzea, lan munduko hiztegi berariazkoa eta kontzeptu nagusiak erabiliz.

Egiatzatu nahi da ikasleek ulertu egiten dituztela lanbide eremuko informazioak, ahozkoak zein idatzizkoak: jarraibideak, zehaztapen teknikoak eta lan esparruko edo eguneroko beste batzuk. Halaber, ebaluatuko da ikasleek lan inguruneko egoera ohikoenetan komunikatzeko eta gauzak adierazteko duten gaitasuna: lan elkarrizketak, hornitzaile, bezero eta lankideekiko harremanak eta abar.

5. Norberaren gaitasun eta ahalmenak eta gizarte eta lan ingurunearen ezaugarriak ezagutzea, etorkizuneko helburu pertsonal eta profesionalak ezartzeko.

Baloratu nahi da ea zenbateko gaitasuna duten ikasleek autonomiaz jarduteko eta beren etorkizun profesionalari buruzko erabakiak hartzeko, prestakuntza ibilbiderik egokien araberak; ea beren burua eta beren egoera sozioekonomikoak ematen dizkien aukerak ezagutzen dituzten eta beren ahalmen pertsonala nahiz inguruneko aukerak aprobeztatzen dituzten.

6. Gaitasun jakin batzuen arabera lanpostu batean aritzeko aukera ematen duten lan erakundeak eta haien lanpostuen ezaugarriak identifikatzea.

Ebaluatu nahi da ea ikasleak gai diren produkzio sektore desberdinak identifikatzeko, enpresa motak bereizteko, zenbait lanbideren berezitasunez ohartzeko, profesional mota bakoitzak zer egiten duen jakiteko, zein profesional eta sektorek duten eskari handiena ikertzeko, lan baldintzak identifikatzeko eta kontratu motak bereizteko, beren lan etorkizunaren arabera. Halaber ebaluatu egingen da ea ikasleek gaitasunik ba ote duten eskura dituzten bitartekoak aprobeztatzeko: lana bilatzen laguntzen ahal dieten elkarteak, erakunde ofizialak, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, iragarki oholak, ikastetxeko profesionalak etab.

7. Edozein enpresa motatan langileek eskubideak eta betebeharrak dituztela jabetzea.

Ebaluatu nahi da ea noraino ohartzen diren ikasleak enpresa batean lan egiten denean lan harremanei buruzko arau batzuk bete behar direla, eta ea ezagutzen duten enpresen lege esparrua, esparru ekonomikoa eta antolamenduzkoa.

Literatura Unibertsala [Laugarren kurtsoa]

Sarrera

Literatura Unibertsala aukerako irakasgaia da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren kurtsoko ikasleentzat. Etapako osagarri kultural gisa dago pentsatua. Ikasle guztientzat balio duen irakasgaia da; hala ere, egokiagoa dirudi Giza Zientzien batxilergoa egin nahi dutenentzat.

Hona zer eskaintzen dion literatura lanak irakurle gazteari: edozein artelanek islatzen duen munduaren ikuskera berezia ezagutzea, urruneko eta antzinako kulturetara hurbildu ahal izatea, lan estetiko bikainak eragiten duen zirrara sentitzea, hizkuntza norberaren bizipenak adierazteko erabili ahal izatea, eta prestakuntza kulturalaren bidez jakin ahal izatea zer idatzi, bizi izan eta amestu duten beste hizkuntza eta kultura batzuetako gizakiek, beti gizaki.

Beste alde batetik, literatura mugimenduen oihartzunek nazio guztietan ardatz komun eta lotura batzuk izaten dituzte eta komeni da horiek ezagutzea egungo mundua ulertzeko: kultura zahar baten oinordekoak gara, Europako kulturako partaide gara; berau Antzinaroko klasikoetatik dator, eta Erdi Aro kristauaren bitartez Bibliak ordezkatzeko duen mundu kulturaletik. Mendean zehar europarrek kultura komuna izan zuten. Jada XVI. mendean hasi ziren agertzen benetako literatura "nazionalak", baina haien artean beti izan dira harremanak eta eraginak. Europa modernoko literatura mugimendu handiak (Errenazimentua, Barrokoa, Neoklasizismoa, Erromantizismoa, Errealismoa, Sinbolismoa eta Abangoardiak) nazioetako mugek gainera hedatu dira, nahiz eta nazio bakoitzean ezaugarri bereziak izan. Mendebaldeko literatura –Europa osoan, Latinoamerikan eta Ipar Amerikan egiten dena– bat bakarra da. Gure mendeak jakin-minaren leihoak zabaldu ditu urrutiko herrialdeetara begira jartzeko, batez ere Ekialde Urrunera. Literatura Unibertsala ez da mendebaldeko gure munduarena bakarrik; hala ere, aipatu literatura horiek ia ez dute eraginik izan gurean eta ez dira hain ezagunak gure artean.

Curriculum honetako edukiak denboran eta historian zehar banaturik aurkezten dira. Hala ere, irakasgaia ematen duten irakasleek, beren ikasgeletako programazioetan, literatura generoen arabera banatzen ahalko dituzte edukiak (antzerkia Grezian, Erroman, Errenazimentuan etab.),

edo testu motaren arabera (narrazioa testu klasikoetan, epika Erdi Aroan etab.), edo ikasleen interesa piztu dezaketen gai-multzoak osatuz (maitasun tragikoa Grezian eta Erroman, Erdi Aroan, Errenazimentuan etab.).

Jarraitu beharreko metodoari dagokionez, irakurketa izanen da ikasleen eta irakasleen lanaren ardatza. Kasu batzuetan, esate baterako antzerkian eta poesia lirikoan, lana osorik irakurri behar da. Beste batzuetan, bereziki narrazioan, nahikoa izan daiteke pasarte batzuk aukeratzea. Nolanahi den, literatura mugimendu nagusietako lan bana osorik irakurtzea gomendatzen da, ikasleak mugimendu horien egituraz ongi jabe daitezen, historia edo artea bezalako beste diziplina batzuetan ere ageri baitira.

Ikasgelan, testua irakurtzearekin batera gai nagusiari buruzko gogoeta eginen da. Testuaren gaineko iruzkina bakarka nahiz taldean eginen da; ulermena hobetzeko eta hizkuntzaren adierazpen-teknikak aztertzekeo tresna izanen da beste ezer baino lehen.

Oinarrizko gaitasunak lortzeko Literatura Unibertsalak egiten duen ekarpena

Literatura Unibertsalak *hizkuntzaren bidez komunikatzeko gaitasuna* lortzen laguntzen du, irakasgai honetan irakurtzeko interesa, testuen izaera estetikoaren balorazioa eta literatura zaletasuna garatzen baitira. Irakasgai honetako eduki guztietatik abiatuta literatura testuen ulermenezko irakurketa eta ahozko zein idatzizko adierazpena lantzen dira, kalitatezko edozein ikasketa egiteko ezinbesteko baliabide gisa.

Bakarka nahiz taldean testuak irakurri, hausnartu eta iruzkintzeko, entzuten, azaltzen eta argudiatzen trebatu beharra dago. Beste alde batetik, ikasgelan eta ikasgelatik kanpo lantzen diren testuen balorazio kritikoa eta sentimendu, ideia eta iritzien komunikazioa ezinbestekoak dira irakasgai honen helburuak lortzeko; jarduera horiek gaitasuna lortzen laguntzen dute, haietan hizkuntza ahoz nahiz idatziz erabiltzen baita.

Irakasgai honen barnean, literatura lanak irakurri, interpretatu eta baloratzea lagungarria da *kultur eta arte gaitasuna* garatzeko, hots, literatura ondarea eta gizakien kezka nagusien adierazgarriak diren gai errepikakorrak hobeki ezagutzeko. Ekarpene are handiagoa izanen da literatura adierazpenen estimua beste arte-agerpen batzuekin, adibidez, musikarekin, pinturarekin edo zinemarekin lotzen den heinean. Gaitasun hori lortzen errazagoa izanen da, gainera, literaturaren ingurune sozialak (idazleak, kritikariak, liburutegiak, liburu-dendak, katalogoak, edo literatura gaiak prentsan duten presentzia) ikasleentzat zentzua baldin badu.

Ekarpene errazteko, literatura mugimendu adierazgarri bakoitzeko obra nabarmen hautatuak irakurriko dira, kultura ondarearen zati baitira, eta ikasleek argi eta garbi ikasiko dute historia edo artea bezalako beste jakintza-adar batzuekin bat datozen mugimendu horien egitura. Plan-teamendu horretatik abiatuta, artelanak estimatzen ikasten da, pertzepziorako eta sentsibilizazioarako trebetasunak lortzen dira, artelanekin hunkitzeko gaitasuna lortzen da eta, gainera, kultura ondarea baloratzen, errespetatzen eta haren kontserbazioaz arduratzen laguntzen da.

Irakasgai hau bitarteko aproposa da *gaitasun soziala eta herritartasuna* garatzeko. Literatura obrak urruneko eta antzinako kulturetara hurbiltzea ahalbidetzen du, askotariko kultura agerpenak aintzat hartu, ulertu eta kritikoki baloratzeko gaitasuna garatzen du, jarrera irekiak eta begirunezkoak sustatzen ditu, eta iritzi oinarridunak osatzeko elementuak eskaintzen ditu, obra bakoitzaren ingurune sozial eta historikoa kontuan harturik.

Irakurritako testua ikasgelan hausnartu eta iruzkintzean aukera emanen da nork bere ideiak adierazteko eta besteenak baloratzeko. Errespetua, tolerantzia, lankidetzeta eta malgutasuna sustatuko dira eta gizarte trebetasunak errazago lortuko dira.

Irakasgai honek lagundu egiten du *informazioaren tratamendurako gaitasuna eta gaitasun digitala* garatzen: une bakoitzean behar den informazioa bilatu eta aukeratu behar da eta nork bere ahazko eta idatzizko testuak sortzeko erabili behar du. Informazio horietako asko bilatu eta aukeratzeko beharrezkoa izanen da, adibidez, liburutegiak egoki erabiltzea edo Internet erabiltzea. Bilaketa horiek gidaritzapean egitea gaitasun digitala garatzeko bidea izanen da. Curriculumean ezarri da lanak egiteko euskarri elektronikoak erabiliko direla, idazketa prozesuko eragiketa batzuk (plangintza, testua egitea, berrikustea...) eraginkortasun handiagoz egin ahal izateko. Horrek ere lagundu egiten du goian aipatutako gaitasuna lortzen.

Literatura Unibertsalaren bidez *ikasten ikasteko gaitasuna* errazago lortzen da. Izan ere, ikasteko gertutasuna eta ikaskuntza antolatzeke trebetasuna sustatzen dira, autonomiarako, diziplinarako eta gogoetarako trebetasunak sustatzen dira, eta norberaren gaitasun eta baliabideez jabetzera bultzatzen da, baita norberaren akatsak onartzera ere, hobekuntzarako tresna gisa. Irakasgai honetan memorizazioa, argumentazioa, norberaren eta besteren ideien laburpena eta norberaren lanaren emaitzak eraginkortasunez adierazteko trebetasuna lantzen dira. Horiek gero ikaskuntzak ere erraztuko dituzte.

Irakasgai honek lagundu egiten du *autonomia eta ekimen pertsonala* lortzen, erabiltzen diren prozeduretan planifikatu, antolatu, aztertu eta komunikatu beharra dagoelako. Bakarka lanak egitea eta taldean gogoeta eta iruzkinak egitea ariketa lagungarriak dira inhibizio eta aurreiritziak gainditzeko, ikaskideen ekarpenak baloratzeko, akatsak onartzeko eta horiek nola zuzendu behar diren ulertzeko. Laburbilduz, irakasgai honek hobekuntzarako aukerak eskaintzen ditu eta hobetu nahia sustatzen du.

Helburuak

Literatura Unibertsala aukerako irakasgaiak ondoko gaitasun hauek garatzen lagunduko die ikasleei:

1. Hainbat garai eta herrialdetan idatzitako testuak ezagutzea; haien xedeaz eta denboran zehar izan duten balio iraunkorraz ohartzea.
2. Irakurketa baloratzeta, kulturaren aberasgarri eta plazer iturri baita.
3. Norberarena ez beste hizkuntza batzuetan idatzitako literatura lanak aintzat hartzea, kultura tradizio komunaren agerpideak edo gizatasunaren adierazpenak diren aldetik.

4. Literatura mugimendu komunen arteko erlazioak ezagutzea.
5. Eskola liburutegia nahiz informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea arloko gaiari buruzko lanak arrazoitu eta orientatzeko eta ezagutzak ikasi eta partekatzeko tresna gisa.
6. Jarrera kritiko eta sortzaileak hartzea irakurritako testuak interpretatzerakoan.
7. Testu bat pentsamenduaren edo sentimendu-azalpenaren maisulan bilakatzen duten hizkuntz prozedurei buruz gogoeta egitea.
8. Hizkuntza adierazpen pertsonalerako berebiziko baliabidetzat erabiltzea.

Edukiak

1. Bibliako testuak:
Testu bibliko aukeratuak, literaturaren aldetik interes handiena duten liburuetatik hartuak: Kantarik Ederrena, Isaias, Salmoak, Joben Liburua, Ruthen Liburua...
2. Antzinaro Klasikoko testuak:
Antzinaro Klasikoko autore eta testu aukeratuak: literatura grekotik, Homero eta Sofokles; latindarretik, Virgilio.
3. Erdi Aroko testuak:
Erdi Aroko literaturatik aukeratutako pasarte batzuk: Jainkotiar komedia, probentzerazko poesia...
4. Errenazimentuko testuak:
Italiako Errenazimentuko autoreen orri aukeratu batzuk: Bocaccio, Makiavelo eta Petrarka.
5. Barrokoko testuak:
Shakespeareren lanen bat irakurtzea.
6. Frantziako urrezko mendeko testuak:
Molièreren komediaren bat irakurtzea.
7. Erromantizismoko testuak:
Walter Scotten eleberri bat irakurtzea.
8. Errealismoko testuak:
Dostoievskiren eta Balzacen orri aukeratu batzuk.
9. XX. mendeko testuak:
XX. mendeko olerkarien poema batzuk irakurtzea, hainbat hizkuntzaren artetik aukeratuak.
10. XX. mendeko testuak:
XX. mendeko berritzaile handien (Joyce, Proust, Kafka, Faulkner) pasarte aukeratuak eta haien gaineko informazio orokorra. Abangoardiak.
11. XX. mendeko literaturako beste testu nagusi batzuk:
XX. mendeko autoreen fantasiarako edo zientzia fikziozko literatura lanen bat irakurtzea (adibidez, Tolkien edo Asimov).

12. Irakurritako testuak eta gaztelaniazko literaturan antzeko gaiak jorratzen dituzten beste batzuk alderatzea.
13. Ekialdeko literaturan funtsezkoak diren obra edo egileen gaineko informazio orokorra: Ramayana; Mahabharata; Korana.
14. Irakurritako autore edo obraren baten gaineko ikerlana egitea, eskola liburutegiko baliabideak eta teknologia berriak erabiliz.

Ebaluazio irizpideak

1. Hainbat mota, garai eta herrialdeko literatura testuen funtsezko ideiak atzematea, zertarako idatzi ziren konturatzea eta denboran zehar duten balio iraunkorraz ohartzea.

Irizpide honen bidez, autore nagusien pasarte aukeratuak eta testu oso batzuk irakurri, jakin nahi da ea ikasleak gai diren literatura, garai eta genero desberdinetako gaiak eta topiko literarioak definitzeko, eta ea antzematen duten zertarako egin ziren obra horiek eta zer nolako eragina, indarra eta garrantzia izan duten egundaino. Azken buruan, literaturari buruzko eza-gutzak noraino barneratu diren ebaluatuko da, testuak irakurri, baloratu eta gozatzen ote diren eta testuak norberaren esperientziara hurbiltzen diren kontuan hartuz.

2. Osoki irakurritako literatura testu bat zer generotakoa den antzematea eta haren egiturazko elementu funtsezkoak eta hartan erabilitako hizkuntza baliabide nagusiak atzematea.

Irizpide honen bitartez irakurtzeko gaitasuna ebaluatuko da literaturaren esparruan, ikasitako literaturetako eta garaietako testu osoen irakurketa pertsonala dela medio. Egiaztatu egin nahi da, obra osoen (Shakespeare, Molière...) irakurketaren bidez, ikasleek literatura genero nagusiak ezagutzen dituztela beren ezaugarrien arabera, irakurritako testuetako oinarriko egiturak identifikatzen dituztela eta hizkuntza literarioaren erretorika-figura nagusiak antzematen dituztela. Irizpide hau, halaber, ikasleek gogoeta linguistikorako duten gaitasuna aztertzeko erabiliko da.

3. Aztertutako lanetan kultura tradizio komuna edo gizatasunaren agerpen antzekoak atzematea.

Ikasleek, beren kultur eta arte gaitasunaren garapenean, gai izan behar dute hainbat kultura eta tradizioen ezaugarri komunak atzemateko eta gizaki guztiok batera ditugun ezaugarriak erakusten dituzten adierazpideak aurkitzeko. Halaber, egiaztatu nahi da ikasleak gai direla besteren errealitateak ulertzeko eta horiekin hunkitu, gozatu eta aberasteko.

4. Irakurritako testuak interpretatzerakoan jarrera kritiko eta sortzaileak hartu eta garatzea, arrazionaltasunaren eta zentzu onaren irizpide finkatuei jarraituz.

Irizpide honen bidez egiaztatu nahi da autonomia pertsonala, sormena eta sen kritikoa garatu egin direla irakurmenaren bitartez, eta irakurri gozatzen dela. Obren irakurketa pertsona-

la, norberaren interpretazioa eta are literatura testuen birsorkuntza ere, ordea, berezko logikak eta zentzu onak mugatu behar dituzte.

5. Ikerketa egitea aztertutako lanetako baten gainean, zuzentasunez eta ezarritako arauak betez. Horretarako informazio iturri klasikoak zein teknologia berrietakoak erabiliko dira.

Irizpide honen bidez, informazioa lortu, bilatu, landu eta komunikatzeko eta informazioa ezagutza bihurtzeko gaitasuna ebaluatuko da. Halaber, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzeko gaitasuna neurtuko da, bai haien forma klasikoei –liburuak, entziklopediak...– bai modernoenei –web orriak, entziklopedia digitalak, sareko liburutegiak...– erreparatuta.

Lanak modu akademikoan aurkezteko arauak betetzen ote diren ere ebaluatu nahi da; adibidez, iturrien erabilera eta aipamena. Lan akademikoetan, bestalde, gauzak idatziz modu ordenatuan azaltzeko gaitasuna neurtu nahi da, adierazpen pertsonalaren funtsezko forma baita.

6. Literatura Unibertsaleko lan adierazgarrienak, haien gaiak eta literatura generoak ezagutzea.

Irizpide honen bidez baloratu nahi da ea ikasleek ezagutzen dituzten literatura nagusiak eta horien funtsezko testuak, garai handiak, garai bakoitzeko gai eta motibo nagusiak eta literatura obra horien egiturak eta oinarrizko ezaugarriak. Literaturako ezagutzak noraino barneratu diren ebaluatu nahi da, irakurketa, balorazioa eta irakurri eta iruzkindutako testuen gozamenaren direla medio.

Literatura Unibertsala. D eredua [Laugarren kurtsoa]

Sarrera

Literatura Unibertsala aukerako irakasgaia da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren kurtsoko ikasleentzat. Etapako osagarri kultural gisa dago pentsatua. Ikasle guztientzat balio duen irakasgaia da; hala ere, egokiagoa dirudi Giza Zientzien batxilergoa egin nahi dutenentzat.

Hona zer eskaintzen dion literatura lanak irakurle gazteari: edozein artelanek islatzen duen munduaren ikuskera berezia ezagutzea, urruneko eta antzinako kulturetara hurbildu ahal izatea, lan estetiko bikainak eragiten duen zirrara sentitzea, hizkuntza norberaren bizipenak adierazteko erabili ahal izatea, eta prestakuntza kulturalaren bidez jakin ahal izatea zer idatzi, bizi izan eta amestu duten beste hizkuntza eta kultura batzuetako gizakiek, beti gizaki.

Beste alde batetik, literatura mugimenduen oihartzunek nazio guztietan ardatz komun eta lotura batzuk izaten dituzte eta komeni da horiek ezagutzea egungo mundua ulertzeko: kultura zahar baten oinordekoak gara, Europako kulturako partaide gara; berau Antzinaroko klasikoetatik dator, eta Erdi Aro kristauaren bitartez Bibliak ordezkutzen duen mundu kulturaletik. Mendean zehar europarrek kultura komuna izan zuten. Jada XVI. mendean hasi ziren agertzen benetako literatura "nazionalak", baina haien artean beti izan dira harremanak eta eraginak. Europa modernoko literatura mugimendu handiak (Errenazimentua, Barrokoa, Neoklasizismoa, Erromantizismoa, Errealismoa, Sinbolismoa eta Abangoardiak) nazioetako mugek gainera edonora hedatu dira, nahiz eta nazio bakoitzean ezaugarri bereziak izan. Mendebaldeko literatura –Europa osoan, Latinoamerikan eta Ipar Amerikan egiten dena– bat bakarra da. Gure mendeak jakin-minaren leihoak zabaldu ditu urrutiko herrialdeetara begira jartzeko, batez ere Ekialde Urrunera. Literatura Unibertsala ez da mendebaldeko gure munduarena bakarrik; hala ere, aipatu literatura horiek ia ez dute eraginik izan gurean eta ez dira hain ezagunak gure artean.

Curriculum honetako edukiak denboran eta historian zehar banaturik aurkezten dira. Hala ere, irakasgaia ematen duten irakasleek, beren ikasgeletako programazioetan, literatura generoen arabera banatzen ahalko dituzte edukiak (antzerkia Grezian, Erroman, Errenazimentuan etab.),

edo testu motaren arabera (narrazioa testu klasikoetan, epika Erdi Aroan etab.), edo ikasleen interesa piztu dezaketen gai-multzoak osatuz (maitasun tragikoa Grezian eta Erroman, Erdi Aroan, Errenazimentuan etab.).

Jarraitu beharreko metodoari dagokionez, irakurketa izanen da ikasleen eta irakasleen lanaren ardatza. Kasu batzuetan, esate baterako antzerkian eta poesia lirikoan, lana osorik irakurri beharko da. Beste batzuetan, bereziki narrazioan, nahikoa izan daiteke pasarte batzuk aukeratzea. Nolanahi den, literatura mugimendu nagusietako lan bana osorik irakurtzea gomendatzen da, ikasleak mugimendu horien egituraz ongi jabe daitezen, historia edo artea bezalako beste diziplina batzuetan ere ageri baitira.

Ikasgelan, testua irakurtzearekin batera gai nagusiari buruzko gogoeta eginen da. Testuaren gaineko iruzkina bakarka nahiz taldean eginen da; ulermena hobetzeko eta hizkuntzaren adierazpen-teknikak aztertzeko tresna izanen da beste ezer baino lehen.

Literatura unibertsala ezagutu eta berarekin gozatzeaz gainera, adierazpen pertsonalerako bide ezin hobe gisa erabili behar da hizkuntza, testu idatziak sortzen ahaleginduz. Horretarako, testu mota batzuk –narrazioak edo deskripzioak– landuko dira lantegi moduan, eta horietan bakoitzaren adierazpenak aztertu eta berrikusiko dira.

Irakasgai hau literatura unibertsala denez, ahal dela jatorrizko hizkuntzan idatzitako testuak erabiltzea gomendatzen da. Adibidez, gaztelaniazko testuak badira, testu horiek gaztelaniaz irakurtzea da logikoena; hala ere, testuak ikasleak ez dakien hizkuntza batean idatzita badaude, irakasleak euskarazko bertsioa, baldin badago, edo gaztelaniazkoa aukera dezake.

Oinarrizko gaitasunak lortzeko Literatura Unibertsalak egiten duen ekarpena

Literatura Unibertsalak *hizkuntzaren bidez komunikatzeko gaitasuna* lortzen laguntzen du, irakasgai honetan irakurtzeko interesa, testuen izaera estetikoaren balorazioa eta literatura zaletasuna garatzen baitira. Irakasgai honetako eduki guztietatik abiatuta literatura testuen ulermenezko irakurketa eta ahozko zein idatzizko adierazpena lantzen dira, kalitatezko edozein ikasketa egiteko ezinbesteko baliabide gisa.

Bakarka nahiz taldean testuak irakurri, hausnartu eta iruzkintzeko, entzuten, azaltzen eta argudiatzen trebatu beharra dago. Beste alde batetik, ikasgelan eta ikasgelatik kanpo lantzen diren testuen balorazio kritikoa eta sentimendu, ideia eta iritzien komunikazioa ezinbestekoak dira irakasgai honen helburuak lortzeko; jarduera horiek gaitasuna lortzen laguntzen dute, haietan hizkuntza ahoz nahiz idatziz erabiltzen baita.

Irakasgai honen barnean, literatura lanak irakurri, interpretatu eta baloratzea lagungarria da *kultur eta arte gaitasuna* garatzeko, hots, literatura ondarea eta gizakien kezka nagusien adierazgarriak diren gai errepikakorrak hobeki ezagutzeko. Ekarpenean are handiagoa izanen da literatura adierazpenen estimua beste arte-agerpen batzuekin, adibidez, musikarekin, pinturarekin edo zinemarekin lotzen den heinean. Gaitasun hori lortzen errazagoa izanen da, gainera, litera-

turaren ingurune sozialak (idazleak, kritikariak, liburutegiak, liburu-dendak, katalogoak, edo literatura gaiak prentsan duten presentzia) ikasleentzat zentzua baldin badu.

Ekarpena errazteko, literatura mugimendu adierazgarri bakoitzeko obra nabarmen hautatuak irakurriko dira, kultura ondarearen zati baitira, eta ikasleek argi eta garbi ikasiko dute historia edo artea bezalako beste jakintza-adar batzuekin bat datozen mugimendu horien egitura. Plan-teamendu horretatik abiatuta, artelanak estimatzen ikasten da, pertzepziorako eta sentsibilizazioarako trebetasunak lortzen dira, artelanekin hunkitzeko gaitasuna lortzen da eta, gainera, kultura ondarea baloratzen, errespetatzen eta haren kontserbazioaz arduratzen laguntzen da.

Irakasgai hau bitarteko aproposa da *gaitasun soziala eta herritartasuna* garatzeko. Literatura obrak urruneko eta antzinako kulturetara hurbiltzea ahalbidetzen du, askotariko kultura agerpenak aintzat hartu, ulertu eta kritikoki baloratzeko gaitasuna garatzen du, jarrera irekiak eta begirunezkoak sustatzen ditu, eta iritzi oinarridunak osatzeko elementuak eskaintzen ditu, obra bakoitzaren ingurune sozial eta historikoa kontuan harturik.

Irakurritako testua ikasgelan hausnartu eta iruzkintzean aukera emanen da nork bere ideiak adierazteko eta besteenak baloratzeko. Errespetua, tolerantzia, lankidetzeta eta malgutasuna sustatuko dira eta gizarte trebetasunak errazago lortuko dira.

Irakasgai honek lagundu egiten du *informazioaren tratamendurako gaitasuna eta gaitasun digitala* garatzen: une bakoitzean behar den informazioa bilatu eta aukeratu behar da eta nork bere ahozko eta idatzizko testuak sortzeko erabili behar du. Informazio horietako asko bilatu eta aukeratzeko beharrezkoa izanen da, adibidez, liburutegiak egoki erabiltzea edo Internet erabiltzea. Bilaketa horiek gidaritzapean egitea gaitasun digitala garatzeko bidea izanen da. Curriculumean ezarri da lanak egiteko euskarri elektronikoak erabiliko direla, idazketa prozesuko eragiketa batzuk (plangintza, testua egitea, berrikustea...) eraginkortasun handiagoz egin ahal izateko. Horrek ere lagundu egiten du goian aipatutako gaitasuna lortzen.

Literatura Unibertsalaren bidez *ikasten ikasteko gaitasuna* errazago lortzen da. Izan ere, ikasteko gertutasuna eta ikaskuntza antolatzeke trebetasuna sustatzen dira, autonomiarako, diziplinarako eta gogoetarako trebetasunak sustatzen dira, eta norberaren gaitasun eta baliabideez jabetzera bultzatzen da, baita norberaren akatsak onartzera ere, hobekuntzarako tresna gisa. Irakasgai honetan memorizazioa, argumentazioa, norberaren eta besteren ideien laburpena eta norberaren lanaren emaitzak eraginkortasunez adierazteko trebetasuna lantzen dira. Horiek gero-gero ikaskuntzak ere erraztuko dituzte.

Irakasgai honek lagundu egiten du *autonomia eta ekimen pertsonala* lortzen, erabiltzen diren prozeduretan planifikatu, antolatu, aztertu eta komunikatu beharra dagoelako. Bakarka lanak egitea eta taldean gogoeta eta iruzkinak egitea ariketa lagungarriak dira inhibizio eta aurreiritziak gainditzeko, ikaskideen ekarpenak baloratzeko, akatsak onartzeko eta horiek nola zuzendu behar diren ulertzeko. Laburbilduz, irakasgai honek hobekuntzarako aukerak eskaintzen ditu eta hobetu nahia sustatzen du.

Helburuak

Literatura Unibertsala aukerako irakasgaiak ondoko gaitasun hauek garatzen lagunduko die ikasleei:

1. Hainbat garai eta herrialdetan idatzitako testuak ezagutzea; haien xedeaz eta denboran zehar izan duten balio iraunkorraz ohartzea.
2. Irakurketa baloratzea, kulturaren aberasgarri eta plazer iturri baita.
3. Norberarena ez beste hizkuntza batzuetan idatzitako literatura lanak aintzat hartzea, kultura tradizio komunaren agerpideak edo gizatasunaren adierazpenak diren aldetik.
4. Literatura mugimendu komunaren arteko erlazioak ezagutzea.
5. Eskola liburutegia nahiz informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea arloko gaiei buruzko lanak arrazoitu eta orientatzeko eta ezagutzak ikasi eta partekatzeko tresna gisa.
6. Jarrera kritiko eta sortzaileak hartzea irakurritako testuak interpretatzerakoan.
7. Testu bat pentsamenduaren edo sentimendu-azalpenaren maisulan bilakatzen duten hizkuntz prozedurei buruz gogoeta egitea.
8. Hizkuntza adierazpen pertsonalerako berebiziko baliabidetzat erabiltzea.

Edukiak

1. Bibliako testuak:
Testu bibliko aukeratuak, literaturaren aldetik interes handiena duten liburuetatik hartuak: *Kantarik Ederrena, Isaías, Salmoak, Joben Liburua, Ruthen Liburua...*
2. Antzinaro Klasikoko testuak:
Antzinaro Klasikoko autore eta testu aukeratuak: literatura grekotik, Homero eta Sofokles; latindarretik, Virgilio.
3. Erdi Aroko testuak:
Erdi Aroko literaturatik aukeratutako pasarte batzuk: *Jainkotiar komedia*, probentzerazko poesia...
4. Errenazimentuko testuak:
Italiako Errenazimentuko autoreen orri aukeratu batzuk: Bocaccio, Makiavelo eta Petrarka.
5. Barrokoko testuak:
Shakespeareren lanen bat irakurtzea.
6. Frantziako urrezko mendeko testuak:
Molièreren komediaren bat irakurtzea.
7. Erromantizismoko testuak:
Walter Scotten eleberri bat irakurtzea.
8. Errealismoko testuak:
Dostoievskiren eta Balzacen orri aukeratu batzuk.

9. XX. mendeko testuak:
XX. mendeko olerkarien poema batzuk irakurtzea, hainbat hizkuntzaren artetik aukeratuak.
10. XX. mendeko testuak:
XX. mendeko berritzaile handien (Joyce, Proust, Kafka, Faulkner) pasarte aukeratuak eta haien gaineko informazio orokorra. Abangoardiak.
11. XX. mendeko literaturako beste testu nagusi batzuk: XX:
XX. mendeko autoreen fantasiarako edo zientzia fikziozko literatura lanen bat irakurtzea (adibidez, Tolkien edo Asimov).
12. Irakurritako testuak eta gaztelaniazko literaturan antzeko gaiak jorratzen dituzten beste batzuk alderatzea.
13. Ekialdeko literaturan funtsezkoak diren obra edo egileen gaineko informazio orokorra: *Ramayana*; *Mahabharata*; *Korana*.
14. Irakurritako autore edo obraren baten gaineko ikerlana egitea, eskola liburutegiko baliabideak eta teknologia berriak erabiliz.

Ebaluazio irizpideak

1. Hainbat mota, garai eta herrialdeko literatura testuen funtsezko ideiak atzematea, zertarako idatzi ziren konturatzea eta denboran zehar duten balio iraunkorraz ohartzea.

Irizpide honen bidez, autore nagusien pasarte aukeratuak eta testu oso batzuk irakurri, jakin nahi da ea ikasleak gai diren literatura, garai eta genero desberdinetako gaiak eta topiko literarioak definitzeko, eta ea antzematen duten zertarako egin ziren obra horiek eta zer nolako eragina, indarra eta garrantzia izan duten egundaino. Azken buruan, literaturari buruzko eza-gutzak noraino barneratu diren ebaluatuko da, testuak irakurri, baloratu eta gozatzen ote diren eta testuak norberaren esperientziara hurbiltzen diren kontuan hartuz.

2. Osoki irakurritako literatura testu bat zer generotakoa den antzematea eta haren egiturazko elementu funtsezkoak eta hartan erabilitako hizkuntza baliabide nagusiak atzematea.

Irizpide honen bitartez irakurtzeko gaitasuna ebaluatuko da literaturaren esparruan, ikasitako literaturetako eta garaietako testu osoen irakurketa pertsonala dela medio. Egiaztatu egin nahi da, obra osoen (Shakespeare, Molière...) irakurketaren bidez, ikasleek literatura genero nagusiak ezagutzen dituztela beren ezaugarrien arabera, irakurritako testuetako oinarritzko egiturak identifikatzen dituztela eta hizkuntza literarioaren erretorika-figura nagusiak atzematen dituztela. Irizpide hau, halaber, ikasleek gogoeta linguistikorako duten gaitasuna aztertzeko erabiliko da.

3. Aztertutako lanetan kultura tradizio komuna edo gizatasunaren agerpen antzekoak atzematea.

Ikasleek, beren kultur eta arte gaitasunaren garapenean, gai izan behar dute hainbat kultura eta tradizioen ezaugarri komunak atzemateko eta gizaki guztiok batera ditugun ezaugarriak

erakusten dituzten adierazpideak aurkitzeko. Halaber, egiaztatu nahi da ikasleak gai direla besteren errealitateak ulertzeko eta horiekin hunkitu, gozatu eta aberasteko.

4. Irakurritako testuak interpretatzerakoan jarrera kritiko eta sortzaileak hartu eta garatzea, arrazionaltasunaren eta zentzu onaren irizpide finkatuei jarraituz.

Irizpide honen bidez egiaztatu nahi da autonomia pertsonala, sormena eta sen kritikoa garatu egin direla irakurmenaren bitartez, eta irakurritz gozaten dela. Obren irakurketa pertsonala, norberaren interpretazioa eta are literatura testuen birsorkuntza ere, ordea, berezko logikak eta zentzu onak mugatu behar dituzte.

5. Ikerketa egitea aztertutako lanetako baten gainean, zuzentasunez eta ezarritako arauak betez. Horretarako informazio iturri klasikoak zein teknologia berrietakoak erabiliko dira.

Irizpide honen bidez, informazioa lortu, bilatu, landu eta komunikatzeko eta informazioa ezagutza bihurtzeko gaitasuna ebaluatuko da. Halaber, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzeko gaitasuna neurtuko da, bai haien forma klasikoei –liburuak, entziklopediak...– bai modernoenei –web orriak, entziklopedia digitalak, sareko liburutegiak...– erreparatuta.

Lanak modu akademikoan aurkezteko arauak betetzen ote diren ere ebaluatu nahi da; adibidez, iturrien erabilera eta aipamena. Lan akademikoetan, bestalde, gauzak idatziz modu ordenatuan azaltzeko gaitasuna neurtu nahi da, adierazpen pertsonalaren funtsezko forma baita.

6. Literatura Unibertsaleko lan adierazgarrienak, haien gaiak eta literatura generoak ezagutzea.

Irizpide honen bidez baloratu nahi da ea ikasleek ezagutzen dituzten literatura nagusiak eta horien funtsezko testuak, garai handiak, garai bakoitzeko gai eta motibo nagusiak eta literatura obra horien egiturak eta oinarrizko ezaugarriak. Literaturako ezagutzak noraino barneratu diren ebaluatu nahi da, irakurketa, balorazioa eta irakurri eta iruzkindutako testuen gozamina direla medio.

7. Lantegi moduan, testu batzuk sortzea, eta horietan bakoitzaren adierazpenak aztertu eta berrikustea.

Matematikan sakontzen [Laugarren kurtsoa]

Sarrera

Matematikak lotura hertsia du zibilizazioak historian barrena egin duen aurrerabidearekin. Mundua ulertzeko ahaleaginean zibilizazio guztiek tresna matematikoak sortu eta garatu izan dituzte: kalkuluak, neurketak eta forma eta kantitateen arteko erlazioen azterketak garai guztietako zientzialariei errealitatearen ereduak sortzen lagundu diete. Eredu horiek, gaur egun, lagundu egiten diete zientzia esperimentalen eta sozialen garabideari nahiz formalizazioari, behar bezalako tresna-laguntza emanaz. Horrez gain, matematikaren hizkuntza eta arrazoibidea, errealitatearen fenomeno eta alderdi desberdinei aplikaturik, tresna baliagarriak dira, inguratzen gaituen mundua hobeki ulertzen eta azaltzen laguntzen digutenak. Beraz, matematika irakastearen helburu bakarra ez da hura tresna gisa erabiltzea; arrazoitzeko, abstrakzioarako eta adierazpenerako gaitasunaren garapena ere lortu nahi da.

Zientzia ibilbideko ikasleentzako aukerako irakasgaia denez, honako irakasgai honen edukiak DBHko laugarren kurtsoko Matematika B irakasgaiaren edukietatik abiatuta aurkezten dira, baina goragoko mailan. Aplikazio eta problema konplexuagoak daude eta eduki horiek gehitu egin dira batzuetan, aurretiko ezagutzak finkatzeaz gain, ikasle horiek beren prestakuntza akademikoan jarraitzeko oinarri sendoa lor dezaten.

Metodologia ikasle talde bakoitzaren arabera moldatuko da, eta dauden baliabideei ahalik eta etekinik handiena aterako zaie. Irizpide orokor gisa, gomendagarria da behaketaren eta manipulazioaren bidezko indukzio-ikasketa, dedukzioaren bidezko arrazoibidea eta demostrazioak sustatzea, eta, aldi berean, ikasleak hurbil dituen egoera arazotsuei aurre egiteko oinarrizko trebetasunak eta eskema zein estrategia pertsonalak indartzea, curriculumeko beste irakasgai batzuekiko loturak begi bistatik galdu gabe. Horrez gain, matematikak berezko dituen lan ohiturak sustatu behar dira, beharrezkoak baitira ikasleek modu autonomoan ikasteko, hurrengo kurtsoetan eta ikasgelatik kanpo matematikaren aplikazioak ahalbidetzeko eta jakintza-adar honetikiko jakin-mina eta errespetua sustatzeko.

Edukiak multzoka aurkeztea horiek antolatzeke modu bat besterik ez da. Benetan axola duena da ikasgai desberdinen inguruko kontzeptuak elkarrekin lotzen dituzten jarduerak egitea, ikasleek irakasgaiari eta beraren aplikazioei buruzko ikuspegi osoagoa lor dezaten.

Bestalde, ikasteko jarrerei eta portaerei eragiten dieten planteamenduetan inbertitu beharra dago, eta esku-hartze mota hori prestakuntza kognitiboa bezain garrantzitsutzat jo behar da.

Matematika erabiltzeak balio izan behar du ideiak eta informazioa zehaztasun eta zorrotzasunez interpretatu eta transmititu ahal izateko, hainbat alderdi dituen hizkuntza gisa erabiliz: hitzekoa, grafikoa, zenbakizkoa eta aljebraikoa. Horretarako, garrantzitsua da ikaslea ahoz, idatziz eta irudiz bere esanbeharra adierazteko gai izan dadin matematikaren bidez trata daitezkeen egoeretan; hartarako notazio eta termino matematikoen berariazko lexiko bat beretu behar du.

Talde lanak, jakin-mina pizten duten problemetan, eta gogoeta lanak erraztu egiten dute zenbait lan ohitura garatzea; horiei esker ikasleak gai izanen dira estrategiak garatzeko beren argudioak ikaskideen aurrean defendatzeko, eta aukera izanen dute hainbat irizpide konparatzeko, gero erantzun egokiena hautatze aldera.

Halaber, oso gerturik eginen zaio kontu ikasleen ikasketa metodoari, ikasleek bere buruan behar adinako konfiantza lortu dezan, ikasgai honen ikasketari ekiteko beharrezkoa baita.

Azken urteotan garapen teknologiko zorbiagarriaren lekuko izan gara. XXI. mendeko herritarrek ezinbestez jakin beharko du kalkulagailuak edo ordenagailuak nola funtzionatzen duten, horiek erabili ahal izateko. Tresna horiek erabiltzen direnean arreta handiagoa jar daiteke erabakiak hartzen, hausnarketan, arrazoitzen eta problemak ebazten. Horregatik, kalkulagailua eta tresna informatikoak gaur egun maiz erabiltzen dira eguneroko bizitzan. Zentzuz erabili behar dira, ordea, ikaslea ahoa bete hortz gera ez dadin, adibidez, kalkulu errazen bat egin behar duenean bere kalkulagailua eskura izan gabe. Beste alde batetik, zenbait programa informatiko lehen mailako ikerketa-baliabideak dira zenbaki eta grafikoen propietate eta erlazioak aztertzeko eta, horregatik, haien erabilera sustatu behar da. Irakasleak erabakiko du noiz eta nola erabili kalkulagailua, kalkulu orria eta beste programa informatiko batzuk matematika ikasteko oinarritzko tresnatzat.

Oinarrizko gaitasunak lortzeko irakasgaiak egiten duen ekarpena

Irakasgaiaren curriculum osoak *matematikako gaitasuna* lortzen laguntzen duela esan daiteke; izan ere, errealitatea interpretatu eta deskribatzeko eta horren gainean jarduteko pentsamendu matematikoaren modu desberdinak erabiltzeko gaitasuna ikasketaren xedearen zati da. Eduki multzo guztiak matematikaren ikuspegitik arrazoitzeko, argudio matematikoak ulertzeko eta hizkuntza matematikoan gauzak adierazi eta komunikatzeko trebetasun eta jarrerak aplikatzera bideratuta daude. Horretarako, tresna egokiak erabili behar dira eta ezagutza matematikoa bestelako ezagutzekin batu behar da. Hala, ondorioak aterako dira, ziurgabetasuna gutxituko da

eta konplexutasun maila desberdinetako eguneroko egoerei aurre eginen zaie. Esan behar da matematika irakasteko modu guztiek ez dutela berdin laguntzen matematikako gaitasuna lortzen: ikasketen funtzionaltasuna azpimarratzeak, inguratzen gaituen mundua ulertzeko erabilgarritasunak edo problemak ebazteko estrategien hautapenak, horiek guztiek benetako aukera ematen dute matematika hainbat jakintza-arlori edo eguneroko bizitzako hainbat egoerari aplikatzeko.

Forma, erlazio eta egitura geometrikoak bereiztea, batez ere ikusmen espazialaren garapenaren bidez, eta formak nahiz adierazpenak planoaren eta espazioaren artean transferitzeko gaitasuna garatzea lagungarriak dira *mundu fisikoa ezagutzeko eta harekin elkarreraginean aritzeko gaitasuna* sakonean lantzeko. Eredugintza beste erreferente bat da norabide berean. Ereduek egiteko, egiazko egoeraren ezaugarri nabarmenak identifikatu eta hautatu behar dira, sinboloen bidez hura irudikatu behar da eta jokabideak, erregularitasunak eta inbariantek zehaztu, horietatik abiatuta ereduaren eboluzioari, zehaztasunari eta mugei buruzko aurreikuspenak egin ahal izateko.

Bestalde, ikasteko eta problemak ebazteko baliabide didaktiko gisa tresna teknologikoak erantsen dira eta hori lagungarria da ikasleek *informazioaren tratamendurako gaitasuna eta gaitasun digitala* hobetu dezaten. Era berean, hizkuntza grafikoa eta estatistikoa erabiliz hobeki interpretatzen da komunikabideek azaldutako errealitatea. Halaber, oso garrantzitsua da hizkuntza mota desberdinen arteko elkarreragina: hizkuntza naturala, zenbakizkoa, grafikoa, geometrikoa eta aljebraikoa erabili behar dira informazioaren tratamendua eta ikasleen esperientzia elkarri lotzeko.

Matematikaren bidez *hizkuntzaren bidezko komunikaziorako gaitasuna* lantzen da. Izan ere matematikan etengabe erabili behar dira mintzamena eta idazmena, ideiak formulatu eta adierazteko. Horregatik, matematika irakatsi eta ikasteko harreman guztietan, batez ere problemen ebazpenean, garrantzi berezia du egindako prozesuak eta erabilitako arrazoibideak adierazteak, hala ahoz nola idatziz, adierazpen horiek pentsamendua formalizatzen laguntzen dutelako. Hizkuntza matematikoa, berez, ideiak komunikatzeko bidea da, eta bere terminoen zehaztasunagatik eta hipotesiak transmititzeko ahalmen handiagatik nabarmentzen da, bere lexiko sintetiko, sinboliko eta abstraktuari esker.

Matematika lagungarria da *adierazpen kultural eta artistikorako gaitasuna* lantzeko, ezagutza matematikoa bera kulturaren adierazpen unibertsala delako. Geometria, bereziki, gizadiaren arte-adierazpenaren zati da, inguratzen gaituen mundua deskribatu eta ulertzeko eta sortu dituen egituren edertasunaz jabetzeko bitartekoak eskaintzen baitizkigu. Irakasgai honen bidez sentikortasuna eta sormena, pentsamendu dibergentea, autonomia eta grina estetikoa landu nahi dira.

Problemak ebazteko prozesuek bereziki laguntzen dute *autonomia eta ekimen pertsonala* sustatzen, estrategiak planifikatzeko eta erronkei aurre egiteko erabiltzen direlako eta lagungarriak direlako ziurgabetasunarekin bizitzeko eta, aldi berean, erabakiak hartzeko prozesuak

kontrolatzeko. Halaber, matematikan garatzen diren teknika heuristikoak informazioa tratatzeko eta arrazoitzeko eredu orokorrak dira, eta irakasgai honek sendotu egiten ditu *ikasten ikasteko gaitasunarekin* zerikusia duten trebetasunak, hala nola autonomia, iraunkortasuna, sistematizazioa, hausnarketa kritikoa eta norberaren lanaren emaitzak eraginkortasunez komunikatzeko gaitasuna.

Gaitasun sozialari eta herritartasunari ere ekarpena egiten zaio, matematika gizarteko fenomenoak deskribatzeko erabiltzen baita. Matematikak, batez ere funtzio-analisiaren eta estatistikaren bidez, iragarpenak egiteko eta erabakiak hartzeko irizpide zientifikoak eskaintzen ditu. Halaber, gaitasun hori lortzeko lagungarria da problemak ebazteko prozesuetan egindako akatsak modu eraikitzailean aztertzea. Horrela, bide batez, besteren ikuspuntuak aintzat hartzen dira, norberaren ikuspuntuen parean jarritz, eta egoera bati ekiteko aukera desberdinak aztertzen dira.

Helburuak

Etapa honetan irakasgai honen irakaskuntzaren bidez ikasleek hurrengo gaitasunak gara ditzaitezten lortu nahi da:

1. Gogoetazko pentsamendurako gaitasuna hobetzea eta hizkuntzari nahiz argumentazio moduei adierazpen eta arrazoitze matematikoaren moduak eranstea, bai prozesu matematiko edo zientifikoetan, bai giza jardueraren eremu guztietan, modu argi, labur eta zehatzean komunikatzeko.
2. Erraz eta egoki aplikatzea eguneroko egoeretan ikasgelan ikasitako tresna matematikoak.
3. Matematikaren bidez formulatu daitezkeen egoerak hauteman eta planteatzea, horiei aurre egiteko estrategia desberdinak prestatu eta erabiltzea eta baliabide egokiak erabiliz emaitzak aztertzea.
4. Errealitatea hobeki interpretatzeko bide ematen duten errealitateko alderdiak atzematea: informazioa biltzeko teknikak eta neurketarako prozedurak erabiltzea, zenbaki mota desberdinak erabiliz datuak aztertzea eta kalkulu egokiak hautatzea, hori guztia modu egokienean, kasuan kasuko egoeraren arabera.
5. Komunikabideetako, Interneteko, publizitateko edo bestelako informazio iturrietako elementu matematikoak identifikatzea (datu estatistikoak, geometrikoak, grafikoak, kalkuluak, etab.), elementu matematiko horien funtzioak kritikoki aztertzea eta mezuak hobeki ulertzeko egiten duten ekarpena baloratzea.
6. Eguneroko bizitzan ageri diren forma lauak edo espaziokoak identifikatzea, horien propietateak eta elkarren arteko erlazioak aztertzea, eta haien edertasunarekiko sentikortasun gero eta handiagoa izatea.
7. Baliabide teknologikoak (kalkulagailuak, ordenagailuak, etab.) behar bezala erabiltzea, bai kalkuluak egiteko, bai askotariko informazioak bilatu, landu eta irudikatzeke eta ikasten laguntzeko.

8. Eguneroko bizitzan sortzen diren arazoei ekitea matematikaren jardunbideak erabiliz, hala nola aukeren arakatze sistematikoa, hizkuntzaren zehaztasuna, ikuspuntua aldatzeko malgutasuna edo irtenbideak bilatzeko jarraitasuna.
9. Nork bere estrategiak prestatzea egoera jakinak aztertzeko eta problemak identifikatu eta ebazteko, askotariko baliabide eta tresnak erabiliz eta erabilitako estrategien komenigarritasuna baloratuz emaitzak aztertu ondoren, emaitzak zehatzak ala hurbilduak diren kontuan hartuz.
10. Problema ebazteko orduan jarrera positiboa izatea eta problemei arrakastaz aurre egiteko konfiantza agertzea; autoestimu maila egokia lortzea, matematikaz gozatu ahal izateko, sormenaren, manipulazioaren, estetikaren eta erabilgarritasunaren aldetik.
11. Matematikako ezagutzak gainerako irakasgaietan lortutakoekin elkartzea, ezagutza guztiak modu sortzaile, analitiko eta kritikoan erabili ahal izateko.
12. Matematika aintzat hartzea gure kulturaren zatia den aldetik, bai historiaren ikuspegitik bai gaur egungo gizartean duen zereginaren ikuspegitik, eta lortutako gaitasun matematikoak erabiltzea gizarteko fenomenoak aztertu eta baloratzeko: kultur aniztasuna, ingurumenarekiko errespetua, osasuna, kontsumoa, sexuen arteko berdintasuna edo bizikidetzaren bake-tsua.

Edukiak

1. multzoa. *Guztientzako edukiak*

- Problema ebazteko arrazoitze prozesuak eta estrategiak planifikatu eta erabiltzea, hala nola hipotesiak egin eta justifikatzea edo orokortzea.
- Argudioak, erlazio kuantitatiboak, erlazio espazialak eta problemen ebazpenerako prozedurak hitzez adieraztea, egoerak eskatzen duen adinako zehaztasun eta zorrotzasunaz.
- Kantitatei buruz edo elementu nahiz erlazio espazialei buruz arrazoi bide edo informazioak dituzten mezuak interpretatzea.
- Arlo honetako ikasketarako beharrezkoak diren hizkuntza trebetasunak lortzea: idatzizko eta ahozko testuak ulertzea, hiztegi berezia ezagutzea, mintzamina eta idazmina zuzen erabiltzea etab.
- Idatzizko iturrietako informazioa ulertzea eskemen, grafikoen, mapa kontzeptualen, laburpenen eta abarren bidez.
- Problemei aurre egiteko, erlazio matematikoak ulertzeko eta horietatik abiatuta erabakiak hartzeko norberaren gaitasunetan konfiantza izatea.
- Problema ebazteko eta lortutako soluzioak hobetzeko jarraitasuna eta malgutasuna.

- Tresna teknologikoak erabiltzea, zenbakizko kalkuluak, kalkulu aljebraikoak edo estatistikoak eta funtzio-adierazpenak egiteko eta propietate geometrikoak ulertzeko lagungarri gisa.

2. multzoa. *Zenbakiak eta aljebra*

- Segidak. Segidaren limitearen kontzeptua eta kalkulua (kalkulagailua, ordenagailua etab. erabiliz).
- Ekuazio polinomikoak Ruffiniren erregelaren bidez ebaztea.
- Zatiki aljebraikoak: eragiketak eta sinplifikazioa.
- Ekuazioen, inekuazioen eta ekuazio sistemen ebazpen grafikoa eta aljebraikoa sakonago aztertzea.
- Ekuazio esponentzialak, logaritmikoak eta trigonometrikoak ebaztea.
- Ekuazioen eta sistemen bidez eguneroko problemak eta beste jakintza-arlo batzuetakoak nola ebatzi sakonago aztertzea.

3. multzoa. *Geometria*

- Problema metrikoen ebazpena sakonago aztertzea: luzera, azalera eta bolumenen kalkulua.
- Triangelu zuzenak lortzeko deskonposizioaren bidez problemak ebaztea.
- Funtzio trigonometrikoak (angeluak neurtzeko unitate desberdinak erabiliz).
- Geometria analitiko lauaren atarian. Puntuen eta bektoreen koordenatuak. Bektore finkoak eta bektore askeak. Bektoreen batuketa. Zuzenaren ekuazioaren motak.

4. multzoa. *Funtzioak eta grafikoak*

- Funtzio baten aldagaia, domeinua eta irudia.
- Alderantzizko funtzioa eta funtzioen konposizioa.
- Funtzio baten limitea eta jarraitutasuna: atarikoak. Albo-limiteak. Limiteak kalkulagailua erabiliz eta grafikoa oinarri, nola finkatu. Limitearen notazioa eta interpretazio grafikoa.
- Asintotak.
- Zenbait funtzio arrazionalen azterketa grafikoa eta irudikapena.

5. multzoa. *Estatistika eta probabilitatea*

- Kontaketa teknikak. Konbinatoriaren atarian. Konbinazio zenbakiak. Newtonen binomioa.
- Estatistika eta probabilitateko problemen ebazpenean sakontzea.

Ebaluazio irizpideak

1. Zenbaki errealen segidetan zenbaki-erregulartasunak bilatzeko estrategiak prestatu eta erabiltzea.

Egiaztatu nahi da ikasleak gai direla erregulartasunak aztertzeko eta zenbaki serieetatik adierazpen sinbolikoak lortzeko, baita serie horien joera ere. Erabilitako estrategiak eta notazioa ere ebaluatu egingen dira.

2. Batuketa, kenketa, biderketa, zatiketa eta potentziez osatutako adierazpen aljebraikoak sinplifikatzea.

Egiaztatu nahi da adierazpen aljebraikoak ongi erabiltzen dituztela, horiekin eragiketak egingen dakitela, biderkadura notableak eta Ruffiniren erregela ongi erabiltzen dituztela eta zati aljebraikoak sinplifikatzen dituztela.

3. Hainbat motatako ekuazio eta sistemak ebaztea.

Bermatu behar da ikasleek trebezia eta arintasuna lortuko dutela hainbat motatako ekuazioak (polinomikoak, erroak dituztenak, esponentzialak, logaritmikoak, trigonometrikoak) eta ekuazio sistemak ebazteko. Erabiltzen dituzten estrategiak baloratuko dira.

4. Egoerak eta egitura matematikoak adierazi eta aztertzea, ikur eta metodo aljebraikoak erabiliz, problemak ebazteko.

Irizpide honen bidez egiaztatu behar da ikasleak gai direla aljebra sinbolikoaren bidez erlazio matematikoak adierazi eta azaltzeko eta aljebra sinbolikoaren metodoak erabiltzeko problemen ebazpenean, inekuazio, ekuazio eta sistemen bitartez.

5. Egiazko egoeretan zuzeneko eta zeharkako neurriak lortzeko tresna, formula eta teknika egokiak erabiltzea.

Egiaztatu nahi da ikasleek estrategia egokiak garatu dituztela magnitude ezagunetatik abiatuta magnitude ezezagunak kalkulatzeko, eskura dituzten neurketa-tresnak erabiltzeko, formula egokiak aplikatzeko eta proposaturiko neurketari dagozkion teknika eta trebetasunak garatzeko. Egiaztatu behar da, halaber, ongi erabiltzen dituztela sistema metriko hiru-rogeitarreko angelu unitateak eta trigonometria elementaleko erlazioak eta arrazoiak tes-tuinguru errealeko problema trigonometrikoak ebazteko, kalkulagailu zientifikoa erabiliz, behar izanez gero.

6. Geometria analitiko lauko kontzeptu eta prozedura oinarrizkoak ezagutzea eta forma zein konfigurazio geometriko sinpleak irudikatu, deskribatu eta aztertzeko erabiltzea.

Ebaluatu nahi da ea ikasleek zenbateko gaitasuna duten puntu eta bektoreen koordena-tuen arteko korrespondentzia analitikoak ezartzeko, eta horiek erabiliz bi punturen arteko

distantzia edo bektore baten modulua kalkulatzeko eta zuzenaren ekuazio orokor eta esplitua ezagutu eta lortzeko, eta horiek intzidentzia eta paralelismo kondizioen azterketa analitikoan erabiltzeko.

7. Erlazio kuantitatiboak identifikatzea egoera jakin batean, horiek adieraz ditzakeen funtzio mota zehaztea, eta batez besteko aldakuntza tasa hurbildu eta interpretatzea grafiko baten bidez, zenbakizko datuen bidez edo adierazpen aljebraikoko koefizienteen azterketaren bidez.

Irizpide honen bidez ebaluatu nahi da ea ikasleak gai diren fenomeno jakin bati dagokion eredia bereizteko, ikasitako ereduaren artetik (lineala, koadratikoa, alderantzizko proportzionaltasunekoa, proportzionaltasun esponenzialekoa edo proportzionaltasun logaritmikokoa edo trigonometrikokoa), eta zentzuzko ondorioak ateratzeko hari lotutako egoeratik; azterketa hori egiteko informazioaren teknologiak erabili behar dituzte, behar izanez gero. Gainera, grafiko baten edo taula bateko zenbakizko balioen portaera ikusirik, aztergai den fenomenoari buruzko ondorioak ateratzeko gaitasuna baloratuko da. Horretarako, ikasleek batez besteko aldakuntza tasaren hurbilketa eta interpretazioa egin beharko dituzte, datu grafikoak, zenbakizko datuak edo adierazpen aljebraikoaren balio jakinak oinarri hartuta.

8. Funtzioak grafikoaren bidez interpretatu eta irudikatzea.

Ebaluatu nahi da ea ikasleak gai diren funtzio baten domeinua, ardatzekiko ebakiguneak, albo-limiteak, jarraitutasuna, asintotak etab. grafikoki interpretatzeko, eta funtzio baten grafikoa marrazteko, haren adierazpen aljebraikoa edo beste baldintza batzuk jakinik. Horretarako, behar izanez gero, kalkulagailua edo beste tresna batzuk erabiliko dituzte.

9. Taula eta grafiko estatistikoak egin eta interpretatzea, eta bai dimentsio bakarreko banaketetan maizenik izaten diren parametro estatistikoak ere, eta erabilitako laginen adierazgarritasuna kualitatiboki baloratzea.

Maila honetan esanahi berezia hartzen dute datu eskuragarrien azterketa kualitatiboak eta parametro estatistikoak batera erabilia atera daitezkeen ondorioek. Gainera, lortu nahi da ikasleek kontuan har ditzatela lagina hautatzeko prozeduraren adierazgarritasuna eta baliozkotasuna, eta ikerlanaren ondorioak populazio osoari aplikatzea egokia ote den azter dezatela.

10. Probabilitate kalkuluaren kontzeptuak eta teknikak aplikatzea eguneroko bizitzako arazo eta egoerak ebazteko.

Ikasleek gai izan behar dute lagin-espazioa identifikatzeko esperientzia bakunetan eta esperientzia konposatu xumeetan, eguneroko bizitzako ingurune jakinetan, eta Laplaceren legea, zuhaitz-diagramak, kontingentzia taulak edo zenbatzeko teknika kombinatorioak erabili behar dituzte probabilitateak kalkulatzeko. Gainera, lortutako emaitzak baliatu behar dituzte zentzuzko erabakiak hartzeko, planteatutako problemen testuinguruan.

- 11. Problema ebazteko arrazoitze-prozesu eta estrategiak planifikatu eta erabiltzea (adibidez, orokortzea, edo hipotesiak eman eta justifikatzea), eta arrazoibideak, erlazio kuantitatiboak eta elementu matematikoak dituzten informazioak ahoz nahiz idatziz adieraztea, zehaztasun eta zorrotasunez, horretarako hizkuntza matematikoak eskaintzen dituen baliagarritasuna eta sinpletasuna baloratu.**

Ebaluatu behar da ea ikasleak gai diren problema ebazteko bidea planifikatzeko, erlazio matematikoak ulertzeko eta hipotesiak asmatu eta egiaztatzeke, beren gaitasunaz eta intuizioaz fidaturik. Gainera, aintzat hartuko da kantitateak, neurriak, zenbakizko erlazioak edo erlazio espazialak dituzten mota guztietako informazioak adierazteko erabiltzen den hizkuntzaren zehaztasuna eta zorrotasuna, baita problema ebazteko erabiltzen diren estrategiak eta arrazoibideak ere.

Sarrera

Azken mendeetan gizartean izandako aldaketak, neurri handian, zientziak eta zientzialarien lanak ekarritako aurrerapenei zor zaizkie, batez ere osasunarekin, ingurumenarekin eta garapen teknologikoarekin zerikusia duten arloetan.

Mundu gero eta teknologikoago honetan ez da irakurmena bakarrik garrantzia duena, herritarrek gaitasun zientifikoa ere behar baitute. Gaitasun zientifikoa garrantzitsua da gizarte modernoek ingurumen, medikuntza eta ekonomia arloetan dituzten arazoak eta bestelakoak ulertzeko. Izan ere, gaurko gizarteek izugarritzko mendekotasuna dute aurrerapen teknologiko eta zientifikoarekiko. Gainera, herrialde bateko ikaslerik onenek zientzia irakasgaietan lortzen duten errendimenduak eragina izan dezake herrialde horrek noizbait teknologia aurreratuen sektorean izanen duen lekua eta, oro har, nazioartean izanen duen lehiakortasuna erabakitzerakoan. Behar adinako gaitasun matematiko eta zientifikorik ez izateak, aldiz, pertsonen lanerako aukerak eta aukera ekonomikoak murriztu ditzake, baita gizartean bete-betean parte hartzeko ahalmena ere.

Fisika eta Kimika, jakintza zientifikoa osatzen duten gainerako adarrekin batera, gaur egun ezinbestekoak dira analfabeto funtzionala izan nahi ez duen gizarte batentzat, hainbat arrazoi tarteko:

- Fisika eta Kimika kultura orokorraren zati dira, kultura, hiztegiak dioen bezala, ezagutza zientifiko, historiko, literario eta artistikoen multzoa baita.
- Egungo garapen sozial, ekonomiko eta teknologiko ulertzeko oinarriak ematen dizkigute. Garapen horri esker pertsonen bizitza gero eta luzeagoa eta hobea da.
- Aberastasun pertsonal nabarmena dakarte, espiritu kritikoa piztu eta hura garatzen laguntzen baitute.
- Gizarte balioak moldatzen dituzte, hain zuzen ere beren izaera sozialarengatik.

- Lan zientifikoaren nondik norakoak ulertzeko oinarriak ematen dituzte. Hala, ikasleak metodologia zientifikoa ezagutu eta praktikatzera bultzatzen dituzte.
- Pertsonen irizpideak ematen dizkiete gaurko gizarteko gai nagusietako asko ulertzeko: klima aldaketa, iraunkortasun energetikoa etab.
- Lan aterabide askoren oinarri dira, bai heziketa zikloak egiten dituztenentzat bai unibertsitate ikasketak egiten dituztenentzat.

Beraz, alfabetatze zientifikoa beharrezkoa da etorkizuneko herritarrei edota etorkizuneko zientzialariei prestakuntza ematen laguntzeko. Ikasle horiek gaurko munduan moldatzen jakin beharko dute eta zientziak beren bizitza pertsonal eta profesionaletan eta gure gizarteetan betetzen duen eginkizun garrantzitsuaz jabetu beharko dute. Etorkizuneko herritarrei prestakuntzak zientziarekin eta teknologiarekin zerikusia duten gaietan hausnartzea eta erabaki egokiak hartzea ahalbidetu behar die, haiei buruzko kontzientzia kritikoa garatzen laguntzeko, eta bai haien ahalmen eskerga bai haien mugak erakutsi behar dizkie. Alfabetatze zientifikoaren prozesuan, zientziaren kontzeptuak edo gertaera berariazkoak ezagutu eta ulertu ez ezik, zenbait prozedura ikasi behar dira eta zeregin zientifikoari dagozkion jarrerak garatu behar dira.

“Fisika eta Kimikan sakontzen” irakasgaiak ikasleei zientzia eta kultura prestakuntza nahikoa eskaintzen die XXI. mendeko munduan ongi moldatzeko. Gainera, behar duten oinarriak ematen die Zientzia eta Teknologia modalitateko Batxilergoko berariazko irakasgaiak ikasteko.

Laugarren kurtsoko “Fisika eta Kimikan sakontzen” irakasgaiko I. multzoa, “Lan zientifikora hurbiltzea” izenekoa, komuna da, beste guztietan ere ematen baita. Lan zientifikoaren alderdi nabarmenetako batzuen ezagutzan eta aplikazioan sakontzea du xede. Eduki horiek testuinguruan integratu behar dira curriculumean zehar.

Prozedurazko edukiak, Fisikan eta Kimikan, barnean hartzen dituzte ikerketa zientifikoaren metodologiarekin zerikusia duten estrategiak, teknikak, trebetasunak eta abileziak. Prozedurazko eduki horiek gai bakoitzeko kontzeptuzko eta jarrerazko edukiekin batera ikasten dira. Prozedura horiek ikasteak honelako gaitasunak garatzea ahalbidetzen du: behatzea, deskribatzea, alderatzea, sailkatzea, hipotesiak egitea, aldagaiak kontrolatzea... Horiek bide ematen dute Fisikaren eta Kimikaren estrategia, teknika eta baliabide berariazkoak aplikatzeko, hala nola landa-lanak, behaketa eta saiakuntza lan praktikoak, elkarrizketa, fitxekin edo ikasketa-gidekin egiten diren lanak, laborategiko materiala neurketak edo ikerketa txikiak egiteko erabiltzea, etab. Jarrerazko edukiak barnean hartzen dituzte balioak, arauak eta jarrerak. Eduki horiek kontzeptu eta prozedurekin batera garatzen dira. Gogoetazalea, kritikoa, solidarioa, saiatua izaten ikasi behar da.

Hurrengo multzoetan, hain zuzen ere II. multzoan, “Indarrak mugimendu aldaketen eragile”, eta III. multzoan, “Energia, lana eta beroa”, mugimendua, indarrak eta energia aztertzen dira ikuspegi mekanikotik; multzo horiek erakusten dute nolako hastapen zaila izan zuen zientzia modernoak eta nola hautsi zuen “zentzu komunaren” arabera ikuskera sinplistikin. Eduki horiek ez dira formula eta kalkulu multzo batzuen aplikazio mekaniko soiltzat hartu behar. Aitzitik, errealitatea ahalik eta zehatzen deskribatu, ulertu eta aztertu behar da, erreferentia izan da-

din ikasleen helduaroan, eta aurreragoko ikasketetan edo kalean jasoko dituzten informazioak interpretatzen lagun diezaien. Mugimenduaren izaera erlatiboa ulertarazi behar da, eta gure inguruan gertatzen diren mugimenduen behaketa eta azterketa sustatu. Esanahi zientifikoaren eta lagunarteko hizkerako esanahiaren arteko aldea atzeman behar da.

Bestalde, IV. multzoan, "Atomoa eta aldaketa kimikoak" izenburukoan, sakonean aztertzen dira egitura atomikoa, lotura kimikoa eta kimika organikoa, materiaren antolaketa-maila hori funtsezkoa baita bizi prozesuetan, eta karbonoaren konposatuek bai izaki bizidunetan bai eguneroko erabiltzen ditugun materialetan duten garrantzia baloratzen da. Erreakzio kimikoen atalean, nabarmendu behar dira aldaketa fisikoaren eta kimikoaren arteko bereizketa, erreakzio kimikoaren eredu bat eta erreakzio kimikoen legeak, eta nola ulertu eta baloratu behar diren eguneroko zenbait erreakzio kimiko, osasunarekin, industriarekin eta ingurumenarekin zerikusia dutenak.

Curriculum honetan Fisika eta Kimika irakatsi eta ikasteko hautatu den ereduan ikasleen gaitasunak garatu nahi dira eta prestakuntza eman nahi zaie eskolan ikasitakoak eguneroko bizitzara eramateko, eguneroko gertaera eta fenomeno interesgarriak arakatzeko, arazoak analizatzeko, behatzeko eta informazio jakingarria bildu eta antolatuzeko. Arazoen ikerketak pertsonaren oinarrizko gaitasunak bizkortuko ditu: irakurri eta ulertzea, gogoeta egitea, problemak identifikatzea, hipotesiak ematea, problema ebazteko lan plana egitea, emaitzak jasotzea eta ondorioen baliozkotasun-eremua egiaztatzea, etab. Problemen ebazpena zientzia fisiko-kimikoetako jardueraren ardatz nagusitzat hartuta, ikasleei erraz ulertaraziko zaie garrantzitsua dela zer egiten duten eta nola egiten duten pentsatzea.

Oinarrizko gaitasunak lortzeko ekarpena

Fisika eta Kimikako edukiak ikasten direnean ezinbesteko prestakuntza oinarrizkoa lortzen da aurrerapen zientifiko eta teknologikoen eragindako arazo lokal eta global larrien inguruko erabakiak hartzen parte hartzeko.

Fisika eta Kimikan Sakontzen irakasgaiak pentsamendu zientifikoarekin zerikusia duten trebetasun eta abileziak garatzen eta aplikatzen laguntzen du. Trebetasun horiek beharrezkoak dira mundu aldakor honetan jasotzen den informazioa interpretatzeko; munduan egiten diren aurrerapenek eragin erabakigarria dute pertsonen bizitzan, gizartean eta naturan. Irakasgai honen bidez ikasleek bizitzako arlo askotan (osasuna, kontsumoa, garapen zientifiko-teknologikoa etab.) ongi moldatzeko behar dituzten trebetasunak garatzen dituzte, eta, horrez gain, inguratzen dituen mundua interpretatzen ahal dute, jakintza zientifikoaren oinarrizko kontzeptu eta printzipioen aplikazioa dela medio.

Fisika eta Kimikan Sakontzen irakasgaiak matematikako gaitasuna lortzen laguntzen du eta agerian jartzen du matematikako ikasketen izaera funtzionala. Hizkuntza matematikoak mundu fisikoko fenomenoak kuantifikatzea ahalbidetzen du; izan ere, jakintza zientifikoaren izaerak hala eskaturik, magnitude adierazgarriak definitu behar dira, aldagaiak erlazionatu, definizio

operatiboak ezarri, lege kuantitatiboak eta unitate aldaketak formulatu, datu eta grafikoak interpretatu eta irudikatu, eta ondorioak atera behar dira. Baliabide matematiko horiek beharrezkoak dira gorputzen mugimendu motekin, energia trukeekin eta erreakzio kimikoekin zerikusia duten edukiei ekiteko.

Era berean, lan zientifikoak modu bereziak ditu informazioa bilatu, bildu, hautatu, landu eta aurkezteko eta, gainera, informazioa modu desberdinetan erabil daiteke: ahoz, zenbakiz, ikur edo grafikoaren bidez. Horrekin guztiarekin zerikusia duten edukiak erantsiz gero, irakasgai horiek *informazioaren tratamendurako gaitasuna eta gaitasun digitala* garatzen laguntzen dute. Hala, gaitasun hori errazago lortuko da baldin eta ikasteko baliabide eraginkorrak (hala nola eskemak, mapa kontzeptualak, laborategiko txostenen, interes zientifiko eta teknologikoko testu eta abarrekoen ekoizpena eta aurkezpena, etab.) erabiltzeko trebeziak hobetzen badira.

Beste alde batetik, Fisika eta Kimika lagungarriak dira, halaber, gaitasun digitalaren garapenean: informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzen dira komunikatzeko, informazioa eskatzeko, informazioa gehitzeko, datuak lortu eta lantzeko, laborategira ezin ekarri diren fenomenoak simulatu eta bistaratzeko; adibidez, eredu atomikoak irudikatzen edo erreakzio kimikoak bistaratzeko ahal dira. Baliabide erabilgarria da zientzia esperimentalen eremuan eta berari esker jarduera zientifikoaren ikuspegi eguneratua erakuts daiteke.

Gaitasun sozialari eta herritartasunari Fisikak eta Kimikak bi aldetatik egiten diote ekarpena. Lehenik, etorkizuneko gizarte demokratikoko herritarren alfabetatze zientifikoak erabaki arrazoituetan parte hartzen ahalbidetuko die, gizartean eztabaida eragiten duten intereseko arazoaren aurrean. Bigarrenik, zientziaren aurrerapenerako funtsezkoak izan diren zenbait eztabaida nola sortu eta amaitu diren badakigu eta horrek laguntzen digu lehengo gizartearen bilakaera ulertzen eta oraingo gizartea aztertzen. Zientziaren historiak baditu zenbait itzalgune eta ez dira ahaztu behar; hala eta guztiz ere, zientziaren bitartez giza adimena askatu da eta giza eskubiak hedatu egin dira. Alfabetatze zientifikoaren herritarren kulturaren oinarriko dimentsioa da eta, era berean, zehaztasun printzipioaren aplikazioa bermatzen du. Printzipio horren oinarrian gizartearen sentsibilizazioa dago, jendea gero eta kezkatuago baitago garapen zientifiko eta teknologikoak pertsonentzat edo ingurumenerako ekar ditzakeen arriskuen aurrean. Gainera, lan zientifikorako trebetasunak eta gaitasunak landu ahala, gaitasun horren garapenean funtsezkoak diren jarrerak eta balioak eskuratzen dira, hala nola zorroztasuna, objektibotasuna, kritikarako gaitasuna, zehaztasuna, lankidetzak, errespetua etab.

Hizkuntzaren bidez komunikatzeko gaitasunari dagokionez, irakasgai honek gaitasuna lortzeko bi bide erabiltzen ditu. Alde batetik, fenomeno naturalen inguruko ideia eta informazioak landu eta transmititzeko, funtsean azalpena, deskripzioa eta arrazoitzea oinarri dituen diskurtsoa egiten da. Hala, Fisika eta Kimika ikastearen kontzeptuen arteko loturak azaltzen dira, behaketa eta prozedura esperimentalak deskribatzen dira, ideia, hipotesi edo teoria kontrajarriak eztabaizatzen dira eta emaitza eta ondorioak jakinarazten dira. Hori guztia egiteko, termino zehatzak erabili behar dira, ideiak modu egokian lotu behar dira, eta emaitzak (laborategiko txostenak, biografia zientifikoak, problemen ebazpenak, azalpenak etab.) koherentziaz aurkeztu behar dira, ahoz zein idatziz.

Bestalde, Fisika eta Kimikako terminologiak esanahi bereziak ematen dizkie lagunarteko hizkuntzako terminoei, beharrezkoak baitira fenomeno naturalak aztertzeke. Terminologia hori ikasita, modu egokian komunikatzen ahal da giza esperientziaren zati guztiz garrantzitsu bat eta besteek hari buruz diotena ulertzen ahal da.

Historiak erakusten duenez, zientziaren aurrerapena eta bizi baldintzak hobetzeko zientziak egin duen ekarpena ikasten ikasteko gaitasunarekin zerikusia duten jarrerari zor zaizkie: ardurari, jarraitutasunari, ikasteko gogoari, eta akatsa ikasbidetzat hartzeari. *Ikasten ikasteko gaitasunaren* garapena jakintza zientifikoa eraikitzeke moduari lotuta dago. Metodologia zientifikoaren zenbait alderdik parekotasun handia dute norberaren ikasketa arautzeke gaitasunari lotutako trebetasunen multzoarekin. Hona trebetasun horietako batzuk: galderak egitea, zereginen sekuentzia ezartzea helburu bat lortzeke, lan metodoa zehaztea, elkarlana egiten denean zereginak banatzea, eta, azkenik, jarraitutako prozesuaren eraginkortasunaz jabetzea. Eskuratutako ezagutzak egoera antzekoei edo desberdinei aplikatzen zaizkienean lortzen da ikasten ikasteko gaitasuna.

Fisika eta Kimika irakasgaiak *autonomia eta ekimen pertsonala* garatzen laguntzen du. Gaitasun hori areagotu egiten da irizpidez horniturik aurre egiten zaienean arazo irekiei, zeinetan erabaki pertsonalak hartu behar baitira konponbidea bilatzeko. Espiritu kritikoa ere sustatzen da, historian zehar zientziaren aurrerabidea oztopatu izan duten dogmatismo eta aurreiritziak ezbaian jartzen direnean. Norberaren ekimena garatu egiten da zenbait egoeratan eragina duten faktoreak eta aurreikusten ahal diren ondorioak aztertzen direnean. Planteatzen diren problema zientifikoak modu desberdinetan eta estrategia pertsonal desberdinak erabiliz ebazten ahal dira. Lan zientifikoak berezko duen pentsamendua, hala, beste egoera batzuetara eraman daiteke, eta hori lagungarria da aipatu gaitasuna lortzeke.

Helburuak

Fisika eta Kimikan Sakontzen irakasgaiaren xedea honako gaitasunak garatzea izanen da:

1. Fisika eta Kimikako oinarrizko kontzeptuak eta estrategiak ulertu eta erabiltzea fenomeno naturalak zientifikoki interpretatzeko, baita ezagutza zientifiko eta teknologikoen aplikazioak eta osasunaren, ingurumenaren eta bizi kalitatearen gainean horiek duten eragina aztertu eta baloratzeko ere.
2. Problema ebazteke orduan, Fisika eta Kimikako prozedurekin bat datozen estrategia koherenteak aplikatzea: planteatutako problema identifikatu eta aztertu, haren interesa eztabaiatu, hipotesiak eman, horiek erkatzeke jarduerak planifikatu eta egin, ebazpenerako estrategia prestatu, emaitzak sistematizatu eta aztertu, ondorioak atera eta jakinarazi.
3. Mezu zientifikoak ulertu eta adieraztea eta, horretarako, ahozko eta idatzizko hizkuntza zuzen erabiltzea, diagramak, grafikoak, taulak, adierazpen matematikoak eta beste irudikapeneredu batzuk interpretatzea, eta zientziaren eremuan beste pertsona batzuei arrazoibideak azaltzea.

4. Zientzia gaiei buruzko informazioa aukeratzea, hainbat iturri erabiliz, besteak beste informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, eta informazio hori erabiltzea, beraren edukia baloratzuz, interes zientifiko eta teknologikoko gaiei buruzko lanak oinarritu eta bideratzeko.
5. Gai zientifiko eta teknologikoak aztertzeo funtsezkoak diren jarrera kritikoak hartzea; Fisikarekin eta Kimikarekin zerikusia duten jarduerak planifikatzen eta egiten parte hartzea bakarka zein taldean, norberaren eta besteen ekarpenak baloratzuz, ezarritako helburuen arabera.
6. Gizakiaren beharrak asetzeko eta tokian tokiko arazoen nahiz arazo orokorren inguruan erabakiak hartzen parte hartzeko orduan oinarritzko prestakuntza zientifikoak zenbateko garrantzia duen ulertzea.
7. Fisikak eta Kimikak teknologiarekin, gizartearekin eta ingurumenarekin dituzten loturak ezagutu eta baloratzea, eta egun gizadiak dituen arazo nagusiei eta irtenbideak bilatu beharri arreta berezia jartzea, betiere zuhertasun printzipioa kontuan hartuta, garapen iraunkorerrantz aurrera egiteko.
8. Jakintza zientifikoa etenik gabe osatzen eta berrikusten ari dela eta historian zehar unean uneko gizartearen ezaugarri eta beharrei loturik dagoela ohartzea, eta dogmatismoak gainditu izan dituzten eztabaida handiak aintzat hartzea.

Edukiak

Fisika eta Kimika ikasteko, ikasleek jarduera zientifikoaren oinarritzko estrategiak ezagutu behar dituzte eta estrategia horiek kontuan hartu behar dira eduki multzo guztietan. Besteak beste, honakoak dira: problemak planteatu eta haien interesa eztabaidatzea, hipotesi, estrategia eta saiakuntza-diseinuak egitea, emaitzak aztertu, interpretatu eta jakinaraztea; informazio zientifikoa bilatu eta aukeratzea, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak eta beste iturri batzuk erabiliz; informazio zientifikoa interpretatzea eta informazio hori erabiltzea norberaren iritzia osatzeko, zehaztasunez mintzatzea eta erabakiak hartzea Fisikarekin eta Kimikarekin zerikusia duten arazoei buruz; Fisikak eta Kimikak teknologiarekin, gizartearekin eta ingurumenarekin dituzten loturak ezagutzea, egindako ikasketek izan ditzaketen aplikazioak eta ondorioak aintzat hartzea; laborategiko material, substantzia eta oinarritzko tresnak behar bezala erabiltzea eta bertako segurtasun arauak betetzea.

I. multzoa. *Lan zientifikora hurbiltzea*

- Metodo zientifikoaren atarian. Metodo zientifikoa: etapak. Txosten zientifikoa.
- Magnitudeen neurketa. Nazioarteko unitate sistema. Neurketa gutxi gorabeherakoa da. Sentikortasuna eta zehaztasuna. Zifra esanguratsuak. Notazio zientifikoa.
- Datuak taula eta grafikoetan aztertzea. Laborategiko lana.

II. multzoa. *Indarrak mugimendu aldaketan eragile*

- Mugimendua eta erreferentzia-sistema. Ibilbidea eta posizioa. Desplazamendua eta ibilitako espazioa. Abiadura eta azelerazioa. Mugimendua deskribatzeko behar diren magnitudeen izaera bektoriala. Azelerazioaren osagai intrintsekoak eta horiek abiadura aldaketekin duten erlazioa. Mugimendu zuzen uniformeki azeleratuaren azterketa. Mugimendu zuzen uniforme-ki azeleratuaren azterketa. Mugimendu zirkular uniformearen azterketa.
- Gorputzen arteko eraginak: indarrak. Indar motak. Norabide bereko indarren eta indar angeluarren konposizioa eta deskonposizioa. Dinamikaren legeak. Marruskadura-indarraren tratamendu kualitatiboa. Grabitazioa. Gorputzen pisua.
- Indarrak fluidoan barrenean. Presio hidrostatikoa eta atmosferikoa. Aplikazioak. Pascal eta indarraren biderkatzea. Arkimedesen printzipioa.

III. multzoa. *Energia, lana eta beroa*

- Lan kontzeptua. Unitateak. Lan mekanikoa. Potentzia kontzeptua. Unitateak.
- Energia mekanikoa. Energia trukea. Energiaren kontserbazioaren printzipioa.
- Beroa eta energiaren transferentzia. Beroak gorputzen gainean dituen ondorioak. Tenperatura. Eskalak eta termometroak.

IV. multzoa. *Atomoa eta aldaketa kimikoak*

- Egitura atomikoa. Zenbaki atomikoa eta masa atomikoa. Elementu kimikoen antolamendua. Lotura kimikoa, elementuek Sistema Periodikoan duten kokapena oinarri.
- Kimika ez-organikoko konposatu bitar eta hirutarren formulazioa eta nomenklatura IUPACen arauari jarraituz. Azido oxoazidoen eta horien gatz nagusien formulak eta izenak. Konposatu organiko sinpleen formulazioa: hidrokarburoak, alkoholak, azido organikoak.
- Masa molekularra. Substantzia kantitatea, eta horren unitatea, mola.
- Erreakzio kimikoak: oinarrizko alderdiak. Erreakzio-beroa. Exotermia eta endotermia kontzeptuak. Oxidazio eta erredukzio erreakzioak. Azido/base erreakzioak: neutralizazioa. pH kontzeptua eta pH-aren adierazleak. Erlazio estekiometrikoak eta bolumetrikoak erreakzio kimikoetan.

Ebaluazio irizpideak

1. Metodologia zientifikoaren oinarrizko elementuak zientziak ikasteko lanei aplikatzea.

Irizpide honen bidez jakin nahi da ea ikasleek, edukiak ikasten dituztenean, zientzialarien lanaren bereizgarri diren alderdietako batzuk garatzen ote dituzten, hala nola egoera arazotsuen planteamendua, hipotesien formulazioa, esperientzien diseinua eta horien emaitzen azterketa eta jakinarazpena.

2. Oinarrizko algoritmo egokiak edo bestelako prozedurak erabiltzea problemak ebazteko eta unitate aldaketarako trebetasunak garatzea. Problema bat ebazteko egindako prozesua ahoz azaltzea.

Irizpide honen bidez baloratu nahi da ea ikasleak problemen enuntziatuak ulertzen dituen, hautatzeko gaitasuna duen eta ebatzi beharreko egoerari algoritmo egokia aplikatzen dion. Honakoak baloratuko zaizkio: problema ebazteko prozesuan erakusten duen heldutasuna, jarraitutako prozesua ahoz azaltzeko eta lortutako emaitza baloratzeko gai den, eta unitate egokiak erabiltzen dituen, honelako jarduerak ez daitezen mugatu erregela, eragiketa edo algoritmoen erabilera mekanikora.

3. Txukuntasun, garbitasun, zehaztasun eta segurtasunez aritzea zientziak ikasteko lanetan, bai eta modu esperimentalean egiten diren gainerakoetan ere.

Irizpide honen bidez jakin nahi da ikasleek zenbateraino lortu dituzten Zientziaren jardunbidea ulertzeko eta gero eta hobeki jarduteko gaitasuna lortzen lagunduko dieten trebetasunak. Garrantzitsua da egiaztatzea ea beren saiakuntza-lanetan aparatuak, tresnak, substantziak eta energia iturriak erabiltzeko ezarritako arauak ezagutu eta betetzen dituzten, jarrera positiboa ote duten ikerketa lanari buruz, eta behar bezala erabiltzen dituzten laborategiko materialak eta oinarrizko tresnak, hala bakarka nola taldean.

4. Informazio zientifikoa biltzea hainbat iturritatik, eta azalpenak egitea ahoz, idatziz edo irudien bidez, modu egokian, adierazpenaren zuzentasuna kontuan izanik eta zientzia esperimentalei dagokien lexikoa erabiliz.

Jakin nahi da ea ikasleek informazio zientifiko garrantzitsua bildu eta ateratzen duten hainbat iturritatik: dokumentuetatik, ahozko transmisioaren bidez, ikus-entzunezkoetatik, baliabide informatikoetatik eta abarrekoetatik. Egiaztatu nahi da ikasleek gorde eta interpretatu egiten dituztela bildutako datuak, horretarako taulak, eskemak, grafikoak, marrazkiak etab. erabiliz. Halaber, begiratu behar da ea ongi antolatzen eta erabiltzen duten bildutako informazioa, eztabaida eta azalpenetan parte hartuz, ea kontuan hartzen duten adierazpenaren zuzentasuna, eta Fisika eta Kimikako lexiko berezia erabiltzen duten, baita sinbologia zientifikoa eta Nazioarteko Sistemako magnitude eta unitateak ere.

5. Mugimenduak deskribatzeko erabili behar diren magnitudeak ezagutzea, eta ezagutza horiek eguneroko bizitzako mugimenduei aplikatzea.

Egiaztatu behar da ikasleek posizio, abiadura eta azelerazio kontzeptuak ulertzen dituztela, mugimenduaren grafikoak egiten eta interpretatzen dakitela eta segurtasun tartea edo batez besteko abiadura bezalako esapideak ulertzen dituztela. Halaber, egiaztatuko da mugikarien mugimendu uniformearen edo aldakorraren gaineko problema interesgarriak ebazten dakitela eta mugimendua deskribatzeko magnitude nagusiak zehazteko gai direla.

6. Mugimendu aldaketan eragile gisa indarrek duten zeregina identifikatzea, eguneroko bizitzan dauden indar nagusiak ezagutzea, eta kontzeptu horiek pausaguneko fluidoetan dauden indarrei aplikatzea.

Ebaluatu nahi da ea ikasleek badakiten elkarrekintza moduan interpretatzen objektuen gainean diharduten indarrak, eta ez gorputz isolatuen propietate moduan, eta ea indarrak mugimendu aldaketekin erlazionatzeko gai diren zentzu komunak kontrakoa agindu arren. Halaber, baloratu behar da ea badakiten identifikatzen eguneroko egoeretan diharduten indarrak, eta Newtonen legeak ulertzen dituzten eta beren inguruko dinamika-problemei aplikatzen dizkieten.

Gainera, egiaztatu behar da ikasleek Pascalen eta Arkimedesen printzipioak beren aplikazio teknologikoekin erlazionatzen dituztela.

7. Energiaren kontserbazioaren printzipioa eguneroko bizitzako energia-erlaketak ulertzeko erabiltzea, eta lana eta beroa energia transferitzeko moduak direla jakitea. Energia iturrien lorpenari eta erabilerari lotutako arazoak aztertzea.

Irizpide honen bidez jakin nahi da ikasleek lan, bero eta energia kontzeptuei eta horien arteko harremanei buruz taxuzko ikusmoldea duten, eta gai ote diren energia era guztiak (batez ere, zinetikoa eta potentzial grabitatorioa) eta horien propietateak ulertzeko, eta zenbait problema errazetan energiaren kontserbazioaren legea aplikatzeko. Ebaluatu nahi da, gainera, ea badakiten oreka termikoko egoera zehazten, eta hainbat materialen artean zein erabili behar den erabakitzen, haien bero espezifiko kontuan izanik.

8. Elementu kimiko nagusien ezaugarriak identifikatzea, beste elementu batzuekin elkartzean izanen duten portaera kimikoa iragartzea eta horrela sortuko diren substantzia simple eta konposatuen propietateak azaltzea.

Irizpide honen bidez egiaztatu nahi da ikasleek atomoetako elektroiek geruzetan banatzen dakitela, taula periodikoaren egitura justifikatzeko, eta zortzikotearen erregela aplikatzen dutela lotura ionikoaren, kobalentearen eta metalikoaren ereduak azaltzeko. Era berean gai izan behar dute eredu horien bidez kualitatiboki azaltzeko substantzien sailkapena, haien propietate fisiko nagusien arabera: urtze eta irakite tenperaturak, eroankortasun elektrikoa eta disolbagarritasuna uretan.

Gainera, ebaluatu behar da ea ikasleek badakiten izendatzen eta formulatzen interesekoak diren substantzia ez-organiko sinpleak, IUPACen arauak erabiliz.

9. Substantzia kantitatea zer den ulertzea, ekuazio kimikoak interpretatzea eta estekiometriako kalkuluak egitea.

Egiaztatu nahi da ikasleek behar bezala idazten eta doitzen dituztela prozesu kimiko sinpleen deskripzioetan eta enuntziatuetan agertzen diren ekuazio kimikoak. Ebaluatu behar da, orobat, ea gai diren mol kopurua erreazioan diharduten errektiboan edo produktuen masurekin erlazionatzeko, ekuazio kimikoa aztertu eta gero.

Gainera, egiaztatu behar da ikasleek badakitela kalkulatzeko erreakzio kimiko batean diharduten erreaktiboaren eta produktuen masak, kontuan izanik masa kontserbatu egiten dela eta substantziak beti proportzio berean konbinatzen direla, eta kalkulu horiek aplikatzen dituztela intereseko zenbait prozesutan, zeinetan disoluzioek, erreaktibo soberakinek edo erreaktibo ez-puruek esku hartzen duten. Horrez gain, intereseko zenbait erreakzioen abiadura nola azkartu edo moteldu daitekeen deskribatu behar dute, eta disoluzioak azidoak edo basikoak diren jakin behar dute haien pH-aren arabera.

10. Konposatu organikoen ugaritasuna, makromolekulen eraketa eta makromolekulek biziduentzat duten garrantzia justifikatzea.

Ebaluatu behar da ea ikasleek ulertzen duten karbono atomoak konbinazio aukera izugarriak dituela. Halaber, konposatu organiko sinpleen formula garatuak idazteko gai izan behar dute (hidrokarburoak, alkoholak, azido organikoak etab.). Egiaztatu behar da, gainera, ikasleek ulertzen dutela nola eratzen diren interes biologiko eta industrialeko makromolekulak.

11. Hidrokarburoen errekontza-erreakzioen aplikazio energetikoak ezagutzea eta berotegi efektuaren gehikuntzan duten eragina kontuan hartzea.

Irizpide honen bidez ebaluatu nahi da ea ikasleek badakiten petrolioa eta gas naturala erregai fosilak direla eta ikatzarekin batera gaur egun gehien erabiltzen diren energia iturriak direla. Halaber, energia iturri horiek agortzen ari direla ba ote dakiten baloratuko da, eta haien errekontzak ingurumenean sortzen dituen arazoez eta hauek saihesteko neurriak hartu beharraz jabeturik ote dauden.

Azkenik, baloratu nahi da ea badakiten erregai fosilekiko mendekotasun energetikoa dagoela eta, ondorioz, zaila dela berotegi efektuko gasen igorpenari buruzko nazioarteko akordioak betetzea.